

Jagon bilduma

Argitaratutako lanak / Títulos publicados:

1. *Bertsolari txapelketa 1982*. 1983
2. ZZ.EE./AA.VV.
Iparragirre. 1987
3. *Euskararen sustatzea*.
Euskaltzaindiaren adierazpenak (1976-2018). 2018
4. MIQUEL GROS I LLADÓS
Recuperación del Euskera en Navarra. 2007
5. EUSKALTZAINDIA - JAGON SAILA
Sustapen Batzordea
Hizkuntza-zuzenbidea. Testu-bilduma euskaraz.
Bigarren edizioa: zuzendua eta emendatua. 2018
6. EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN KONFEDERAZIOA/
EUSKALTZAINDIA
Zenbait orientabide erregistroen trataeraz. 2008
7. EUSKALTZAINDIA - JAGON SAILA
Corpus Batzordea
Testu-antolatzaileak. Erabilera estrategikoa. 2008
8. MIQUEL GROS I LLADÓS
El euskera en la Comunidad Autónoma Vasca (2009). 2009
9. ERRAMUN BAXOK ETA JEAN-BAPTISTE COYOS
Helduen euskalduntzea eta etorkinak Ipar Euskal Herrian. L'enseignement du basque aux adultes natifs et non natifs en Pays Basque Nord. 2010
10. EUSKAL HERRIKO IKASTOLAK. EUSKALTZAINDIA
Ikastola mugimendua. Dabilen herria. 2010
11. MIKEL ZALBIDE
Euskararen legeak hogeita bost urte. Eskola alorreko bilakaera: balioespen-saioa. 2010
12. JÜJE ETXEBARNE
Gramatika emendakinak. Zuberoako euskaraz.
Bigarren edizioa: zuzendua eta emendatua. 2015
13. EUSKAL HERRIKO IKASTOLAK. EUSKALTZAINDIA
El movimiento de las Ikastolas. Un pueblo en marcha.
El modelo Ikastola 1960-2010. 2011
14. EUSKALTZAINDIA - JAGON SAILA
Corpus Batzordea
Hitz-ordena. Erabilera estrategikoa. 2011
15. ERRAMUN BAXOK ETA JEAN-BAPTISTE COYOS
Gazteak, aisialdia eta euskara Ipar Euskal Herrian. Les jeunes, les loisirs et la langue basque en Pays Basque Nord. 2012.
16. PAULA KASARES
Euskaldun bazi Nafarroan. Euskararen belaunez belauneko jarraipena eta bizkuntza sozializazioa familia euskaldunetan. 2013
17. EUSKALTZAINDIA - JAGON SAILA
Euskal Elkargoaren sortzea eta euskararen geroa.
Euskaltzaindiaren XXI. Jagon jardunaldia. 2017
18. EUSKALTZAINDIA - JAGON SAILA
Araba, euskaraz bidea egiten. 2018
19. EUSKALTZAINDIA - JAGON SAILA
Euskara Batua eta Ipar Euskal Herria: 1964-2018. 2019
20. EUSKALTZAINDIA - EZKERRABERRI FUNDAZIOA
Euskara batua eta tokian tokiko erabilera: korapiloak eta erronkak. 2020

Hizkuntzaren erabilera eragina duten gizartearen alde guztiak biltzen ditu JAGON Sailak, bai eta hiztunek bizi dituzten kultura arauak, itzaropenak eta testuinguru ere. Euskaltzaindiaren Jagon Saileko *JAGON bildumak* euskararen inguruko hainbat ikerketa eta saiakera hartzen ditu, hizkuntzaren erabilera praktikoa aztertu, eta euskara sustatzeko eta babesteko.




EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE



EUSKALTZAINDIA - EZKERRABERRI FUNDAZIOA

Euskara batua eta tokian tokiko erabilera: korapiloak eta erronkak



EUSKALTZAINDIA

Gizartean pil-pilean dagoen gaia da euskararen erabilera, eta sarri sortzen dira kalapita eta nahasteak.

Jardunaldi honen helburua izan zen horretaz mintzatzea. Euskara informala inguruan gogoeta egitea —euskalkiaren papera zein den, ahozko euskarak eta argotak nolako behar duen izan, gazte hizkerak...—.

EUSKALTZAINDIA
EZKERRABERRI FUNDAZIOA

EUSKARA BATUA ETA TOKIAN TOKIKO ERABILERA:
KORAPILOAK ETA ERRONKAK

JAGON SAILA
Sustapen batzordea:

BURUA
Sagrario Aleman

IDAZKARIA
Erramun Osa

KIDEAK
Jon Aizpurua
Erramun Baxok
Jean-Baptiste Coyos
Andres Iñigo
Patxi Juaristi
Santiago Larrazabal
Gotzon Lobera
Iñaki Martínez de Luna
Rosa Ramos
Patxi Saez Beloki
Patxi Uribarren
Andres Urrutia
Ibon Usarralde

AHOLKULARIAK
Xabier Erize
Juan Karlos Etxegoien «Xamar»
Manuel Maria Ruiz Urrestarazu
Bernardette Soulé
Arabako ordezkaria
Gipuzkoako ordezkaria
Nafarroako ordezkaria
Iparraldeko ordezkaria

EUSKALTZAINDIA
EZKERRABERRI FUNDAZIOA

EUSKARA BATUA ETA TOKIAN TOKIKO
ERABILERA: KORAPILOAK ETA ERRONKAK



EUSKALTZAINDIA

BILBO / BILBAO

2020

Argitalpen honen fitxa katalogafikoa eskuragarri duzu Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako katalogoan:

www.euskaltzaindia.eus/azkue

La ficha catalográfica correspondiente a esta publicación está disponible en el catálogo de la Biblioteca Azkue de la Real Academia de la Lengua Vasca:

www.euskaltzaindia.eus/azkue

Les données bibliographiques correspondant à cette publication sont disponibles sur le site de la Bibliothèque Azkue de l'Académie de la langue basque:

www.euskaltzaindia.eus/azkue

A catalog record for this publication is available from the Azkue Biblioteka, Royal Academy of the Basque Language:

www.euskaltzaindia.eus/azkue

Hizkuntza-orrasketa: Euskaltzaindiaren Hizkuntza Kalitatearen Behatokia zerbitzua (HIZBEA)

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiazea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoz edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen aldez aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

Diseinua: Ikeder

Aurreinprimatzea: Composiciones RALI, S.A.

Inprimatzea: G.Z. Printek, S.A.L.

ISBN: 978-84-120766-9-1

Lege-gordailua: BI-634-2020

AURKIBIDEA

| | |
|--|-----|
| Hitzaurrea (Inaki Irazabalbeitia) | 7 |
| Hitzaurrea (Andres Urrutia) | 9 |
| Euskara batua eta eguneroko mintzamolde arruntak: zer dira eta zertarako? Biak nola uztartu? <i>Mikel Zalbide</i> | II |
| Euskara batua eta tokian tokiko erabilera: korapiloak eta erronkak. Sartaldeko hizkeratik gogoeta <i>Adolfo Arejita</i> | 9I |
| Euskara estandarra eta erregistro informalak <i>Joxerra Garzia</i> | 99 |
| Erregistroak, aldaerak, hizkera gazteak... zer egin dezake eskolak? <i>Inma Muñoa Barredo</i> | III |
| Gazte hizkerak, adierazkortasuna eta kode txandaketak <i>Orreaga ibarra</i> | I23 |
| Euskara (tra)batua <i>Xabier Euzkitze</i> | I39 |
| Informala = In Formola? Kolokiala = Koloniala? <i>Asisko Urmeneta</i> | I45 |

HITZAURREA

Artez edo moldez euskaldun guztiok ospatu dugu euskara baturaren 50. urteurrena. Halaber onartu eta errekonozitu egin dugu euskara batuak gure hizkuntzaren biziberritzean izan duen eragin itzela. Halaber, onartu eta errekonozitu egin dute euskara batuak gure hizkuntzaren biziberritzean izan duen eragin itzela. Ezkerraberri Fundazioak bat egiten du aldarri horrekin, eta zinez eskertzen dio Euskaltzaindiari eginiko lana.

Ezkerraberri Fundazioak du helburu nagusi eztabaida eta gogoeta eragitea esparru soziopolitikoan, bere luze-zabalean. Ekonomia, migrazioak, eskubide sozialak, eskubide demokratikoak, bakea eta antzeko gaiak jorratu izan ditu eskuarki. Hizkuntzari, euskarari, buruz ere jardun izan dugu, baina hizkuntza-politiken ikuspegitik batez ere. Euskara batuaren 50. urteurrena medio, beharra sentitu genuen euskarari berari buruz jarduteko. Euskaltzaindiaren 100 urteak ere ospakizun izatean, Akademiarekin elkarlanean proiekturen bat landu behar genuela iruditu zitzaigun.

Komunikabideen mundua beti izan da Ezkerraberri Fundazioaren kezketako bat, bereziki, euskal espazio komunikatibo propioaren falta. Gai horri buruzko jardunaldiak antolatu izan ditugu, eta, oso gauza ezaguna ez bada ere, Nafar Telebista proiektuaren bultzatzaileen artean Ezkerraberri Fundazioa egon zen. Eta badakigu komunikabideetan hizkera informalek toki handia dutela eta euskarak horretan gabeziak dituela, maiz kritikatu izan zaiolarik gure estandarrari kolorerik eta gatzik ez duela; etsenplurako, euskarazko bikoizketak ez direla sinesgarriak sarri esan da.

Hortaz, motiboa bagenuen Euskaltzaindiari elkarlanean aritzea proposatzeko. Gure Akademiak bere egin zuen gure asmoa. Elkarlanean bizi hasi ginen, gogotsu. Emaitza liburu honetan jasotzen da, hots, 2018ko ekainaren Iean egin zen «Euskara batua eta tokian tokiko erabilera: korapiloak eta erronkak» jardunaldian jorratu zena.

Irakurle, neronek asko ikasi eta gozatu ederra hartu nuen ekainaren Ieko goiz hartan, espero dut zuk ere sentimendu berak izatea orrialdeok leitzen dituzun heinean.

Inaki Irazabalbeitia
Ezkerraberri Fundazioko zuzendaria

HITZAURREA

Duela hamabost urte aldarrikatu zuen Euskaltzaindiak I37. araua, hain zuzen ere, *Adierazpena Euskalkien erabileraz. Irakaskuntzan, Komunikabideetan eta Administrazioan* izenburupean. Ordurik hona, bistan dago, kontuak modu esanguratsuan aldatu dira eta orduko hura baliagarria bada ere, egun euskararen alorrean errealitate berriak ditugula ezin ukatu.

Ingurune digitala, belaunaldi gazteen hizkerak, egoera formal/informal horiek... guztiak dira euskararentzako erronkak, euskarak bizirik irautea eta XXI. mendean euskal gizarteak behar duen tresna linguistiko osoa izan nahi badu.

Horra, bada, Euskaltzaindia eta Ezkerraberri fundazioa, bi-biek batera antolatuturiko jardunaldiaren edukia. Aspaldikoa den euskara batua-tokian tokiko euskara ohiko bitasun horri heltzeko eta ikuspegi berri batean kokatzeko, gazte hizkerai eta hizkuntzaren erregistro informalei erreparatzeko eta ondorioak ateratzeko.

Euskararen Akademiak, ehun urte geroago, *ekin eta jarrai* horretan dihardu, sorreratik bertatik datorkion moduan. Baina Euskaltzaindiak jakin behar du, osotoro, *ekin eta jarrai* horretan lan egiten, aldiari aldiko premia eta ezaugarrien arabera. Hortxe dago kokxa eta gakoa, behinola formulatu eta zabaldu zen euskara batua eguneratua eta gaurkotua nahi badugu.

XXI. mende honetako lehen laurdenean horixe tokatzen da, alegia, euskalgintzan ari diren horiekin elkarrekikotasunez jokatzeko eta adituen esperientziak batzea eta baliatzea, betiere, euskarak behar dituenak gertu eta hurbiletik jarraitzeko.

Etorkizuna dago jokoan eta gerogarreneko horretan, ez bairik gabe, gizartean ari diren errealitate berri horiei so egin behar diete Euskaltzaindiak eta euskararen munduan ari direnek. So egite hartzailea eta ez baztertzaila, so egite anitza eta ez bakararra, tankera bakarreko izan beharrean soinu eta doinu asko dituen, euskal gizarteak baititu halakoak bere barnean.

Aho-mihietan erabiltzen dugun euskarak hala eskatzen du, hala frogatzen du egunero hizkuntza bizia dela eta noranahikoa nahiz nolananahikoa. Horrek, besterik ez bada ere, sinergiak galdatzen ditu, indar metaketa arrazoitua eta ez itsua, helburuak garbi izateko.

XXI. mendean Euskaltzaindiak aniztasun horri lekua eman behar diola argi dago eta Ezkerraberri fundazioaren eskutik horretarako abisua ere hartzea eta

partekatzea ezinbesteko du euskararen Akademiak. Ehun urte geroago, horixe da, izan ere, zin-zinezko mezua Euskaltzaindiaren aldetik.

Horrexegatik dira eskertzeko jardunaldi hauek, argiro erakusten baitute euskararekiko kezka eta arrangura gizarte zibilean egon badaudela eta horiek, bistan da, segida eta ondorioak ekarriko dituztela, euskararentzat baliagarri ez ezik, ongari eta onuragarri izango direnak.

Mila esker jardunaldi honetan hizlari, entzule eta antolakuntzan jardun duzuenoi eta izan dadila honako hau lehen katebegia, gerogarreneko kate luze eta euskaldun batentzat.

Andres Urrutia
Euskaltzainburua

EUSKARA BATUA ETA EGUNEROKO MINTZAMOLDE ARRUNTAK: ZER DIRA ETA ZERTARAKO? BIAK NOLA UZTARTU?

Mikel Zalbide

Euskaltzain osoa eta Euskararen Historia Soziala egitasmoaren zuzendaria

Zertaz jardun nahi dugu, zehatz-mehatz, gaurkoan? Hiru helduleku ditugu eskuera, kontu hori argitzen hasteko. Hor daukagu, batetik, Jardunaldiaren izenburua bera: «Euskara batua eta tokian tokiko erabilera; korapiloak eta erronkak». Hor daude, bestetik, antolatzaileek eskainitako lau azalpenok: a) «hiztun-elkarte txikia berrosatzeko eta berrindartzeko eredu bateratu bat izateak daukan garrantzia»; b) «eredu bateratua garrantzitsua da euskara noranahikoagoa egiteko, noizbait galdutako (edo inoiz izan gabeko) eremuetan euskarak “bere tokia” hartzeko, eta, nola ez, hiztun berriak irabazteko»; c) «eredu bateratua ez da ezinbestean artifiziala, plastikozkoa», eta d) «eredu bateratu bat izatea ez dago kontraesanean hurbileko erregistro bat baliatzearekin: eredu bateratua eta tokikoa elkarren osagarri dira». Jardunaldiaren aurkezpen-txostenean planteatu diren zazpi galderak ere kontuan izatea komeni da, azkenik: a) «zer ulertu behar dugu batutzat?», b) «zer leku dagokie euskalkiari, tokiko hizkerari eta euskara batuari ahozko erabilera formalean (irakaskuntzan, tokiko eta nazio mailako komunikabideetan eta abarretan)?», c) «ahozko hizkera batua finkatu behar da, ala ez?», d) «nola osatu eta gizarteratu ahozko eredu batu inklusibo bat, euskalki eta hizkera guztietatik elikatuko dena?», e) «gaur egun hedabide nazionaletan gailentzen ari den ahozko hizkera formala batu nazionalizat har daiteke edo gehiago du gipuzkeratik soilik?», f) «hizkera informalaren bidean, nola aberastu euskalkirik gabeko gazteen hizkera, nola eraiki argot nazionala?» eta g) «zein da hitanoaren papera ahozko eredu bateratuan?».

Gai-zerrenda zabala jorratu nahi da, bistan denez, jardunaldi honetan. Puntu asko daude hor, ez kontutxo bat edo bi, argitasun eske. Arrisku nabaria du zabaltasun horrek: hainbat puntu landu behar diren beharraz, zezenari adarretatik heldu ordez gai batetik bestera saltoka jardutekoa eta, horren ondorioz, hitzaldi monografikoa behar zukeena gai eta ohar solteen saski-naski bihurtzea. Aski gauza normala da arrisku hori honelako jardunaldietan. Oro har, normala eta sarrera-hitzaldi batean ia itzuri ezina. Hori guztia horrela izanik ere, gaurko saioa ez genuke saski-naski huts bihurtu nahi. Ahal delarik planteamendu zabalak, han-hemen kontrastatuak eta teoriako oinarri seguruek zurkaiztuak baliatu nahi genituzke horretarako. «Oinarri seguruek» zurkaiztuak edota, errealistago izanik, oraingoz seguruen-edo diruditen oinarrietan funtsatuak. Hurbilbide horretatik abiatu gara, hain zuzen, hitzaldiaren

izenburua aukeratzeko orduan. Nolabait behar-eta, galdera batzuen jirabiran egituratu dugu gaurko saioa. Goiko ohar-sorta zabaletik abiatuz, lau galdera-ardatz aukeratu ditugu:

- zer da euskara batua, hemen eta perspektiba zabalean?
- zer d(ir)a eguneroko mintzamolde arrunta(k), hemen eta perspektiba zabalean?
- euskara batua eta eguneroko mintzamolde arruntak, biak behar al dira? Batekin ez al da aski?
- biak egoki uztartzeko, zein dira erronka eta konponbide nagusiak?

Lau puntuotan zentratuko gara gaurkoan. Batez ere lehenengo bietan, hor baitauek teoriarako ahuldade nabariena. Azkenengo biak lantzeko, aldiz, aurreko bi puntuek emandako perspektibari aplikazio praktikoa bilatzen saiatuko gara. Ezinbestekoa dugu perspektiba teorikoa: hemengo eta kanpoko, lehenengo eta oraingo, adituen eskarmentua baztertzea geure kaltean da. Zenbait kontzeptu, hori bai, adibide konkretuen laguntzaz aztertuko dugu. Horra asmoa azaldu; gatozen orain harira.

I. ZER DIRA EUSKARAREN BATASUNA ETA EUSKARA BATUA, NOLAKOAK ETA ZERTARAKO, HEMEN ETA PERSPEKTIBA ZABALEAN?

I.I. *Euskararen batasuna eta euskara batua: terminologia aztergai*

Euskararen batasunaz eta euskara batuaz jarduterakoan ez gara, urrundik ere, hutsetik abiatzen. Sakon eta maiz landutako gaia da hau, azken ehun urte inguruan. Esku artean dugun gairako, batez ere batasun-kontzeptuaz edota bateratze-saioen ikuspegi soziohistoriko sintetikoaz jabetzeko, lagungarri sendoak dira ondoko hauek: a) Koldo Mitxelena 1968ko batasun-txostena eta 1982ko *Normalización de la forma escrita de una lengua: el caso vasco*; b) Luis Villasanteren 1970eko *Hacia la lengua literaria común*; c) Jose Luis Alvarez «Txillardegia, Larresoro»ren 1974ko *Euskara batua zertan den eta*; d) Koldo Zuazoren 1988ko tesi-liburua, izenburuz *Euskararen batasuna*¹, eta e) Pako Suduperen bi lanok: 2002ko *Piarres Lafitteren kazetari-lan hautatuak* eta, batez ere, 2010eko *Tradizioa eta modernitatea 50eko hamarkadan. Euskal kulturaren biziberritze gatazkatsua*. Eskola-munduko aplikazioa begien aurrean izanik ezin baztertuzkoak dira, azkenik, honako argitalpenok: a) batetik Juan Luis Goikoetxearen tesi-lana, *Euskaltzaindiak 2003an argitara emana: Euskalkia eta bezkuntza. Dakigunetik ez dakigunera. Euskal diglosia irazian*; b) bestetik Julian Maiaren 2000. urteko *Eskolako hizkera ereduaz, euskara batuen eta euskalkiaren arteko barremanen testuinguruan* tesia eta hurrengo urteko bi artikuluak (ikus bibliografia). Gure azalpena itzuliz, hiru zatitan banatuko dugu parte hau: terminologia aztertuko dugu lehenik, definizio-saio bat eskaini nahi genuke gero, eta hizkuntza-batasunaren gaia mundu zabaleko perspektiban txertatzen saiatuko gara azkenik.

Zer da *euskararen batasuna*, eta zer *euskara batua*, terminologia aldetik? a) Auzo-hizkuntza nagusietan *language standardisation*, *standardisation des langues*, *unificación* o *estandarización*

¹ Azalpen historiko jakingarriz eta perspektiba soziolinguistiko argiz hornitua dagoelarik, ezin alboratuzkoa da orain ere.

lingüística, Standardisierung von Sprachen esan ohi denaren pareko kontzeptua da, hein batez², *euskararen batasuna*³. Azken honi *unificación del euskera (escrito)*⁴ esan izan zaio, sarri, gaztelaniaz. b) Era berean, eta besteak beste direla⁵, ingelesez *standard language*, alemanez⁶ *Gemeinsprache, Einbeitliche Schriftsprache, Einbeitssprache, Standardisierte Sprache*⁷ edo *Hochsprache*⁸, frantsesez *langue (littéraire) unifiée*⁹ eta gaztelaniaz *lengua (literaria) unificada* edo *lengua (literaria) común* esan ohi dena¹⁰ azaltzeko *bizkuntza estandarra* edo *bizkuntza (eredu) bateratua* esan ohi dugu. Baita *bizkuntza-eredu bakar*¹¹ ere. Edozein hizkuntza estandar adierazteko balio du, jakina, *bizkuntza (eredu) bateratu* delakoak. Nork berea adierazteko, horrezaz gainera, badira izendapen bereziak: hor daude, adibidez, Alemaniako *Hochdeutsch*, Herbehereetako eta

² Aurrerago ikusiko denez batasun-arauak ematea baino ondotoz gehiago da, berez, hizkuntza bat estandarizatzea. Horrezaz gainera, «estandarizatzea» ez da ezinbestean «unifikatzea» edo «bat egitea». Adiera hori izan ohi du ordea sarri, batez ere bateratze-saio soziopolitiko zabalago baten altxoan ageri denean: «standardization is part of the process of *unification* (letrakera etzana gurea) undertaken by a nationalizing political, cultural, economic entity». (Iturria Eastman, C. M., 2001: 658: «National Language / Official Language», in Mesthrie, *Concise Encyclopedia of Sociolinguistics*).

³ Ikus adibidez Koldo Zuazo 1988. Termino horrekin batera, adiera bertsuaz edo berberaz, bada gure artean bestelako izendapen-molderik: euskara *bateratzea* (inoiz *batetaratzea*) eta euskara *bat egitea* edo *euskararen bat-egitea*, esate baterako. Azken hauek ere ez dira bart arratseko asmakariak: Campión eta Broussain euskaltzainek Hizkuntza Akademiari 1920an gaztelaniaz aurkezturiko txostena dela-eta (ik. hurrengo oin-oharra), «*unificación del euskera*»ren itzulpen gisa «euskara bateratzea» dator urte hartako *Euskera* aldizkarian. Garai bertsuan agertua da *bat-egite* delakoa ere. Termino horiek ez dira halere, esku artean ditugun dokumentuen argitan, *euskararen batasuna* bezain maiz ageri.

⁴ Ikus, batetik, Campión eta Broussain euskaltzainen 1920ko «Informe (...) sobre *unificación del euskera*» (Bilbo, Imprenta del Ave Maria; ikus orobat *Euskera* agerkariaren I. urteko I. zkia., 1920: 73). Ikus, bestetik, Villasante, 1970.

⁵ Auzo-hizkuntza horietan ere terminologia teknikoak ez dator beti bat.

⁶ Beti-beti sinonimo ez izan arren, antzeko adieraz erabiltzen diren termino asko ageri dira hizkuntza horretako bibliografia teknikoan. Ez gara hemen, ez baita horretarako lekua, (zati-)sinonimo horien berezitasunak aipatzen hasiko.

⁷ Hiru termino horien erabilera konkretuetarako ikus, adibidez, Kloss, 1929: I06. Baliokide partzial ugari dute termino horiek aleman-esparruan: tartean *Bühnensprache* eta *Hochsprache*. Guztiak ez dira erabat sinonimo: *Bühnensprache* edo, zehazkiago, *Bühnenaussprache* delakoak, esate baterako, ahozko jardunean (antzerki-azalpenetan) erabiltzeko mintzamolde formal-landu-ederra izan nahi zuen bereziki, ez ezinbestean idatzizko estandarra (*Schriftsprache* delakoa). Sinonimo huts ez izan arren, baliokide horiek badute oinarritzko elementu argirik. Kontraste bidez antzematen da argien batasun-oinarri hori: aleman-esparrurako ikus, horrela, estandarraren aurrez aurreko *Alltagssprache, Umgangssprache, Volkssprache, Mundart, Volksmundart* eta beste hainbat. *Schriftsprache*-ren baliokide da partez, orobat, *Literatursprache* delakoa.

⁸ Ikus, adibidez, Gutjahr, E. A., 1910: *Die Anfänge der neuhochdeutschen Schriftsprache*. Halle.

⁹ Ikus, adibidez, Pierre Broussainin *Euskera* agerkariaren I. urteko 2. zkia., 1920: 34 eta 37.

¹⁰ Luis Villasantek esana da 1970ean: «*Lengua literaria, lengua común, lengua escrita, lengua unificada...* he aquí expresiones más o menos sinónimas, que nosotros emplearemos indistintamente». (Villasante 1970, 6).

¹¹ Forma biak (*bizkuntz eredu* eta *bizkuntz eredu bakar*) erabili izan ditu, inoiz, Koldo Zuazok: *bizkuntz eredu* erabili izan du batetik, eranskini gabe (Zuazo, 1989: 266: «euskaldun guztientzako —Hegoaldekoentzako bederen bai— *bizkuntz eredu* bilakatu izana»); horren aurrez aurre, *bizkuntz eredu bakar* esan izan du beste zenbaitetan (Zuazo, 1989: 268: «Azkuek amesten zuen *bizkuntz eredu bakar* hura») (letrakera etzana, bietan gurea). Kasuan-kasuan eman nahi den zehaztasun-maila izan ohi da, itxuraz, bereziki iturri nagusia. Bestelako terminorik ere erabiltzen da inoiz, *bizkuntza-eredu bateratu (bakar)* horren ordainetan: *bizkuntza unifikatu, euskara estandar*, etab. Lehengo testigantzak kontuan hartu behar baditugu, are nahasiagoa da egoera: *euskera garai bakar, euzkera bakar, izkera garai...* modukoak erraz aurki litezke Euskaltzaindiaren hasierako jardunaldietan eta arauzko testuetan. Aski bigarren mailakoak (edota chun urteotako ibilbidean noizbait galdutakoak) dira gehienak, ordea, egungo erabilera nagusiari dagokionez.

Flandriako *Algemeen-Beschaafd Nederlands (ABN)*¹², etab. Geure hizkuntza-eredu bateratua adierazteko, *euskara batua* esaten dugu euskaldunok luze-zabal. Gaztelaniaz, maiz asko, *euskera (vasco) unificado*¹³ edo *euskera (literario) común*¹⁴ izan ohi da *euskara batu* horren ordaina¹⁵.

Labur bilduz: dialekto (edo bestelako aldaera) anitzetan banaturik (*Varietäten-konstellation* moduan zatiturik¹⁶) dagoen hizkuntza bateratzeko asmoa, hartarako prozedura edota (adituen artean, oso bereziki) prozedura horren osabetezko emaitza adierazten du *standardization* termino-multzoak. Asmo edo prozedura horren azken produktua azpimarratzen du, nagusiki, *standard* adjektibo erreferentzialak. Emaitza-produktu hori linguistikoa da, batetik: gizartean (hiztun batzuen, askoren edo gehienen artean) erro sendoak dituen hizkuntza-eredu bateratua. Estandarizazioaren azken produktua hori soziologikoa da, bestetik: gizakion berariazko ekimenez (ez mendeetako ibiliaz, «bere kasa») sorturiko aldaera beregaina.

Noiz-non sortuak ditugu, termino tekniko gisa, *euskara batua* eta *euskararen batasuna*?¹⁷. Gaur-gaurkoz zail da erantzun betea ematen. Egin dugun bilaketa-saioaren argitan¹⁸, XX. mendearen lehen laurdenetik datozke «euskararen bat-egite», «euskararen batasun» eta «euskara batu» terminoak: aurreko testigantzarik agertzen ez den artean, 1920tik. Urte hartako abenduaren 26an, euskara bateratzeari buruz Euskaltzaindiak Bilbon egindako jardunaldian, honela mintzatu zen Ipolita Larrakoetxea karmeldarra: «(...) *euskerearen bat-egite* oñek muga bi euki daikez: lenengo mugaraño baño eltzen ezpada, *euskera batu* ori izango da geroko gutunik geyenetan erabiñiko dana, goi-ikasguetakoa, baita euskaldun yakitunak euren aitu-emonetan erabiñiko dabena be; ezta baña eñiraño eratziko. Bigarren mugaraño badaroagu bafiz, euskaldun lagunabañak eurak be *euskera batu* orixe erabiñiko dabe beste euskalkidunakaz itz-egin beañean aufkitzen diranean eta eleiz-izlariak eta beste yakitunak eñiari zef-edo-zef atzaldu beañ dausenean bere *euskera batua*ren bidez itz-egin al izango dautse»¹⁹. Antzera dira kontuak, oker ez bagaude, *euskararen batasun* terminoari dagozkionetan²⁰: hori ere *Euskera* agerkari ofizialaren lehenengo alean ageri da²¹, eta maiz erabili izan da gero.

¹² Ikus Jespersen, 1925: 41.

¹³ Ikus, adibidez, *Euskadi.eus* (2004ko azalpena) edota, egungo egunean, *gipuzkoakultura.net*.

¹⁴ Horko *euskera común* = *euskera batu* ekuazio semantikorako ikus, adibidez, Seber Altube, 1956: 9.

¹⁵ Horrezaz gainera *el batua* edo *el euskera batua* esaten da sarri, gaztelaniaz ere.

¹⁶ Ikus Kleiner, Stefan, 2014: 273: «Die Kodifikation der deutschen Standardausssprache im Spiegel der faktischen Variabilität des Gebrauchsstandards».

¹⁷ Beste artikulu batean ematen dugu honi buruzko azalpen landuagoa: ikus, Euskaltzaindiaren mendeurrenkari, 2018ko urriaren Arantzazun egindako jardunaldian emandako hitzaldia, argitara bidetan dagoena.

¹⁸ Honako iturriok arakatu ditugu, partez edo osoz: a) R. M. Azkueren 1896ko *Proyecto de Ortografía, sometido a la censura de los que se dedican a cultivar el euskera*; b) S. Aranaren urte bereko *Lecciones de ortografía del euskera bizkaino*; c) 1897tik 1899ra arteko *Euskalzale* aldizkaria, d) 1901etik 1902ra arteko *Ibaizabal* aldizkaria, e) *Euskal Esnalea* aldizkaria eta f) Euskaltzaindiaren sortarauak. Goiko aldizkari horien arakatzeko-lana partezkoa izan da, duten hedadura zabalak hartaraturik.

¹⁹ Letrakera etzana gurea. Iturria: *Euskera*, III. urteko I. zkia, 1922, 36.

²⁰ Euskara *batu*-aren hasiera-hasierako sorburua ilunxko badago, are ilunago daukagu (euskaren) *batasun* terminoaren azken jatorria.

²¹ Ikus, adibidez, 1920ko «iofaiñ»aren 25eko batzarreko akta-agiria: «euskararen batasun-bideak» aztertzeaz dihardu bertako 5. puntuak. Hurrengo eguneko ekitaldian, orobat, «Euskararen batasunera eltzeke dagokezan bideak» aztertu ziren beren-beregi (bietan, azpimarra gurea). Aipamen bietarako ikus *Euskera* 1919-1920, I. zkia., 70 eta 72. or., hurrenez hurren.

Labur bilduz, eta oraingoz dugun informazioaren arabera, Euskaltzaindiaren gerraurreko jardura akademikoan, eta bere argitalpenetan, zabaldu ziren *batasun* eta *batu* terminoak. Indarberiturik agertu ziren hitzok gerraondoan. Gero eta maizago kaleratu ziren orduko gogoeta-saio teoriko-praktikoetan: besteak beste direla²², bere lekua izan zuten Euskaltzaindiaren babespean 1956tik aurrera Hegoaldean antolatu ziren Euskaltzaleen Biltzarretan²³. Horrezaz gainera, eta batez ere, harrera zabala izan zuten 1960ko hamarkadan gorpuztuz joan zen euskaltzale-belaunaldi berriaren ezpain-lumetan²⁴. Argi eta garbi aipaturik ageri da euskararen *batasuna*²⁵ 1964an, Baionako *Euskal Idazkaritza* Sailaren jakinarazpenean eta azalpenetan²⁶. Berariaz eta sarri aipatzen da *batasun* delakoa, orobat, Koldo Mitxelenaren 1968ko txostenean²⁷: «Ze *batasun* bila gabiltzan», etab. Luis Villasantek, berriz, termino biak darabiltza Arantzazun: «*batasuna*»²⁸ eta «euskara *batua*»²⁹. *Euskara Batua zertan den* izenburuaz kale-ratu zen 1974an, azkenik, Larresoro-Txillardegiren zabalkunde-lan ezaguna³⁰.

Zabalkunde handia izan du *euskara batu* terminoak, nolnahi ere, harrezkero. Egia da bere aldeko eta kontrako iritzi-jarrerak gordin banatu zirela une batez, jendaurreko konfrontazio bihurriaz³¹. Eztabaida hark areagotu egin zuen ordea, ahuldu ordez,

²² Ikus, bereziki, Seber Altuberren, Federiko Krutwig-en, Luis Villasanteren eta Koldo Mitxelenaren garai hartako hainbat ekarpen. Ikuspegi zabal eta sakon baterako, ikus Sodupe 2002 eta 2010.

²³ Honela zioen Jose Luis Alvarez Txillardegik, 1956ko Biltzarrean irakurri zen bere *Karta Idigia*-n: «(...) gaur, nere ustez, bitara bil ditzakegu egin ditezkeen gauzak: 1) gutxiengo edo minoria bat gertu; 2) euskera gaitu, *batu* ta osatu». (Txillardegi, 1956: 249). Aurreraxeago, berriz, beste hau zioen: «bere aipu guziarekin, eta, ofizialki, euskeraren *batasuna* zeaztu» (Txillardegi, 1956: 250) (letrakera etzana, bietan, gurea). Bide beretik zebilen Altube, aurreko urtean idatzi eta 1956an argitarata emandako lanean, *euskera común = euskera batu* (Altube, Seber, 1956: «Literatur-euskera (Sobre sintaxis vasca)»: 9. or).

²⁴ Corpus-plangintzaren ikuspegitik hain garrantzitsua den implementazio-atalean belaunaldi berri horren bide-urratzaile nagusietarikoa izanik dugu, egunen batean zehatz azaltzea komeniko den gazte-andana zabal baten laguntzaz, Rikardo Arregi. Alfabetatze-lanik gabe ez zukeen euskara batu hark aurrerabide sendorik izango. Garai bertsuan irakaskuntzari eta argitalpen-bideari (*Jakin, Lur...*) ekin zion belaunaldi gazteak ere aparteko eragina izan zuen langintza osoan.

²⁵ Ez ordea, antza, *euskara batua* terminoa.

²⁶ Ikus Jean-Louis Davant euskaltzainak Baionan, 1964an, Idazkaritzaren haritik egindako sarre-ra-mintzaldia: «Hemen bilduak gera Euskal Idazkaritza deritzan batzordearen barneetan, Euskarari *batasun* gehiagoren emaiteko xedeaz beterik». Baionako 1963-1964ko lan hura, corpus-plangintzaren ikuspegitik, *codification* atalean bezainbat, eta agian gehiago, *implementation* sailean (hartarako gidaritza operatiboan) txerta liteke eskubide osoz. Davant-ek argi zioenez: «Zuek bildu zaituztegu, *idazle ta irakasle jaun-andereak*, zuek duzuelakotz, Euskaltzaindiaren itzulian, *euskara* *gehenik zabaltzen, bedatzen, osotzen eta batetaratzen abal*» (letrakera etzana gurea). Gauzak (hobera) aldatuz joan badira ere euskalgintzaren osarari dagokionez, nekez *implementation* kontzeptuaren azalpen zehatz eta adi-errazagorik eman liteke.

²⁷ Baionako Euskal Idazkaritzak 1964an bezala, (euskararen) *batasuna* darabil Mitxelenak 1968an, Arantzazuko txostenean: inoiz ez da han, gure ustez, euskara *batua* terminoa ageri. Bistan da buruan zutela bai 1964an eta bai 1968an euskara *batua* baina, dokumentu bien argitan, (euskararen) *batasuna* izan zuten hizpide.

²⁸ Honela dio «Antziñako euskal hitzen formaz» artikuluan: «*Batasunera* buruz urrats handi bat egin nahiz gabiltza» (letrakera etzana gurea). Iturria *Euskera* XIII, 1968: 175.

²⁹ Honela dio goiko artikuluan: «euskara *batu* hori behar dugun ezkeror» (letrakera etzana gurea). Iturria *Euskera* XIII, 1968: 175-176.

³⁰ 1959an *Batasunaren* bidez jardunik zen Euskaltzaindian.

³¹ Konfrontazio hark oihartzun bizia jaso zuen komunikabideetan, are erdarazkoetan: «el euskera *batua*» oso zabal hedatu zen, erdaraz ere, ika-mika garratz haien ondorioz. Kontrako iritzi-ager-

terminoaren giza arteko erabilera eta balio-indarra. Kontzeptua eta asmoa garaile irten diren heinean, zabalkunde nabarmena izan du *euskara batu* esapideak komunikabideetan, argitaletxeetan, alfabetatze-saioetan, eskola-munduan, administrazio-alorrean eta, oro har, euskalgintza formalaren esparru gehienetan. Eguneroko hitz arrunt bihurtu da, azkenik, «oinbiko» herritarren artean: bai euskal hiztunen ezpain-lumetan eta bai erdaraz baizik ez dakiten erdaldunen (edota, honegatik edo hargatik, erdaraz diharduten euskaldunen) artean. Labur bilduz, «mundu guztiak» ikasi du *euskara batua* zer den, eta «mundu guztiak» darabil hitza. Gaur-gaurkoz ez dago bera bezain erabilera biziko termino teknikorik, euskalkiez haraindiko (eta euskalkien gainetiko) hizkuntza-aldaera estandar-bateratua adierazteko.

Aski dugu oraingoz, terminologia kontuarekin. Axaleko gorabeherak alde batera utzita, gatozen mamira. Saia gaitzen galdera hauei erantzuten: zer dira *euskararen batasuna* eta *euskara batua*? Non-nola ikasten da *euskara batu* hori? Nork-non-norekin-nola erabiltzen du, eta zertarako? On izango da, hasteko, han-hemen gai horretaz indarrean dauden oinarrizko ideia batzuk gogoan izatea. Etxetik abiatzea izango dugu, agian, hoberena.

I.2. Adiera aldetik, zer dira *euskararen batasuna* eta *euskara batua*?

Has gaitzen definizioarekin: terminoa bezain argi al dago euskara batuaren adiera? Ez dugu uste: euskara batuaz ez dago, gure iritiz, onarpen zabaleko definizio zehatz eta unibokorik³². Egon badago, hori bai, hainbat adituk kontzeptu horretaz eskaini duen formulazio landurik eta, oro har, euskaldunon ezpain-lumetan sarri islatu ohi den ideia-multzo argirik³³. Oinarrizko hiru galdera hauen jira-bueltan agertu ohi dira sarri formulazio eta ideia-multzo horiek: a) nolakoa da euskara batua, barne-osaeraz?; b) euskara batu hori nork erabiltzen du, norekin, noiz-non eta zertarako?, eta c) non-nola eskuratzen edo ikasten da hizkuntza-eredu hori? Hiru galdera horiei era askotako erantzunak eman izan zaizkie. Aniztasun zabala ageri bada ere batzuen eta besteen lanetan, bada ezaugarri finko samarrik azalpen gehienetan: elementu finko horiek definitzen dute, *de facto*, gure hizkuntza-eredu bateratua edo *euskara batua*. Ondoko zortzi ezaugarriotan oinarritzen da sarrien, gure ustez, euskara batuaren *de facto*ko definizio modu hori³⁴:

penei dagokienez ikus, adibidez, Labayen, A. M., 1972: *Sasi-Batasuna. Mala letra y peor espíritu de una pseudo-unificación*; Lasa Apalategui, J., 1973: *Ensayos críticos sobre la unificación literaria del vasconce*, eta Latiegi'tar Bixente eta Oñatibia'tar Dunixi, 1982: *Euskaltzaindiari epaiketa*; 1983: *Euskaltzaindia. El Batua y la muerte del euskera*. Aldeko iritzi-agerpenei dagokienez ikus, beste askoren artean, Luis Villasante euskaltzainburuaren 1970eko *Hacia la lengua literaria común* liburua eta Koldo Mitxelenaen 1982ko «Normalización de la forma escrita de una lengua: el caso vasco» artikulua.

³² Euskaltzaindiak berak ez du, dakigula, halakorik eskaini. Hizkuntzaren idatzizko esparruan ez ezik ahoskera alorrean ere antzeman izan da definizio falta hori. Ikus Oñederra 1998: 380-381.

³³ Ikus, adibidez, Luis Villasanteren definizio-saioa: «la lengua literaria es una forma cristalizada, convencionalmente fijada, unificada y normalizada, que adoptan los usuarios de una determinada lengua a la hora, sobre todo, de escribir. La palabra *literario* es, pues, aquí sinónimo de *lengua escrita*, lengua que se emplea para los menesteres y usos escritos. Esta lengua literaria o escrita se basa, naturalmente, en una lengua dada, viva, y hablada (o que se habló en un tiempo); pero representa una cristalización, en una forma determinada, de dicha lengua». (Villasante 1970: 7).

³⁴ Aurrerago, egungo egunean eta aurrera begira duen garrantzi handiagatik, berriro helduko diogu *de facto*ko izahera horri.

1. grafiaz, hiztegiz eta morfosintaxi aldetik aski bateraturik dagoen eredu egonkorra da euskara batua. Kodifikatua edo kodeztatua dago. *Zuzentza-sun-arau jakinak* ditu ortografia, hiztegi eta gramatika aldetik. Ahoskera (hots-ebakera, doinuera, azentu-moldea, prosodia) hobetsia edo *ortoepia* ere badu, hein batez³⁵;
2. batez ere euskaldunen *irakur-idatzizko jarduna errazteko* eratu da *euskara batua*³⁶. Horrela idatzirik daude liburu, aldizkari eta artikulu gehienak, administrazio-ko euskal (sarri, ele biko) dokumentuak, esparru lokalaz haraindiko prentsa eta aldizkariak, etab. Irakur-idatzizko jardunerako sortua izanik ere, ez da idatziz bakarrik erabiltzen: gero eta aplikazio-ahalmen handiagoa du hitzezko (batez ere jendaurreko) mintzabide jasoan³⁷;
3. euskalkien eta eguneroko mintzamolde arrunten gainetik, *aparteko lekua du euskara batua hiztun-elkartearen handik harako* (ez aurrez aurreko) *barreman-sare zabaletan*. Hitztun-elkartearen espazio geoterritorial osoan (edo euskalkiaz haraindikoan) eta espazio soziofuntzional landu-jasoetan jarduteko orduan, euskara batua izan ohi da, asmoz bederen³⁸, adierazmolde hautatua. Eskolan eta literaturan, administrazioan eta lan-esparruko informazio- eta dokumentazio-ataletan, orobat idatzizko eta ikus-entzunezko komunikabideen azalpen formaletan bera (edo hartara jo nahi lukeen aldaera³⁹) gailendu ohi da maiz;
4. *eskolan ikasten da lehenik*, idatzizko formari dagokionez bereziki, euskara batua. Han izaten da, behintzat, batuarekiko lehen kontaktu zabal-zehatz-iraunkorra⁴⁰.

³⁵ Jatorriz, eta helburu nagusiz, idatzizko planoan hezuramaitu ohi dira hizkuntza-eredu bateratuak. Ez dago dudarik, ordea, lehenago edo beranduago ahoskera- eta doinuera-esparrura iristen direla arau horiek (zuzenago, arau horien ebakera, ahoskera eta doinuera). Alemanaren kasurako ikus *Bühnen(aus)sprache* famatua. Fama eta sona Theodor Siebs-ek badarama ere (1898ko bere argitalpen kolektiboaz), lehendik zetorren ahoskera bateratuaren gogo-asmoa: gutxienez Goethe-ren 1803ko iritzi-azalpenetik. Gure arteko saioak ondotxo berriagoak dira: batez ere 1980 ingurutik honakoak. Arantzazu ondoko aurrekariet dagokienez ikus Txillardegiren 1978ko «Fonetika baturuntz (zenbait proposamendu)», 1980ko *Euskal Fonologia*, 1981eko «Euskalkien fonetika eta euskara batua» eta 1984ko *Euskal azentuaz*. Orain arteko arau-mugarri nagusirako, ikus Euskaltzaindiaren 1998ko gomendio-arauak, euskara batuaren ahoskera zainduaz. Zenbait azalpen zehatz, argi eta osagarritarako ikus, azkenik, Miren Lourdes Oñederra 1986, 1994, 1998a, 1998b, Pilartxo Etxeberria 1998, eta Andres Alberdi 2014.

³⁶ Hortik datoz, seguruenik, gure artean zabal dabilzan *lengua escrita* eta *euskera literario* terminoak, bai eta *idatz-euskera* ere (Altube, 1956).

³⁷ Fenomeno jenerala da hori, ez euskararen ezaugarri bitxia. Hizkuntza-eredu jasorearen ahoskera bateratuaz Pragako Zirkuluak zer dioen jakiteko ikus, adibidez, Bohuslav Havránek-en 1935eko «Kotázce normalisování české spisovné výslovnosti», frantses-itzulpenez «La normalisation de la prononciation littéraire tchèque».

³⁸ Asmoz hala izateak ez du esan nahi *de facto* ere hala denik beti: etxetik eta lagunartetik jaso duenaren eta liburuetan ageri denaren «erdibideko zerbait» egiten du hiztun askok (tartean irakasle askotxok), ustez *euskara batu* garbian ari delarik. Gipuzkeratik hurbil-edo dagoen *Umgangssprache* edo *Alltagssprache* moduko bat. Gai hau zabalago azalduko da gero.

³⁹ Gure «hartara jo nahi lukeen aldaera» hori ulertzeko ikus aleman-esparruko «intendierter Standard», ingelesez *intended standard variety* terminoa. Iturriet dagokienez ikus, adibidez, honako biok: a) Kleiner, Stefan, 2014: «Die Kodifikation der deutschen Standardausssprache im Spiegel der faktischen Variabilität des Gebrauchsstandards»; b) Meier, Angelika, 2015: *Zum Ausdruck von Progressivität in den Varietäten des Deutschen. Eine Untersuchung im Südbairischen*.

⁴⁰ Irrati-telebisten, kale-izenen eta bide-seinaleen, autobusetako euskal iragarkien eta antzeko erakusgarrien eragina ez genuke, dena den, gutxietsi behar.

Eskuratze-bide luzeago baten hasiera izan ohi da, halere, eskola-ikasketa hori. *Eguneroko irakur-idazketa praktikoa eta masiboaren bidez lantzen, garatzen, zabaltzen eta barneratzen da*, eskolan ikasitakoa osatuz eta finkatuz, euskara batua. Eskolako ikasketa formala ez da, normalean, trebetasun-eskuratze horretarako aski izaten⁴¹. Zenbat eta hizkuntza-eredu hori jardungune eta harreman-sare ugariagoetan erabili, landu eta garatu, hainbat eta aberastu, zabaldu eta barneratuago⁴² izango dute entzule-hiztun-irakurle-idazleek;

5. eskola bidez ikasia, gero eta gazte gehiagok unibertsitatean eta zenbait lanbidetan⁴³ garatua eta, «prestigiosko eremuetan» lehenetsia denez, hartan murgiltzen diren hiztunek uniforme samar barneratua daukate, eta egoki samar aplikatzen dute. Erabilera modu hori urrun dago, ordea, uniformetasun osotik;
6. erregistro jaso-formaletarako landu eta garatu da, batez ere, euskara batua⁴⁴. Erregistro horietaz maizenik baliatzen diren esparru berezituetan berme-garantia ohargarriz jarduteko, hizkuntza-aldaera hori osatu eta zabaldu egin da: terminologia tekniko modernoek albo-erdara nagusien pare jardun ahal izateko, eta prosa-estilo bereziaz hornitu da;
7. idatzizko planotik ahozkoa hedatzen ari da, partez, hizkuntza-eredu bateratu hori. Hizkera-molde jaso-formal-landu(ago)a eskatzen duten jardungune, harreman-sare eta rol-harreman jakinetan gertatzen ari da ahozkoratze hori, batez ere. Euskaldun horien eguneroko mintzajardun arruntean nabarmen inpaktatzen ari da euskara batua. Inpaktu hori dela medio, eguneroko mintzamolde arruntetan ere (situazio kolokial-espontaneo askotako berbakera gozo-bizian bereziki) bere eragina antzematen hasia dago. Hiztun-talde landuagoen artean are errazago antzeman litezke euskara batuaren (edo euskara batutzat hartzen den hainbat ezaugarriren) hitz-ebakera «zaindua» eta, oro har, ahoskera eta doinuera-kate «berriak», askotan supra- edo estra-dialektalak; eta
8. inpaktu hori ez da nonahi eta nolana gertatzen ari: erdararekin batera (maiz auzo-erdara nagusiarekiko lehian) eta gipuzkeratik hurbilen-edo

⁴¹ (Asko) irakurriz ikasten da (ondo) irakurtzen, eta (asko) idatziz (ondo) idazten. Egokia da, alde horretatik, itzultzaile-prestakuntzaz Dionisio Amundarainek inoiz (2002-III-7an) ETBlen esana: «idazlea ez da ikastaro batean egiten, idazlea egiten da jardunda, arituta, izerdi pixka bat botata». (Unamuno 2002: 201).

⁴² Hori da oro har, ez alderantzizkoa, jardutearen eta jakitearen arteko konexio-ordena nagusia. Jardunaren poderioz ikasten da hitz egiten, irakurtzen eta idazten. *Trial and error* bidetik egiten da hori, sarri: ez lehenik ondo-ondo ikasi eta gero ikasitako horretaz erraz-erraz egiten hasi. Aspalditik dator, gure artean, jardunaren bidezko gaitasun-eskuratzearen ikuspegia eta idazketak irakurketaren gainetik duen lehentasun nabarmena. (Orduko) euskal ortografia bateratuari buruzko azalpen-saio labur bezain argian honela mintzo zen Juan Jose Ayerbe *Euskal Esnalea* aldizkarian, 1913an: «Advertencia de capitalísima importancia: para escribir bien en euskera con la misma facilidad que ortográficamente lo hacemos en castellano, más sirve una hora de escritura semanalmente que un año de lectura diaria de varias horas» (Ayerbe, 1913: 127).

⁴³ Batez ere irakasleen eta unibertsitate-esparruko ikertzaileen, literaturagileen, kultura-eragiileen, administrazioko zenbait teknikari-guneren eta komunikabideetako euskal kazetarien artean du euskara batuak, gaur-gaurkoz, oinarri sendoena.

⁴⁴ Bost erregistro-maila famatuak (*Frozen, Formal, Consultative, Casual, Intimate*) direla-eta, maila formalak (eta, hein ohargarrian, *consultative* delakoak) hizkuntza-eredu bateratuak du(t)en loturaz, ikus, lehenik eta behin, Joos 1959 eta 1962.

dagoen *Umgangssprache* edo *Alltagssprache*⁴⁵ bidelagun izanik, ari da maizenik gertatzen. Erdararen eragina gero eta nabariagoa da, horregatik, hizkeramolde (asmoz gutxi-asko) batuaz diharduten hiztunen artean: bereziki euskaldun berrien ezpainetan. Egungo hiztun askoren (batez ere erdal elebidunen, sarri euskaldun berrien) ezpainetan batera etorri ohi da euskara batuaren presentzia eta erdararen interferentzia bortitza⁴⁶. Estatistikoki maiz gertatzen den bateratasun horrek ekarri du, itxura denez, euskara batua eta «euskañola»⁴⁷ zenbaiten ustez bidelagun izatea.

Goiko zortzi ezaugarriok ez dira elkarren zeharo berezi; ez dira ortogonal huts. Aitzitik, elkarren gaina edota elkar gurutzatuz moldaturik daude hein batean. Zortzi ezaugarri horien osotasunak definitzen du maiz, nolahi ere, *euskara batua* egungo egunean zer den. Badugu beraz *de facto*-zko adostasun basikorik, «euskara batua, barne-osaeraz, nolakoa da?» galderari erantzuten saiatzeko.

Adostasun-maila ahulagoa lortuko genuke, aldiz, beste galdera hau egingo bagenu: nork *sortua* da euskara batua⁴⁸, noiz eta non? Badago batetik erantzun errazik, konbentzionalki aski onarturik: «euskara batua Euskaltzaindiak sortu zuen, aurrean jakinetatik abiatuak, 1968an; orduan sortu zuen edota, zehazkiago, ordutik hona sortu du». Uste baino ondorio labainkorragoetara eramaten gaitu azalpen simple horrek, zehaztasunetan sartu orduko. Erantzuna ez da, izan ere, uste bezain erraza, argia eta unibokoa. Hori baino zabal-bihurriagoa eta konplikatua da historia, XX. mendeko (eta, are, horren aurretiko) batasungintzari dagokionez⁴⁹.

Euskararen batasunak badu, aurreko adiera horiezaz gainera, beste ezaugarririk: euskaldunon nortasun etnokultural eta soziopolitikoaren muin, ikur eta bidegile da. Munduko hizkuntza estandar gehienak bezain muin, ikur eta bidegile: ikus, aurre-rago, Pragako Eskolaz diharduguneko atala. Honela mintzo zen Jean-Louis Davant

⁴⁵ Kontzeptu ezaguna da *Umgangssprache* hori filologia (eta, gero, hizkuntza-soziologia) alemanen esparruan, Joachim Heinrich Campe-k XIX. mende-hasieran etxekotu zuenetik (ikus Heinz Küpper, 1956, 9: *Wörterbuch der deutschen Umgangssprache*). *Alltagssprache* ere esaten zaio, partez. Definizioari dagokionez, *Duden* hiztegiaren bi adieretarik lehenengoa dugu hemen gogoan: «Sprache, die im täglichen Umgang mit anderen Menschen verwendet wird; nicht der Standardsprache entsprechende, aber weitgehend akzeptierte, meist gesprochene überregionale Sprache. Die Umgangssprache, auch *Alltagssprache*, ist — im Gegensatz zur *Standardsprache* und auch zur *Fachsprache* — die Sprache, die im täglichen Umgang benutzt wird, aber keinem spezifischen Soziolekt entspricht».

⁴⁶ Euskaldun berrien eragina honela azaldu zuen bere garaian Luis Villasante euskaltzainburuak: «Gure egunotan, gainera —eta honek arazoaren premia larritu baino ez du egin— gertakari berri baten aitzinean gaude. Euskaldun berriaren gertakariaren aurrean. Euskaldun berria indar bat eta esperantzarako bide bat da euskararentzat, nola ez! Baina maizenik zer gertatzen da? Euskara liburutik ikasi duelako, euskal ebakera inork irakatsi ez diolako eta hizkuntz komunitatearen galtzarrean bizi ez delako, erdal azentu, doinu edo ebakeraz ahoskatzen duela euskara». (Villasante, 1986: 313 or.).

⁴⁷ Ikus orobat, oso jomuga diferentz ordea, beste zenbait epiteto: «euskara ortopedikoa» batetik (ik., gai horretaz, Zalbide, 1994), «euskara bantu» bestetik.

⁴⁸ Horrela izendaturiko hizkuntza-ereduaz edo hizkuntza-aldaeraz ari gara, ez «euskara batua» terminoaz: azken hori aztertua dugu goraxeago.

⁴⁹ Gogoeta-saio askotxo egin da gai horretaz, gure artean. Ezagunenatariko batzuk baizik ez aipatzearren, ikus Koldo Zuazo (1988, 1989, 2005), Sudupe (2002, 2010) eta, berrikiago, *Jakin*. Azken-azken orduko ekarpeni dagokienez ikus Euskaltzaindiak 2018ko martxo-apiriletako 225 zenbakia. Aztergai nagusia: «Euskara batuak 50 urte. Noranahiko izateko erronka» irailan eta urrian (hurrenez hurren, Baionan eta Arantzazun) egindako jardunaldietan eman diren azalpenak.

Baionan, 1964an, Idazkaritzaren haritik egindako jardunaldiaren sarrera-mintzaldian: «Batasuna, euskaldunen betiko ametsa eta nahikari. Batasuna, harri zaharretan eta erreduletan, bai eta behin ere baino gehiago, euskal bihotzetan barna sartua den helburu. Batasuna, Euskal Idazkaritzak zuekin Euskaltzaindiaren inguruan, bilatzen duen xedea. Batasuna, oroz gainera eta lendabizikorik, gure mintzaia maitean finkatu behar dugun oiñarria. Batasuna izan dadila, gaur eta gero ere, gure griña, gure kezka, gure arrangura lehena. Batasunari esker, agian luzaz biziko dira gure populua, gure Herria, gure Aberria, beste populua, Herri eta Aberri ororen artean». Xede-helburu soziokultural eta politiko-operatiboen perspektiba hori ere kontuan hartu behar da, euskara batuaz mintzo garenean. Euskara batua noiz-non, zergatik eta nola sortu den (zer gizarte-indarrek babesturik eta bultzaturik garatu den) ez ulertzeko arriskua dugu bestela.

I.3. Zer dira hizkuntza estandarrik, eta zertarako, mundu zabaleko perspektiban?

Gure artean ehun urte inguru duen termino horrek, kontzeptu aldetik, urrunago ditu iturburuak mundu zabalean. Hizkuntza-eredu bateratuen kontzeptu-adiera lehenagotik dator: bai hemen eta bai, bereziki, hemendik kanpora aski ezagunak dira hizkuntza-eredu bateratuak⁵⁰, tartean interlektoak. Alexandro Handiaren garaiko eta harez geroztikako esparru helenikoan *koinee* atiko-jonikoak izandako sorburua, ezau-garri-bilduma, erabilmodua eta xedea aipatu izan dira inoiz, gure euskara batuaren aurrekari distirant-famatu posibleak aipatzeko orduan. Hala egin zuen Orixek orain ehun urte inguru (ik. Orixe 1922) eta hala egin izan du Villasantek geroztik (1970: 15-16). Irudi horrek ez gaitu asebetetzen: konparazio horretan, izan ere, handiagoak dira diferentziak antzekotasunak baino. Hain urrutira jo gabe, errazagoa da gure hizkuntza-eredu bateratua perspektiba soziohistorikoan proiektatzea. Mesedegarri da, oro har, azken bostehun urte inguruko hizkuntza-eredu bateratu handi(ago)ak zer eta zertarako (izan) diren analizatzea. Tradizio luzea dago, gure auzo-hizkuntza nagusietan bereziki, hizkuntza-eredu bateratuez baliatzeakoa.

I.3.1. Nebrixaren testigantza goiztiarra

Hizkuntza-eredu-bateratuen nolakoaz eta zertarakoaz egin izan diren azalpen argigarrien artean hor dago, urrunagoko aurrekarietara jo gabe, gure artean hiruzpatalu mendez⁵¹ hain eragin sakona izan duen Antonio de Nebrixaren 1492ko *Gramatica de la lengua castellana*. Berariaz Gaztelako erreginari⁵² aurkezturiko liburuaren, eta (partez) Avilako apezpikuaren babes-makuluaz, asmo hauek irakur litezke liburuaren sarrera mamitsuan:

⁵⁰ Hizkuntza-eredu bateratu intralingualak eta (hasieran esparru euromediterraneoari dagokionez) *lingua franca* direlakoak sartzen dira hemen, ez hizkuntza bakarretik irtendakoak soilik.

⁵¹ Inoiz irakurri duguna egia baldin bada, Oñatiko unibertsitatean XIX. mendera arte erabili zen Nebrixaren gramatika.

⁵² Ez bere senarrari, Aragoiko Fernando erregeari, egiten zaio eskaintza, eta ez bie (ikus Nebrixa, 1492: 3). Ohargarria da hori: Gaztelako erromantzearen gain eraiki nahi da erresuma bateratuaren etorkizuna. Alde batera uzten da Aragoiko koroak bere baitan duen hizkuntza-aniztasuna.

- *bizkuntza-eredu egonkorra* da forma bateratua. Idatzizko hizkuntza-eredu bateratu horri *egonkortasuna* (are *betiereko izaera*) ematen dio hartaz baliatzen den gramatikak. Nebrixaren hitzetan «acordé reducir en artificio este nuestro lenguaje castellano, para que lo que agora y de aquí en adelante en el se escribiere pueda *quedar en un tenor y estenderse en toda la duración de los tiempos* que están por venir». Aurrerago ikusiko dugunez, *egonkortasun* kontzeptua funtsezkoa da hizkuntza-eredu bateratuen teorizazio-lanean.
- *L2 eskuratzeko bidea*⁵³ da hizkuntza-eredu bateratua⁵⁴. Gaztelania arautuaren bidez, latina errazago ikas liteke Nebrixaren esanean. Kultura-esparrurako sarbide eta kultura-hizkuntzen arteko zubi da, hortaz, gaztelania batu horretaz diharduen gramatika. Etxetik eta kaletik gaztelania dakarten gazteen-tzat, oraingoentzat ingelesa bezalatsu⁵⁵ L2 jaso zen latina erraz(ago) ikasteko lanabes⁵⁶. Kultura-esparrurako sarbide eta kultura-hizkuntzen arteko zubi da, beraz, corpus-plangintzak dakarren *eskuratze-* edo *acquisition* eginkizuna. Badugu gure artean, begiak urrutira itzuli gabe, corpus-plangintzak *eskuratze-plangintza* izan dezakeen eragin biziak oihartzun argirik: ikus Koldo Mitxelenaren 1986ko txosten famatuan, sarreran bertan, datoren pasarte⁵⁷ (Mitxelena, 1968).
- *language spread* (ez berariaz *shift*) *lortzeko lagungarri* da hizkuntza-eredu bateratua⁵⁸. Hots, jaiotzez eta helduaroko bizieraz «erdaldun» direnak⁵⁹ «gure» hizkuntzaren jabe bihurtzea: «gure» hizkuntza ikaslaraztea eta, zenbait jardungune, harreman-sare eta rol-eginkizunetan «gure» hizkuntzaz baliaraztea. Hona, berriro ere, Nebrixaren 1492ko hitzak: «Despues que vuestra alteza (Gaztelako erregina) metiesse debaxo de su iugo muchos pueblos barbaros y naciones de peregrinas lenguas y con el vencimiento aquellos tenían necesidad de recibir las leyes quel vencedor pone al vencido y con ellas nuestra lengua: entonces por esta mi arte podrían venir en el conocimiento della como agora nosotros deprendemos del arte dela gramatica latina para

⁵³ Gaurko terminologian, *language acquisition* lortzeko prozeduretako bat.

⁵⁴ Hizkuntza-eredua eta, jakina, eredu horretaz baliatzen den gramatika.

⁵⁵ «Bezalatsu», ez erabat berdin: antz-itxuren ondoan nabarmenak dira, izan ere, orduko eta oraingo eskuratze-lanen eta hartara daramaten ingurumen-baldintzen diferentziak. Bietan L2 eskuratzea dugu, ordea, oinarri-oinarrian.

⁵⁶ Hots, *acquisition planning* modu bat.

⁵⁷ Honela dio Mitxelenak 1968ko batasun-txostenaren I. puntuan: «Ezin-bestekoa, il-edo-bizikoa, dela uste dugu euskera batasun-bidean jartzea. Haur eta gazteei euskeraz irakasten baldin bazaie, eta euskeraz irakatsi behar euskera biziko baldin bada, premiazkoa da guztiari batera edo bateratsu irakastea. Nahi eta behar dugun batasun hori, lehen urratsetan behintzat, euskera idatziarena, izkribuzkoarena, da. Eta, euskera idatziaren barrutian, irakaste-lanean dugu beharrenekin batasun hori, irakurlearen atseginerako egiten den literatura “ederrean” baino areago» (azpimarra gurea). Pasarte horretan LIeko eta L2ko ikasleak ditu gogoan, ez LIekoak bakarrik: etxetik euskaldun ziren neska-mutilen ondoan etxetik erdaldun edo erdal elebidun izanik euskaraz ikasten zuten haurrak ugari-tuz zihoazen, hiriburuetan bereziki: kale-giroko ikastoletan horrela ziren kontuak, jadanik.

⁵⁸ Hemen ere, zehazkiago esanik, hizkuntza-eredu bateratu horretaz baliatzen den (hura erakusten duen) gramatika.

⁵⁹ Hasieran «erdal» hiztun-elkarteetako gizajende hautatuak: konkretuki, beren rol-sorta bereziengatik hitzez edo idatziz «gurekin» interaktuatu behar duten eta, horretarako, «gure» hizkuntzaz balia daitezten nahi dugunak.

deprender el latin. Y cierto assi es que no solamente los enemigos de nuestra fe tienen la necesidad de saber el lenguaje castellano: mas los vizcainos, navarros, franceses, italianos y todos los otros que tienen algún trato y conversación en España y necesidad de nuestra lengua: si no vienen y desde niños a la deprender por uso: podran la mas aina saber por esta mi obra⁶⁰».

Bistan da hizkuntza-eredu bateratua ez dela, ez hemen eta ez bestetan, elementu linguistiko huts⁶¹. Konnotazio eta eragin estralinguistiko argiak ditu hizkuntza-plan-gintzaren esparruan, glotopolitikan eta (lehen edo bigarren) hizkuntzak eskuratzeko prozeduretan. Hizkuntzari egonkortasuna emateaz gainera, hizkuntza berriak ikas-teko abiaburu gerta liteke hizkuntza-eredu bateratua eta, bereziki, «erdaldunen» artean «gure hizkuntza» zabaltzeko lagungarri sendo.

Ugarituz joan izan dira Nebrixaz geroztik⁶², Europako hainbat hiztun-herritan, nork bere etxerako begiz jotako «hizkuntza on»aren edo hizkuntza-eredu bateratu «hobetsi»aren gaineko gogoeta-lan teorikoak eta aplikazio praktikoak. *Grundrichtjkeit* eta *bon usage* gero eta garrantzitsuago bihurtu izan dira, eta hartarako hainbat lan kale-ratu ere bai: XVII. eta XVIII. mendeak beterik daude «des guten Gebrauchs Wegzeiger⁶³» modukoez. Perspektiba zabalerako ikus, lehen hurbilketa gisa, G. A. Padley-ren 1983ko «La norme dans la tradition des grammairiens». Estatu-sorkuntzaren lan-tresnatzat aukeraturiko hizkuntzetan gertatu izan dira, oso bereziki, «hizkuntza on»aren aldeko gogoeta-saio horiek. Ez horietan bakarrik, ordea: XIX. mendean presente egonik dira, inoiz edo behin, gutxien espero izan zitezkeen hizkuntzei buruzko albo-lanetan ere: tartean, erdara (frantsesa, gaztelania) ikas-teko testuliburuetan⁶⁴. XX. mendeak ezagutu du, dena den, hizkuntza-eredu bateratuen gaineko gogoeta-lan teoriko zabalena. XX. mendeko soziolinguistikaren alorrean leku berezia izanik dute, Europan eta Ipar Amerikan, bidegile goiztiarrei dagokienez, ondoren aztertuko ditugun Pragako Eskolak, Heinz Kloss-ek, Uriel Weinreich-ek, eta Georg

⁶⁰ Oin biko aitorten sakona da hori. Kontura gaitezen, batetik, Nebrixaren arabera *vizcayno* eta *navarro* askok (gehienek?) ez dakiela gaztelaniaz, etxetik: zenbaitek (ez guztiek) gero ikasten duten L2 da gaztelania. Ohargarria da, bestetik, *vizcainos*, *navarros*, *franceses*, eta *italianos* parez pare jartzen gaituela hor Nebrixak. Katalan-galiziarren aipamenik ez du, aldiz, egiten. Zergatik? Orain dela bostehun urteko katalan-hiztunek eta galiziarrek gaztelaniaz egiteko, irakurtzeko eta idazteko aparteko eragozpenik ez zutela pentsatzen duelako? Aragoi artean aparteko erresuma izatea ezin izan liteke baliozko argudio: hala zen Frantzia ere, batetik; Galiziarako ez zukeen argudio horrek aparteko balio-indarrik, bestetik.

⁶¹ Análisi zabalxeago baterako ikus William G. Milán, 1983: 122-4 or.

⁶² Lehentxeagotik dator, antza, ordura arte hizkuntza *vulgar* edo *vernacular* izandako mintzamolde arruntak bere gramatikaz hornitzeko joera: ikus Leon Battista Albertiren 1450 inguruko *Regole della lingua Fiorentina* (Padley, 1983: 71). Aski zirkulazio mugatua izan zuen ordea lan horrek, mende luzez (1908ra arte zehazki: ik. Sanson eta Luccioli, 2016: 355). Askotan Nebrixaren lana hartzen da orain ere, horregatik, lehen saiotzat.

⁶³ Ikus J. G. Schottel-en 1663ko *Ausführliche Arbeit von der Teutschen Haupt Sprache*. Brunswick, 10 or.

⁶⁴ Neska-mutil euskaldun elebakarrak euskaratik erdarara iraganarazteko *transitional bilingualism* programetan (hartarako berariaz prestaturiko ikasmaterialetan) ageri den hizkuntza-lanketa zainduaz ari gara hemen. Oso kontuan hartzeokoak dira, alde horretatik, Archu, Astigarraga, Iturriaga eta Eguren: azken hiru horietarako ikus Zalbide, 1990: «Euskal Eskola, asmo zahar bide berri», 2007c: «Pedagogoa batzar nagusietan. Hizkuntzen azterbideak, Iturriagaren argitan», eta 2011a: «Hizkuntza-aldaren lekua eta eragina EAEko eskola-munduan».

Kremnitz-ek. Horien guztien eragin bizia nabari da Ipar Amerikako esparru akademikoan ere: bai Quebec-en⁶⁵ eta bai Estatu Batuetan (besteak beste Einar Haugen-en⁶⁶, Charles A. Ferguson-en⁶⁷, Joshua A. Fishman-en⁶⁸ eta Robert L. Cooper-en⁶⁹ baitan). Beste zenbait lekutan ere ekarpen sendoak egin zaizkio gaiari⁷⁰. Horien guztien bidaide eta (hein batez, ez erabat⁷¹) zordun gara euskaldunok ere. Mundu zabaliko bidegile teoriko horien ekarpen nagusiak gogoan izateak mesede egingo digu, horregatik, gaurko gaia behar bezala lantzeko.

1.3.2. Hizkuntza-eredu bateratua, estandarra, Pragako Eskola Linguistikoaren arabera

Atzerriko hiztun-herri askotan argi berezi ohi da, gure artean bezala, batetik *folk speech* edo herri-hizkeraren eta bestetik *standard language* edo hizkuntza batuaren artean⁷². Aspaldiko gauza ezaguna da hori. Baita hizkuntza-eredu bateratuen ezaugarri nagusia ere: «a codified form of a language, accepted by and serving as a model to a larger speech community». (Garvin, Paul L. eta Madeleine Mathiot, 1968: 365). Horko *codification*-arautze horrek gauza bi ditu berekin: a) *normatibazioa* (hots, gramatika eta hiztegi arauemailetan finkaturiko norma- edo arau-multzoa); b) *norma-arau horiek bezurramitzea* edo *implementazioa*: ortoepiaren eta ortografiaren laguntzaz hiztun-idazleen hizkera- eta idazkera-moldea kontrolatzea. *Codification*-arautze hutsa ez da aski, *standard language* bat izateko: *codified form* horrek «accepted by and serving as a model to a larger speech community» izan behar du. Lehen pausoa bezain beharrezkoa da bigarren hau⁷³.

Gutxiagotan azpimarratu izan da, aldiz, herri-hizkeren eta hizkuntza batuaren arteko dikotomiak kultura alorrean duen baliokidetzaren argia: «the linguistic equivalent of the distinction between folk cultures and urban cultures is the differentiation made by scholars of the Linguistic Circle of Prague and others between *folk speech* and the *standard language*. (...) We may consider a *standard language* a major linguistic

⁶⁵ Ikus Édith Bédard eta Jaques Maurais ed., 1983: *La Norme Linguistique*. Québec: Conseil de la langue française.

⁶⁶ Ikus, beste zenbait lanen artean, 1966ko *Language Conflict and Language Planning: The Case of Modern Norwegian* eta 1983ko «The Implementation of Corpus Planning».

⁶⁷ Ikus bereziki Charles A. Ferguson-en 1968ko «Language development».

⁶⁸ Ikus, beste lan askoren artean, Joshua A. Fishman-en 1974ko «Language planning and language planning research: the state of the art», 1983ko «Modelling rationales in Corpus Planning: modernity and tradition in images of the Good Corpus», urte bereko «Aménagement et norme linguistiques en milieux récemment consensués» eta, editore gisa, 1974ko *Advances in language planning*.

⁶⁹ Ikus, bereziki, Cooper, 1989. Bere *Language Planning and social change*.

⁷⁰ Esparru germanikorako ikus, beste askoren artean, Georg Kremnitz-en 1990eko *Gesellschaftliche Mehrsprachigkeit. Institutionelle, gesellschaftliche und individuelle Aspekte*. Viena: Braumüller.

⁷¹ Hurrengo txostenetan, Euskaltzaindiaren mendeurrenkari prestaturikoetan, azaltzen da xeheki zergatik ez garen zordun huts. Bego beraz, oraingoz, bere horretan.

⁷² Hona, bereizkunde horren ildotik, aspaldiko eta ez hain aspaldiko zenbait termino tekniko: alemanezko mintza-esparruan hor ditugu, adibidez, batetik Mundart eta bestetik (azpi-bereizkunde xume baina garrantzitsuez) Hochsprache zein Standardsprache (Kloss, 1978). Zenbait ezaugarri dagokionez erdibidekotzat-edo har litekeen *Umgangssprache* ere ez da begien bistatik galdu behar (ik. termino horretaz gorago adierazitakoa).

⁷³ Maiz-asko zailagoa eta iraupen luzeagokoa ere bada, oro har, bigarren pausoa. Horretaz ahaztu egiten gara euskaldunok, zenbaitetan, euskara batuaz eta euskararen batasunaz edo bateratzeaz jarduterakoan. Estandarizazioa eta arau ematea gauza bera balira bezala hartzen ditugu halakoetan.

correlate of an urban culture, and we may furthermore consider the degree of language standardization in this technical sense a measure of the urbanization of the culture of the speakers»⁷⁴. (Garvin, Paul L. eta Madeleine Mathiot, 1968: 365). Lotura hori, eta beste hainbat, sistematikoki landuak ditu *Pragako Eskola (Linguistikoko)* edo *Pragako Hizkuntza Bilkura* delakoak.

Pragako Hizkuntza Bilkura, jatorriz *Pražský lingvistický kroužek*, famatua da linguistika alorrean⁷⁵. Ez horretan bakarrik, ordea: soziolinguistikan oro har, eta hizkuntzen corpus-plangintzan bereziki, ezin baztertuzko ekarpenak eginik ditu orobat. Nagusiki XX. mendearen 30eko hamarkadan, batez ere 1932tik 1939ra artean⁷⁶, azalpen argiak eta zehatzak eman zituen hizkuntza-eredu bateratuen, hizkuntza estandarren, gainean. Herri-hizkeren edo *folk speech*⁷⁷-en aurrez aurreko (oro har bere kontrako) kontzeptua da, Eskola horretako kide gehienentzat, *hizkuntza estandarra*. Besteak beste direla Bohuslav Havránek⁷⁸ eta Vilém Mathesius⁷⁹ gailen agertu ziren zehaztapen-lan hartan⁸⁰. Azalpen-saio haietatik abiatu izan gara lehen (ikus Zalbide 2002), eta, han esandakoak zertxobait zehaztuz, hartara bilduko gara gaurkoan ere. Madeleine Mathiot-en eta Paul L. Garvin-en arabera, hizkuntza-eredu bateratu-estandarraz

⁷⁴ Hori baino gehiago ere irakur liteke artikulu horretan: «In intra-cultural terms, different segments of a speech community can be compared as to the degree to which the standard language has penetrated them, just as different subcultures of the same culture can be compared in terms of different degrees of penetration by urban elements». (Garvin, Paul L. eta Madeleine Mathiot, 1968: 366).

⁷⁵ Txekiako Pragan eta Brno hirietan sortu eta garatutako literatura-kritikari, filologo eta linguistika-taldea zen «The Prague school, or Prague linguistic circle» delakoa. Estrukturalismo alorrean jardun zuen nagusiki, baina ez hor bakarrik. Gehienak txekiarrak izanik ere jaiotzaz, zabalagoa zen bere esparrua: Moskutik ihesi etorritako Roman Jakobson eta, Vienako unibertsitatean asentaturik, (morfo)fonologian hain bide-urratzaile izandako Nikolai Trubetzkoy hizkuntzalariak ere tarteko zituen.

⁷⁶ Batez ere epealdi horretan, baina ez hor bakarrik: lehenagotik (1926tik) hasi zen berez, eta beranduago arte (gutxienez 1948ko estatu-kolpera arte) iraun zuen bere eraginak.

⁷⁷ Garvin-en esanean «I can now further specify *folk speech* as any variety of language that has not been affected by language planning» (Garvin, 1974 [1973]: 72). Oro har egia bada ere hori, gauzak ez dira hain «zuri eta beltz». Hala dio Garvin-ek aurreraxeago (Garvin 1974 [1973]: 73) eta bat gatoz bere ohar horrekin. Gure eguneroko mintzajardunak barru-barruan daramatza behinolako plangintza-saioen oihartzun lexikal, semantiko eta, inoiz, morfosintaktikoak. Ez da hori gaurko aztergaia, ordea, eta utz dezagun bere horretan.

⁷⁸ Europako estrukturalismoan oro har, eta soziolinguistikan zein hizkuntzen historian, aparteko lekua du Bohuslav Havránek-ek: hizkuntza estandarrei buruzko bere azalpen teorikoak funtsezkoak dira orain ere. Ikus, besteak beste, Bohuslav Havránek-en 1932ko «Úkoly spisovného jazyka a jeho kultura» (frantses-itzulpenean «Emploi et culture de la langue standard»), 1940ko «Oživený regionalismus a český jazyk», 1942ko «K funkčnímu rozvrstvení spisovného jazyka» eta 1947ko «Zásady pražského lingvistického kroužku a kodifikace spisovné češtiny»; ikus orobat Bohuslav Havránek-en eta Milos Weingart-en 1932ko *Spisovná čeština a jazyková kultura* («txekiera batu-estandarra eta hizkuntza-lanketa»). Ikus, azkenik, Otakar Vašek-en eta Bohuslav Havránek-en *Česká a slovenská literatura v Jugoslavii od 1800 do 1935*.

⁷⁹ Ikus, batez ere, Vilém Mathesius-en 1932ko «O požadavcu stability ve spisovném jazyce» eta 1948ko «Problémy české kultury jazykové».

⁸⁰ Beren ekarpenak ez dira, txekieraz idatzirik daudenez gehienak, irakurtzen errazak. Badira, ordea, lan haien azalpen-saio sintetiko argiak: ikus, bereziki, Paul L. Garvin-en 1973ko «Some comments on Language Planning», 1983ko «Le rôle des linguistes de l'École de Prague dans le développement de la norme linguistique tchèque», Paul L. Garvin-en eta Madeleine Mathiot-en 1968ko «The urbanization of the guarani language: a problem in language and culture», eta Madeleine Mathiot-en eta Paul L. Garvin-en 1975ko «The functions of language. A sociocultural view».

Pragako Eskolak egindako ekarpenak hiru irizpide-sortaren arabera defini litezke: hizkuntza estandarren berezko ezaugarriak, bere funtzioak eta hizkuntza-eredu horrekiko jarrerak kontuan hartuz.

- a) **Berezko ezaugarriak:** ezaugarri estruktural bi dituzte, ororen gainera, hizkuntza estandar-bateratuek: *flexible stability* edo egonkortasun malgua, batetik, eta *intellectualization* nabarmena, bestetik. Ikus ditzagun biak banan-banan:
- a1) *flexible stability* edo *egonkortasun malgua* ageri dute hizkuntza-eredu bateratuek: *codification-arautze* egokia dute beren baitan, alde batetik; bestetik, aldiari aldiko *eguneratzea* egin ahal izateko *flexible stability* ageri dute hizkuntza batu-estandarrek. *Egonkortasun* kontzeptuaz hitz egin dugu goraxeago, Nebrixaren *Gramatica*-k galtzarbean zituen xede-helburuak aipatzerakoan⁸¹. Ikus, orobat, *stability* horixe bera baitu helburu, Real Academia Española-ren «fija, limpia y da esplendor» goiburuko lehen elementua: «fija». Gai garrantzitsua izanik da egonkortasuna, orobat, Meillet-entzat: perspektiba historiko zabalean, «Renouvellement des langues» atalean, funtsezko puntuak⁸² izanik ditu *stabilité* eta *instabilité* kontzeptuak (Meillet 1918: II7-9). Funtsezko kontzeptua da *egonkortasuna*, funtsezkoa eta maiz aitatu⁸³, hizkuntza estandar-bateratuen ezaugarrietan. Hizkuntza-eredu bateratuez jarduterakoan *stability* hori bezain funtsezkoa da, ordea, *flexibility* delakoa. *Malgutatusun* kontua gutxitan azpimarratu izan da Pragako eskolakideen aurretik. Hizkuntza-ereduek, zabal garatuko badira eta luzaro iraungo badute, *egonkor* baina *malgu* izan behar dute: egonkortasunaz gainera ezinbestekoa dute *malgutatusuna*. Funtsezko kontzeptu da azken hau ere, gure arteko batasun-bidea argi ulertu ahal izateko⁸⁴.
- a2) aski *intelektualizaturik* egon ohi dira hizkuntza-eredu bateratuak: gizarte-molde urbano-aurreratueta eta jardungune landu-formaletan hain noraezekoa den gogoeta-lanerako gaiturik egon ohi dira normalean. Ferguson-en 1968ko *modernization* moduan uler liteke, oro har, intelektualizatze-lan hori. Honako ezaugarriok ditu *intellectualization* horrek: hiztegi osatu-garatuak (termino abstraktu eta generikoez aberastuak)

⁸¹ Gogoratu Nebrixaren 1492ko esarak *stability* bakarrik ageri duela: «reducir en artificio este nuestro lenguaje castellano, para que lo que agora y de aquí en adelante en el se escribiere pueda quedar en un tenor y estenderse en toda la duración de los tiempos que están por venir».

⁸² «Chez un peuple très cultivé, la langue écrite a une grande action conservatrice». (Meillet, 1918: II9).

⁸³ Onarpen-maila partzialekoa da, ordea, XX. mendearen erditik honako adituen artean. Honela zioen Charles A. Ferguson-ek 1968an, bere «Language development» artikuluan: «It is sometimes asserted that the existence of a written variety inhibits language change, thus constituting an important influence for uniformity through time comparable to the kind of regional and social uniformity implicit in standardization. Evidence on this point is conflicting and the question merits systematic study» (cf. Zengel, 1962). (Gure iturria Ferguson, 1968: «Language development»).

⁸⁴ Euskararen batasun-lanketa prozesu bat dela esan nahi du *flexibility* horrek, ez behin eta betiko egin eta amaitutzat eman litekeen zehaztapen zurruna. *Egonkortasuna* bezain berea du hizkuntza-eredu bateratu orok, gutxiagotan aipatzen bada ere, aldiari aldiko beharrienei egokitu ahal izateko *malgutatusuna*.

daude hizkuntza estandarrek, eta gramatikaz aski sistematizatuak⁸⁵. Eguneroko mintzamolde arruntek ez bezalako garapen eta elaborazio-lanketa terminologikoa izan dute, batetik, hizkuntza-eredu bateratuek. Hizkera- eta, bereziki, idazkera-molde espositibo zabaletarako baliabide sintaktiko eta diskurtsibo bereziak (oro har eguneroko mintzamolde arruntek baino konplexuagoak) baliatu ohi dituzte, bestetik: prosa-estilo landua(k). Xenpelarren euskarak ez zion Mitxelenari, horregatik besteak beste, balio: ez zuen aski (Mitxelena, 1968).

- b) **Funtzioak:** hizkuntza estandarrei lau funtzio (hiru sinboliko eta objektibo bat) atxiki dizkiete Madeleine Mathiot-ek eta Paul L. Garvin-ek, Pragako Eskolaren bidetik: *batasun-iturri*, *erdal hizkuntzekiko bereizketa-hesi*, *prestigio-iturri* eta *erreferentzia-marko* izatea. Hona laurak, labur-labur:
- b1) *batasun-iturri* dira hizkuntza estandarrek: hizkuntza bereko dialekto orotako hitzunen lokarri. Batasun-iturri izateak abantaila argia damaio euskara batuari ere⁸⁶: euskaldun (hots: hitzun-elkarte osoko kide) guztien lokarri izango den aldaera eskaintzen die euskara batuak euskalki edo mintzamolde orotako hitzunei;
- b2) *bereizketa-hesi* dira, bestalde, hizkuntza estandarrek: erdal hizkuntzekiko bereizketa-hesi. Hizkuntza-ukipena hain noraezekoa den gizarte-giro modernizatuetan⁸⁷ era guztietako hizkuntza-interferentzia (lexikala, semantikoa, fonetikoa, morfosintaktikoa) hain gertaera bizi eta zabaldua izanik, hizkuntzaren autonomia indartzera dator bereizketa-hesi hori. Auzo erdara nagusiekiko beregaintasuna zurkaiztera dator lehenik, eta hitzun-elkartearen beregaintasun etnolinguistikoa eta soziohistorikoa sendotzera, oro har;
- b3) *prestigio-iturri* dira, bide batez, hizkuntza-eredu bateratu edo estandarrek. Bere hizkuntzari hainbateko garapen-maila emateko gai izan den hitzun-elkarteari, eta hizkuntza garatu horretaz baliatzeko gai bihurtu den hitzun-jendeari, berariazko itzala eta sona ematen die hizkuntza-eredu bateratuak. Funtsezko elementua izan ohi da ezauzgarri hori ere hitzun-elkarte ororen (eta, bereziki, ahuldutako hizkuntza txikien) plano sinbolikoan. Honelako zerbait esatera dator hizkuntza-eredu bateratua, bere hitzunen gogoan: «gu ez gara inoren morroi; ez gara hizkuntza handi baten *jerga*, *patois* edo dialekto mintzatzaille, edozertaz hitz egiteko eta idazteko balio duen hizkuntza jasolandu baten erabiltzaille baizik»; eta
- b4) *erreferentzia-marko eragingarria* da hizkuntza-eredu bateratu edo estandarra: zuzentasun- eta egokitasun-irizpideen erreferentzia-marko eta edertasun-patroi. Hizkuntzaren erabilera zuzen-egoki-ederraren erreferente argia, bai idatzizkoan eta bai mintzajardun jaso-eder asmozkoan.

⁸⁵ *Intellectualization* horretaz ikus, bereziki, Havránek 1932.

⁸⁶ Euskara batuari eta, oro har, edozein hizkuntza-eredu bateratu edo hizkuntza estandarri.

⁸⁷ Gizarte modernizatuetan oro har, eta testuinguruarengatik ahul diren hitzun-elkarte txiki modernizatuetan oso bereziki.

Horrela dira kontuak gure artean ere: maizenik⁸⁸ euskara batuaren arauak hartu ohi dira *erreferentzia-marko gisa*, hizkuntzaren erabilera (batez ere idatzia) zuzen-egokia den ala ez epaitzeko.

Funtzio horietariko bakoitzak leku ezaguna du gure artean. Oso ezagunak dira guztiak, oro har, euskararen XX. mendeko batasun-lanketan. Ez gara hemen elementu horien guztien zehaztapen-lanetan sartuko, ez baitugu haritarako lekurik. Bistan da, ordea, funtsezko elementuak direla laurak: horiek gabe ezin da ulertu, besteak beste, euskara batuak ehun urte luzez gure artean piztu duen itxaropen-zuzia eta eragin duen hainbat gogoeta.

- c) *Hizkuntza batuarekiko jarrerak*. Hiru jarrera atxiki dizkiete Madeleine Mathiot-ek eta Paul L. Garvin-ek, Pragako Eskolaren bidetik, hizkuntza batu-estandarrei: batetik, *language loyalty* (gurean *euskaltzaletasuna*); bestetik, *batasun*-arau horren jakinaren gaineko *satisfazioa*; hizkuntza zuzen bat bade-lako *jakitun izatea*, azkenik. Hona hirurak, labur-labur:
 - c1) *language loyalty* delakoaren bidelagun (eta agian bultzagarri) izan ohi da hizkuntza-eredu bateratua. *Language loyalist*⁸⁹ (gurean oro har *euskaltzale*⁹⁰) izateak berekin dituen ezaugarri funtsezkoen barnean sartzen da gero eta jende gehiagok (ahalik eta hiztun-elkartearen lurralde zabalenean, hiztun gehienaren ezpain-lumetan, jardungune eta rol-harreman gehienetan) hizkuntza horretan egin dezan saiatzea;
 - c2) *batasun*-arau horren jakinaren gaineko *satisfazioa*. Hizkuntzari atxikitako prestigioaren ondorio da satisfazio-urguila hori, autore hauen esanean; eta
 - c3) *norma zuzenaren jakitun izatea*, esatez eta egitez. Kodifikazio grafiko, lexikal, fonetiko eta morfosintaktikoa aski onarturik dagoen seinale izaten da, normalean, norma zuzenaren jakitun izate hori. Hala dira kontuak, oro har, euskaldunon kasuan ere: gero eta gehiago dira, oro har, *norma zuzenaren jakitun izateko* baliabideak. Jakitun izatea ez da aski, ordea, normaren gizarte-onarpen zabala segurtatzeko. Ikus horretaz aurrerago esango direnak.

Hizkuntza estandar idatziaz jardundakoak dira, nagusiki, Pragako Eskolakoak. Ahozko estandarra ere landu izan dute, ordea, han-hemen. Demagun Bohuslav Havránek-en 1935eko «K otázce normalisování české spisovné výslovnosti» (frantses-itzulpenez «La normalisation de la prononciation littéraire tchèque»). Idatzizko hizkuntzaz zein ahozkoaz jardun, bistan da ekarpen handiak eginik dizkiola Pragako Eskolak hizkuntza estandarren kontzeptuari. Geroko corpus-plangintzaren iturburu teoriko nagusietako bat hor dago. Nagusietarikoa izanik ere, ez da ordea bakarra. Herri-hizkeren eta hizkuntza-eredu bateratuen arteko diferentziak beste galdera batzuez osatu behar dira. Ondoko galdera hauek, batez ere, ezin itzurizkoak dira: a)

⁸⁸ Ez beti, ordea. Bertsolarien jardunak bere zuzentasun, egokitasun eta edertasun-patroi propioak izanik ditu XX. mendean (aldatuz joan dira horiek, gainera), eta bere patroiak ditu orain ere: batutik lehen baino ondotoxoz hurbilagokoak dira oraingoak, bai, baina hein batez beregainak.

⁸⁹ Ikus Uriel Weinreich, 1953: 99 eta hur.

⁹⁰ *Euskalgintza, euskaltzaletasun eta euskaltzale* kontzeptuei buruz ikus, besteak beste, Zalbide 2007b.

zertarako dira eguneroko mintzamolde arruntak eta hizkuntza estandarrak? b) nola eskuratu dira eguneroko mintzamolde arruntak eta nola hizkuntza estandarrak? Hainbat aditu saiatu da XX. mendean galdera horiei, eta inguruko beste zenbaiti, erantzun argia ematen. Ikus dezagun, adibidez, II. Mundu Gerra hasi aurretik eta amaitu ondoan Heinz Kloss-ek emandako zenbait azalpen.

I.3.3. *Hizkuntzen corpus-plangintza, Heinz Kloss-en arabera:*

larreko hizkuntza handiki-soinekoz janztea

XX. mendeko (batez ere 1960 ingurura arteko) hizkuntza-soziologiaz ongi jabetzeko, ezinbestekoa da Heinz Kloss-en ekarpenak gogoan izatea⁹¹. Ondotxo lan gehiago utzi badizkigu ere han-hemen⁹², eta 1929ko bere ekarpenak⁹³ aurrekari zuzentzat har litezkeelarik, 1952ko *Die Entwicklung neuer germanischer Kultursprachen von 1800 bis 1950* liburua garrantzi handiko obra da⁹⁴. Inori baino gehiago berari zor diogu, seguruenik, mende-hasieratik bederen bizirik zegoen *Kultursprache* edo *lingua de cultura* terminoa 1960tik honako Hizkuntza-soziologiaren esparru teknikoan indar berriz zabaldu eta finkatu izana.

Terminoa ez da, esan bezala, Heinz Kloss-ek 1952an sortua. Lehendik dator etorri, bai alemanez eta bai Europako hainbat hizkuntzatan, kontzeptu-termino hori: justu-justu hori, edo horren hainbat ordain⁹⁵. Gure artean ere hala izanik dira

⁹¹ Alemaniako beste zenbait (sozio)linguistaren kasuan bezala aski kontuz hartzeko lana da hori, motibo etiko eta politikoengatik. 1904an jaio zen Heinz Kloss, eta 1987an hil. Bere garai-aldiko beste hainbat irakasle unibertsitario edota ikertzaile alemanek bezala harreman eta inplikazio ukalezina izan zuen nazismoarekin. Lotura horren nolakoaz eta zenbaterainokoaz ikus *Christopher Hutton 1999*, Terrence G. Wiley 2002, Cornelia Wilhelm 2002 eta Clemens Knobloch 2005. (Gure) irismenetik kanpora dago orain, zoritxarrez, inoiz esku artean izanik dugun Gerd Simon-en *Heinz Kloss. Von Auftrag und Ordnung der Völker* lana, jomugaz aurreko argitze-saio horiekien bat datorena. Leo Weisgerber-en nazi-lotura kontuetarako ikus Goebel, Hans, 2005: «Forschungsethische Probleme». Honela dio Goebel-ek 3.3 puntuan, «The strange case of Sonderführer Weisgerber» izenpean: «In den letzten 15 Jahren wurde die wissenschaftsgeschichtliche Aufarbeitung der NSZeit massiv vorangetrieben. Anhand der dabei zutage geförderten historischen Fakten hinsichtlich des Verhaltens verschiedener Linguisten während der NS-Zeit selber und hinsichtlich deren Umgangs damit nach 1945 wurden kritische Standards erarbeitet, die auch für die Belange der Forschungsethik relevant sind».

⁹² Ikus, 1929ko «Sprachtabellen...» delakoaz gainera, urte bereko *Nebensprachen*, 1966ko «Types of Multilingual Communities. A Discussion of Ten Variables» eta «German-American Language Maintenance Efforts», 1967ko «Abstand Languages and Ausbau Languages», 1969ko *Grundfragen der Ethnopolitik im 20. Jahrhundert. Die Sprachgemeinschaften zwischen Recht und Gewalt* eta «Research Possibilities on Group Bilingualism: A Report», 1971ko «Language Rights of Immigrant Groups», 1973ko «Möglichkeiten und Grenzen einer nichtdichterischen Prosa (Sachprosa) in plattdeutscher Sprache» eta 1977ko *The American Bilingual Tradition*.

⁹³ Izenburu hau du 1929ko lehen artikulua: «Sprachtabellen als Grundlage für Sprachstatistik, Sprachkarten und für eine allgemeine Soziologie der Sprachgemeinschaften».

⁹⁴ Litekeena da obra honen inspirazio-iturria, izenburuari dagokionez, Otakar Vašek-en eta Bohuslav Havránek-en 1940ko «Česká a slovenská literatura v Jugoslavii od 1800 do 1935» izatea. Edukiari dagokionez, aldiz, Kloss-en beraren 1929ko «Sprachtabellen als Grundlage für...» artikulura jo behar da aurrekari bila.

⁹⁵ Kontzeptua bera terminoa baino zaharragoa da. Schiller poeta alemanaren «gebildete Sprache» hor sartzekoa genuke, hein batez bederen, Jespersen-ek handik ehun urte ingurura «langua-

kontuak, euskaraz edo gaztelaniaz (inoiz frantsesez): erdarazkoetan hor ditugu 1936 aurreko *lengua de cultura*⁹⁶ eta *lengua de civilización*⁹⁷ direlakoak (frantsesez *langue de culture* eta *langue de civilisation*⁹⁸), eta gerraondokoetan (*berri-bizkuntza* edo *berri-bizkera* terminoen aurrez aurre) euskarazko *bizkuntza landua*⁹⁹, *literatur-bizkuntza*¹⁰⁰ eta *kultur bizkuntza*¹⁰¹. Kloss-en merezimendua da, nolana ere, *Abstandsprache* eta *Ausbausprache* arteko

ge of culture» itzuli zuela kontuan izanik (Jespersen, 1925: 115 or.) Beste bidetik doan, hein batez, euskaldunok «hizkuntza jaso» dioguna: ikus gaztelaniazko «lenguaje culto», alemanezko «gehobener Wortschatz», etab. Aparteko analisisa zor zaio, nolana ere, *Kultursprache* edo *kultura-bizkuntza* edo *bizkuntza landu* kontzeptuari. Gaur ez daukagu, bistan denez, azterlan horretan sartzerik. Funtsezkoa da, ordea, euskara batuaren XX. mendeko sorburuen eta ibilbide bihurriaren atze-aurreak argi ulertzeko.

⁹⁶ Etxekoetan ikus, batetik, Unamunoren 1903ko «La cuestión del vascuence»: a) «la principal causa es de origen intrínseco y se basa en la ineptitud del eusquera para convertirse en *lengua de cultura*». (194. or.); b) «su gramática es más compleja, (...) lo que le aproxima y asemeja a los idiomas de los pueblos más atrasados, alejándole y desemejándole de las modernas *lenguas de cultura*» (216. or., azpimarra bietan gurea). Ikus, bestetik, Urkixo: «Aun dejada de lado toda razón de orden sentimental, la necesidad de convertir al vascuence en *lengua de cultura* es consecuencia lógica del deseo de conservarlo (Urquijo, 1919: 15; azpimarra gurea)». Terminoaz baliatzen diren kanpoko adituetan, azkenik, luzea da zerrenda.

⁹⁷ Ikus Julio Urkixoren 1919ko *Lengua Internacional y Lenguas nacionales. El «eusker»*, *lengua de civilización*. Bertakoa da pasarte hau: «es un hecho admitido por todos los lingüistas, que allí donde lucha una *lengua de civilización* con otra reducida al uso vulgar y que no se cultiva literariamente, la primera acaba por imponerse a la segunda». «Es esto tan cierto que aun en nuestro propio país, mientras el vascuence cede ante el empuje del castellano, *lengua de civilización*, permanece estacionario en su frontera vasco bearnesa, porque allí no linda propiamente con el francés, sino con un patois vulgar e iliterario». *Lengua de civilización* horren adieraz jabetzeko ikus Meillet-ek, 1918ko *Les langues dans l'Europe nouvelle* famatuan, termino hori nola darabilen. Britainia Handiko eta Britainiako zelta-hizkerez ari delarik, esate baterako, honela dio: a) «Presque tous les sujets des pays anciennement celtiques de la Grande-Bretagne parlent aussi l'anglais, qui est leur *langue de civilisation*, et les *parlers celtiques* ne sont pour eux qu'une *langue locale*» (...); b) «dans le Bretagne française (...) le breton est en recul constant (...) dans les villes, le français est la seule langue usuelle. Partout, c'est la seule *langue de civilisation*». Argi dago *langue local* edota *parlers celtiques*-en aurrez aurreko terminoa dela Meillet-en *langue de civilisation* hori. Are argiago ikusten da kontua ondoko pasartean: «Chaque nation, si petite soit-elle, veut avoir sa *langue de civilisation* à elle. (...) toutes les nations slaves se donnent leur *langue de civilisation* particulière; en face du polonais, du tchèque, du serbo-croate, du bulgare, qui ont de vieux titres de noblesse, se dressent le slovène, le petit-russe, qui n'ont pas de passé. Chaque pays Scandinave publie dans sa propre langue et ce qui est destiné aux gens du pays et aussi, de plus en plus, ce qui s'adresse au monde entier. La nation lettone, la nation lituanienne instituent chacune une *langue de civilisation*». (Meillet, 2018: 10). (Azpimarra gurea).

⁹⁸ 1944an bizirik dago termino hori Lafitteren baitan. Bizirik dago terminoa eta, bereziki, sakontasun historiko handia aitortzen dio kontzeptuari berari: «En tout cas, lors de la colonisation du Pays par les Romains, le *latin* populaire a dû s'imposer comme *langue de civilisation*, et le basque lui a emprunté beaucoup de mots. Les phonéticiens font de *bake*, *paix*; *lege*, *loi*; *laket*, *plaisant*, etc., des emprunts certainement antérieurs au III^e siècle après Jésus-Christ». (Lafitte, 1944 [1979]: 26; azpimarra gurea).

⁹⁹ Europako hizkuntza landuez mintzo da Mitxelena 1953an, Altuberen sintaxi-arauez dihardueneko hartan (ik. Mitxelena, 1953: «Arnaut Oihenart», orain in *MIG*, XI: 292).

¹⁰⁰ Luis Villasante izan dugu, agian, termino honetaz luze-zabal baliatzen lehena (ik. Villasante, 1953: «*Literatur-euskara* laphurtar klasikoaren gain eratu», in *BRSVAP*, 1953: XX-YY).

¹⁰¹ Ikus Mitxelena, 1953: «Arnaut Oihenart» (in *MIG*, XI: 293): «lege horiek ez dira *literatur bizkuntzarenak*: herri hizkuntzarenak dira huts-hutsik. (...) Ez al digute erakutsi gauza bat dela herri-hizkuntza eta bestea, oso bestea gero, *kultur bizkuntza*?». Beste pasarte batean (ikus aurreko oin-oharra) egindako erabileraren argitan, badirudi ekuazio semantiko hau eginik duela Mitxelenak 1953an: (Villasanteren) *literatur bizkuntza* = *kultur bizkuntza*.

bereizkunde kontzeptuala egin izana¹⁰². *Abstandsprache* eta *Ausbausprache* arteko zati-biketa badakigu zein den: konparazioz txiki-ahul diren hiztun-elkarte *Big Brother* baten erasan-inkatuari beregaintasun-maila ohargarritz eusteko berez, distantzia interlinguistikoagatik alegia, aukera handia edo txikia izatea. Euskara, gure inguruko beste zenbait ez bezala, *Abstandsprache* argia da. Tarte handia dago euskararen eta albo-erdara nagusi bien artean, barne-osaerari dagokienez. Jatorrizko hitz-altxorrez, morfologiaz eta sintaxiaz tarte handiegia dago euskararen eta auzo-erdaren artean, euskara eta albo-erdara nagusi horiek iturri beretik datozela esan ahal izateko. Tarte handiago horri eskerrak, oso zaila da euskara frantses-gaztelaniaren aldaeratzat edo dialektotzat hartu ahal izatea. Erdal interferentzia handiak izanik ere lexikoan eta beste zenbait esparrutan, (oraingoz) argi dago «beste hizkuntza» bat dela euskara. Besterik dira kontuak, adibidez, gaztelaniaren eta astur-bablearen artean: hor ez dago halako tarte handirik, eta kosta egiten da astur-bablearen beregaintasun-estatus hori baieztatzea. Hori egingo bada landu eta elaboratu egin behar da bablea: lanketa horri *Ausbau* (*elaboration*) esaten zaio alemanez. Hori egi(te)n den heinean, ez berez, da astur-bablea *Ausbausprache* bat. Mila ñabardura eta ohar garrantzitsu egin badakioke ere zati biko azalpen horri¹⁰³, argi-emaille sendoa da oro har. *Abstandsprache* prototipikoa da euskara: berezko egituragatik ezin da alboko hizkuntza nagusi baten dialektotzat hartu. Oso hizkuntza gutxi dago European, morfosintaxiaz eta jatorrizko hitz-altxorraz hain bete-betean *Abstandsprache* denik. Definizio dikotomiko hori tesuinguruaren arabera da ordea: hizkuntza jakin bat *Ausbau-* eta *Abstand-*hizkuntza izan liteke aldi berean, segun zer *Big Brother* kontuan hartzen den. Holandesa *Ausbau-*hizkuntza izana da (goi-)alemanaren aurrez aurre. Frantsesaren aurrez aurre *Abstand-*hizkuntza da ordea, lehen eta orain. Hizkuntzen arteko distantzia estrukturalak¹⁰⁴ ez dira gainera, beti, zuri eta beltz arteko bi punta-muturretan sailkatzen errazak. Azkenik, *Abstand-*hizkuntzetan ere *Ausbau-*lan ohargarria egin liteke. Hala egin liteke eta, gure kasuan, hala egin izan da lehen (demagun, Larramendiren garaitik hasita¹⁰⁵) eta hala egiten da orain. *Ausbau-*langile apartak izanik dira Sabin Arana eta, agian

¹⁰² 1929an eginik zeukan Kloss-ek, dagoeneko, kontzeptu dikotomiko horren lanketa nagusia. Bestelako hitzak erabiliz, halere: *Abstandsprache* ordez *Automatische Sprache* zioen 1929an, behin eta berriz. *Ausbau* hitza aurrez aurre azaldu zuen orduan, baina *Ausbausprache* ez: maizenik *Gemeinsprache* eta *Schriftsprache* ageri ditu han, *Ausbausprache*-ren sasi-ordain gisa.

¹⁰³ *Ausbau-*lanketa handia, zenbaitetan izugarri handia, eragin zaio euskarari esparru lexikalean (bai hitz-altxor arruntean, garbitasun bila, bai bateratze interdialektalaren aldetik eta bai zabalkuntza eta eguneratze terminologikoan) eta, inoiz, morfologian. Hala egin da gutxienez Larramendiren garaitik hona, tartean *intertranslatability*-beharrak edo -gogoak eraginik. Ikus horretaz aurreragoko azalpenak.

¹⁰⁴ Termino horren edukiaz zuzen jabetzeko ikus, adibidez, William F. Mackey-ren 1971ko *La distance interlinguistique*.

¹⁰⁵ Unamunok argi azaldu zuen hori, gaitzespen-asmu mingarritz, 1903an: «Hay en Cataluña un sujeto —o lo había no ha mucho— empeñado en la desatinada empresa de reformar la ortografía catalana en sentido etimológico, restableciendo íes griegas, tes, haches y otras letras bien muertas (*mythología*, v. gr.), y entre las razones que en abono de su proyecto daba, callábase la principal, y es que así se diferenciaría el catalán escrito del castellano escrito mucho más aún de lo que hoy se diferencian ambos entre sí, que es bastante. Del mismo género es el cuidado (..) de aquellos de mis paisanos que habiendo aprendido en la escuela que «antes de *b* y *p* se escribe *m* y no *n*, se han creído que es esto regla de ortografía castellana y no, como es, hecho fonético común al castellano y al vascuence, y que si se escribe *campo* es porque hablando corrientemente y sin esfuerzo se dice *campo* y no *campo*, como en vas-

gehiago, R. M. Azkue. *Ausbaugile* saiatuak gara orain ere euskal idazle gehienok, hein batez edo bestez.

Badu Kloss-ek, dikotomia horrezaz gainera, esku artean dugun gairako bereziki inportantea den kontzeptua: *Zweckprosa*¹⁰⁶. Prosa utilitariora, *xede jakin eta arrunteko prosa* (ez edergarrizko *Kalevala, Mireio...*). Funtsezkoa da *Zweckprosa* hori, jende xehearen hizkera arrunt izandakoak *kultura-bizkuntza* bihurturik, gizarte-bizitzan ordura arte ez bezalako balio-indarra eskuratzeko. Funtsezkoa da *Zweckprosa* hori, batez ere nor bere inguruneko *Big Brother*-en *Hochsprache*-tik aldenduz bere kultur bide berezia sortzeko: bere *soziologische Verselbständigung*, bere *Ausbau zur Kultursprache* errazteko. Funtsezko azalpena eman izan du Heinz Kloss-ek, honako galdera honi erantzun beharrez: *hiztun-jende xehearen eguneroko abo-bizkera arrunta nola bihurtzen da Kultursprache?* Sei pauso azaldu izan ditu Kloss-ek, hartara daraman «*soziologische Verselbständigung*» bidean:

1. Idatzizko jardunean gero eta maizago erabiliz, gero eta erabilera-esparru (*Anwendungsgebiet*) gehiagotan prosa modu horretaz baliatuz.
2. Hitzez ere gero eta jardungune gehiagotan erabiliz (jendaurreko azalpenetan, sermoi-lanean, hitzaldietan).
3. Irratian eta telebistan sarbidea eskainiz eta, hedabide horien laguntzaz, hizkuntzari berari zabalkundea emanez,
4. Ortografia bateratuz.
5. Idatzizko hizkuntza (gerora, agian, ahozkoa ere bai¹⁰⁷) bateratuz (gramatika aldetik, hiztegi aldetik).
6. Hizkuntza-eredu bateratu berri hori berariaz zainduz: lanketaz (cf. *elaboration, cultivation*).

Gure artean aski gauza ezaguna da *Kultursprache*-rako *soziologische Verselbständigung* bide hori. Bide zail eta neketsua izan da hemengo, motibo bat baino gehiago direla medio. Tartean, eta ez indar ahulenaz, helburua bera ezinezkoa dela/zela baieztatu izan duelako bertako zenbait buru-langilek. Ondotxo bihurri-korapilatsuagoa den gertaera polo nagusietara bilduz, diogun Unamunoren 1901eko, 1903ko eta 1920ko baieztapen errukigabea¹⁰⁸ eta Lizardiren 1931ko erantzun jaso izan direla eztabaida-buru. Honela zioen Unamunok 1920an: «la cultura vasca, lo que se llama “cultura”, se ha hecho o en español o en francés. En español escribió sus cartas y sus ejercicios Iñigo de Loyola, el fundador de la Compañía de Jesús, y en francés pensaba y escribía el abate Saint-Cyran, fundador de Port-Royal, fortaleza del jansenismo. (...) En vascuence no se puede pensar con universalidad. Y el pueblo vasco, cuando se eleva a la universalidad, lo hace en español o en francés. (...) Los autores de este informe saben de sobra que no se podría explicar en vascuence ni química ni física, ni psicología, ni ... ciencia alguna. Saben de sobra que el vocabulario religioso o teológico y

cuence se dice *kámporá* y no *kanporá*, e ignorando o queriendo ignorar esto escriben *Ganboa, Unbe, Larunbe*, etc., no más en el fondo que por oponerse a lo que creen manera castellana». (Unamuno, 1903: 213-5).

¹⁰⁶ Gero, 1978ko berrargitalpenean, nabarmen garatu, zehaztu eta, hein batez, aldatu izan du hasierako kontzeptua. Terminologia ere bai: ikus bertako *Fachprosa* eta *Sachprosa*.

¹⁰⁷ Beste ibilera-martxa du ordea ortoeptiak, gurean ere.

¹⁰⁸ Horrelatsu mintzatu zitzaigun gero ere, tartean Errepublikara garaian. Unamuno ez zen bakarra, gainera, kontuak horrela ikusten zituen: bide bertsutik zebiltzan Pio Baroja, Grandmontaigne eta beste zenbait.

psicológico del vascuence es de origen latino». (Unamuno, Miguel, 1920 [1958]: «La unificación del vascuence», in *Obras Completas* (VI): 344-348 orr.). Lizardik berriz, ongi ezaguna denez, honela erantzun zion 1931n: «Baña nik, izkuntza larreakoa, / nai aunat ere noranaikoa: / yakite-egoek igoa; / soña zaar, berri gogoa; / azal orizta, muin betirakoa». (Lizardi, Xabier, 1931: *Eusko Bidaztiarena; Oro Mintzo*).

Gauzak Kloss-en *Ausbau*-perspektibatik begiratuta, argi dago eguneroko hizkera arrunta *Kultursprache* bihurtzeko saio handia egin dugula euskaldunok XX. mendean. Orain ere horretan dihardugu maiz, hartaz oharturik edo oharkabean. Lizardiren ametsa egia bihurtuz doa: *Larreko hizkuntza handiki-soinekoz janzen* ari gara. Bi iturritako urak nahasten dira berez Heinz Kloss-en azalpen horretan: batetik, garapen soziofuntzionala (aspaldi galdutako edo inoiz berea(k) izan gabeko espazio soziofuntzionala(t)an euskarak bizi-aukera berriak eskuratzea), eta, bestetik, esparru berri horietan egoki erabili ahal izateko corpus-plangintza. Heinz Kloss-en formulazio horrek garrantzi handia izanik du, nolahi ere, hizkuntza-soziologiaren eta hizkuntza-plangintzen esparruan. Estrukturalismoaren garaipenaz nagusituz zihoan perspektiba linguozentrikotik nabarmen aldenduz, azterbide soziozentrikora itzularazi izan ditu hainbat adituren begiak. Bertako hainbat ekimen ere perspektiba horretatik esplikatu litezke, saio horien inspirazio-iturria eta abiaburuko saioa (1890-1930 epean) etxean egonik halere. Euskara aldameneko erdaren mailan ipintzea izan da euskaltzaleon XX. mendeko helburuetako bat¹⁰⁹: larreko hizkuntza xumea «noranahiko» bihurtzea. Aurrerago ikusiko dugunez, «noranahiko» bihurtu nahi izate hori ez da *Ausbau* terminoaz bakarrik egoki adierazten. Modernizazio-lanaren abiaburuko oinarri den *intertranslatability* edo elkar-itzulgarritasuna ere oso kontuan hartu behar da, Lizardiren jomugaz bere osoan jabetzeko¹¹⁰.

¹⁰⁹ Koldo Zuazoren ustez, euskara aldameneko erdaren mailan ipintzen saiatze hori 1960tik honako helburua izan da, batez ere: azken hirurogei urteotan finkatzen du berak gure hizkuntza «kosta ahala kosta, kultura hizkuntza bilakatzeko saioa» (ik. Zuazo, 2000: 137). Gure ustez zaila da, eskueran ditugun datuen argitan, justu-justu 1960an hain muga-lerro argirik ezartzea. Ikus, aurrerago, Krutwig-Villasante-Mitxelena hirukotearen Hegoaldeko saioaz (1950 ingurukoaz: zehazkiago 1948tik aurrerakoaz) esango dena. Ikus, orobat, *Euzko Gogoa*-ren atzerriko lanaz eta Iparraldeko zenbait kontraste-gogoetaz (batez ere Lafitte-ren saioaz) Pako Sodupe argi jasoa (ik. bereziki Sodupe, 2002: *Piarres Lafitteen kazetari-lan hautatuak*, eta 2010: *Tradizioa eta modernitatea 50eko hamarkadan. Euskal kulturaren biziberritze gatazkatsua*). Ikus, konkretuki, bere baieztapen hau: «60ko hamarkadaren amaiera aldera euskara batuaren oinarri sendoak ezartzera eraman zuen prozesua 40ko hamarkadaren hondarreen abiatu zen, eta 50eko hamarkadan, tirabiraz tirabira azkartu (...)» (Sodupe, 2010: 35). Are gehiago: Gorago azaldu dugunez, kultura-hizkuntzaren aldeko gure saioen iturriak (gutxienez) gerraurrean daudela esateko ez da elementurik falta. Horrela bakarrik uler litezke orduko eleberrigintza (Txomin Agirrearena eta beste zenbaitena, tartean Azkuerena), testuliburuaren prestea eta argitalpena (Lopez Mendizabal eta Eleizalderen eragiletzaz batez ere) eta, *Sachprosa* landuagoaren esparruan, *Gizarte-auzia* moduko lanak. Hori guztia hala izanik ere, Koldo Zuazok arrazoi handia du funtsezko puntu batean: asmo horiek, eta beste hainbat, batez ere 1960tik hona bihurtu dira egia «soziologiko». Inpaktu soziologikoaren alde horretatik, eta funtsezkoa da hori, batez ere 1960tik hona gertatu da euskararen noranahiko erabilera landuaren zabalkundea.

¹¹⁰ Lehendik datorren kontua da hau, funtsaren funtsean. Europako hiztun-herri «txiki» askok, beregaintasun-asmo zabalago baten altzoan, landu eta prestatu egin du bere hizkuntza, gizarte beregain berrian edozertarako adierazpide zalu bihurtu nahirik. Prestalan horren ondorioz elkar-itzulgarri bihurtu dute nork bere hizkuntza. Hori dela-eta, Europako hizkuntzak elkarren antzekoago bihurtu dira. Meillet-ek esan bezala «à mesure que la civilisation devient plus une, les langues sont conduites à exprimer par des procédés matériels différents, mais parallèles, des choses qui sont en fait

I.3.4. Hizkuntzen garapen-maila, Charles A. Ferguson-en argitan

Ordura arte «larreko hizkuntza» izandakoa «noranahiko» bihurtu nahiak gauza bat esan nahi du, besteak beste: munduko hizkuntza guztiak ez direla gai, «hemen eta orain», noranahiko eginkizunetarako: ez, behintzat, «maila berean» gai. Batzuek prestatuago daude: honegatik edo hargatik «noranahikoago» dira besteak baino. Inor gutxik uka dezake hori. Izan da ordea, egia hori garatuz, ondotxo gauza zorrotzagorik esan duenik: hizkuntza batzuek *berezkoa* dute eragozpen-traba edo ezintasun hori; *berez* dira gizarte berriaren adierazpide zalu eta egoki izateko trakets edo ezgai. Nahita ere, ezin dira egokitu. Ez dute horretarako balio: «hizkuntza primitiboak» dira, ez «modernoak». Beren eboluzio-bidean aurrera egin gabe gelditu ziren, barne-osaeraz, aspaldi batean: ez zuten gizarte berrirako behar den estruktura modurik eskuratu, eta bazterturik gelditu dira. *Evolutionary continuum* delakoan aurrera egin dute munduko hizkuntza batzuek, erabat, eta punta-puntan daude orain; atzeraxeago (baina aurrera eginez) dabilta beste batzuek; eta, zoritxarrez, atzeraturik eta betiko katramilaturik gelditu da zenbait hizkera-molde xaharkitu: tartean, euskara. Ahobatezko onarpenik jaso ez badu ere inoiz, aparteko indarra izanik du ikuspegi horrek XIX. mendean, Mendebalde gehiengan. Hemen, gure artean, aski bizirik egonik da gainera XX. mendearen lehen herenean ere. Ordukoak ditugu, etxeoetara mugatuz begiak, Vinson, Unamuno eta Montaigne. Unamunoren hitzak gogoratuz, «el vascuence se pierde sin remedio; se perdería aunque formásemos los vascos nación independiente, y pretendiéramos imponerlo como idioma oficial; se pierde por su índole misma» (Unamuno, 1903: 196-7), edota «en vascuence no se puede pensar con universalidad. (...) no se podría explicar en vascuence ni química ni física, ni psicología, ni ... ciencia alguna» (Unamuno 1920 [1958]: 344-8). Letrakera etzanez jarri ditugun «su índole misma» eta «no se puede /no se podría» hitzarteak dira, jakina, «berezko ezintasun»aren gidari.

Adituen artean asko aldatu da «berezko ezintasun»aren ikuspegi hori, XIX. mendetik hona¹¹¹: batez ere XX. mendearen erdialdetik hona. Kontrakoa azpimarratzen du, oro har, oraingo ikuspegiak: «there are no “primitive” languages and (...) there is no way to rank the overall structural complexity of languages along an evolutionary continuum» (Ferguson 1968 in Cooper 1989: 125-6 orr.). Axularrek bere garaian esandakoa hobeto uztartzen da ikuspegi honekin: «Orai badirudi euskarak ahalke dela, arrotz dela, eztela iendartean ausart, entregu, bithore eta ez trebe. Zeren are bere herrikoen artean ere, ezpaitakite batzuek, nola eskiriba, eta ez nola irakur. Baldin egin baliz euskaraz hanbat liburu, nola egin baita latinez, frantses, edo bertze erdaraz eta hitzkuntzaz, hek bezain aberats eta konplitu izanen zen euskara ere, eta baldin hala ezpada, euskaldunek berek dute falta eta ez euskarak». (Axular 1643: 15). Sarako erretorearen esanean, geure hizkuntza behar adina landu ez izanak ekarri du, ez hizkuntzaren berezko ezintasunak, euskararen moztadea, albo-hizkuntza

les mêmes; les notions ne varient pas avec les mots qui les expriment, et, si différentes qu'elles soient par les moyens qu'elles emploient, toutes les langues de l'Europe tendent à être, par ce qu'elles expriment, le calque fidèle les unes des autres». (Meillet, 1918: II; letrakera etzana gurea).

¹¹¹ Antropologia kulturalaren eta etnolinguistikaren perspektibatik aspaldi esana dago hizkuntza guztiak gai direla giza pentsaera bere osoan bideratzeko. Ikus, adibidez, Franz Boas-en eta Edward Sapir-en hainbat ekarpen.

handiak bezain «aberats eta konplitu» ez izatea. Ondorio argia dute, nolahi ere, Axularren 1643ko eta Ferguson-en 1968ko baieztapenek: berezko ezintasun estrukturalik ez dagoenez, landu eta garatu egin liteke munduko edozein hizkuntza; pres-tatu eta eguneratu egin liteke eta, garapen horri eskerrak, bizimodu berri-modernoaren beharrak asetzeko gai bihurtu liteke.

Hala egin liteke; egia da hori. Beste hau ere egia da ordea: *de facto*, munduko hizkuntza guztiak ez daude une jakin batean (berdin) landuak eta garatuak. Aski garapen-maila diferentean daude, «hemen eta orain», munduko (demagun) sei mila hizkuntzak. Garapen-maila diferente horien ezaugarriak barne-egituraz apartekoak dira: ezaugarri edo dimentsio horiek ez dagozkie hizkuntzen barne-egiturei: aitzitik, giza(rte)-ekimenez (edo ekimen faltaz) sortuak eta landuak dira. Ferguson-ek zehatz azaldua du, hizkuntzen barne-osaeraz kanpoko zein dimentsioi eragiten duten hizkuntza baten garapen-mailan: *grafizazioa*, *estandarizazioa* eta *elkar-itzulgarritasuna*. Hiru dimentsio horiek, ez hizkuntzaren «barne-egiturak», eragiten dute hizkuntza bat gizarte berrirako erabat, aski, erdizka, gutxi edo oso gutxi prestaturik egotea. Cooper-en hitzetan esanik «Ferguson (suggests) that there are three non-structural dimensions along which the development of languages can be compared: “graphization — reduction to writing; ‘standardization’ — the development of a norm which overrides regional and social class dialects; and, for want of a better terms, ‘modernization’ — the development of *intertranslatability* with onother languages in a rang of topics and forms of discourse characteristic of industrialized, secularized, structurally differentiated, ‘modern’ societies”» (Cooper, 1989). Dimentsio estralinguistikoak dira horiek: inongo hizkuntzak ez ditu ezaugarri horiek «berezko» dohain, «lanketaren bidez» lortutako elementu baizik. Dimentsio edo ezaugarri horiek oso gogoan izan behar ditugu, munduko edozein hizkuntzaren une historiko jakin bateko garapen-mailaz hitz egiteko orduan.

Hizkuntzen garapen-maila definitzen duten dimentsio horietan ikusten da, inon baino argiago, euskararen XX. mendeko batasun-bidea nondik nora ibili den: *grafizatu* egin dugu hizkuntza (badugu *genre* ortografia), batu egin dugu (badugu *hizkuntza-eredu bateratua*, batez ere gramatikaz eta ohiko hitz-altxorrez arau jakinetara bildua) eta, azkenik, *modernizatu* egin dugu (badugu horri eskerrak, gero eta neurri zabalagoan, edozein euskaldun alfabetatu eta landurekin edozertaz hitz egiteko eta idazteko balio digun terminologia teknikoa eta, oro har, gogoeta-gai konplexuak euskaraz adierazteko estilo landu-garatu-egokitua). XX. mendeko 20ko eta 30eko hamarkadetan saio bat baino gehiago egin zen erdal literatura-lan gorenak euskaratzen: ikus, adibidez, Orixek euskaraturiko Mistral-en *Mireio* eta anonimotzat hartu izan den¹¹² lanaren *Tormes'ko itsu-mutilla*. Zaitetik eta bestek gerraondoan eginiko saioa ere bide beretik ibilia da. 60ko hamarkadatik aurrera, eta 70ekotik hona berariaz, aparteko lanketa-saioa egin da terminologia teknikoaren eta oro har «euskara tekniko»aren garapen-sailean. Batxilergo, Lanbide Heziketa eta Unibertsitate alorreko irakasgaiak euskaraz ematea eguneroko gertakizun arrunt bihurtu da, gero eta jakintza-alor gehiagotan. Lekutan geratu da, alde horretatik, Unamunoren «no se puede / no se podría» esapide trumiltsua.

¹¹² Mercedes Agulló paleografoak 2010ean frogatu bide duenez, Diego Hurtado de Mendoza da *El Lazarillo del Tormes*-en egile.

Kontuz ibili behar dugu, ordea, gai honekin. Geure burua engainatu nahi ez badugu, termino soziologikoetan (ez linguistiko hutsetan) neurtu behar da benetan lortu duguna eta lortzen ari garena. Izan ere, «edozein euskaldun alfabetatu eta landurekin edozertaz hitz egiteko eta idazteko balio digun terminologia tekniko» sortu izana eta «gogoeta-gai konplexuak euskaraz adierazteko prosa-estilo landua, garatua eta egokitua» eskueran izatea gauza bat da, «terminologia tekniko eta estilo landu-garatu-egokitu» horretaz baliatzeko zenbat euskaldun gai garen beste gauza bat eta, azkenik, eguneroko jardunean zenbat euskaldun «terminologia tekniko eta estilo landu-garatu-egokitu» horretaz baliatzen den arras bestea. Bistan da aurrera egin dugula hiru fase horietan, azken ehun urtean: hiruretan ez dugu, ordea, maila bereko urratsik egin. Perspektiba soziologiko horretatik, Unamunoren «berezko ezintasun»aren irizpide hari ezin zaio, esan zuenean esan zuelarik bereziki, bere balio-partea ukatu. Esan zuena esan ordez «*hoy en día* no se puede explicar en vascuence ni química ni física, ni psicología» esan balu (azpimarra gurea), orduko euskaldunen osaera kontuan izanik nekez erantzungo ziokeen inork oker zebilenik. Besterik zioen, ordea, bilbotar erdalmaiteak: berezko ezintasuna zuela euskarak eta, beraz, alferrik zela (orduan eta inoiz) fisika edo kimika euskaraz azaltzen saiatzea. Euskarari egozten zion berezko ezintasun hura oinarrigabea zen erabat: gizarte berriaren beharrak asetzeko berariaz landu gabe zegoelako zituen orduko euskarak muga-eragozpen ukaezinak, ez berezko ezintasunagatik.

Baina garatu gabe zegoen euskara, une hartan. Egia hori onartzetik zabaldu zen gure artean¹¹³, dudarik gabe, hizkuntza garatu beharraren kontzientzia¹¹⁴ eta delibero sendoa. Hala izan da kontua euskararen kasuan, eta halatsu munduko beste hainbatetan. Lehen modernizatu gabe zegoen hizkuntza asko modernizatu egin da XIX. mendetik hona: galdetu bestela japoniarrei, lituaniarrei, esloveniarrei, hebrear-juduei, finlandiarrei, norvegiarrei, indonesiarrei eta beste hainbati. Garapen-lanketaren perspektiba horretan ulertu behar da euskararen batasun-bidea ere: «bide»az ari gara noski, ez bide-amaieraz. Lehen ez bezalako garapen-maila lortu du euskarak edota, apalago esanik, lehen ez bezalako garapen-maila lortzen ari da. Beste zenbait kontzeptu eta konstruktutik teoriko bezala, Ferguson-ek maisukiro erakutsia digun «hizkuntzen garapen-maila»rena lagungarri sendoa dugu zer bide egin dugun, eta zer dagoen egin-arin edo egiteke, ulertzeko.

L.3.5. Euskara batua eta bizkuntza-sistemak, William A. Stewart-en tipologiaren arabera

Funtsezko artikulua argitaratu zuen William A. Stewart-ek 1968an: «A Sociolinguistic Typology for Describing National Multilingualism». Hizkuntza orok beste hizkuntzen aurrez aurre dituen diferentzietan gainera, hizkuntza bakoitzaren hainbat ezaugarri soziolinguistiko agirian jarri zuen bertan. Hizkuntza-sistema

¹¹³ Zehazkiago, kontzientzia hori dagoeneko zabaltzen ari zen gure artean. Hizkuntza goi-esparruetan erabili ahal izateko garatu beharraren kontzientzia, eta hartarako zenbait pauso-emate, lehenetik zetorren.

¹¹⁴ Kontzientzia hori argi ageri da Sabino Aranek 1901ean Hendaiaiko biltzarrean irakurritako txostenean. Nabarmena da, orobat, Koldo Eleizalde 1918an Oñatiko Kongresuan irakurritakoan. Geroztik (Krutwig, Villasante, Mitxelena, Txillardegui, Intxausti...) atergabea izan da bere presentzia.

batetik bestera dagoen aldea ez du hizkuntza-sistema horien egitura edo barne-mol- daerak bakarrik sortzen. Bada bestelako atributu edo faktorerik ere: hizkuntza-sis- tema bakoitzaren historia, hizkuntza-sistemen arteko harreman-moldea, kode-arau bateraturik baduten ala ez eta, azkenik, belaunez belaun nola transmititzen diren. Honela zioen Stewart-ek: «linguistic systems may differ, not only in their structures, but also in their histories, their relationships to other linguistic systems, the extent to which they have acquired codified norms of usage, and in the manner of their trans- mission from generation to generation. Such social and technical characteristics can have an effect on the role which a particular linguistic system may assume in the lin- guistic makeup of a multilingual polity, so that linguistic systems characterized by different configurations of such attributes will tend to fall in different categories of intrinsic social value, insofar as their use in a particular polity is concerned. Such cate- gories will be referred to as *types*» (Stewart, 1968: 533). Labur bilduz, lau atributu aukeratu zituen Stewart-ek hizkuntza bakoitza zer tipotakoa den zehazteko: a) hiz- kuntza horrek eredu bateraturik baduen ala ez (*estandarizazioa* eta, horren barruan, *bate- ratze-maila*); b) *beregaintasuna* edo *autonomia*); c) lehenaldi zaharrekoa den ala ez (*historikotasuna*), eta d) egungo egunean duen *bizi-indarra* (*vitality*). Honela difinitu zituen Stewart-ek sistema linguistiko orenen lau atributuok:

- a) *standardization*: «the codification and acceptance, within the community of users, of a formal set of norms defining *correct usage*». Hots, bere hizkuntzaz baliatzen den hiztun-elkarteak hizkuntza horren erabilera zuzen-egokia araturik eta zabalkiro onaturik¹¹⁵ duen, ala ez¹¹⁶.
- b) *autonomy*: «the function of the linguistic system as a unique and independ- ent one». (Stewart, William A., 1968, 535). Hots, ez dela hizkuntza zabalago baten dialektoa (edo beste nolabaiteko aldaera). (Stewart, William A., 1968, 535).
- c) *historicity*: «the linguistic system is known or believed to be the result of nor- mal development over time. What gives a language historicity is its associa- tion with some national or ethnic tradition». (Stewart, William A., 1968, 535-6). Euskaldunon aspaldi-aspaldiko mintzo-sortaren oinordekoa da egungo euskara.
- d) *vitality*: «use of the linguistic system by an unisolated community of native speakers». (Stewart, William A., 1968, 536). Badela hiztun-elkarterik, ama-hizkuntza gisa ikasten duenik eta eguneroko mintzamolde gisa hartaz baliatzen denik.

Lau atributu horiek konbinatuz, han-hemengo estatu beregainetan aurki litez- keen zazpi hizkuntza-mota aurkitu zituen. Ondoko taulak ematen du tipologia zaz- pikoitz horren berri:

¹¹⁵ Funtsezkoa da bigarren elementu hau, behin eta berriro errepikatzen ari garenez, hizkuntza bat baturik dagoen ala ez argitzeko.

¹¹⁶ Batasun-bide hori *monozentrikoa* izan liteke aldi jakinean («consists at any given time of a single set of universally accepted norms»), ala *polizentrikoa* («different sets of norms exist simultaneously») edo *plurizentrikoa* (ikus, adibidez, Kordić, Snježana, 2009: «Plurizentrische Sprachen, Ausbausprachen, Abstandsprachen und die Serbokroastistik», 210-215 or.). Horrezaz gainera, *endonormatiboa* edo *exonor- matiboa* izan liteke hizkuntza-eredu bateratua (Stewart, 1968: 534).

| Stand | Atributua | | | Hizkuntza-mota | Ikurra |
|-------|-----------|--------|-------|----------------------------|-----------|
| | Auton | Histor | Vital | | |
| + | + | + | + | <i>standard language</i> | <i>S</i> |
| + | + | - | - | <i>classical language</i> | <i>K</i> |
| - | + | + | - | <i>artificial language</i> | <i>A</i> |
| - | + | + | + | <i>vernacular language</i> | <i>B</i> |
| - | - | + | + | <i>dialect</i> | <i>D</i> |
| - | - | - | + | <i>creole</i> | <i>Kr</i> |
| | | | - | <i>pidgin</i> | <i>P</i> |

Bertan ikusten denez, hizkuntza-mota bakoitzak ezaugarri hauek ditu:

- *Hizkuntza batu-estandarra (S)*. Lau atributuak ditu berekin: estandarizaturia dago, autonomo-beregaina da, badu historia ezaguna eta badu hartaz baliatzen den hiztun-elkartea edo hiztun-talde ohargarria. Horrelakoak dira, adibidez, auzo-hizkuntza handi guztiak (*gaztelania, frantsesa, ingelesa, alemana...*). Horrelakoa da, nagusiki¹¹⁷, euskara batua.
- *Hizkuntza klasikoa (K)*. Lehenengo hiru atributuak ditu berekin. Horrelakoak dira, adibidez, egungo egunean LI moduan transmititzen ez diren baina behinola etxean eta gizarte-giro arruntean bizirik egondakoak: adibidez *latina* eta *sanskrito*a, orobat *arabiera klasikoa*.¹¹⁸
- *Hizkuntza artifiziala (A)*. Lehenengo bi atributuak ditu berekin. Horrelakoak dira, adibidez, *esperanto*a, *volapük* eta *interlingua*.
- *Hizkuntza vernacular-bertakoa (B)*. Azkeneko hiru atributuak ditu berekin. Etxean eta auzoan, kalean eta gizarte-giro arruntean herritar gehienek LI moduan ikasten eta belaunez belaun transmititzen dituzten hizkera-moldeak¹¹⁹ sartzen dira multzo honetan.
- *Dialektoa (D)*. Azkeneko bi atributuak ditu berekin. Oinarri geohistoriko sendoa dute dialektoek.
- *Kreol-hizkuntza (Kr)*. Azken atributua bakarrik du *kreol-hizkuntzak*. Hizkuntza-ukipenez sortutako nahas-hizkuntza da. Lehenik *pidginak* sortzen dira¹²⁰ eta, horiek etxekotzen eta bertakotzen («vernacular» bihurtzen) diren heinean, belaunez belaun LI edo ama-hizkuntza moduan transmitituz, *kreol-hizkuntza (Kr)* izatera pasatzen dira.

¹¹⁷ «Nagusiki» diogu, eta ez «erabat», aski fenomeno soziologiko berria baita euskara bateratze-ko prozedura, eta, oraindik, hainbat kasutan, erdizka-edo burutu baita batasun hori.

¹¹⁸ Stewart-ek sail honetan sartzen duen arren, klasikoan eta artifizialen erdibidean-edo ikusten dugu behinokoa greziera zahar-arkaikotik hurbilago dagoen *katharevousa*.

¹¹⁹ Hots, mintza-esparru zabalean (oro har, ez familia berezi batzuetan bakarrik) ama-hizkuntza moduan eskuratzen eta belaunez belaun transmititzen direnak.

¹²⁰ Hasieran uste baino nahas-bihurriagoa da pidgin-kreolen esparru hori, eta definiziozko edo edukizko dibergentzia nabarmenik ere bada tartean: hurbilketa-saio xumea da, beraz, goiko azalpen hori. Zehaztasun handiagorako ikus, adibidez, Hymes (ed.), 1971: *Pidginization and creolization of languages*; ikus orobat Kloss 1978 eta Mesthrie 2001.

— *Pidgin*-hizkera (*P*). Ez du lau ezaugarri horietariko bakar bat ere. Hizkuntza-ukipen zabaleko giro jakinetan sortzen den nahas-hizkera da. Ez da etxean ikasia izaten, ukipen-kontaktuaz sortua baizik.

Goiko taula horren argitan, luzaro *vernacular language* izandakoa *standard language* tipologiara pasa dugu euskaldunok, hein ohargarrian, azken ehun urtean. Sortu dugun euskara batua a) aski estandarizaturik dago (muga-baldintza jakinen pean), b) beregain-autonoma da euskara (auzo-erdara guztien aurrez aurre nabarmen diferentia, ez haien dialekto¹²¹), c) historia luzea du berekin (etengabe aldatuz joan bada ere «milaka urtean hor egon den» zerbaiten oinordekoa da), eta d) eguneroko mintzabide arrunt gisa atzenduz eta ahulduz joan bada ere azken mendeotan, hartaz baliatzen diren hiztunen ezpainetan hizkuntza bizia da; gero eta erabilera zabalagoa du, gainera, idatzizko jardunean. Aldiz, euskalkiak a) ez daude oro har¹²² estandarizaturik, b) ez dute beregaintasun-autonomiarik (euskararen zati dira: haren azpimultzo, ez haren aurrez aurreko aldaera bereiz), c) sakontasun historiko handikoak dira eta d) beren mintza-esparruan luze-zabaleko mintzaldaketarik gertatu (edo gertatzen ari) ez den heinean, bizitasun ukaezina dute.

Zenbait puntu argitzen lagundu digu Stewart-en tipologiak ere. Argi erakutsi digu «hizkuntza» esaten dugunean atributu-ezaugarri diferenteko terminoak daudela hor, eta atributu-ezaugarri horiek oso kontuan izatekoak direla. Aurrerapausoak lagungarri izanik ere, airean gelditu dira, behar bezala xehatu gabe, gure egoera nabarraren beste zenbait ezaugarri. Tartean, bereziki, *eguneroko mintzamolde arrunt* kontzeptua.

II. ZER D(IR)A EGUNEROKO MINTZAMOLDE ARRUNTA(K), HEMEN ETA PERSPEKTIBA ZABALEAN?

Guztia ez da *hizkuntza estandarra*, guztia ez da *euskara batua*. Zer dago batu-estandarretik kanpora? Nolakoa da euskara batutik kanpora dagoen hori? Nola eskuratzen da, eta zertarako erabiltzen? Nork-noiz-nola erabiltzen du? Galdera hauei erantzuten saiatuko gara txostenaren bigarren atal honetan: banan-banan zenbaitetan, bateraturik besteetan. Galderoi artez erantzuteko, oinarrizko bi kontzeptu arakatu behar ditugu lehenik: *language variety* edo *hizkuntza-aldaera*, batetik; *linguistic* edo *verbal repertoire* (euskaraz *aldaera-sorta*), bestetik. Kontzeptu-lantze hori urrutiegi joatea irudituko zaio, agian, zenbaiti. Ez dugu uste hala denik, ondoren azalduko diren motiboengatik.

II.I. Language variety: hizkuntza-aldaera

Hizkuntzak, eta haietaz baliatzen diren hiztunak eta hiztun-elkarteak, ez dira homogeen. Dialektotan banaturik daude gehienak¹²³, eta badira, horrezaz gainera,

¹²¹ Gerraosteko zenbait testuliburutan behintzat ez da falta izan, halere, euskara dialektotzat hartzeko saiorik.

¹²² Egungo egoeraz ari gara hemen. Besterik da euskalki literarioen historia: aparteko lekua zor zaie, alde horretatik, joan den mendeetako literatura-euskalkiei. Idazlangintzarako bizkaiera bateratua da, seguruenik, egungo egunean euskalki estandarizatutik hurbilen dabilen eredu (ikus Zalbide 2011a).

¹²³ Dialektoen ezagutza eta azalpena aspaldikoa da han-hemen. Etxekoetan ikus, beste hainbaten artean, Larramendi XVIII. mendean eta Bonaparte printzea XIX.ean. Atzerrian, XIX. mendeko

osagarritzko elementu bereizleak. Aspaldidanik ohartu izan dira aniztasun horretaz han-hemengo hizkuntza-adituak. Gonzalo de Correas batek, adibidez, honela zioen 1626an: «Ase de advertir que una lengua tiene algunas diferencias, fuera de dialectos particulares de provincias, conforme alas edades, calidades i estados de sus naturales, de rrusticos, de vulgo, de ziadad, de la xente mas granada, i de la corte, del istoriador, del anziano, i predicador, i aun de la menor edad, de muxeres i varones: i que todas estas abraza la lengua» (Montes Giraldo 1997: 194; orobat Martínez Gavilán, 1990: 147). Dialektoez gainera badira hortaz «algunas diferencias (...) i (...) todas estas abraza la lengua». Euskarak, munduko beste hainbat hizkuntzak bezala, euskalki ezagunez gainera, baditu bereizbide sozialak. Diferentzia guztiak —dialekto eta ez-dialekto— kontuan hartu ahal izateko, *language variety*, *variedad lingüística* edo *hizkuntza-aldaera* terminoa erabili ohi da maiz. Hizkuntza jakin bateko hiztunek (eta hiztun-elkarteak bere osoan) eskueran dituzten *aldaera geografiko*, *sozial*, *funtzional*, *etniko*, *tekniko-lanbidezko* eta abarrekoak dira *language variety* direlakoak.

Zenbat aldaera ditu hiztun batek? Zenbat mintzamolde ditu hiztun-talde batek edo bestek, eta zenbat hiztun-elkarteak bere osoan? Nolakoak dira hizkuntza-aldaerok? Galdera hauek ez dute erantzun beti batekorik. Segun zeren bila gabiltzan, erraz da aldaera gehiago edo gutxiago bereiztea, eta enfasia mintzamolde batzuetan edo besteetan egitea. Zati bitan banatu izan da, zenbaitetan, hiztun-elkarte elebakarren barne-aldakortasun hori. Esate baterako, *hitzezko jarduna* azpimarratu izan da batetik, eta *izkribuzko jarduna* bestetik. Edota, hurbilagoko garaietan, *elaborated language* azpimarratzen da batetik, eta *everyday speech* bestetik¹²⁴. Hitzezko/idatzizko dikotomia momentuz alde batera utzirik, gatozen azken bereizbide horretara. Gurera hurbilduz demagun, adibidez, Koldo Mitxelenaren 1953ko aipu hau: «*egunoroko hizkuntza* egunoroko gauzak adierazteko gai baldin bada, ez da gai, joskera deus aldatu gabe, poesia eta batez ere *prosa landurako*»¹²⁵. Horra dikotomia argia: *eguneroko hizkuntza* batetik, *landua* bestetik. Gauza bera, edo oso antzekoa, dira atzerriko soziolinguisten *everyday speech* eta Mitxelenaren *egunoroko hizkuntza*. Era berean, Mitxelenak *prosa landuaz* diharduenean gorago ikusi dugun *Kultursprache*-ren prosa-molde bereziaz ari da. Erabat bide beretik ez badoa ere, aski antzekotik dabil Seber Altube handik hiru urtera: batetik *erri-izkuntza*¹²⁶ eta bestetik *kultur-izkuntza* darabilta berak, antonimo gisa (Altube 1956: 7). Hiztun-elkarte bereko kideek diferente hitz egiten dugula (eta, hala ere, hiztun-elkarte beraren kide garel) azpimarratzen dute zatibiketa horiek.

dialektologo alemanen artean ikus Vietor (1875) eta Wegener (1879). Dialektologiatik kanpora ere izan da, mende horretan, hizkuntzen barne-aniztasun geoterritorialaz ongi jabeturiko linguistik: demagun Hermann Paul (1880).

¹²⁴ Beste hizkuntzetan ere termino bereziak erabili (ohi) dira kontzeptu hori adierazteko. Demagun, batetik, frantsesezko *langue usuelle*: «paysans que se servent comme *langue usuelle*» (Dauzat 1940 [1953]: 122 or) «presque tous les citadins de France et la plupart des ruraux des pays d'oïl ont pour *langue usuelle* le français» (Dauzat 1940 [1953]: 123 or). Ikus, bestetik, gaztelaniazko *lengua usual*, *habitual*, *corriente* eta abar: «hoy son más los vascos que tienen el castellano por *lengua habitual* y que en castellano piensan. (...) en las villas de las Provincias Vascongadas, aun donde se habla vascuence, el *lenguaje corriente* de las personas de carrera y de mucha parte de la clase media es el castellano». (Unamuno, 1903: 197) (letrakera etzan guztiak gureak). Ikus, azkenik, alemanezko *Umgangssprache* edo *Alltagssprache*: *lenguaje cotidiano usual*, *lenguaje común* gisa itzuli ohi da sarri.

¹²⁵ Mitxelena, Koldo, 1953: «Arnaut Oihenart» in *MIG*, XI: 294 (horko *prosa landu* horretako letrakera etzana gurea).

¹²⁶ Ikus, iturburu amankomun posibleaz inolako baieztapenik egin gabe, alemanezko *Volkssprache*.

Argigarri izanik ere, formulazio dikotomiko horiek ez dira hainbat kasutan aski izaten hiztun-elkartean (batez ere konplexutasun-maila batetik gorakoan) barne-aldakortasuna bere osoan islatzeko. Eragozpen horretaz jabeturik, formulazio berezi-tuagoa eskaini zigun Bloomfield-ek 1933an¹²⁷, bere *Language* liburuaren *Speech-communities* atalean. Bitan ordez, bost azpimultzotan banatu zituen Bloomfield-ek hiztun-elkartean *language variety* edo *hizkuntza-aldaerak*:

- a) *Literary standard*, used in the most formal discourse and in writing.
- b) *Colloquial standard*: the speech of the privileged class.
- c) *Provincial standard* (...) spoken by the middle class.
- d) *Substandard*, clearly different from a), b) and c), spoken in the European countries by the «lower middle class», (...) and differing topographically.
- e) *Local dialect*, spoken by the least privileged class¹²⁸.

Ondorio argia atera dezakegu Bloomfield-en sailkapen horretatik: hiztunek, hiztun-taldeek eta hiztun-elkarte osoek ageri duten barne-aldakortasuna ez da atal bikoia (*batu-estandarra* batetik, *dialektoak* edo *tokian tokiko hizkerak* bestetik). Aitzitik: askotan aldaera bakartzat hartu ohi den estandarraren barnean hiru azpimultzo bereizten ditu berak, azpimultzo horiek *hitzezko* / *idatzizko*, *klase-* eta *eskualde-irizpideen* arabera bereiziz. Atal bitan (laugarren eta bosgarrenetan) ematen du, aitzitik, gainerako guztia: «*substandard* batetik, *local dialect* bestetik». Ohiko *hitzez/izkribuz* bereizbideari eta *leku-ezaugarririk bai/ez* dikotomieci hiztun-talde jakinen gizarte-geruza eta jardungunea erantsiz moldatua da, labur bilduz, Bloomfield-en sailkapen boskoitza.

Jardungunea eta bertako situazioa, solaskideen zehaztapena barne, funtsezko aztergai bihurtu dira XX. mendean. 1925ean, Bloomfield-ek bere sailkapen boskoitza eskaini baino lehentxeago, hizkuntza-mailak, hizkuntza-geruzak edo estratifikazioa aztergai harturik ekarpen ohargarria eskaini zuen Otto Jespersen-ek bere *Mankind, nation and individual* lanean¹²⁹: bere esanean, hizkuntza berean ari garenean ere aldatu egiten da hiztunon mintzamoldea, testuinguru-situazioaren arabera. Diferentia da, alegia, mintzajardunaren testuinguru-situazioa definitzen duen «nork-norekin-zertaz» galdera-multzoaren argitan. Bere hitzetan esanik, «the language takes a different colour from the mere subject of the conversation: we have one style for a love-declaration, another for an official pronouncement, another for a rough rebuff or reprimand, etc. (...) a given person comes naturally to talk in a different way according to the person he is with at the moment. (...) the stratification depends then not only on the position of the speaker, but on that of the person addressed (letrakera etzana gurea)». (Jespersen, 1925 [1946]: 127 eta hur.).

II. Mundu Gerraz gerotik (batez ere 1960 ingurutik aurrera) nabarmen eraldatu dute soziolinguistek, hizkuntza-antropologoek eta etnolinguistek ordura arteko ikuspegi estrukturalista homogeen-unitarioa¹³⁰. Jespersen-ek eta Bloomfield-ek

¹²⁷ Ikus Bloomfield, 1933: *Language*, 52 or.

¹²⁸ Honela osatzen du, halere, pasartea: «in Switzerland used also, as a domestic language, by the other classes».

¹²⁹ Ikus, bereziki, bertako VII. atala, *the stratification of language* izenekoa.

¹³⁰ Hymes-en eta Gumperz-en esanean, horrela, «The process of linguistic analysis, furthermore, is oriented towards the discovery of unitary, structurally homogeneous wholes (Hymes, 1962). (...) The effect of such procedures is the selection of one single variety (Ferguson and Gumperz 1960: 3)

abiatutako bideari eutsiz honako hau azpimarratu dute William Labov-ek, John J. Gumperz-ek eta Dell Hymes-ek¹³¹: konplexutasun-maila batetik gorako gizarteetan hiztunek, hiztun-taldeek eta hiztun-elkarteek aldaera-sorta zabal-bihurria izan ohi dutela berekin. Gumperz-en esanean, sistema bat osatzen dute aldaera horiek¹³². Joshua A. Fishman-ek (1982: 47-48), aurreko hainbat saioren sintesi moduan, honela sailkatu izan ditu hiztunon eta hiztun-elkarteon hizkuntza-aldarak:

- a) *dialektoak*: dimentsio geoterritorial argia¹³³ eta ezin ukatzeko sakontasun historikoa¹³⁴ duten mintzamoldeak. Zenbaitek *geolekto* esaten die dialektoei, ondoren azalduko ditugun «dialekto sozial» edo «soziolekto»etatik bereizteko. Haurren eta neska-mutilen aurrez aurreko *exposure* eta *interaction* jarduerak eraginik, lekuan lekuko dialektoa izan da luzaro (eta, partez, hala da orain) lehenik eskuratzen den berbakera. Isoglosen eten-lerroak uste baino koropilatsuago badira ere, eta beren genesia aldian aldiko zatibitze diadikoe-tan oinarriturik egon arren (ikus Joseba Lakarra), lurralde-esparruz aski argi mugatuak egon ohi dira dialektoak. Etengabe aldatuz doazelarik ere, belau-nez belau-neko transmisio-oinarri direnez, iraupen-indar handikoak dira. Hizkuntza askoren belaunez belau-neko iraupen-bide luzean (gurean, milaka urtekoan) oinarritzko hizkuntza-aldara aski beregain dira euskalkiak. Aldatuz joan dira lehen, eta aldatuz doaz orain, dialektoak: hiri-giro zabalean edota merkataritza-gune gailenetan bereziki, han-hemengo gizakien eta gizarte-geruza diferenteko solaskideen interakzioak eragin ohi du sarri berriztatze hori. Aldakuntzak aldakuntza, dialektoek, azpidialektoek edo lekuan lekuko hizkerek ezaugarri argia izan dute luzaro: bertan jaio eta bertan bizi zirenek ongien zekiten eta maizenik (zenbaitek beti) zerabilten herri-hizkerak izan dira. Gurean, orain puntura arte, hala izan dira nabarmen euskalkiak; orain ere eragin ohargarria dute euskaldun gehienon eguneroko mintzajardun arruntean.
- b) *soziolektoak*: gizartearen bereizbide nagusiek (klase sozialak, formazio-mailak, estatus sozioekonomikoak edo kulturalak, etab.) azpimultzoak sortzen dituzte herritarren artean: *social group* diferenteak. Hierarkizazio-molde bereziak sortzen dira horrela, eskubide eta eginbehar jakinak erantsiz posizio bakoitzari. Gizartean okupatzen dugun posizioak (eta horren arabera harreman-sare bereziki) eragindako hizkera-moldea da, nagusiki, *soziolektoa*. Pisu handia izanik du soziolektoak euskaldunon artean, mende luzez: izenordainen giza arteko erabileran, adibidez, bereizkunde argia dago *hi*, *zu* eta

out of the complex of varieties which characterize everyday speech behavior. This variety is then considered to be representative of the entire language or dialect». (Gumperz, 1968: 460-461):

¹³¹ Gumperz (1968: 460-461).

¹³² Honela dio Gumperz-ek: «regardless of the linguistic differences among them, the speech varieties employed within a speech community form a system because they are related to a shared set of social norms» (Gumperz, 1964; ikus Busch, Brigitta, 2012: «The Linguistic Repertoire Revisited», in *Applied Linguistics* 2012: 1-22.)

¹³³ Gaztelaniazko bertsoan honela dio: «variedades lingüísticas que inicial y básicamente representan orígenes geográficos divergentes las conocemos con el nombre de dialectos» (Fishman, 1982: 47).

¹³⁴ Fishman-ek, *ethnicity* kontzeptua tarteko dela, dialektoei aitortzen dien izaera historikoaz ikus adibidez Fodde, Luisana, 2002.

*berori*¹³⁵ artean eta izenordain horien bidez bakarrik esplika litezke *bator / zator / betor* adizkien txandakako erabilera, genero-bereizle izandako hitano bikoi-tza («esango *nikek / niken*»), etab¹³⁶. Solaskidearen *generoa*, solidaritatezko *hurbil-tasun/urruntasuna*, aginte-ahalmenezko norabidea eta, zenbait kasutan, estatus *soziala* adierazteko balio dute erabilera diferentzial horiek. Bereizbideok nabarmen ahultzen ari direlarik ere, eskualde edo hiri berean jaio eta bizi garen hiztun guztiok ez gara orain ere mintzaera bereko: gizabanakook gizarte-egituran dugun posizioak, izandako heziketa-bideak, bizi dugun kultura-ingurumenak eta «nork-norekin-zertaz» diharduguneko situazio-testuinguruak arrasto nabarmena utzi ohi dute sarri gure mintzamoldean.

- c) *etnolektoak*: gizarte-geruza edo gizatalde bakoitzean areagotu egiten da zenbaitetan barne-jarduna, eta gizatalde desberdinen artekoa ahuldu. Horren eraginez, eten-hesi komunikatiboak sortuz joan ohi dira sarri. Hesi horiek, azkenik, mintzamolde edo hizkuntza-aldaera bereziak sor ditzakete. Aginte-edo botere-esparrutik eta kultura-esparru formaletik urrun(en) bizi (izan) diren dialekto eta hizkuntza asko prestigio apurreko edo prestigio gabeko soziolekto bihurtzen dira denboraren harian, eta, azkenik, barne-jarduera arrunterako hizkera-molde berezi bilakatzen. Etnolektoa esaten zaio gizarte batean bazter-posizio (aski) itxia duten hiztun-multzoek¹³⁷ denborarekin beren barne-jarduera arrunterako sortzen duten hizkera-molde bereziari. Erlijio-aldaeratzat ere har liteke etnolekto hori, aparteko fede-sinesmena baldin badu hiztun-multzo horrek. (ikus Fishman, 1972: I6).
- d) *teknolektoak*: beste era batera esanik, *lanbide-hizkerak*. Hizkuntza-aldaera hauek ez dira «beste hizkuntza bat», inoiz edo behin entzun ohi denez. Zenbait lanbidek eragindako teknolektoak aski bereziak gertatzen dira, halere. Gaztelaniazko epaileen idazkiak irakurri besterik ez dago, eguneroko *fallar, fallo* «huts egitea» eta epaileen *fallar, fallo* «erabakia (hartzea)» gauza bi direla konturatzeko. Berdin gertatzen da ekonomisten esparruan: gauza bi dira irakasle edo profesional horien *balore* eta *burtsa*, eta oinbiko arrunton *balore* eta *poltsa*. Matematikarien *eragiketa* eta finantza-esparruko zenbait *eragiketa* ere gauza bi dira, informatikarien hizkera gero eta korapilatsuagoa da, eta abar. Aldeak ez dira, gainera, lexikal-terminologikoak bakarrik izaten. Esaldi-moldea ere nabarmen eragiten du sarri lanbide-hizkerak, teknolektoak. Hor sartzen da, bereziki, administrazio-hizkera, zenbaitek *burolekto* deitua¹³⁸.

Goiko multzokatze laukoitz hori ez da, jakina, hizkuntza-aldaerak sailkatzeko modu posible bakarra. Situazioa ere bereizbide zorrotza izan ohi da sarri. Estilo edo

¹³⁵ Begirunea zor zitzaien pertsoneri (gurasoei, medikuari, apaizari...) «berorika» jardutea ia erabat galdu da. Gurasoei eta aitona-amonei sarri entzuna diegu ordea, umetan, horrela egiten.

¹³⁶ Demagun «noiz esango *diok / dion / diozu / dio* (*berorrek*)?» galdetzen dizula solaskideak eta zuk, solaskide hori nor den kontuan izanik, «bihar esango *zioat / zionat / dizut / diot* (*berorri*)» erantzuten diozula. Azkena ia galdurik badago ere, aurreko hirurak bizirik daude euskaldun gehienen ez-pain-belarrietan.

¹³⁷ Maiz beren artean ezkontzen dira halakoak, eta gainerako gizarte-ataleko hiztunekin interakzio mugatua dute.

¹³⁸ *Burolekto* kargatu-jasangaitz-ulertezinez ikus, adibidez, Jexux Eizagirrerren 2002ko «Antilingua».

erregistro bereziak zehazten dira horrela: *estilo formal, informala eta intimoa*. Zehatzago jardundakoa da horretaz Martin Joos: situazioaren formaltasun-mailak eragindako aldakortasuna bost estilo edo erregistro hauetara bildu zuen berak 1959an¹³⁹: a) *frozen* edo izoztua, b) *formal* edo jaso-landua, c) erdibideko *consultative* delakoa, d) *casual* edo *informal* arrunta eta e) familiarte hurbileko edo lagunarte mineko *intimate* delakoa. Nor-norekin-non-zertaz ari deneko situazioak formaltasun-maila bat edo beste eskatzen du «berez». Okasioak hala eskatzen duen formaltasun maila hori da, Joos-en arabera, erregistro-estilo hau edo hori erabiltzera garamatzana: «The social occasion and its adequate style are dynamically correlated: (...) the speaker uses the style that suits the occasion; (...) the speaker defines the occasion for the listener (and for himself) by the “choice” of style». (Joos, 1959).

Hori baino zehaztasun handiagorik ere eskaini izan da, bariazionismoaren ikuspegi soziolinguistikotik. William Labov-ek, konkretuki, *interview situation* delakoan *contextual style* hauek bereizi zituen 1966an: *careful speech*¹⁴⁰, *casual speech* (edo *style*)¹⁴¹ eta *spontaneous speech* (edo *style*)¹⁴². Horrezaz gainera, eta agian horren gainetik, aparteko lekua hartzen du Labov-en baitan *everyday speech* delakoak: «the style in which he argues with his wife, scolds his children, or passes the time of day with his friends». (Labov, 1966: 65). Aparteko lekua hartzen du, perspektiba horretan, *eguneroko mintzamolde arruntak*. *Everyday speech* edo eguneroko mintzamolde arrunt hori *nork-noiz-norekin-non* erabili ohi duen, *zertarako* eta *nola*, jakin nahi badugu zentra gaitzezen Labov-en ezau-garriotan:

- a) situazio informalak: «everyday speech used in *informal situations*»;
- b) lagunarteko eta etxeko solasaldiak: «conversation *among friends or family members*»;
- c) bi aldiz pentsatu gabeko erantzun bizi-beroak, hitzak hizpidea eman ahala moldatuak: «the degree of *spontaneity or warmth* in the replies of individuals», eta
- d) barne-sentiera irakiten ari deneko, buruak baino areago bihotz-sentierak agintzen dueneko, jarduera: «*excited, emotionally charged speech* when the constraints of a formal situation are overridden», eta abar (Labov, 1966: 61).

Situazio formal hutsetik kanpora, etxean eta lagunartean esate baterako, espontaneitatea eta bihotz-berotasuna nagusi denean aparteko lekua du hortaz eguneroko mintzamolde arruntak. Funtsezkoa da mintzamolde hori gizakion jardunean: hori gabeko hitzun osorik ez dago.

¹³⁹ Ikus Joos, Martin, 1959. Ikus orobat 1962ko bere *The five clocks* liburua.

¹⁴⁰ Bere hitzetan esanik, «*careful speech* (is) the type of speech which normally occurs when the subject is answering questions which are formally recognized as “part of the interview”» (Labov, 1966: 61)

¹⁴¹ Labov-en arabera, «By *casual style*, in a narrow sense, I mean *the everyday speech used in informal situations*, where no attention is directed to language (...) *careful speech* (...) is certainly more formal than *casual conversation* among friends or family members» (Labov, 1966: 61) (letrakera etzana gurea).

¹⁴² Honela dio Labov-ek: «*Spontaneous speech* is defined here as the counterpart of *casual speech* which does occur in formal contexts, not in response to the formal situation, but in spite of it. (...) While there is no a priori reason to assume that the values of the variables will be the same in spontaneous as in casual speech, the results of this investigation show that they can be studied together» (Labov, 1966: 61).

Ondorio nabarmenak ditu horrek guztiak hiztun-elkarteen eta hiztunen aldaera-sortan: a) aldaera bakarrek hiztun-elkarterik ez dago normalean; hiztunik ere ez: situazioak eta solaskideek, lekuak eta zertarakoak markaturik molde askotarikoa da hiztun gehienon aldiari aldiko mintza- edo idazmoldea; b) molde-aniztasun hori ez dugu hizkuntza estandarretan erraz antzematen: idazteredu bateratuak ez dira horretarako sortuak eta, zabalkunde handia izan badute ere mintzajardunaren espektroan, orain ere ez dira, nagusiki, horretarako erabiltzen; d) hizkuntza estandarrek bezain funtsezkoak dira, osotasunaren ikuspegitik, eguneroko mintzamolde arruntak: maiztasun handikoak, hiztun gehieni «berez» ateratzen zaizkienak eta, horrexegatik, eguneroko mintzajardun arrunta zurkaizteko alboraezinak. Xalbadorrek *Odolaren mintzoa* zeritzona gogorarazten digute, partez, eguneroko mintzamolde arruntok: hizketa sotilaren grazia, berbakera gozoaren txinparta, barne-sentiera sakonaren adierazmolde doia edota haserre biziko erantzun zorrotzaren akuilua.

II.2. Linguistic repertoire: aldaera-sorta

Heterogeneoak dira hiztun-elkarteak, ikusi berri dugunez. Bertako hiztunak eta hiztun-taldeak hizkuntza batez edo gehiagoz balia litezke, eta gehienek, berdindu hizkuntza bakarrek edo anitzeko izan, hizkuntza-aldiera bat baino gehiago izan ohi dute ezpain-lumetan¹⁴³. Hitztunek eta hiztun-elkarteek eskueran izan ohi dituzten aldaera (eta, halakorik denean, hizkuntza) desberdin horiek osatzen dute beren *verbal* edo *linguistic repertoire*: hori da hiztun(-talde) horien (are hiztun-elkarte osoaren) *aldiera-sorta*. Hitztun-elkarteko beste kideekin¹⁴⁴ jarduteko (haiei hitz egiteko edo idazteko; haiek hitzez edo idatziz azaldutakoa jasotzeko) hiztun batek berekin dituen hizkuntza-aldierak osatzen dute bere *aldiera-sorta*, bere *verbal* edo *linguistic repertoire*¹⁴⁵. B. B. Kachru-k honela azaldu izan du, argi gure ustez, *verbal* edo *linguistic repertoire* hori zer den: «the (...) terms «linguistic repertoire», «code repertoire» or «verbal repertoire» (...) used more or less interchangeably, refer to the total range of languages, dialects, styles and registers available to a member of a speech community for interaction with other members». (Kachru, 2001). Hitztun-taldeen eta hiztun-elkarteen aldaera-sorta bide beretik doa.

Gatozen gure kasura: artikulua irakurtzen ari dena, sasoiko edo gazte, elebiduna da. Gutxienez elebidun eta, ekoizpen-trebetasunez ez bada jasotze-gaitasunen aldetik bederen, ia-seguru eleaniztun. Horrezaz gainera euskaldun alfabetatua da¹⁴⁶: sendo alfabetaturik dagoen neurrian, badaki euskara batuaz idazten eta, hein

¹⁴³ Hitztun-elkarte batetik bestera alde handiak daude, halere, darabiltzaten aldaeren kopuru kontuan. Hizkuntza-kopuruan ere bai: S. Chaturvedi-k dioena egia baldin bada, eta ez dugu motiborik besterik uste izateko, hiztun-elkarte gutxi izango da munduan Kanpur city-koa baino bihurriagorik: «The verbal repertoire of Kanpur city consists of approximately eighteen languages». (Chaturvedi, 2014: 42-43).

¹⁴⁴ Zabalagoa da, berez, kontzeptu horren adiera: beste hiztun-elkarteetako hainbat solaskiderekin jarduteko baliatzen ditugun hizkuntzak ere *linguistic repertoire* edo *aldiera-sorta* horretan sartzekoak dira.

¹⁴⁵ Dell Hymes-ek esana digunez, aldaera-sorta horrek determinatzen du hiztun bakoitzaren *communicative competence*, hiztun-elkartearen gainerako kideekin komunikatzeko duen gaitasuna.

¹⁴⁶ Alde handiak daude oro har, hori bai, euskaldunon alfabetatze-mailan. Alde handiak batzuetatik besteetara eta, norbanakoaren baitan ere, idazten baino errazago dakigu irakurtzen, oro har.

ohargarrian, hitz egiten. Badaki hala egiten, eta hartan saiatzen da, situazioak hala eskatzen badu. Horrela dira kontuak, adibidez, unibertsitateko euskal irakasleen, euskal irrati-telebistetako esatarien, administrazio-alorreko euskal-esparruetako goi-teknikarien edo aginte-organo gorenako bozeramaileen artean, etab. Horrezaz gainera euskaldun zaharra baldin bada, txosten honen irakurleak badu jaioterriko euskalkiaren ezagutza bizia, eta hartaz baliatzen da okasioak («nor-norekin-zertaz» delakoak) hala eskatzen dionean.

Justu-justu euskara batua edo euskalkia ez den, baina harreman-sare batzuetan aski bizirik dagoen, «erdibideko mintzamolde nabar» batez baliatzen da azkenik, ez gutxitan, euskaldun alfabetatu hori: ingelesez *substandard* (edo *intended standard*¹⁴⁷), alemanen *Alltagssprache* edo *Umgangssprache* zainduxeagoaz dihardu halakoetan. Gaurko euskaldun alfabetatu askoren aldaera-sortak elementuok ditu beraz, besteak beste: erdara bat¹⁴⁸ edo gehiago, alde batetik; euskal aldaerei dagokienez batua, euskalkia eta erdibideko mintzamolde nabarra, bestetik. Aldiz, irakurle hori etxetik erdaldun¹⁴⁹ denean are aukera-sorta zabalagoa antzeman liteke. Etxetik dakarren LI-erdara horrezaz (eta horren baitako aldaera probablez) gainera litekeena da beste erdararen bat (demagun ingelesa) ere berekin izatea. Litekeena da, bestalde, L2 gisa eskuratu duen euskarak aldaera-konfigurazio hauetariko bat agertzea: a) osabetezko euskaldun berri izatera iritsi delarik, euskaldun landu jantziaren pareko dugu (edo hartara iristen ari da); b) osagabeko euskaldun berri da nabarmen: oso urrun dago euskaldun berri osabetearen gaitasun-mailatik eta «mintza-arte nahasi» batez ari izaten da beti, euskaraz egin nahi edo behar duenean; c) tarte-bitarteko euskaldun berri da (asko dira horrelakoak): badaki euskaraz (normalean batuaz) irakurtzen eta, hein batean edo bestean, idazten eta, horrezaz gainera, badaki gutxi-asko «euskara batu hutsa» ez den baina bere harreman-sareetan aski bizirik dagoen «erdibideko mintzamolde nabar»az baliatzen.

Gaurko euskaldun zahar alfabetatuok eta alfabetatu gabeek¹⁵⁰ eta osabetezko, erdibideko zein osagabeko euskaldun berriek eskueran ditugun hizkuntzek eta hizkuntza-aldaerek osatzen dute gutako bakoitzaren *speech repertoire* edo *aldara-sorta*. Hizkuntza eta hizkuntza-aldaera horiek osatzen dute, egungo egunean, hiztun-elkarte elebidun honen aldaera-sorta. Aldara-sortaren euskarazko mintza- eta idazmoldeei, gorago esan dugunez, erdarazko (erdara bateko edo gehiagoko) mintza- eta idazmoldeak erantsi behar zaizkio, euskaldunon aldaera-sorta osoaz jabetzeko. Erdara edo erdarak ere gure aldaera-sortaren zati dira¹⁵¹. Zati garrantzitsu: ordu gehiago sartzen

¹⁴⁷ Hizkuntza-eredu estandarraz, gurean euskara batuaz, egitea eta hala egiten saiatzea ez dira gauza bera: atzerriko dokumentazioari dagokionez ikus, estandar forma «normal»en ondoan, ingelesez inoiz *intended standard* (Aurelija Tamošiūnaitė, 2013: «Lithuanian on both sides of the Atlantic: Toward the “intended” Standard», in *Pozna. Studies in Contemporary Linguistics* 49 (3)). Alemanez, ikus *intendierte Standardsprache*) esan izan dena.

¹⁴⁸ Aldara bat baino gehiago izan ditzake erdara horrek ere.

¹⁴⁹ Erdaldun elebakarra edota erdal elebidun nabaria.

¹⁵⁰ Alfabetatu gabeko euskaldunek alfabetatuek baino aldaera-sorta murriztagoa ageri dute sarri. Horien artean ere oso zaila da, ordea, hizkera-aldaera bakarrek euskaldunik aurkitzea. Horiek ere badute, alegia, nork bere aldaera-sorta.

¹⁵¹ Erdaraz ez dakien euskaldunik ez dago ia, egungo egunean: (laster erdaldunduko diren) sei urtetik beherako haur batzuk eta, agian, arnasmuneetako zenbait hiztun zahar sartzen dira multzo horretan. Erdaraz ia inoiz egiten ez duen euskaldunik ere ez dago asko, aurrekoak baino gehixeago izanik ere.

ditu euskaldun askok erdaraz¹⁵², euskaraz baino; euskaraz bezain sarri egiten du beste askok (bizigunez, lanbidez edo halabeharrez) erdaraz. Gertaera horri ezin diogu ezikusia egin. Erdarazko mintzamoldeak ere gure aldaera-sortaren zati dira. Aspaldi esana du Gumperz-ek: ‘languages and dialects form a behavioural whole, regardless of grammatical distinctness, and must be considered constituent varieties of the same verbal repertoire’. (Gumperz 1964: 140).

Labur bilduz: *verbal* edo *linguistic repertoire* baten jabe da hiztun oro: elebakar, elebidun edo eleaniztun izan litekeen aldaera-sorta baten jabe. Denborarekin aldatuz doa *verbal repertoire* edo aldaera-sorta hori, bai norbanako hiztunaren baitan eta bai hiztun-elkarte osoan. Aldatuz badoa ere, unean-unean «existitzen den zerbait» da: unean uneko hizkuntza-aldiera guztien multzoa adierazten du *verbal repertoire* horrek. Hiztun orok bere *verbal* edo *linguistic repertoire* berezia du: gizarte-bizitzan dugun *rol-repertoire* bereziaren oihartzun da, oro har, aldaera-sorta hori. Hiztunok ez gara hizkera-molde bakarrekoak; hizkuntza bakarrekoak ere ez, sarri. Aukera edo sorta horren zati da hizkuntza estandarra. Aldaera-sortaren zati garrantzitsua: zenbait aldetatik funtsezkoa, gorago ikusi dugunez. Garrantzitsu eta funtsezko, baina zati: ez aldaera bakar eta oso.

II.3. Eguneroko mintzamolde arrunta

Terminologia kontutik hasiko gara hemen ere, estandarizazioaren eta euskara batuaren kasuan bezala. Frantsesez *langue usuelle* eta gaztelaniaz *lengua usual* ezagunak ditugu. Baita *lengua habitual*, *corriente* eta abar ere. Horien kideko darabilgu *eguneroko mintzamolde arrunt* terminoa. Zergatik darabilgu esapide hori, eta ez beste bat? Hiru motibo hauengatik: a) Axularrek, orduko euskaldunen hizkuntza-aldiera bereziak zirela-eta, *mintzatze molde* desberdinez jardun zuelako: «Badakit halaber ezin heda naitেকেiela euskarako minzatze molde guztietara. Zeren anhitz moldez eta diferentki minzaten baitira euskal herrian».¹⁵³ (azpimarra gurea); b) Horrela darabil gure arteko zenbait espezialistak ere, egungo egunean. Koldo Zuazok, esate baterako, esapide hau darabil: «(literatura euskalkiak ez dira) herritarren jardun arrunteko mintzamolde» (Zuazo, 2005: *Euskara batua, ezina ekinez*, 249; azpimarra gurea); eta c) euskal itzulpen egokia delako atzerriko adituen *everyday ordinary speech* adierazteko. Hiru motibo horiengatik, beraz, *eguneroko mintzamolde arruntaz* jardungo dugu aurrerantzean. Sinonimorik badu termino tekniko horrek, euskaraz zein erdaraz. Jean-Louis Davanten *abozko euskara*, adibidez, *eguneroko mintzamolde arrunt* hutsa ez izan arren ez dabil hortik urruti (Davant, 2003). Erdarazko *lengua vernácula*-ren, *vernacular speech*-en parekoa da, bestetik, gure *eguneroko mintzamolde arrunta*. Parekoak izanik ere ez dira, ordea, sinonimo hertsia.

¹⁵² Besteri erdaraz egiten, edota besterena (aurrez aurre, telebistaz, dokumentazio idatzitik) jasotzen.

¹⁵³ Ikus Axular, 1643: *Gero* 15 or. Villasantek 1977an paraturiko argitalpenean. Batez ere orduko dialektuez (lekuan lekuko hizkerez) ari da Axular pasarte horretan, euskalki-aniztasuna aginte-egitura eta lege-marko beregain diferenteen ondorioztat harturik. Egia ere da, dena den, lekuan lekuko hizkera hori zela euskaldun gehienenen «everyday speech», beren eguneroko mintzamolde arrunta. Nolanahi ere, ez dago argi euskalki kontu hutsaz ari zenik eta, hoberik ezean, hitzaren adiera zabalenean hartu dugu hemen.

II.3.1. Eguneroko mintzamolde arrunta, perspektiba zabalean

Hizkuntza-eredu bateratuak bezala, eguneroko mintzamolde arruntak ere ez du definizio bakar, jeneral eta unibokorik. Ez gure artean eta ez atzerriko bibliografia teknikoan. Aski da bizpahiru definizio konparatzea, amankomuneko hainbat zertzelada eta zenbait bereizbide antzemateko. Demagun, hasteko, Joyce O. Hertzler-en behinolako azalpena: «Vernacular speech, as distinct particularly from literary language, is “everyday speech” (...) spoken in the common, repeated relationships of people and in the conduct of the widely shared activities of life. (...) Most significantly, it is the form of speech transmitted by parents to children, the form used in the home and the local peer group, the language of “culture as it is lived”». (Hertzler, 1965: 304). Funtsezkoa da, hasteko, Hertzler-en definizio horretan *vernacular*-en antonimotzat-edo hartzen den termino teknikoa: *literary language*, gurean euskara batua¹⁵⁴.

Errepara diezaiogun, bestalde, Hertzler-en azken esaldiari: eguneroko mintzamolde arrunta (*vernacular speech*) transmititzen da normalean gurasoetatik seme-alabertara. *Vernacular speech* arrunta, ez *literary language* (gurean euskara batua). *Vernacular* hori da etxean eta auzoan, gazteen artean, maizenik erabiltzen den hizkera; horren ondorioz, eguneroko mintzamolde arrunt hori transmititzen da lehenik eta behin hurrengo belaunaldira: hori ikasten da lehen-lehenik. Hertzler-ek tartean egiten duen baliokidetzaren kontuan hartzekoa da: «vernacular speech¹⁵⁵» = «everyday speech spoken in the common, repeated relationships of people»; hots, jendeak eguneroko bizimodu arruntean bere-berea duen hizkera, mintzoa edo berbakera. Funtsezko ezaugarria da hori, *vernacular* diogunean zertaz ari garen ongi ulertzeko.

Hiztun-elkarte orok *vernacular* bat baino gehiago du, edo izan dezake, situazio bakoitzak bere mintzamolde «berexia» eragiten baitu¹⁵⁶. Hori baino aldakortasun handiagorik ere badago eguneroko jardunean: hizkuntza estandarrek, gurean euskara batuak, eragiten duen aldakortasuna: «vernacular, in the sense of ordinary, every-day language, not only differs from speaker to speaker and from context to context, but the situations in which it is unaffected by influence(s) of one or more standard(s) (...) may be quite rare». (Poplack, 1982: I-2).

Bariazionisten artean ere antzeko azalpenak irakur litezke, partez, kontzeptu horri dagokionez: «vernacular, in the sense of ordinary, every-day language» (eguneroko hizkuntza arrunta, hitzez hitz). Hertzler-ek eta aurreko gehienek baino urrunago eraman du bariazionismoak *vernacular* edo *ordinary every-day language* delakoaren karakterizazioa. Shana Poplack-en arabera¹⁵⁷ hainbat ezaugarri hartu behar da kontuan, eguneroko mintzamolde arruntaz hitz egiterakoan. a) «eguneroko mintzamolde arrunta» singularrean esaten dugu maiz, baina, oro har, ez dago halako gauza finko-unitariorik: aldakorra eta anizkoitza denez, hobe litzateke eguneroko mintzamolde *arruntez* hitz egitea;

¹⁵⁴ Gorago ikusi dugunez tradizio luzea dugu etxean, *lingua literaria* dela-eta. Ikus, besteren artean, Luis Villasante.

¹⁵⁵ Bariazionisten artean ere antzeko terminoa da erabili ohi da sarri: «vernacular language».

¹⁵⁶ Poplack-en hitzetan esanik «there are any number of vernaculars in a single speech community, each situation involving linguistic patterns at least marginally different from the next». (Poplack, 1982: 2).

¹⁵⁷ Ikus bere «Bilingualism and the vernacular» in *Issues in International Bilingual Education*, 1982: I-23.

b) bere bidetik badabil ere nagusiki, eguneroko mintzamolde arruntak badu hizkuntza estandar(ar)en ukitu-eraginik¹⁵⁸; c) hiztun-elkarte orok *vernacular* bat baino gehiago du (edo izan dezake), situazio bakoitzak bere mintzamolde «berexia» eragiten baitu¹⁵⁹; d) hiztunon ahozko jarduna ez da normalean hizkuntza estandar hutsezkoa¹⁶⁰; e) hizkuntza idatzia ez da ezinbestean goi-mailako jendearen hizkuntza, ez prestigio-gunee-takoa eta ez pertsona askojakinen mintzamoldearekin zeharo bat datorrena¹⁶¹, eta f) hiztun arruntaren eguneroko mintzamoldeak ez ditu, normalean, hizkuntzaren formaltasun-, zuzentasun- eta gramatikaltasun-arauak osorik ageri¹⁶².

Bistan da gure ohiko ikuspegitik (hamarkada luzeez ikasi dugunetik eta orain ere gure artean nagusi-edo den intuiziotik) aski urrun dabilela zenbait puntutan, batez ere horko e) pasartean, Shana Poplack-en perspektiba hori. Ez guke ordea hori eta horrenbestez alde batera utzi behar: barne-aldakortasunez hornituriko ikuspegi hori aski onarturik dago adituen artean, azken hamarkadotan. Egungo *chat*-idazkerak arrazoi ematen dio, gainera, ikuspegi horri.

Hori baino gehiago ere jaso liteke aldakortasun- edo bariazio-teoriaren eskutik. William Labov eta beste zenbait aditu gogoan izanik, *erregistro informala* da eguneroko mintzamolde arrunta: aparteko esfortzurik egin gabe, berez ateratzen zaigun moduan, darabilgun *informal register* da hori¹⁶³; beste batzuen ustean *hizkuntza estandarra- ren aurrez aurrekoa* da eguneroko mintzamolde arrunta¹⁶⁴; idealizazio *butsa* da azkenik, zenbaitentzat, eguneroko mintzamolde arrunta: ez da benetako hizkuntza edo hizkera, «an abstract set of norms» baizik¹⁶⁵.

Aldeak alde eta enfasiak enfasi, solaskide biren edo gehiagoren arteko ahozko interakzioak duen maiztasun handia eta bizitasun berezia gogorarazten dute aditu gehienek. Lau osagai nagusi ageri dira hor gailen: a) *solaskideak elkarren ondoan*, elkarren

¹⁵⁸ «vernacular, in the sense of ordinary, every-day language, not only differs from speaker to speaker and from context to context, but the situations in which it is unaffected by influence(s) of one or more standard(s) (...) may be quite rare». (Poplack, 1982: 1-2).

¹⁵⁹ Bere hitzetan esanik «there are any number of vernaculars in a single speech community, each situation involving linguistic patterns at least marginally different from the next». (Poplack, 1982: 2).

¹⁶⁰ «There can be no unitary standard for the spoken language at least in any objective, well-defined sense». (Poplack, 1982: 2).

¹⁶¹ «The written forms of a language do not coincide with upper class speech, nor with that of prestige centers, nor with the speech behavior of literary or learned persons». (Poplack, 1982: 2).

¹⁶² «Norms of formality, correctness and grammaticality are only occasionally reflected in anyone's performance». (Poplack, 1982: 2).

¹⁶³ «Language is a large set of styles or registers from which the speaker selects according to the social setting of the moment. The vernacular is “the least self-conscious style of people in a relaxed conversation”, or “the most basic style”; that is, casual varieties used spontaneously rather than self-consciously, informal talk used in intimate situations. In other contexts the speaker does conscious work to select the appropriate variations. The one he can use without this effort is the first form of speech acquired». (ik. Mesthrie, Rajend, 1999: *Introducing Sociolinguistics*).

¹⁶⁴ «The non-standard varieties thus defined are dialects, which are to be identified as complexes of factors: “social class, region, ethnicity, situation, and so forth.” Both the standard and the non-standard language have dialects, but in contrast to the standard, the non-standard have “socially disfavored” structures. The standard are primarily written (in traditional print media) but the non-standard are spoken. An example of a vernacular dialect is African American Vernacular English».

¹⁶⁵ Lodge, R. Anthony (2005). *A sociolinguistic history of Parisian French*. Cambridge [u. a.]: Cambridge University Press.

presentzian, aurrez aurre daude eguneroko mintzamolde arrunt gehienetan; b) *interakzio betea* dute partaide horiek: solaskide *guztiak* dira *mezu-jasotzaile eta*, potentzialki bederen, *mezu-igorle*); c) testuinguruaren araberrako *egokitasuna* ere nabarmen ageri da bertan: aurrera daramatan hizketa testuinguru jakin horri dagokion modukoa da (situazioak berez eskatzen duen modukoa), eta d) *elkar-ulergarria da* mintzamolde arrunt hori: solaskide guztiek konpartitzen dute, norik bere aldaera-sortatik, besteek darabilten aldaera bera edo, gutxienez, solaskideen aldaera-sorta osotik abiatuz ulergarria den hizkera-moldea.

Zer ondorio atera dezakegu, oro har, goiko azalpen horietatik? Ondorio erraz bat badakigu zein den: adituen artean alde handiak daudela batzuetatik besteetara eta, beraz, oso zaila dela definizio sendo eta sakonik ateratzea. Hala da: kontuz ibiltzea komeni zaigu, definizio estuegietan katigatu gabe.

II.3.2. Zer dira eguneroko mintzamolde arruntak, hemen eta orain?

Eguneroko mintzamolde arruntei buruzko azalpen zabalik, gehienok onartzeko modukorik, ez dirudi dagoenik. Dakigula ez dago, euskaraz eta euskal hizkuntzari dagokionez, espresuki formulaturiko definiziorik. Badago ordea barne-osaeraz, erabilera-esparruz, eskuratzeko-bideaz eta adierazmoldez definigarria dirudien (eta goiko hainbat ezaugarriekin bateragarria den) irizpide-sortarik. Galdera hauei erantzuten saiatuko gara, beraz: barne-osaeraz nolakoak dira eguneroko mintzamolde arruntak?; nola erabiltzen dira, eta zertarako?; non ikasten ditugu, eta zenbatean erabiltzen? Bukaeran, beste galdera honi erantzuten saiatuko gara: erdara kontuak alde batera utzita, zenbat azpimultzotan bana litezke eguneroko mintzamolde arruntok?

II.3.2.1. Barne-osaeraz nolakoak dira?

Barne-osaerari dagokionez, euskaldunon eguneroko mintzamolde arruntetan parte bat baino gehiago bereiz litezke. Guztiak bost atribututara bilduz, diogun *aldakortasun geografiko* ohargarria, *dibertsifikazio soziologiko* nabarmena, *euskara batuaren eragin ukaezina*, *erdararen inpaktu bizia* eta *kodeztatze-maila apala* ageri dutela gure mintzamolde arruntek. Hitzunetik hitzunerara diferentea da bost atributu horien zer-nolakoa eta zenbatekoa: guztiok edo gehienok ageri dugu, ordea, atributu horien errainu-islarik.

- a) *Oinarri geolektal* (dialektal edo azpidialektal) *ageria* izan ohi du euskaldun gehienon eguneroko mintzamolde arruntak. Entzuten hasi orduko maiz antzematen da solaskidea sortzez (edo bizilekuz) *eskualduna* den, bizkaitarra, giputza edo nafarra. Zer esanik ez zuberotar batekin ari bagara hizketan. Zenbaitek (ez dialektologo-jendeak bakarrik) zehatzago ere asmatzen du, maiz aski, hitzun hori nongoa den: Arratia aldekoa eta ez Markinako bizkaitarra, Hernani aldekoa eta ez Zegamako gipuzkoarra, Bortzirietakoa eta ez Etxarri Aranazko nafarra, Azkainekoa eta ez Donibane Garaziko *eskualduna*... Euskalkiaren, azpieuskalkiaren edota lekuan lekuko hizkera-molde tradizionalaren eragina bizia eta bortitza da orain ere, azken mende-erdian ahuldu eta birmoldatu egin den arren, euskaldun gehienon eguneroko mintzamolde arruntean.

- b) *Euskara batuaren arrasto nabariak* (gero eta nabariagoak) ditu eguneroko mintzamolde arruntak, oinarri geolektalarekin batera¹⁶⁶. Hitzunetik hitzunera alde handia badago ere batu-osagai horretan, batez besteko joera argia da azken 50 urtean. Gero eta batuaren eragin biziagoa antzematen da euskaldunon eguneroko mintzamolde arruntan. «Joeraz» mintzo gara ordea, ez konbergentzia sendoaz eta ez, bereziki, bategite osoaz. Euskaldun gehienok euskaldun gehienokin esna gauden ordu gehienetan hitz egiten duguna ez da (Kardaberazen terminologia eguneratuaz baliaturik) euskara batu «puru-purua». Batzuek eta besteok egiten dugun horretan alde handiak daude adinez¹⁶⁷, formazioz¹⁶⁸, lanbidez¹⁶⁹, euskalki-jatorriz¹⁷⁰ eta, oso bereziki, unean uneko situazioa definitzen duten elementuen arabera: noekin ari garen, noiz-non, zertaz eta zertarako... Aldeak alde direlarik, gauza bat dago argi: gaurko euskaldun gehienon eguneroko mintzamoldea ez da euskara batuaren ispilu huts.
- c) *Erdal interferentzia nabaria* du eguneroko mintzamolde arruntak, oinarri geolektalaren eta euskara batuaren inpaktuaz gainera, euskaldun askoren ezpainetan¹⁷¹. Auzo-erdara nagusiekiko ukipen-egoera zabal eta sakonak eraginik, erdal (gaztelaniazko, Iparraldean frantsesezko) interferentziaz beterik dago euskaldun gehienon eguneroko mintzamolde arrunta: «betiko» maileguen ondoan erdal elementu fonetiko, lexikal, semantiko eta morfosintaktiko berriak ugarituz doaz. Batzuen ezpainetan oso era mugatu eta selektiboan; hainbaten jardunean ugariago; askotxoren mintzamolde «deskuidatuan» trumilka. Gure erdara etxekotuen, gaztelaniaren eta frantsesaren, inpaktua gero eta handiagoa da euskaldunon eguneroko mintzamolde arruntan: *bale-bengabueno-oseake-aber-eske*-ko euskara, bereziki, indartsu dabil (Hegoaldeko) bazter gehienetan¹⁷². Beste era batera esanik, erdal interferentzia fonetiko, lexikal, semantiko eta morfosintaktiko ohargarria ageri da euskaldun askoren (batez

¹⁶⁶ Honela mintzatua dugu Jean-Louis Davant, oraingo zuberotarren mintzamolde arruntaz (zehazkiago: ahozko euskarak 1950etik hona Zuberoan izandako bilakaeraz: «Iparraldean, ahozko euskararen bilakaera bat usnatzen dut XX. mendeko bigarren zatian, bereziki zubereraz (...): zaharren hitz batzuk galtzen ditugu, hitz berriak frantsesetik edo batutik hartzen, esaldiak ere bide horietatik egokitzen, oker edo zuzen». Euskara batuaren eta frantsesaren inpaktuaz mintzo da funtsean.

¹⁶⁷ Aitona-amonen hizkera-moldetik nabarmen aldendu da, dagoeneko, guraso askorena. Are gehiago berritu da seme-alabena. Oso bestelakoa da, azkenik, ilobena eta bilobena. Etxekoetan ikusi besterik ez dago.

¹⁶⁸ Norbere eskarmentuak bide-erakusletarako balio izan dezakeen neurrian, 1960tik 1980ra sendo alfabetaturikoez eta eskolan zein unibertsitatean euskaraz jardundako gazteagoek euskara batuaren ezagutza eta erabiltzeko gaitasun hobea dute, oro har, gainerakoek baino.

¹⁶⁹ Hirugarren sektorean (bertako lanbide batzuetan: irakasletza, komunikabideak, administrazioa, argitaletxeak, itzulpen-zerbitzuak...) ugariago dira, oro har, euskara batuaz jarduteko gai diren euskaldun alfabetatuak.

¹⁷⁰ Badirudi Gipuzkoan sarbide handiagoa izan duela, demolinguistika aldetik, euskara batuak. Ustela izan liteke ordea, beste uste askoren pare, ikuspegi hori. Merezi luke gai horren azterketa soziolinguistiko serio bat egitea.

¹⁷¹ Ez hainbat, baina bai hor ere, luman.

¹⁷² Haserre- edo zorroztasun-zantzua adierazi nahi dugunean, orobat, gutako asko ezin da, euskaraz ari delarik, *jode*-rik eta *laostia*-rik, *putamadre*-rik eta *kojones*-ik, *ketsorrada*-rik eta *kepada*-rik gabe urrutira iritsi. Askok ez dauka(gu) erdal makulu horien euskal ordainik.

ere kale-giroko euskaldun gazteen) artean¹⁷³. Aparteko trataera eman behar zaie, azkenik, gauza bera izan gabe zenbait puntu argitan interferentzien alorkide diren *code mixing*, *code switching*, *interlanguage* eta *translanguaging*¹⁷⁴ fenomenoei (ikus aurrerago).

- d) Beste euskalkietatik baino gipuzkeratik ondotoz hurbilago dagoen «erdibideko mintzamolde nabar» batek gero eta eragin handiagoa du (are *dot-* eta *dut-* esparruetan) eguneroko mintzamolde arruntan, euskaldun zahar askoren eta euskaldun berri ez gutxiren artean. Bertsolarien artean ere badu *Substandard* horrek bere oihartzuna.

Bi eratako hizkuntza-ukipen egoeran bizi gara euskaldun gehienok azken mende-erdian: a) lehendik aski indarturik zegoen euskara-erdaren arteko hizkuntza-kontaktupean, eta b) nabarmen indartuz eta hedatuz doan batu/euskalki arteko aldaera-kontaktuaren esparruan. Hizkuntza- eta aldaera-ukipen bikoitza bizi dugu, beraz, egungo egunean. Aldaera-kontaktuaren ondorioztat hartu ohi da, hiztun-elkarte osasuntsuetan, *substandard* (alemanez *Substandard*)¹⁷⁵ delakoa. Gurean, aldiz, kontaktu bikoitz baten ondorio-eragina du egungo euskaldun askoren hizkera-molde batu-asmozko horrek: a) euskalki(ar)en eta euskara batuaren arteko aldaera-kontaktua, batetik; b) euskararen eta erdararen (gaztelaniaren edo frantsesaren) arteko hizkuntza-kontaktua, bestetik. Bi kontaktu-molde horien eraginez sortua da, oro har, etxeko euskalki-oinarritik (edo, gero eta maizago, gipuzkeratik) abiatuz hainbat euskaldunek darabilen *batu-asmozko azpiestandar malgu-aldakorra, erdibideko mintzamolde nabarra*¹⁷⁶.

- e) *Berariazko corpus-plangintzaz interbenitu gabeko bizkera* da, azkenik, eguneroko mintzamolde arrunta. Egunean eguneko testuinguru bizi-aldakorrek eta hiztun gehienok testuinguru horietan ditugun rol-harreman espontaneo eta bizi-zorrotzek eraginik, hiztun arrunt askoren gatz-piperrez oratua dago, interbenzio falta horren trukean, eguneroko mintzamolde arrunta. «Bere arauak ditu» ordea: besterik badirudi ere, ez da araugabe hutsa.

II.3.2.2. Erabilera-esparruz, eskuratze-bidez, transmisio-moldez eta adierazpidez nolakoak dira?

Aski ezaugarri argiak dituzte gure eguneroko mintzamolde arruntek, erabile-ra-esparruari dagokionez. Ongi zehaztua dute, orobat, eskuratze- eta transmisio bidea. Adierazpide nagusia ere bai. Ikus ditzagun guztiak, hurrenez hurren.

¹⁷³ Hortik etorri ohi da, aldian behin, euskara batua eta *euskañol* delakoa bateratu nahi izatea.

¹⁷⁴ François Grosjean-en ideia batetik abiaturik, eta ikasgelan aldi berean galesaz eta ingelesaz baliatzea izanik xede, berariazko ikerketa-bideak landu ziren Galesko Bangor-en 1980ko hamarkadan. Cen Williams-ek galesaz *trawsieithu* bataiatu zuen kontzeptuari *translanguaging* esan zion ingelesez bere lankide Colin Baker-ek. Ikus adibidez Williams, Cen, 2002; García, Ofelia, 2009; Lewis, Gwyn, Bryn Jones eta Colin Baker, 2012; Lagabaster, David eta Ofelia García, 2014 eta García, Ofelia eta L. Wei, 2014.

¹⁷⁵ Termino horren adieraz jabetzeko ikus, adibidez, Bellmann 1983.

¹⁷⁶ Urrunago ere eraman liteke kontua, orain horretan sartuko ez garen arren: euskara batuak ere badu, azpiestandarrak bezala, kasuan kasuko euskalkiaren eta erdararen eragin bizia.

- a) *erabilera-esparrua*. Euskara batuaz aparteko erabilera-esparru propioa du, oro har, eguneroko mintzamolde arruntak: erabilera-esparru propio eta zabala. Hitzezko, aurrez aurreko edo hurbileko jardungune, harreman-sare, rol-harreman eta situazio informal askotan bera da (hala aukeraturik edo, maizago, «berez hala datorrelako») mintzamolde normal-egoki-ohikoa. Hizkuntza-aldaera hori darabil hiztun askok egunero, bere esna-ordu gehienetako jardun arruntean (erdaraz ari ez denean). Harreman-sare informal eta intimoetan, aurrez aurrekoetan, ustez uste gabeko solas diadikoetan edota talde-giro lasaian, bereziki, aldaera hori gailendu ohi da sarri. Hori da euskaraz ari diren hiztun gehienen artean maizenik entzuten den mintzamolde kolokiala, berbakera espontaneo. Hori da eguneroko (batez ere gertuko, baina baita urrunxeagoko) solaskideekin, elkarrizketa lasaian edo eztabaida bizian, jarduteko orduan «errazen ateratzen zaigun» mintzamoldea. Zer esanik ez umorea azaltzeko, zorrotz kritikatzeko edo errieta bizia egiteko orduan; eguneroko mintzamolde arruntaz baliatzen gara maizenik, ez batuaz, elkarri zirika jarduterakoan edo txisteak kontatzerakoan ere¹⁷⁷.

Berezkoak dituen jardungune, rol-harreman, situazio eta adierazpide nagusi horietatik kanpora, haien garapenez-edo, bestetarako ere erabili ohi da eguneroko mintzamolde arrunta: irratsaio askotako elkarrizketa bizietan¹⁷⁸ (eta, gero eta maizago, telebistako hainbat entretenimendu-saiotan), emailez jarduteko edo txateatzeko orduan... Horma-paretetan ohar xume-probokatiboak idazteko hobesten den idazkera ere ez da askotan euskara batu hutsa izaten, eguneroko mintzamoldeetatik hurbilago dagoen zerbait baizik¹⁷⁹.

- b) *adierazpidea*. Hitzez erabiltzen dira nagusiki, ez idatziz, eguneroko mintzamolde arruntak. Hitz egiteko baliabide dira hizkuntzak, lehenik eta behin¹⁸⁰. Ez da hori, inoiz halakorik iradoki ohi bada ere, aparteko bajeza. Irakurtzen eta idazten baino lehenago ikasten dugu gizakiok hitz egiten. Horrezaz gainera, irakurtzen eta idazten baino ordu gehiago pasatzen dugu oinbiko gehienok hizketan: eguna joan eta eguna etorri, geure kasa edo gogoeta-lan isilean ari ez garenean ezpain-belarriez baliatzen gara, lumaz edo teklaz baino gehiago, besteren uste-azalpenak eta galdera-erantzunak atentzios jasotzen; txat-bideak formulazio berriak ekarri baditu ere azken aldian, hitzezkoak dira orain ere aurrez aurreko elkarrizketa bizi gehienak; hitzez azaltzen dizkiogu orobat (entzule bati, zenbaiti edo askori) geure uste-sinesmen, gogo-amets, asmo-iritzi eta beldur-gorroto gehienak. Hizkuntzen erabileraz dihardugunean oker gabiltza, beraz, idatzizko jardunean bakarrik (edota batez ere idatzizkoan) pausatzen

¹⁷⁷ Batu-asmozko idazkera da, aldiz, eslogan politiko gehienetan nagusi.

¹⁷⁸ Ez, bistan da, irrati bidezko berri-emankizun formaletan. Asmoz eta jomugaz azalpen-giroko irratsaio landuetan ere ez. Bai ordea kirol-saio gehienetan (batez ere zuzeneko transmisio-saiotan), herritar gehienekiko elkarrizketa xume-natural gehienetan, etab.

¹⁷⁹ *Jantzak bokallue!*

¹⁸⁰ Behin eta berriro azpimarratu ohi da puntu hau, hizkuntzaren idatzizko edo izkribuzko planoan gehiegi zentratzeko arriskutik aldentzeko.

baditugu begiak. Joko-zelaiaren parte da idatzizko jarduna, ez joko-zelai oso. Kualitatiboki funtsezkoa izanik ere, perspektiba kuantitatibotik ez da gure interakzio-ordu gehienen sostengu nagusi. Ezpain-belarrizko interakzioa ez da irakur-idatzizkoaren osagarri xume, gizakion adierazbehar askoren (seguruenik gehienen) oinarri, abiaburu eta jomuga nagusi baizik. Euskararen grazia eta txinparta, galdetu bestela bertsolariei eta bertsozaleei, hitzeko jardunean dago orain ere, hein handi batean. Nagusitasun hori kontuan hartzen ez badugu oker gabiltza.

- c) *eskuratze- eta transmisio-bidea*. Etxetik euskaldun garen gehien-gehienontzat, eguneroko mintzamolde arrunta da gure LI¹⁸¹. Umetan lehenik ikasten dugun hizkuntza-aldaera, sozializatzeko pautan nagusien bidez bizien eta osoen eskuratzen duguna eta heldutakoan ere maizenik ezpaineratzen duguna ez da normalean hizkuntza-eredu bateratua izaten, adituek (justu horregatik) *vernacular language* edo *lingua vernacula* esaten dutena baizik. Definizio xume baten arabera, *vernacular language* hori da «the most basic, earliest learned variety of language. It is the least subject to self-monitoring and the least likely to change over one's lifetime»¹⁸². Honela ere zehaztu izan da inoiz bere erabilera-espektoa: «the vernacular comes out in certain circumstances — when someone is tired, upset, around other speakers of the vernacular, very informal settings»¹⁸³. Euskaldun zaharron kasuan ere hori da arau nagusia: lehen-lehenik gurasoen, familiartekoen eta auzoko haur euskaldunen artean sozializatzen garen heinean, han eskuratzen den hizkuntza-aldaera ez da euskara batua, herritarren eguneroko jardun arruntean nagusi den mintzamoldea (mintzamolde arrunt horietariko bat) baizik. Diferente dira kontuak, hein batean, euskaldun berrien artean. Euskaldun zaharrak baino errazago jotzen dute horiek euskara batura, edo erdibideko batu/arrunt batera. Batzuek eta besteak, ordea, neurri eta molde desberdinean bada ere estandar hutsa ez den mintzamolde zaharberritu horretara hurbiltzen dira, oro har, biziaren ibilian.

Eskuratze-bidea ikusi dugularik, gatozen bere ifrentzua dugun transmisio-atalera. Eguneroko mintzamolde arrunta da gure artean, ez batua, goizenik eta sendoenik transmititzen dena. Hori da hurrengo belaunaldiei, *exposure* eta *interaction* bidez, lehenik eta behin transmititzen zaiena¹⁸⁴. *Acquisition* bidezko ikasbide formala, eskolako eta (beranduago) zenbait harreman-sare landutan edo lanpostu kualifikatu batzuetan lortzen dena, beranduago etorri ohi da oro har¹⁸⁵ eta gutxitan ezabatzen du

¹⁸¹ Alemanian, *Primärsozialisation* delakoaz, ageri diren hiru hipotesietarako ikus Beate Scholten, 1988: 19 eta hur.

¹⁸² Iturria <https://www.ling.upenn.edu/~strassel/I02/sc-lecture.html>. *Vernacular language* delakoa *superposed varieties* direlakoan aurrez aurre definitu ohi da zenbaitetan. Azken hauek «later-learned varieties of speech» ditugu. Beranduago ikasiak eta, oro har, situazio-ingurumen formal(en)etan gailendu ohi direnak.

¹⁸³ Ikus *Introduction to Sociolinguistics*, 2002.

¹⁸⁴ Egia da euskal irratia eta telebista ere aski goiz hasten direla haurrak entzuten (eta ikusten): zenbat etxetan ordea, zer intentsitatez eta zer programa?

¹⁸⁵ Aztergai dago, halere, gero eta ugariago diren haur-eskolen bidez zabaltzen ari den panorama soziolinguistikoko berria: nola egiten zaie haurrei haur-eskoletan, euskal mintzamolde konkre-

ordura arteko mintzamolde-sorta. Osatu eta aberastu egiten du gutxi-asko, hori bai: hitz-ebakera zainduaz (hitzak osorik esanaz) jarduten erakusten du, gure hitz-altxorra aberasten du, terminologia tekniko egokia garatzen laguntzen du, estilo formal-landurako baliabide sendoz hornitzen du hainbatean eta, oro har, irakur-idatzizko jardunerako gaitzen. Hori guztia eginik ere, gutxitan ezabatzen du eguneroko mintzamolde arrunta. Hitz bitan esateko: etxean eta familiarrean, auzoan eta lagunartean, orobat ikaskideekiko pausaldi eta kirol-saioetan eskuratzen da batez ere eguneroko mintzamolde arrunta. Gero, gizarte-giro zabalean, lanean eta denbora-pasa alaian osatzen, garatzen eta zorrozten da. Euskara batua «bere lekua» egiten ari den arren¹⁸⁶, orain ere eguneroko mintzamolde arrunt horretan oinarritzen da nagusiki hizkuntzaren (eta, horrenbestez, hiztun-elkartearen) transmisio bide normala, naturala.

Labur bilduz: etengabe aldatuz doazen baina «egon hor dauden» eguneroko mintzamolde arrunt horiezaz baliatzen gara euskaraz bizi garen euskaldun gehienok maiz, esnatzen garenetik lotara joan arte. Situazio formal-landueneratik kanpora, adierazkizun jasoetatik at, estandarretik hurbilago edo urrunago dagoen baina estandar hutsa ez den «erdibideko» mintzamolde nabar batez baliatzen gara sarri. Egoera intimoenetan, berriz, are euskara batutik urrunduago ibil gaitezke. Kode-txanda ere eragin ohi dugu sarri, solaskide(ar)en jolas-irrigarri. Funtsezkoa da honetaz guztiaz argi jabetzea. Urteak berekin dituen egun eta ordu gehienetan ez gara euskaldun gehienok situazio formal-landuetan murgildurik bizi. Gutxienak ari gara, eguneko ordu gehienetan, kontzeptu-sare landuz eraikitako jardun-esparru berezietan: goi-irakas-kuntzan, jendaurreko hitzaldi-emankizunean, administrazio-alorreko arau-erabakien dokumentu-prestaezan edo azalpen-emankizunean, doktore-tesien idazkuntzan eta, oro har, kontzeptualizazio-lan handia eskatzen duten lanbide teknifikatuetan. Aitzitik, erdibideko aldaera-erregistroa eskatzen duten egoerak, batetik, eta situazio informalak edo intimoak, bestetik, izan ohi ditugu euskaldun gehienok gure hizketaldi gehienetan nagusi. Hori dela medio, eguneroko mintzamolde arrunt batez edo bestez baliatzen gara euskaldun gehienok, iratzarrik gauden ordu gehienetan. Mintzamolde hori(ek) ateratzen zai(zki)gu errazen, hori(ek) d(it)ugu hurbilen, egokien, naturalen, berezkoen, «bi aldiz pentsatu gabeko»en. Horrezaz baliatzen gara solaskideari konfiantza eta onginahia adierazteko, inoren bizkarretik barre egiteko, zerbitzari euskaldunari lehenik bazkaria eta gero kontua eskatzeko, kirolean egin ondoan lagunekin ardo pare bat hartuz berrikerian jarduteko, seme-alabei garai bateko pasadizo bitxiak azaltzeko, adi-adi dauden entzuleei txiste bixi-piperduna kontatzeko, hala dagokionari haserre bizia erakusteko, merkatu-egunean gazta-saltzailearekin tratuan egiteko, besteren miseriak hizpide harturik kontakatilukerietan jarduteko edota aldian behin, urliarekin ez bada sendiarekin, hitz-aspertu luzea egiteko. Labur bilduz: eguneroko mintzamolde arruntak estaltzen du, urtea joan eta urtea etorri, gure interakzio-mundu bihurri-aberatsaren espektro-atal zabalena. Ez jaso-dotoreena, bai bizi-ugariena.

tuari dagokionez? Lehen ez bezalako *exposure* eta *interaction* molde horrek zenbateko inpaktua du haurrengan?

¹⁸⁶ Elizkizunak eta sermoiak, adibidez, euskara batuaren «bere bidea egite» horren erakusleku egoki dira. Merezki luke, zinez, eliz esparruko euskal eta ele biko emankizunen azterketa soziolinguistiko sakona egitea.

II.3.3. Zenbat azpimultzo dago euskaraz, eguneroko mintzamolde arrunten artean?

Gorago azaldu denez, aldaera bat baino gehiagoko *linguistic repertoire* dute hiztunek munduan barrena¹⁸⁷. *Aldaera-sorta*, ez hizkera-molde bakarra. Aldaera-aniztasun hori izan ohi da norma: horrela izan dira gauzak orain arte, eta horrela dira orain¹⁸⁸. Bloomfield-ek, adibidez, bost hizkuntza-aldiera bereizi zituen 1933an (ikus II.2 puntua): hiru estandar desberdin (*literary, colloquial, provincial*) eta bi mintzamolde arrunt (*substandard, local dialect*). Gatozen gureraz: zenbat aldaera ditugu euskaldunok, egungo egunean, nork geure erdaraz (erdarez) gainera? Zenbat euskal aldaera bereiz litezke gaur gure artean? Ez dago horretarako, gorago azaldu denez, zientzia-arauzko erantzun finkorik. Euskara batua ez da erabat gauza zurruna, batetik¹⁸⁹, eta euskaldunon eguneroko mintzamolde arrunta aniztasun handiko konstelazioa da, bestetik. Euskara batuaren aldaera posibleetan murgildu gabe, eta eguneroko mintzamolde arrunten saileko hainbat sozioklekto eta zenbait teknoklekto alde batera utzita momentuz, euskal mintzamolde arrunten egungo aniztasuna hiru ardatz nagusitan proiektatuz azaldu liteke argienik: *euskalki-ardatzean* (euskalkiaren presentzia txikia, ertaina edo handia), *batasun-ardatzean* (*euskara batuaren eragin-maila* txikia, ertaina edo handia) eta erdal inpaktu-ardatzean (*erdal interferentzia* txikia, ertaina edo handia). Ardatz bakoitzak nahi adina aukera ditu: *continuum* osoa dago euskalki bete-betetik ia euskalki-arrastorik gabeko mintzamolde edo idatzeredura¹⁹⁰; *continuum* zabala dago, orobat, euskara batuaren erabateko eraginetik ia inolako eraginik gabekora; *continuum* bizia, azkenik, ia erdal interferentziarik gabeko euskara-molde «garbi-txukun-zaindu»tik erdarakadaz beterik dagoen *euskañolera*. Aukera eta aldaera ugariko konstelazio batean gaude; nahi adina euskara-molde daude tartean, muga argirik gabeko segida luzean.

Muga gabeko konstelazio hori operatibizatu egin liteke ordea, munduko beste hainbat konstelazio estatistiko bezala. Honegatik edo hargatik prototipikoak gerta litezkeen aukera beregain batzuk defini ditzakegu, eta kontzeptualki aurrez aurre landu. Ez aldaera *per se* bakarrak direlako, eta ez kopuruz nagusi direlako. Bai, ordea, egoera multiforme horren joko-zelaia argiago ikusten, eta zelai horren «lau kantoiak» errazago antzematen, lagundu dezaketelako. Kontzeptu-lanketarako argigarri izan litezkeen aldaera prototipiko batzuk aukeratzea zilegi da, beraz, mila arazo eta arazotxo izanik ere berekin. Hori egingo dugu hemen, bestela ez baitago etekin onez aurrera egiterik. Hiru prototipo aukeratuko dira hemen, eguneroko mintzamolde arrunten alorrean: a) euskalki-oinarri biziko mintzamolde tradizionala, b) *batu-asmozko azpiestandar malgu-aldakorra* (hots: *erdibideko mintzamolde nabarra*) eta c) *batu-asmo argirik gabeko mintzamolde erasana*. Gero, aparte, laugarren mintza-, irakur- eta idazmolde bat

¹⁸⁷ Azken ehun urteko hiztunetz eta hiztun-elkarte biziez eta belaunez belaun transmitituez ari gara, ez inoizkoez edo artifizialez. Ez gara, beraz, orain latin idatziak edo esperantoak beren baitan izan ditzaketan berezitasunez ari.

¹⁸⁸ Hori baino gehiago dio zenbaitek, gorago ikusi dugunez: gero ere ezinezkoa izango dela pertsona, hiztun-talde edo hiztun-elkarte osoak hizkuntza-aldiera bakarra izatea. Elementu bat baino gehiagoko *verbal* edo *linguistic repertoire* jakina izango dutela gero ere.

¹⁸⁹ Euskara batu bat baino gehiago erraz bereiziko luke, ohiko tresneria kontzeptualaz baliauturik, egungo hainbat soziolinguistak. Hala egingo luke eta, *de facto*, hala egiten du zenbaitek. Ez da hau, dena den, gaurko aztergai nagusia eta ez dugu, berariaz, bide horretatik aurrera egingo.

¹⁹⁰ Eta aldiro euskalki bat baino gehiago.

aztertuko dugu: *osagabeko euskaldunen mintza-arte nabasia*. Gatozen, lehenik, eguneroko mintzamolde arruntaren hiru azpimultzoetara.

II.3.3.I. Euskalki-oinarri biziko mintzamolde tradizionala

Definizioz, *euskalki-esparruko mintzamolde tradizionala* diogunean, erdarak (gaztelaniak hegoan, frantsesak iparrean) konparatiboki gutxi erasandako hizkera-moldeaz ari gara, batetik, eta euskara batuak¹⁹¹ ahul inpaktaturiko berbakeraz, bestetik. Hots, hizkuntza-kontaktu eta aldaera-kontaktu handirik gabeko *vernacular* tradizionalaren mintzamoldea, erdararen eta euskara batuaren aski interferentzia apala (zenbaitetan hutsaren hurrengo^a) duena. XIX. mendera arte euskal hizkeren oinarri nagusi, ia bakar, izan diren dialekto-euskalkien, azpieuskalkien eta lekuan lekuko hizkera-molde xumeen oinordeko hurbilena dugu mintzamolde hau. Orain ere bada, kopuru zehatzik eman ezin den arren, nagusiki horrela mintzo den euskaldunik. Horrela hitz egiten ikasi zuen halakok umetan, etxean eta herri-giroan, horrela dihardu egungo egunean (gero eta aukera murriztagoz halere) eta hurrengo belaunaldiari ere *vernacular* tradizional hori transmititzeko gai litzateke «egoera normal»ean¹⁹². Orain ere bada horrelako euskaldunik, baina gero eta gutxiago.

II.3.3.2. Batu-asmozko azpiestandar malgu-aldakorra, erdibideko mintzamolde nabarra

Etxekoaz eta herri-girokoaz ahaztu gabe euskara batura jo ohi duen hainbat euskaldunen mintza- eta idazmoldea dugu, definizioz, erdibideko mintzamolde nabarra. Aldaera hori zer izan den ulertzeko ikus, besteak beste, aleman-esparruko *intendierter Standard* edota ingelesezko *intended standard variety*¹⁹³. Euskaldun alfabetatua da halako hainbat, gutxi-asko: gero eta maizago D edo B erduan ikasitako gaztea edo heldua. Gero eta maizago EGAREN, edo antzeko agiriren baten, jabe. Kalean eta lagunartean, baita situazio-testuinguru formaletan edo erdi-formaletan ere, bere lekua egiten ari da batu-asmozko azpiestandar malgu-aldakor hori. Gehienok dugu azpiestandar malgu-aldakor horretaz egiteko joera, hitzez batez ere, erdi-serio erdi-txantxetan. Askok dakigu horrela egiten, eta egin ere maiz egiten dugu, hurbiltasun-giroa

¹⁹¹ Euskara batuaz edo, aurreko mendeei dagokienez, norbere mintza-esparru hertsitik haranzko beste edozein euskal berbakerak gutxi erasandako hizkera-moldeaz ari gara hemen, alegia.

¹⁹² Hots, herri edo euskalki-esparru bereko pertsonak balitu ohiko mintzalagun (ezkontide edo bizilagunetik hasita), mintza-esparru horretan (eta horkoak diren pertsonekin) lan egingo balu urterik urte eta bizimodua, erabat edo nagusiki, mintza-esparru horretan moldatuko balu, erdararen beharrik gabe (ia). Bizi garen egoera soziolinguistikokoan bizi izanik, bistan da oso nekez garantiza litzekela «euskaldun dialektal ia huts» horien seme-alabak, are gutxiago ilobak, era berean «euskaldun dialektal ia huts» izango direnik. Eguneroko jardunean euskaraz egiten badute hurrengo belaunaldiek (ez da gauza segurua), euskalki hutsez baino errazago egingo dute euskara batuaren eta erdararen uztarpeko mintzamolde dialektal «gesaldu» batez, edota, are errazago, hurrengo atalean esplikatzeko dugun euskara batuaren eta erdararen uztarpeko azpiestandarraz.

¹⁹³ Iturriei dagokienez ikus Kleiner, Stefan, 2014: «Die Kodifikation der deutschen Standardausssprache im Spiegel der faktischen Variabilität des Gebrauchsstandards»; Meier, Angelika, 2015: *Zum Ausdruck von Progressivität in den Varietäten des Deutschen. Eine Untersuchung im Südbairischen*.

areagotzeko-edo, erdibideko mintzamolde nabar horretan. Demagun, adibidez, ondoko hau: «Ainhoak erosi duen kotxea pasada bat da: GPSa salpikaderotik mane-jatzen da, eta kopilotoak badu acceso a internet. Flipatzekoa, benetan». Hori (eta horrelako asko) esaten dugunean, bistan da elebidun hutsezko lagunarte hurbilean gabiltzalarik erdal aire nabarmenez ari garela hizketan, eguneroko bizimolde nabar-moderno bere gordinean azpimarratu nahirik. Euskara batua formalki ikasia dugun, hala egiten saiatzen garen eta, ustez, euskara batuaz dihardugularik maiz antzematen dira honelako fenomenoak¹⁹⁴:

- a) maileguzko hitz berri ugarietz gainera, erdal lokarri-makuluak: *bale-benga-bueno-osea-aber-eske*-ko euskara indartsu dabil, belarriak arras engainatzen ez bagaitu, (Hegoaldeko) bazter gehienetan¹⁹⁵. Arau-kontuei dagokienez, jakina, lokarri-makulu horiek (eta beste hainbat erdal-osagarri) ez dira euskara batuaren altxor. Bizirik eta (oro har) indar betean daude, ordea, ustez eta asmoz euskara batuaz mintzo garenon artean.
- b) erdal elementu fonetiko (Hegoaldean *prozesu* eta *zianuro* ordez *procesu*, *cianuro*; Iparraldean r frantsesekara...) ugari: elementu horiek ere ez dira, batasun-arauei dagokienez, euskara batuaren osagai. Aski hedaturik daude, ordea, ustez euskara batuaz mintzo garen askoren artean ere.

Ez da hau linguistikazko detaile handietan sartzeko unea. Aski da esatearekin, hori bai, gauza bat dela «euskara batu»tzat hartzen den araudi esplizitua, eta beste bat gure eguneroko jardunak islatzen duen mintzamoldea. Eskolan ere badu bere lekua, gutxi-asko, batu-asmozko azpiestandar malgu-aldakor horrek. Nola irakasten diegu haurrei, geografia-historia alorrean, *Zumalakarregi*, *Zun(t)zungi*, *Zabalbide* edo *Lizarrusti* modukoetan bertako z hori ahoskatzen? Ikus, orobat, ustez euskara batutik hurbilen lebilkeen prosodia-eredu arauzkoa eta eredu horren aplikazioa. Nola esaten dugu «45»: *berrógeitabóst*, ala *berrogeitábost*? Mundu oso bat daukagu hor, ikerketa eske.

Bistan da, nolana ere, euskara batua bere arau-multzo esplizituak (ortografiak, gramatikak eta hiztegiak) definitzen duen heinean arau-multzo horretatik urrun(xko) dabilela, sarri, euskaldun alfabetatu askoren hitzezko (zenbaitetan, are, idatzizko) jarduna. Euskara batuaren berri izan arren, eskolan edo helduaroan batuan alfabetaturik egon arren, batu-asmozko azpiestandar malgu-aldakorraz baliatzen gara sarri (hitzez bereziki), situazio-testuinguruak hizkera-molde jaso-landua eskatzen duenean ere. Beste euskalkietatik baino gipuzkeratik ondotoxoz hurbilago dago, gure ustez, batu-asmozko azpiestandar malgu-aldakor hori. Mintzamolde horretaz baliatzen diren hiztunen lagunarteko, lan-esparruko edo unibertsitate-aldiko harreman-sareek hartara ohiturik sortu den, irrati-telebistetan (batez ere elkarrizketa edo solas-jolaseko galde-erantzun modukoetan) maiz halakorik entzuten delako den, edo azterkizun dagoen beste zenbait motiborengatik den ez dago argi: egon hor dago, hori bai, batu-asmozko azpiestandar malgu-aldakorra, erdibideko mintzamolde nabarra.

¹⁹⁴ Hitz egiterakoan ageri dira horrelakoak, bereziki; ondotoxoz bakanago idatzizko jardunean.

¹⁹⁵ Ustez eta asmoz euskara batuan ari garelarik ere ez da hain ezinezkoa, ziri-probokazioa dugunean xede, honelako moldaera irri-egingarririk entzutea: «hire proiektu hori ez duk *zaila* edo *oso zaila*, Antxon, *zailisimoa* baizik».

II.3.3.3. Batu-asmo argirik gabeko mintzamolde erasana

Hainbat euskaldunek badu euskara batuaren berri, gutxi-asko; haietako hainbati gustatuko litzaioke, gainera, euskara batuan egitea edo egiten jakitea. Euskaraz mintzo denean¹⁹⁶ ez da, ordea, batuaz baliatzen. Euskalki-oinarri hutsekoaz ere ez. Umetatik (edo gero, lan-giroak eta gizarte-bizitzak eraginik) garatu duen elebitasun-molde berezia dela medio, erraz eta lasai jotzen du erdal interferentziazko mintzamolde (beretzat) «praktiko» edo «eskuragarri» batera. Bizi-giro hurbileko euskara landuga-beak eta (bere baitan) indartsu dabilen erdarak gogor erasandako berbakera da, labur bilduz, halako euskaldunen batu-asmorik gabeko mintzamolde hori. Erdarak argi erasandako euskaldun zahar askotxoren mintzamolde honen oihartzuna erraz antzematen da plano fonikoan, lexikalean, morfosintaktikoan eta semantikoan. Plano lexikalera mugatuz, bistan da haserre- edo bizitasun-zantzua adierazi nahi duenean hitzun hauetariko askok ezin duela, euskaraz ari delarik, *laostia* eta *jode*, *putamadre* eta *kojones*, *ketxorrada* eta *kepasada* modukoak gabe pauso asko eman. Euskara batuaz mintzo (sariago, idazten ari) denak badu, hala nahi izanez gero, horien ordainik: *de facto* ez da, normalean, bere idaz- eta mintzamolde landuetan makulu horien arrasto handirik ageri izaten¹⁹⁷. Batu-asmozko azpiestandar malgu-aldakorraz mintzo denak, erdizka. Batu-asmo argirik gabeko mintzamolde erasanaz mintzo denak, ez: horrek ez dauka erdal makulu horien euskal ordain egokirik eskueran, haserre- edo bizitasun-zantzua adierazteko orduan. Euskara batuaren eta euskalki-oinarri biziko mintzamolde tradizionalaren (ez hainbat azpiestandarraren) perspektibatik baditu mintzamolde erasanak hori baino ondotoxoz arazo larriagoak: interferentzia morfosintaktiko sakona, besteak beste: ergatiboa behar den unean eta lekuan erabiltzeko zailtasun-nekea, *ere / ere bai* bereizkundera aplikatzeko arazoak, azalpen-esaldi xumeetan ere aditza aurrean jartzea, ezker-hedapenezko izen-sintagma eta menpeko perpausak osatzeko ezintasuna (adib. «tipo jatorra dek, baiña badakik: dauka un morro que se lo pisa»),... Euskaraz ari da halako hitzuna, beretzat praktikoa eta baliagarria den batu-asmorik gabeko mintzamolde erasanaz. Bere buruan gidari duen erdarak gogor erasandako euskal mintzamolde hori ez da zuzena gertatzen, egokia ere ez askotan, aurreko bi kategorietako euskaldun gehienentzat: «bitxia» eta «exkaxa» gertatzen da mintzamolde hori, batez ere, euskalki-oinarri biziko hitzun gehienentzat. Baina hor dago: hori ere (gaurko) euskara da, dudarik gabe.

II.3.4. *Ba al da bestelako euskal mintzamolderik, bemen eta orain? Osagabeko euskaldun berrien mintza-arte nabasia (euskañola)*

Azken kasutik hurbil samar dagoen, eta maiz aski bien mugak argi bereizi ezin diren, kategoria batez jardungo dugu hemen. Euskal Herriko biztanle gehienak, zahar eta gazte, erdaldun dira jaiotzaz: erdaldun elebakar edota (belaunaldi

¹⁹⁶ Bakan irakurtzen du halakok euskaraz, kaleko iragarki, egunkari-aldizkarietako izenburu nagusi eta ohar laburretatik kanpora; are bakanago idazten du euskaraz orrialde osorik edota, zer esanik ez, hortik gorako testu landurik.

¹⁹⁷ Besterik da, jakina, eleberririk eta bestelako lanetan ager litezkeen eta, inoiz, agertu ohi diren soziolekto itxien azalpenezko hizkera.

gazteenaren artean bereziki) erdal elebidun. Erdaldun elebkarrek ez dute, definizioz, euskal mintzamolderik beren hasierako aldaera-sortan: ez hitzez eta ez idatziz. Berterik da hemengo erdaldun elebidunekin: horietariko hainbat euskara ikasten ari (izanak) dira, L2 moduan, azken hamarkadotan. Batzuk haur-denboran (eskolan) ikasi / ikasten ari (izan) dira, beste batzuk helduaroan (euskaltegiaren batean, kaleko edo lagunarteko harreman-sareen medioz...). Erdaldun sendo izateari utzi gabe euskalduntzen ari (izan) dira horrela, elebitasun-maila bat eskuratuz. *Euskaldun berriak* ditugu hauek, orain ehun bat urtetik honako izendapenez. Euskalduntze-bidean aurrera egin dute euskaldun berri horietariko batzuek, elebidun orekatu bihurtuz¹⁹⁸: *osabetezko euskaldun berriak* dira hauek¹⁹⁹. Erdaldun elebidun guztiak ez dira, ordea, *osabetezko euskaldun berri*. Badira tartean, eta ez dira gutxi, *osagabeko euskaldun berriak* ere²⁰⁰. Erdal elebidun markatuon, osagabeko euskaldun berrion, mintza-arte nahasia dugu atal honetan aztergai.

LI erdara dutelarik, edota etxetik erdal elebidun markatu direlarik, L2-ren alorreko trebetasun-maila gogor erasanik dute horietariko askok. Hiztun-irakurle-idazleok *interlanguage* edo erdal euskarazko mintza-arte nahasiaz baliatzen dira, erdaraz ari ez direnean. Atzerriko bibliografian *interlanguage* (Selinker) eta etxekoan *tarteko bizkuntza* edo *euskañola* (Etxaniz, 2018: 7 eta hur.) ditugu *mintza-arte nabasi* deitu dugun kontzeptu horren erreferente hurbilenak²⁰¹. *Interlanguage* ooren ezaugarriak ditu, oro har, gure neska-mutil, gazte eta heldu askoren *mintza-arte nabasi* edo *euskañol* delakoak:

- a) Euskara ikasten saiatu arren, erdararen ezaugarri nabarmenak daramatza mintza-arte nahasi horrek bekokian ongi iltzaturik: ergatiborik gabe osatzen da sarri subjektu aktiboa (galdera: «nork eman dizu goxokia, Ainhoa?»); erantzuna: «Andoni»), «A (aditza) Bri» formula bakarrera biltzen dira sarri, moldaera zuzenak eta okerrak nahaste («aitak hezurra eman dio txakurrari» zuzenaren ondoan «aitak bere lagunari ikusi dio atzo»); erdal aditz-forma bakarrak euskal aditz-forma bakarrak ematen dira maiz («tocar» = «ikuitu», beraz «atzo loteria ikuitu dio Koldori»), mendeko perpaus-atalak eskuin-garapenez moldatzen dira sarri («ikusi dugu katu bat daukana hiru hanka») ... Erdal ezaugarri horien kopurua, izaera eta arau-hauste neurria aski diferenteak izan litezke: ahulak batzuetan, nabarmenak zenbaitetan eta arras deigarriak besteetan.
- b) Euskararen zenbait arau behar baino urrutiago darama osagabeko euskaldun berriak, bere L2 eskuratze-bide horretan. Adibidez, «x-tzen» adizkeraren

¹⁹⁸ Euskaldun berriok badakite normalean euskaraz irakurtzen eta idazten, eta funtzionalki gai dira, azentu- eta doinuera-kontuak gorabehera, hitzez azaldu behar dutena argi, zabal, zehatz eta, zenbaiten kasuan, aski dotore azaltzeko.

¹⁹⁹ Osabetezko euskaldun berrien fenomeno garrantzi handiko gertakaria izanik da gure artean, XX. mendean. Bizirik diren sona handikoak alde batera utzita halakoak izanik ditugu, beste hainbaten artean, Jose Luis Alvarez «Txillardegia», Carlos Santamaria eta Gabriel Aresti.

²⁰⁰ Badakigu ondo asko, hori baino bihurriagoko *continuum* bat dikotomizatzeak bere kalte-ondorioak izan ditzakeela. Mesedeak ere baditu, ordea, sintesi bidezko kontzeptu-argitasunaren aldetik. Bitan banatu dugu, hortaz, euskaldun berrien *continuum* hori.

²⁰¹ Sintaxiari dagokionez, konkretuki, oso dira deigarri honelako moldaerak: «etorri, kariño: amatxo emango dizu palomitas», edo «baina, andereño, Ander dauka un morro que se lo pisa». Lizarrako ikasleen mintza-arte nahasiaz jabetzeko ikus, aski zerrenda landuaren bidetik, Etxaniz 2018. Gainbegiratu jeneralerako, aldiz, ikus Zalbide 1994.

erabilera behar baino urrutiago eraman ohi du halako askok: «zenbat kilometro falta da?» ordez, «zenbat kilometro faltatzen dira?»». Nabarmenagorik ere entzuten da, zenbaitetan: «ere bai ikusi dugu elefante bat daukana bi ume».

- c) Erdal LIetik euskal L2rako bidean doan mintza-arte nahasi hori ez da uniforme, ez eta egonkorra. Aitzitik: diferentea da hiztun-ikasle batetik bestera eta, hiztun-ikasle bakoitzaren kasuan ere, unean uneko edo aldian aldiko hainbat zantzu ditu berekin: «asko aurreratu du Naiarak» esaten dienean euskara-irakasleak guraso erdaldunei, «hoberanzko» aldakortasunaren testigantza argia dugu esku artean. Gaur osagabeko euskaldun berri dena osabetezkoa izan liteke bihar edo etzi.
- d) Euskaraganako *exposure*-jarduna eta arau-ikasbide formalak aurrera badirau behar adinako intentsitatez, osagai-zabaleraz eta denbora-iraupenez, hasierako mintza-arte nahasi horren moldaera bihurrienak bakanduz joango dira kopuruz, eta hasierako izaera bihurria leundu egingo da, gero eta euskararen egitura foniko, gramatikal edo semantikotik hurbilago dauden tarte-bitarteko formulazioen jabe izatera iritsiz euskara-ikaslea.
- e) Ez beti, ordea: L2-rako bidean doan mintza-arte nahasi hori fosildu egin liteke ikaslearen baitan: L2-ren eskuratze-bidean planto egin dezake hiztun-edo idazle-ikasleak. Atzeranzko prozesurik ere aipatu ohi da han-hemen.
- f) Euskara-ikaslearen edo osagabeko euskaldun berriaren «nolabaiteko hizkuntza da», guztiarekin ere, mintza-arte nahasi hori. Bere arau idiosinkratikoak ditu: ez euskararen (are gutxiago euskara batuaren) pareko arau soziolinguistiko egonkor jeneralak, baina bai kasuan kasuko hiztunari situazio jakinetan berariaz dagozkionak.
- g) Arau idiosinkratiko horiek iturburu jakinak dituzte oro har: erdararen eta euskararen arteko egitura-kontrasteen kopurua eta nolakoa, ikasle horien LI-etiko transferrak, ordura arteko ikasketa-bidea eta maila, L2 eskuratzeko ikas-estrategiak, L2-ko komunikazio-moldeak eta L2-alorrean gain-jeneralizazioak egiteko joera, besteak beste.
- h) Mintza-arte nahasi hori diferentea izan liteke jardungune (eta, horren baitan, harreman-sare eta situazio) batetik bestera: euskaraz errazago, naturalago, zorrotzago eta «normalago» molda liteke osagabeko euskaldun berria tesuinguru batzuetan, eta beste zenbaitetan nekezago, ahulago eta «dorpeago».

Esan bezala Larry Selinker dugu, 1972ko bere *Interlanguage* artikulua, kontzeptu honen sortzaile formala²⁰². Antzekoa da partez, ez erabat, eskola-munduan zentratuago dagoen eta azken mende-laurden honetan zabalduz doan *translanguaging* delakoa²⁰³. Nolanahi ere, ez gara une bateko pasadizo bitxi batez ari: kopuruz zabala da

²⁰² Sortzaile formala Larry Selinker izanik ere, ez zaio aurrekaririk falta. Pit Corder-en eta Uriel Weinreich-en eragina bizia da, hainbaten ustez, bere *interlanguage* konstruktuan.

²⁰³ Gorago azaldu denez, François Grosjean-en ideia batetik abiatutik, eta ikasgelan aldi berean galesaz eta ingelesaz baliatzea izanik xede, berariazko ikerketa-bideak landu ziren Galesko Bangor-en 1980ko hamarkadan. Cen Williams-ek galesaz *trawsieithu* bataiatu zuen kontzeptuari *translanguaging* esan zion ingelesez bere lankide Colin Baker-ek. Ikus adibidez Williams, Cen, 2002; García, Ofelia, 2009; Lewis, Gwyn, Bryn Jones eta Colin Baker, 2012; Lagabaster, David eta Ofelia García, 2014 eta

gertaera soziolinguistiko hau, eta aurreranzko eragin-ahalmenez bizia. Osagabeko euskaldun berriz gero eta hornituago daude belaunaldi gazteak. A, B edo D ereduan diharduten irakasleak dira, seguruenik, gertaera horren zabalaz, sakonaz eta aurrera begirako aukerez eta arriskuez jabetuenak. Etxetik erdaldun elebakar (edo erdal elebidun nabarmen desorekatu) dira eskola-ume gehienak²⁰⁴. Euskaraz jabetzen ari badira ere, askotxoren artean nabarmena da erdararen eragin sakonetik ezin askatua euskaraz irakurtzen, idazten edo hitz egiten saiatzen direnean.

Gatozen, beraz, atal honen galdera nagusira: euskara batuaren eta eguneroko mintzamolde arruntan hiru prototipoen gainera ba al dago, hemen eta orain, beste-lako euskal mintzamolderik? Euskaldunen eta euskal hiztun-elkartearen aldaera-sor-taren baitako elementu al da *euskañola*, osagabeko euskaldun berrien mintza-arte nahasia? Ezetz esan liteke, alde batetik. Eguna joan eta eguna etorri erdaraz bezain sarri, edo erdaraz baino maizago, euskaraz mintzo diren euskaldunek, euskaltasuna-ren muin eta belaunez belauneko jarraipen-kate segurua osatzen duten hiztunek, ez dute horrela hitz egiten: ez beren mintzamolde arruntetan ari direnean eta ez, deza-ketenek, batuaz ari direnean. Jakin ere seguruenik ez lukete jakingo (beren burua nabarmen behartu gabe) horrela egiten. Horrezaz gainera, euskaldun gehienek ez diote aparteko begirune eta prestigiorik aitortzen horrelako mintza- eta idazmol-deari. Ezin esan liteke beraz, alde horretatik, euskaldun-jendearen baitan «beste aldaera bat gehiago» denik mintza-arte nahasi hori: euskaraz bizi den euskaldun-jen-dearen parterik aktiboenarentzat, mintza-arte nahasi hori ez da eguneroko mintza-molde arrunta (are gutxiago euskara batuaren alorreko azpimultzo). Mintza-arte nahasi hori ez da «euskara ona», eta, askorentzat, ez da «euskara» ere: nahi-eta-ezi-nezko erdarakaden ispilu da, maiz asko.

Egia da, ordea, asko direla gure artean osagabeko euskaldun berriak eta asko-txo, horren ondorioz, euskaraz egiten duten okasioetan mintza-arte nahasi horretaz baliatzen direnak. Demolinguistikaren eta hizkuntza-soziologia zinetikoaren pers-pektibatik, beren mintza-arte nahasi hori ez da hutsaren hurrengoa. Ez gaude seguru, *pidgin* baten aurrean ote gauden: seguru samar esan dezakegu, hori bai, orain-go ez dagoela horrelako kreole-hizkera zabal-egonkorturik. Baina hor dago. Arra-zoizkoa dirudi, horregatik, mintzamolde «berezi» eta «erdarak erasan» hori ere kontuan izatea euskal mintzamolde arruntez ari garenean: hori da, ezer baino lehen, euskaldun berri(tzen ari diren) askotxoren euskarazko mintzamolde nagusia, zen-baitentzat bakarra. Egungo euskal hiztun-elkartean badago hortaz, posizio perife-rikoan baina demolinguistikaz adierazgarrian, erdal euskarazko aldaera-modu bat, aldan behin *euskañola* esaten zaiona. Ez dakigu horrela mintzo direnek²⁰⁵ nora egingo duten: eguneroko mintzamolde arruntera (edota euskara batura) joko duten beren euskara-eskuratze bidean, bertan planto egingo duten (eta kreole baten ernamuin bihur litezkeen belaunaldiko perspektiban) ala, solaskide euskaldunagoen

García, Ofelia eta L. Wei, 2014. Gaur ez gara, dena den, kontzeptu bien arteko antzekotasun-aldeen kontuan sartuko.

²⁰⁴ 1978tik hona, EAEn behintzat, gero eta portzentaje handiagoa dago egoera horretan. Saiatu izan gara inoiz, gertaera horren sostengu lirakeen elementu kualitatiboak eta demolinguistikoak azaltzen: ikus Zalbide1991 eta 2010.

²⁰⁵ Orobat, bakanago ordea, horrela irakurtzen eta horrela idazten dutenek.

faltaz, erdara hutsera joko duten beren eguneroko bizimoduan, eskola edo euskaltegian ikasitakoa apurka-apurka gesalduz, ahulduz eta galduz. Litekeena da denetarik gertatzea praktikan. Gauza bat gertatu ala bestea, ez dago soil-soilik hitzun horien esku: eskolako eta, bereziki eskolaz kanpoko eta eskola ondoko harreman-sareek, lanbideak eta gainerako ingurumen-baldintzek erabakiko dute, nagusiki, mintzajardunaren ura zer aldetara isuriko den.

III. EUSKARA BATUA ETA EGUNEROKO MINTZAMOLDE ARRUNTAK, BIAK BEHAR AL DIRA? BATEKIN EZ AL DA ASKI?

Aldaera bat baino gehiagoko *linguistic repertoire* izan ohi dute hiztunek. *Aldaera-sorta* osoa, ez hizkera-molde bakarra, izan ohi dute eskueran eta erabilgarri. Aldaera-aniztasun hori izan ohi da norma: horrela izan dira gauzak orain arte, eta horrela dira orain, gure inguruko hitzun-herrietan. Norbaitek hau esan dezake, ordea: “orain arte gauzak horrela gertatu izanak, eta orain ere (inguruan) horrela izateak, ez du esan nahi horrela izan behar dutenik etorkizunean; ez, bereziki, gurea bezalako hitzun-elkarte ahul-txikietan. Erdaraz (erdarez) gainera, euskara batua eta eguneroko mintzamolde arruntak, biak behar al ditugu begien bistako etorkizunean? Ez al dugu aski euskara batuarekin, edota eguneroko mintzamolde arrunt batekin? Ez al da luxu handiegia, bizi garen gizartean bizi izanik, erdara bat edo gehiago jakin eta egin behar izateaz gainera euskara-molde batez baino gehiagoz baliatzea?

Demagun, hipotesi gisa, arrazoi duela halakok: demagun, alegia, erdaraz gainera²⁰⁶ euskal aldaera bakarra izango duen hitzun-elkartea posible dela. Batekin aski izatekotan, zer hizkuntza-aldaerarekin, zer *variety*-rekin genuke aski? Batuarekin, ala eguneroko mintzamolde arruntarekin? Zein da, hasteko, gaurko egoera?

Demagun aurreko atalean azaldutako bost prototipook hartu nahi direla aukera posibletzat: a) euskaldun landuen «arauzko» euskara batu²⁰⁷; b) batu-asmozko azpiestandar malgu-aldakorra; c) euskalki-oinarri biziko mintzamolde tradizionala; d) batu-asmorik gabeko mintzamolde erasana, eta e) batez ere osagabeko euskaldun berriek darabilten mintza-arte nahasia, erdarakadaz betea (Hegoaldean *euskañola*²⁰⁸). Bost aukera horietariko bakar batekin aski al dugu euskaldun guztiok, hemen eta

²⁰⁶ Bizi garen Europa-alde honetan, gizarte-moldaeraren egungo eta begien bistako ezaugarriak kontuan izanik, ez dago, hurrengo bizpahiru belaunaldietan, erdararik gabeko euskal hitzun-elkartetik aukeran. Aukerarik sinpleenak bi hizkuntza lituzke, hemen eta orain: erdara (molde) bat eta euskara (molde) bat. Erdararen molde-aniztasunaz (eta erdara bat baino gehiago jakiteaz eta egiteaz) ez dugu, aurrerantz, jardungo: gaurko gaian zentratutik, lekuz kanpora dago erdal aniztasunaren gogoeta hori.

²⁰⁷ Goian azaldutako moduan badakigu barietate-tarte ohargarria dagoela euskara batua egiten duten hitzun batzuetatik besteetara. Batua egiten duen hitzun bakarraren baitan ere badago alderik, hitzezko harreman-jarduera arruntetik idatzizko azalpen landura, besteak beste. Ez gara bereizbide xehe horietan sartuko, halere, gaurko gaitik aldentzea bai leharre horrek.

²⁰⁸ Hegoaldeko *euskañolaz* ikus, adibidez, Etxaniz 2018. Iparraldean ez dugu horren pareko esapiderik ezagutzen: gaitzespen-kutsuari dagokionez bat etorri arren, besterik da ipar-euskaldunek *frantximan(i)*, *fran(i)ximent* esan ohi zutena (eta, agian, orain ere dutena). Ikus OEHko *frantximant*, *frantximan*, *frantximent*, *frantximent*: «(En sdo. peyorativo) francés, (el) que habla en francés. Gure frantximenten erdara, nahasia bezain bitxi. Arb *Igand 7. Begote frantximantak hiriko plazetan, / gauden gubaur herrian igand'arratsetan!* Ox I81». Urrun dago hitz hori, *euskañol*-en balio bereko edo antzeko izatetik.

orain, eguneroko komunikazio-beharrak taxuz asetzeko, hitzez eta idatziz? Hala baldin bada, bost horietariko zeinekin? Azter ditzagun bostak, banan-banan.

III.I. Euskaldun landuen «arauzko» euskara batuarekin aski al dugu?

Baietz pentsa liteke, zenbait aldetatik. Gorago, euskara batuaren (eta, oro har, hizkuntza estandarren) ezaugarriez jarduterakoan esan direnak ez ditugu hemen berrituko: jo hara, detaile gehiagoren bila. Labur bilduz, bere alde ditu euskara batuak a) arauzkoa izatea, zuzena eta aski garatua: askoren begietan, «ona»²⁰⁹; b) bibliografia gero eta zabalago baten euskarri eta iturburu da euskara batua: gaurko euskal hiztun moderno gehienok «ia edozein gai landu dezakegu» euskara batuaz, euskalkiz ez; c) egonkortasuna eskuratu du eredu bateratu horrek, batetik, eta, bestetik, batasun-maila ohargarria: «hizkuntza berean dihardugu guztiok, batuaz ari garenean»; d) etekin funtzional handikoa da: «edozein lekutako edozein euskaldunekin edozein gaitaz jarduteko balio du euskara batuak, bere hutsean; ez dago erdarara jo beharrik, euskalki-langa dela medio»; e) alde du prestigioa: euskaldunon artean ondo ikusia dago situazio-testuinguru formaletan, batez ere idatziz, euskara batuaz jardutea, eta f) alde du mende osoko euskaltzaletasun aktibatuaren atxikimendu finkoa: jarreraz, ia erabatekoa; jardueraz, masiboa²¹⁰.

Hizkuntza-soziologiaren eta hizkuntza-plangintzaren perspektibatik, oso kon-tuan hartzekoak dira atributu-ezaugarri horiek. Ezin ukatuzko arrakasta baten seinale. Euskaldun landu eta trebatuen «arauzko» euskara batuarekin aski al den galdetzen bazaio hizkuntza-soziologo bati, hala ere, erantzuna nekez izango da baiezkoa. Behar-beharrezkoa dugu euskara batua, baina horrekin bakarrik ez da aski. Hona zergatik: batasun-arauak eman izana gauza bat da; euskara batu hori eguneroko gizarte-bizitzan hizkuntza-aldaera bateratu, egonkor, ezagun, zabal onartu eta zabal aplikaturiko aldaera izatea besterik. Gorago azaldu dugun arrakasta araugintza- eta jarrera-zaletasunen alorrean gertatu da batez ere, eta ezagutzarenean hainbatean. Aldeko jarrera eta aski ezagutza zabala eskuratu duen arren normatibizatze hori ez da, ordea, partez baizik sozializatu. Euskara arautu eta (aski, ez erabat) prestigioduna dugu orain, lehen ez bezala. Partez bakarrik dago, ordea, euskara batu hori soziologikoki estandarizatu. Bertako egoera praktiko-xumeaz jabetzen hasteko ikus, adibidez, tartean zenbait urte pasa izanak indar-balioa ahultzen badio ere, Oiartzungo adibide argigarria (Haddican, 2005); ikus, orobat, laster kaleratzea espero dugun Ondarroako gazte-nerabeen azterketa (Navascués eta Iurrebaso). Eta ikus, bereziki, gorago azaldu dugun nazioarteko perspektiba teorikoa: «Prescription of a norm, whether via published grammars and dictionaries or whether via the pronouncements of editors, teachers, critics, writers, or other language guardians, does not constitute standardization. Codification and pronouncements may be ignored or rejected. The norm must be “widely accepted” and “felt to be appropriate”». (Cooper, 1989: 134). Horko «widely accepted» horren zabaltasun-maila dago, gurean, aztergai.

²⁰⁹ Euskaldun euskaltzale askoren buru-bihotzetan urrezko letraz iltzaturik dago, beren esan-eginak aintzakotzat hartu nahi badira, gogo-irrika hau: «egin dezagun guztiok euskara batuaz, hitzez eta idatziz, eta kitto; zertan bazterrak nahasten ibili».

²¹⁰ Masiboa baina, uste baino sarriago, *intended* mailatik *de facto*-ra pasatzea kostatu egiten dena.

Estandarizatu arte, mintzamolde bat ezin liteke bere hiztun-elkartearen adierazpide bakar izan. Zuzen eta eroso erabiltzen ez dakigun mintza- edo idazmoldea ezin izan liteke hiztun-elkartearen euskal aldaera bakar, non eta gizarte-bizitzaren esparru gehienak (tartean harreman-sare eta situazio-testuinguru informal-intimoenak) erdararen esku utzi nahi ez diren, latin moduko funtzioetara baztertuz euskara. Egungo egunean euskaraz egiteko (ez soil-soilik ulertzeko) gai (omen) garen 800.000 euskaldunen artean, askok ez daki euskara batuaz idazten. Probetxuz eta aparteko nekerik gabe irakurtzen ere ez, askotan. Hitzezko planotik irakur-idatzizkora pasatzean, bi aukera lituzkete ehunka milaka euskaldun horiek: a) erdaraz irakurri eta idatzi (hala egiten dute, *de facto*, maizenik: ikus egunkari-salmentak, edota dokumentazio administratibo elebidunaren erabilera soziologikoa; b) euskaraz alfabetatu eta aurrerantzean euskara batuaz irakurri eta idatzi edozer gauza, jasoenetik xumeenera. Etxeko euskaraz, azpiestandarraz edo mintzamolde «erdarak erasanaz» hitz egiten ez dakien euskaldun askorik ez dago. Askotxo dira, aldiz, ehun urteko batasun-lanketa soziologikoaren ondoan euskara batuaz erraz irakurtzen eta ederki idazten ez dakitena, eta asko, gehiago zabala agian, euskara batu hutsaz (batuaren ezaugarri fonetiko, gramatikal eta lexikal guztiez) mintzatzeko gai ez direnak. Entzundakoa ulertzeko bai, oro har; beraiek hala jarduteko lain ez, lautatik hirutan-edo. Ez dira gai eta, bereziki, *speech-accomodation* fenomenoa ez baita hutsaren hurrengo, hartarako gai balira ere ez dute hala jarduten. Egoera hori izanik, bistan da autolimitazio ohargarria lekarkeela euskara batu hutsezko jardunak. Behar-beharrezkoa da batua, baina elementu bakar gisa ez dugu, hemen eta orain, aski.

III.2. Batu-asmozko azpiestandar malgu-aldakorrarekin aski al dugu?

Zer du aukera honek alde, eta zer kontra, gaur-biharretako hizkuntza-aldaera egoki eta bakar izateko? Has gaitezen aldeko ezaugarriekin. Umetan ikasitako euskararen edota lagunartean eta gizarte-giro zabalean korritzen duen euskalki «egunertu-higatu»aren enbor-arrasto biziak gainera erdararen eta euskara batuaren hainbat zertzelada nabarmen du, gaur egun (batez ere kale-giroan, baina ez hor bakarrik), azpiestandarraz edo mintzo den²¹¹ hiztun askok. Alde handiak daude mintzamolde malgu-aldakor horretan hiztun batetik bestera, baina amankomuneko zerik ere bai: jende-multzo zabal baten aurrean gaude, nolana ere. Euskara batu hutsaz mintzo den hiztun-multzoa baino zabalagoa da, eguneroko esperientzia pertsonalaren argitan, euskal *Substandard*, *Alltagssprache* edo *Umgangssprache* malgu-aldakorraz baliatzen den hiztun-taldea. Euskalki garbi-hutsaz diharduena ere baino zabalagoa da hiztun-talde hau, berrogeita hamar urtetik beherakoan artean bederen. Demolinguistikari begiratzeko badiogu, eta horri ere aurrez aurre begiratu behar gerorako hizkuntza-aldaera egokiena ganoraz aukeratzekotan, hemen dugu xede-talde nagusia²¹². Demolinguistikazko datuak hain alde dituzten azpiestandarrezko hiztun hauen euskara zergatik ez

²¹¹ Euskalkiaren marka-seinaleak agirian ditu, are, ustez euskara batuan idazten duen askok. Behin eta berriro proba egini gara, urte luzez, EAEko irakasmunduan, eta erantzuna argia da oso. Giputz-Gipuzkoan inon baina argiago, agian.

²¹² «Xede-talde nagusia» edota, neurketa zehatzik ezagutzen ez dugunez, egokiago esanik «xede-talde nagusienetako» bat.

hautatu, hortaz, etorkizuneko euskara-molde bakartzat? Lan gutxiago genuke eskolan, egunkari-aldizkari-liburuetan, irrati-telebistetan eta ageriko euskal adierazpideetan, jendeak (ahozko jardunean batez ere) «benetan dakien», «benetan egin dezakeen» edota «benetan egiten duen» hizkera-molde hori aukeratuz aldaera bakar gisa.

Hori ere nekez izan liteke bidea. Gatozen, izan ere, kontrako elementuotara:

- Azpiestandar hori ez da aldaera bat, aldaera-konstelazio anizkoitza baizik. Euskara batuaren, erdararen eta lekuan lekuko euskalkiaren eragina ahulagoa edo bortitzagoa da kasuan kasuko hiztun-idazlearen baitan²¹³. Aldakortasun-iturri nagusiok ditu egungo azpiestandarrak: a) azpiestandarrak mintzo den hiztuna jatorriz zer euskalkitakoa den eta euskalki horrek bere berbakera (eta idazkera) arruntean zenbateko eragina duen; b) euskara batuak hiztunaren mintzagaitasunean eta mintzamoldean zenbateko presentzia duen eta, c) hizkera- edo idazkera-molde hori erdarak zer neurritan inpaktaturik daukan (zenbateko erdal interferentzia ageri duen).
- Ezaugarri idiosinkratikoak dira horietariko asko, ez ordea guztiak. Aldakortasun-ardatz horiek biziki eragiten diote aldian aldiko azpiestandar malgu-aldakorraz mintzo den hiztunari, aski emaitza diferenteetara makurtuz bere jarduna. Aldaera-tipo diferenteak daude, beraz, kategoria honetan, ez aldaera uniforme bat: euskalkien kasuan baino aldaera-tipo gehiago agian. Tipo batetik besterako tartea (barne-osaerari eta elkar-ulergarritasunari dagokionez), horrezaz gainera, euskalki-konstelazioan bezain handia izan liteke. Ikasketaz zein lanbidez euskara batuaren eragin (konparatiboki) handia duen leitzar baten azpiestandarra gauza bat da, eta erdarak gogor inpaktatutako euskara-modu batu-asmozko bat darabilen bilbotar gazte batena bestea.
- Askiz heterogeneoa izateaz gainera, azpiestandar horren/horien barne-egiturak ez du gaurkoz egonkortasun handirik. Euskalkien pisua ahulduz doa oro har, eta erdararen zein euskara batuaren eragimena indartzen ari da batez bestean: gaurko azpiestandarra eta orain dela 25 urtekoa ez dira zeharo gauza bera. Azpiestandarrak ez du, oraingoz behintzat, norma-arau finkorik. Arauzko erreferentzialtasunik gabea da, perspektiba formaletik (ez, ezinbestean, funtzionaletik), azpi-estandar magma hori. Normarik ezarri ez(in) zaionez eta aurrerago esango diren motiboengatik, ez dago bateratua.
- Hiztun-elkartearen iritzi-jarreraren bozeramaile izatea arriskutsua bada ere beti, badirudi hizkera-molde hori ez dugula euskaldun askok gogoko. Ez dugu «euskara on»aren eredutzat hartzen: zuzendu beharreko mintza- eta idazmoldea iruditzen zaigu askori, agian gehienoi. Horren ondorioz, eta besteak beste direla, eskolan ez da formalki irakasten eta berariaz ikasten²¹⁴. Gutxi-asko zuzendu beharreko hizkera-bide eta idazkera-moldetzat hartzen

²¹³ Gutxi-asko inkorporaturik duen euskalkia diferentea da, gainera, mintza-esparru batetik bestera: batzuk gipuzkeraz ari dira, bizkaieraz hurrenak, nafarreraz edo nafar-iparraldeko mintzamoldeez azkenak (aetz-zaraitzuar-zuberotarrak ahaztu gabe).

²¹⁴ Besterik da ikasle eta irakasle askotxok (batez ere eskola-esparruko ingurumen ez-formaletan) zer ezpainetaraten duen.

da azpiestandar hori testuliburuetan²¹⁵ eta ikasgelan (irakasle bakoitzaren autonomia aski handia da, halere, euskara-molde «ez hobetsi» horren onarpen kontuan²¹⁶. Azpiestandar horrek ez du leku aitortu eta onarturik, era berean, euskarazko alfabetatze-saioetan, gaitasun-azterketetan, komunikabideen esparru landuenetan eta, oro har, administrazioaren barne- eta kanpo-jardunean. Hiztun-elkartearen hitzezko eta idatzizko azalpen formalei dagokienez, azpiestandarrak ez du onarpen zabaleko lekurik.

Labur bilduz: ebaluazio-lan ongi oinarrituak besterik esan dezakeela ondo jakinik ere, diogun azpiestandar horrek ez duela gaurkoz, gure ustez, bateratze-lan horretarako balio. Azpiestandar horrek ez du, hasteko, egungo euskaldun gehienon artean aparteko prestigiorik. Inor gutxi identifikatzen da jendaurrean horrela mintzo denaren edo horrela idazten duenaren jardunarekin²¹⁷. Ez da gorabidean jardun nahi lukeen «euskaldun prestu»aren marka-seinale ere. Besterik hartzen da, oro har, «euskara on»tzat eta besterik izan ohi du euskaltzale sendoak, batez ere, amets: euskara garbi, landu eta garatuagoa, bere buruaren jabeagoa, albo-erdatatik argiago berezia eta noranahikoagoa.

Halako amets-kezkarik ez duenarentzat, hori bai, aski hizkera «normala» da azpiestandarra. Bere inguruko askok egiten duen hizkera-modu nagusia eta zenbait euskaldun sendok, are, egin dezakeen bakarra. Egon hor dago, kale-giroan bereziki, aldaera(-multzo) gisa, eta, itxura denez, zabalduz doa bere erabilera: aldaera «normala» da, baina ez «ona» eta ez «desiragarria». Ez da, labur bilduz, euskaldun(-euskaltzale)en garapen-seinale eta harrotasun-pizgarri. Estatistikoki badirudi giputz-euskaltzik hurbilago dabilela, zenbait ezaugarritan. Azentu-doinueraz eta hitz-ebakeraz gero eta gaztelaniaren eragin handiagoa du, kalko semantikoen alorrean «adar jotze»tik «ilea hartze»rako bidean doa, ezker-hedapenezko izen-sintagmak eta hedadura batetik gorako «X-en» mendeko esaldi-atalak gero eta bakanago (eta ximpleago) ageri ditu eta, ororen gainetik, prosa-molde iberiar ohikoenetik uste baino hurbilago dabil horrela mintzo den euskalduna. Bere iturburu soziologikoak gogoan izanik, gustatu ala ez, litekeena da azpiestandar hori bere bidea egiten ari izatea gure artean. Gaur ez da, inola ere, bihar-etziko euskara hobetsitarako hautagai: dagoen-dagoenean ez du hartarako balio, eta, oro har, euskaldun-euskaltzale gehienok ez dugu gogoko. Bihar edo etzi, ikusi egin behar.

III.3. Euskalki-oinarri biziko mintzamolde tradizionalarekin aski al dugu?

Egungo egunean (eta begien bistako etorkizunean) aski al dugu euskaldunok etxeko hizkerarekin, eskualdeko mintzoarekin edota, oro har, euskalki-oinarri biziko

²¹⁵ Arauzko eskakizun bazterrezina da hori, jakina denez, EAEko Hezkuntza Sailaren aginte-eta eragimen-esparruan. Arauzkoa eta, horren ondorioz, aspaldiko urteetan luze-zabal aplikatzen dena: ikus EIMArean onespren-azterketa programa.

²¹⁶ Mende-hereneko eskola-esparruko administrazio-ardurak erakutsitakoa inpresio hutsa baino zerbait gehiago baldin bada, zera esango genuke: orain dela berrogei urte baino atentzio txikiagoa jartzen duela irakasle askok, berariaz edo ezinbestean, batuaren arau-hausteen *pasa / ez pasa* arteko langa-jartze (eta, ondorioz, oker-zuzentze) kontuan.

²¹⁷ Ikustekoa litzateke, kontuok harreman-sare itxietan nola diren.

mintzamolde tradizionalarekin? Egokia al dugu *vernacular* hori aurrez aurreko solaski-deekin ohiko mintzagaiez jarduteko eta, horrezaz gainera, bertako zein urrunagoko euskaldunekin hitzez eta idatziz, honetaz eta hartaz, euskaraz jarduteko? Ondoko esaldi-kate hau genuke, oro har, aukera-bide horren aldekoen bozeramaile: «jarrai dezagun betiko moduan hitz egiten, mende luzez jardun dugun bidetik; segi dezagun euskaldun jatorrek etxean eta auzoan, lagunartean eta herri-giro zabalean umetatik entzunaz eta elkarrekin praktikatu ikasi eta barneratu izan duten hizkera-molde usadiozkoarekin. Utz ditzagun alde batera jakintsu-usaineko berrikuntza ortografi-koak, lexikalak eta gramatikalak, bai eta goranahiko prosa landuaren alferrikako asmakeria estilistiko eta terminologikoak. Euts diezaiozun, bere horretan, menderik mende bizirik irauten lagundu digun berbakera xumeari: betiko hizkera horrekin aski dugu».

Badu ikuspegi horrek oinarri ukaezinik. Ahuldutako hizkuntza belaunez belaun transmititzeko orduan, hizkuntza-eredu estandarrak baino bizirik irauteko indar-ahalmen handiagoa agertu izan ohi du eguneroko hainbat mintzamolde arruntek: dialekto-oinarri biziko mintzamoldeek, bereziki. Hizkuntzaren eta hiztun-elkarte osoaren iraupen-berme sendoagoa eskaini (eta, besterik agertzen ez den artean, eskaintzen) dute sarri mintzamolde horiek. Belaunez belauneko bizitasun etnolingüistikoaren abantaila konparatibo hori espresuki aitortu izan dio hizkuntza-soziologiaren alorreko hainbat adituk eguneroko mintzamolde dialektal arruntari. XX. mendearen bigarren erdialdetik honako adibide goiztiar baterako, ikus Heinz Kloss-en *Research Possibilities on Group Bilingualism: A Report* (Kloss 1969, 72): «Quite frequently it will be found that in the case of replacive bilingualism the local dialect of the defeated tongue will be much slower to yield ground than the standard tongue itself».²¹⁸ Ahal den heinean herri-hizkeri ere eutsi egin behar diegu, hortaz.

Horrela al dira kontuak, beti eta nonahi? Horrela al dira kontuak, bereziki, hemen eta orain? Gure ustez ez. Definiziozko ezeztapena dugu, jakina, lehenengo behaztopa-harri: alternatiba hori ez da «bat»en aldekoa, «asko»ren gain eraikia baizik:

²¹⁸ Honela darrai Kloss-ek, artikuluko horretan: «Eastern Pennsylvania is a classical case in point: the last traces of standard German disappeared around 1920 but the Pennsylvanish dialect while no longer vigorous is by no means dead. We find similar instances all over Europe. In East Prussia and Upper Silesia the local Polish dialects outlived standard Polish. In Carinthian, an Austrian province, we find villages where a Slovenian dialect is spoken while standard Slovenian, rejected by the local populations is virtually unknown. In a certain corner of Southwestern Hungary (Übermurgebiet in German), until World War I a Slovene dialect was spoken while standard Slovenian was a foreign language. In Corsica, standard Italian today is nothing but a foreign, even alien language, while the local vernacular, a subvariety of the Tuscan dialect, is still fully alive. In North America, the Acadian dialect has outlived standard French in Southwestern Louisiana. In parts of the prairie provinces the Low Saxon («Plautdietsch») dialect of the Mennonites probably is being retained longer than standard German. In some cases we may be dealing with areas where the standard language never gained a foothold at all, such is the case of the hinterland of Dunkerque (France) where the speakers of the local Flemish dialect never got a chance to learn standard Dutch (the so-called A. B. N.). In the so-called Carpatho-Ukraine, standard Ukrainian was unknown before 1918 and won out only after 1945». Gurera etorritz, eta Kloss-en aipu horren laburpen-itzulpenez, hizkuntza bati (demagun A-ri) beste bat (demagun B) nagusitzen ari zaionean gauza bat gertatzen da sarri: A-ren mintzamolde arruntek indartsuago egiten diote aurre B-ri, A-ren estandarrak baino. Hala dira kontuak, bereziki, A-ren hizkuntza-eredu bateratu propioa aski neurri mugatuan (eta aski berrikitan, sendotzeko astirik gabe kasik) eskuratu izan duten hiztun-elkarteetan.

etxeko hizkerak, eskualdeko mintzoak, euskalki-oinarriko mintzamolde tradizionalak ez dira bat, «batzuk» baizik²¹⁹. Demagun, halere, kontzeptualki multzo bakarrena bildu nahi ditugula fisikoki «batzuk» diren aldaera horiek. Etxeko hizkera, eskualdeko mintzo edo *vernacular* tradizional horrekin bakarrik aski al dugu? Ez. Izan ere,

- a) idatzizko zereginetarako ez dago, normalean, etxeko hizkera edo eskualdeko mintzoa prestatu: ez mintzoa bera dago hizkuntza-eredu gisa prestatu, ez eredu horretaz landutako prosa-masa aberatsik dago eskueran²²⁰ eta ez, bereziki, etxeko edo eskualdeko hizkera-molde horretan jarduteko gai den idazle-multzo zabalik. XVII., XVIII. eta XIX. mendeetako «dialekto literario»en kontua aski urrun zegoen, jadanik, orduko euskaldun gehienek idatz-ahalmen murrizketak. Kasu askotan (ez guztietan: aparteko lekua du orain ere bizkaierak), filologoek iker-esparruan izan ezik, idatze-eredu dialektal haiek baztertuz joan dira geroztik: batuak ordezkaturik batean, *navarro-labourdin* delakoak bestean, erdarek nonahi eta maiz aski. Euskalki-oinarriko *vernacular* tradizionalak diharduen idazlangintzarik ez dago aspaldian, oro har.
- b) ohiko lanbide eta jarduera xumeetatik harantzko jardungune, harreman-sare eta situazio berrietan jarduteko behar izaten den garapen-mailarik ez dute, oro har, dialekto-oinarri biziko hizkera-molde horiek. XXI. mendeko euskaldunon espazio soziofuntzionalaren gero eta zati handiago baterako ez daude etxeko edo eskualdeko mintzo huts-garbiak prestatu: ez hizkera-molde horiek eta ez, bereziki, (euskaraz dihardutelarik) erabat edo nagusi aldaera horietaz baliatzen diren euskaldunak.
- c) lekuan lekuko hizkera-moldeen konstelazio nabar horrek nekez balio du euskalki-esparruz haraindiko euskaldunok elkarrekin euskaraz jarduteko: Jaur-laritzaren Gasteizko egoitza nagusian, adibidez, Hegoaldeko hiru euskalkietako (batez ere bizkaierazko eta gipuzkerazko) langileak, agintariak, sindikatu-ordezkariak, kazetariak eta bisitari-herritarrak biltzen dira maiz²²¹. Beren artean euskaraz egingo badute, elkarrengandik hurbil(ago) dagoen hizkera- (zer esanik ez idazkera-) molde batez baliatu behar izaten dute. Berdintsu gertatzen da luze-zabaleko komunikabideetan, (irakasmila ertaineko) eskoletan, unibertsitate-esparruan, etab.
- d) belaunaldi batetik hurrengora urritzen ari da, gainera, euskalki-oinarri biziko mintzamolde horretaz baliatzen den (eta baliatzen dakien) euskaldun-jendea. Galduz doa ia euskalki hutsezko hizkera-moldeaz, euskara batuaren eta erdararen aski inpaktu ahulaz diharduten euskaldun jatorren multzoa. Erdarak (gurean gaztelaniak, Iparraldean frantsesak) eta euskara

²¹⁹ Mitxelena 1968an argi gogorarazi zigunez *diasistema* batez ari gintezke hor, hoberenean ere, ez *sistema bakar* batez.

²²⁰ Eskola-munduan (maila apalenetik jasoenera bitartean) erabiltzeko azken hamarkadotan prestatu diren testuliburuak eta nolana hiko ikasmaterialak 23.000tik gora dira, azken datuen argitan. Ez dugu uste kopuru horretatik 2.000ra iristen direnik, euskalki-oinarri idatziak. Hiruzpalau euskalki «literariotan» banatuko bagenitu horiek, atera kontuak. Salbuespen bakarra (ez halere erabatekoa: ikus Zalbide, 2011a) bizkaiera da. Iparraldeko kopuruak urrun dabilta hortik.

²²¹ Iparraldekoak nabarmen bakanago, baina halakorik ere izaten da, aldi berean.

batuak gutxi-asko (gero eta nabarmenago) inpaktatu gabeko hiztunik apenas gelditzen da adin batetik behera. «Euskalki-oinarri biziko euskaldun ia elebakar on»aren aroa joan zen oro har: indar apurra duen espazio fisiko eta soziofuntzional babestuenak, arnasmuneak, ez dira egunetik egunera sendoago; belaunez belauneko jarraipen-katearen perspektibatik gero eta osasuntsuago ere ez. Gerora begira ahula da, horregatik, «gaur leku askotan ez dagoenaren» eta, batez ere, «bihar oso nekez egongo denaren» gain eraikitako asmo-formulazioa. Euskalki-oinarri biziko mintzamolde tradizionalarekin ez dugu aski. Gutxietsi behar ez genituzkeen gaitasun-dohain bereziak dituzte lekuan lekuko hizkera jatorrez edo euskalki biziz, erdararen eta batuaren inpaktu masiboaren arrasto bortitzik gabe, egiten duten (edota egiteko gai diren) euskaldunek. Hitz-etorri erraza, aurrekoengandik jasotako hitz-altxorra malgutasun handiz eta xede-etekin biziz erabiltzeko grazia, esaldien, galde-erantzunen eta hitz-aspertu luzeen moldaera eroso-atsegina, hitzen ebakera garbia, hitz-kateen azentu-moldaera doia eta mintzabide osoaren doinuera jator eta berezia... Dohain-ezaugarri preziatuak dira horiek: benetako altxorra, alde askotatik. Hori guztia horrela izanik ere, bide horrek ez du bere hutsean balio: galduz doan mundu baten azken aztarrenak, inoiz izandako euskal euskalki-konstelazio beregain eta bizkor baten erakusle bakan-iheskorrak, ditugu euskalki hutsezko hiztunok; buelta eman eta «lehengo zati-beregaintasun» sendo (belaunez belaun transmitigarri) hartara itzultzerik ez dagoen mendez mendeko transformazio baten azken katebegi eta lekuko. Geure begien aurrean amaitzen ari den fenomeno soziohistoriko zaharrean oinarrituriko formulazio horrekin ez dugu, gerora begira, aski.

III.4. Batasun-asmu argirik gabeko mintzamolde erasanarekin aski al dugu?

Gero eta etxekotuago daukagu erdara, euskaraz bizi garen gehienok ere. Erdara horrek gogor erasaten du euskaldun zahar gehienon mintzamoldea. Batasun-asmu argirik gabeko mintzamolde erasan horrekin aski al dugu? Ez, ez dugu aski. *Erdibideko mintzamolde nabar*, «all-road» edo «todo-terreno» horrekin, batasun-asmu argirik gabeko mintzamolde erasan horrekin alegia, ez gaitezke urrutira iritsi.

Baietz pentsa liteke, lehen begi-kolpe batez: definizioz «all-road» edo «todo-terreno» baldin bada, eginkizun guztietarako balio izan behar luke eta, beraz, aski genuke berarekin. Hori bakarrik ez: asko ala gutxi gustatu, euskaldun (batez ere euskaldun zahar ele-erasan) asko dira horrela hitz egiteko gai eta asko dira, bereziki, euskaraz ari direnean beti edo gehienetan horrela mintzo direnak. Mintzamolde erasan horrek bere alde du, beraz, kopuru kontu hori: etxeko, eskualdeko edo euskalki-esparruko *vernacular* tradizionalaz egiten ahazten ari zaigun euskaldun gehienon artean, eta batez ere, «all-road» edo «todo-terreno»ko euskara horretaz hitz egiten ez dakien euskaldunik apenas dago. Gazte-gaztetxoan artean oro har, euskaldun berrien artean bereziki, hain erdal elebidun desorekatu izanik besterik egin ezin dutelako, edo ingurumen-baldintzek hartaraturik mintzabide erdarapeko horretara jarriak daudelarik, ez da maiz asko (erdaraz aparte) besterik egiten. Alternatiba honek alde ditu, beraz, demolinguistikazko «zenbaki handiak».

Kontrako elementurik ere badu ordea, eta ez txikirik, aukera-bide horrek. Batu-printzak eta (batez ere) erdal eragin-morrontza bizia berekin dituen «all-road» edo «todo-terreno»ko euskara horrekin ez dago (corpus-plangintzaren perspektiba formaletik) urrutira joaterik. Guztiontzako aski izango den hizkuntza-aldaera bakarraren bila bagabiltza, horrek ez du balio. Ez da hizkuntza-aldaera edo hizkuntza-eredu (zer esanik ez idatzere) bateratua: «all-road» edo «todo-terreno»ko euskara bi genituzke hasteko, ez bat, frantsesa ala gaztelania izan erasan-iturri. Batasun bila gabiltzalarik, bitasun zorrotza erdietsiko genuke. Ez da hori, gainera, eragozpen bakarra. «All-road» bateratua bagenu ere mugaren alde banatan, arras eredu ezegonkorra genuke esku artean, batzuek eta besteok. Gero eta euskal iturritik urrunago aldenduz leher-eztanda bizian ari den eta erdal jomuga argia duen konstelazioa. Erdarak gogor erasandako forma hori ez da batere aldaera bakar-egonkorra, interferentziaren non-zenbatekoaren arabera mila zatitan banaturiko aldaera-multzo ia-amaigabea baizik. Gero eta erdaratik hurbilago egongo dira horko azpialdaera gehienak, euskal erreferentzia normatibotik gero eta urrun-zatituago. Horrenbestez, frenorik jartzen ez bazaio bide horri, erdal itsasora eramango gaitu deblauki. Hori ere ez da, beraz, bila gabiltzan bidea. Euskaraz mintzo den eta irakur-idatzizkoetan euskaraz (ere) jardun nahi duen gaur-biharretako euskaldun-jende landuena, euskaltzaleena eta operatiboena nekez, oso nekez, sentituko da aukera horren aldeko. Azkenean hor bukatuko dugu, agian; ez, ordea, gure gustuz. Bide horrekin ere ez dugu, gaurkoz behintzat, aski.

III.5. Osagabeko euskaldun berrien²²² mintza-arte nahasia (Hegoaldean euskañola) aski al da?

Labur jardungo dugu honetaz: mintza-arte nahasi hori ez da egokia, hiztun-elkarte osoaren euskal eredu egoki izateko; are gutxiago eredu egoki bakar izateko. Milaka urtean belaunez belau transmitituz eta eguneratuz hainbat ezaugarri berezi dituen euskarak erromantze-hizkeren eraginpeko *pidgin* edo kreole hutsean amaitu dezan nahi ez duen euskaldun ororentzat, eta gehiengo zabala gara uste horretakoak, mintza-arte nahasia ezin izan liteke euskal hiztun-elkartearen ereduazko mintza- eta idazamolde egoki. Ez eredu egoki eta ez, are nabarmenago, eredu egoki bakar.

Labur bilduz: bai euskara batua eta bai eguneroko mintzamolde arruntak, biak behar ditugu euskaldunok, gainerako hiztun-elkarte garatuetako hiztunek ere biak behar izaten dituzten moduan. Uztartu egin behar dira horretarako, ordea, egoki.

IV. BIAK EGOKI UZTARTZEKO, ZEIN DIRA ERRONKA ETA KONPONBIDE NAGUSIAK?

Labur, oso labur, jardungo dugu laugarren atal honetan. Lan monografiko oso baterako (tesi baterako baino gehiagotarako) aukera pizgarria eskaintzen du gaiak.

²²² Koadroa erabat osatze aldera, posible genuke umetako euskal mintzagaitasuna arras galdu-higaturik duten euskaldun-ohien mintzamoldeaz ere jardutea. Halakorik ere bada gure artean. Estatistikoki beheranzko kopurua osatzen dutelakoan, ez ditugu gaurkoan kontuan izango. Mundu zabaleko perspektibari eutsi nahi bazaio ikus, dena den, Nancy Dorian-en *language obsolescence* alorreko ekarpen bikainak.

Guztia ezin da beraz xehe-xehe arakatu; are gutxiago ekimen pertsonal indibidualez, huts-hutsetik abiatuz eta kolpean. Argitara-bidean ditugun hurrengo txostenetan bada gainera gai honi buruzko gogoeta- eta formulazio osagarriak, horren bila dabilenarentzat. Gatozen beraz, labur zurrean, izenburuko azken galderari erantzuten saiatzera: euskara batua eta eguneroko mintzamolde arruntak nola uztartu? Nola uztartu biak —esan gabe doalarik ere argi azpimarratzea komeni da hau— euskarren mesedetan?

Atzekoz aurrera has gaitezen: zer behar du gure hizkuntza honek, batu zein mintzamolde arrunt, belaunez belaun biziko bada eta gaur-biharretako euskaldunon ezpain-lumetan loratuko?: ahalik eta euskaldun gehienok ahalik eta euskaldun gehienekin, ahalik eta sarrien eta ahalik eta mintzagai gehienez, euskaraz jarduteko behar-komenentziak, aukerak eta erosotasun-baldintzak izatea. Batez ere eguneroko bizimodu arruntean hain noraezeko diren situazio-kontestuetan euskarazko mintza- eta idatz-jarduna piztuko, indartuko eta segurtatuko dituzten esparru fisiko-territorialak (arnasguneak eta beren herriburuak, lehenik eta behin) eta soziofuntzionalak behar-beharrezkoak ditugu, euskaldun-jendeak euskaraz egingo badu²²³: hartarako babes- eta bultzta-neurriak behar dira. Neurri horiek ez dira goitik beherako lege- eta erabaki-arauak bakarrik, maizegi iradoki ohi denez; euskaltzale-taldeen behetik gora *language-loyalty* moduko ekimen hutsak ere ez, gure ahuldade-egoeran behar-beharrezkoak izanik ere. Beharrezkoak dira horiek guztiak, jakina, baina ez dira aski. Horiek bezainbat, eta horien gainetik, bestelako neurriak behar dira: gizarte-bizitzaren esparru kolektiboan bidebatezko euskal/erdalgintza sendoa eragiten duten neurriak: gizartean euskaraz bizitzera bultzatzen duten ordain-sari eta zigor-bideak: soziologiaren *social reward and sanction system* delakoaz mintza gara hemen, inork besterik uste ez dezan. Hirigintzan eta lurralde-antolamenduan, populazio-pizgarrietan eta lan-marckoaren formulazio operatiboetan, alderik aldeko eta lekuan lekuko neurriak komeni izaten dira horretarako. Lehentasunik handienekoetan, arnaseguneen babes-indartzea dago gure ustez²²⁴. Horren hurrena, edo horren pare, erdara nagusi den esparru geoterritorial eta soziofuntzionaletan euskal gotorguneak eratu, indartu eta zabaltzea da xede nagusi, bidebatezko euskalgintza beregaina eratuz (Zalbide, 2016).

Alferrikakoa da euskara batuaren eta eguneroko mintzamolde arrunten etorkizuneko uztardura on-egokiaz gogoeta sakonik egitea, gure mintzajardunak ageri dituen indarguneek eta ahulgarriek, belaunez belauneko jarraipen-aukeren eragingarri indar- eta ahulguneek, funtsaren funtsean oinarri sozial anizkoitza (ez, maizegi esan ohi denez, (batez ere) politikoa) dutela ulertu eta asumitu gabe. Konstelazio anizkoitz hori bere osoan aintzakotzat hartu gabe, nekez aurrerapauso handirik egin liteke hobekuntza adierazgarri eta bere buruari eutsiko dion baten bila. Perspektiba horretatik heldu behar zaio gure ustez, analisi intralinguistikotik eta psikolinguistikotik bezainbat edo gehiago, euskara batuaren eta eguneroko mintzamoldeen uztardura egokiaren gaiari. Euskaraz sarri egiten bada, batuaren eta mintzamolde arrunten arteko uztardurak eta bereizkundeak hobetu ahal izango dira. Egiten ez bada, aldiz, alferrik izango da euskararen barne-osaera hobetzen jardutea: latina hobetzen

²²³ Euskaraz, lehenik eta behin: euskara egoki eta zuzenean, ahal den guztian.

²²⁴ Ikus Zalbide 2019a eta 2019b, orobat ale horretako lau kritikagileen ekarpen argigarriak.

jardutea bezala da hori. Euskaldunok euskaldunokin euskaraz egitera bultzatzen duten neurrian, onak dira euskara batuaren eta eguneroko mintzamoldeen esparruan egin litezkeen hobekuntza-saioak. Euskarazko mintzajardunaren pizgarri ordez indargetzaile diren heinean, aitzitik, munduko borondate onenaz eta jakituria sako- nenaz horniturik ere hobekuntza-saio horiek ez dira on. Gogoeta-saio soziozentriko horretaz ahaztu gabe ekarpen ederrik egin da gure artean: gogoan ditugu Koldo Zuazo (1999, 2000), Juan Martin Elexpuru (1996, 2001) eta Kike Amonarriz (2004, 2002, 2003 eta 2015), beste zenbaiten artean. Horiek zehatz eta argi esanda- koak ez gara hemen errepikatzen hasiko. Batuaren eta eguneroko mintzamolde arrun- ten (zenbaiten terminologiaz, herri-hizkeren) uztardura egokiaren kezka duenari haietara jotzea gomendatzen diogu biziki.

Zazpi ohar modurekin eman nahi diogu gaurko lan honi amaiera. Labur eta zehatz, hona zazpi oharrok:

IV.1. Euskara batuaren eta eguneroko mintzamoldeen lekua argiago zehaztea komeni da agian

1968ko Batasun-biltzarra Arantzazun egin eta handik 30 urtera, honela zioen Lurdes Oñederrak: «Norbaitek esan beharko du, Batua euskararen estandarra izatea nahi badugu (hizkera jasoaren euskarri, euskalkien arteko zubi, e. a.), *zer den estandarra, nork eta zenbat erabili behar duen*» (letrakera etzana gurea). Argitze-lan bikoitz hori nori dagokionez, bestalde, honela zioen berak: «Euskaltzaindiari dagokio beste inori baino lehenago eta neurri handi batean, arauekin batera —oso batera edo lehenago, baina, batik bat, oso argi— Euskara Batuaren erabilera-esparruak finkatzea». (Oñe- derra, Miren Lourdes, 1998: 380-381). Urte asko pasa dira ordutik, jakina, eta tar- te-bitarte honetan bide luzea egin du gure arteko hainbat adituk, gogoeta- eta aplikazio-lanean. Hor daude Euskaltzaindiaren beraren aldiari behingo gogoe- ta-saioak ere. Hori guztia dela medio, lehen baino argiago daude kontuak, euskara batuaren izaeraz eta erabilera-esparruez. Gogoeta-saio horiek guztiak mesedegarri izanik ere, litekeena da gai hori (batua zertarako? eguneroko mintzamolde arruntak noiz-non?) uste baino egosi-arinago egotea. Merezi luke, alde horretatik, gaiari berriro heltzea.

IV.2. Euskarak «bere lekua» behar du erdararekiko moldaera konpartituan: nolakoa?

Erdara gabeko etorkizunik ez dugu: ez hurbil-berehalakorik eta ez urrunxa- goko begien bistakorik. Gaur-biharko situazioa eta begien bistako etorkizuna elebi- duna izanik seguru, zer leku dagokie batari eta besteari, egungo egunean eta begien bistako etorkizunean? Zer leku hiztun-elkartearen proiektzio territoriala den euskal mintza-esparruan, behinolako eta orain gutxira arteko Euskal Herri etnokultural ezagunean? zer leku dagokie hiztun-herri horretako barruti jakinetan, bertako hain- bat espazio soziofuntzionaletan? Ez da gogoeta hau, inondik ere, euskaltzaleon gus- tuko platoa. Deabruak ur bedeinkatuari baino izu-ikara handiagoa diogu euskara-erdarek bihar-etziko gure espazio soziofuntzionaletan izan dezaketean

konpartimentazio egonkor-antzeko batez pentsatze hutsari. Ez pentsatu arren hemen dirau ordea erdarak, eta hemen segituko du. Lekua irabazten ari da, are, espazio territorial eta soziofuntzional jakinetan. Erdara gure L funtzioetan sartzen eta etxekotzen ari den heinean, gure mintzoa lehen debeku zituen eta azken hamarkadotan partez geureganatu ditugun H funtzioetara «bartzertze» joera indartzen ari da, oker ez bagaude, Bizkai-Gipuzkoetako (agian mintza-esparru zabalagoko) euskaldun kaletar alfabetatu askotxoren artean: lanean askotan; hortik kanpora ere bai, hartarako aukerarik edota beharrik agertzen den heinean. Gero eta probableago da, gainera, erdara bi edo gehiago izatea²²⁵, are gure artean, azken mendeotako erdara bakarra(k) baino errazago: funtsezkoa izango da horretan, jakina, *language spread* eta *language shift* arteko bereizbidea euskararen mesedetan atontzea. Geu gara, konturatzan ez bagara ere, zezen horri adarretatik heltzen interesatuenak. Saiatuko al gara heltzen, ihesi ibili gabe?

IV.3. Ez dago «behin eta betiko» corpus-plangintzarik. Emandako pausoen ondorio-neurketa eta birmoldaketa arau da, ez salbuespen

Corpus-plangintza ez da «behin eta betiko» egiten den ekimena. Aitzitik, «behin eta berriro»ko lanketa da corpus-plangintza, zerbait adituren (tartean Fishman-en) esanean. Gaurko euskara batua egungo eta bihar-etziatako euskaldunen beharretara eta, batez, ere, euskaldun horien benetako ahalmen-baldintzetara egokitzea komeni da. Hitzunen aldirian aldiko neurritara egindako traje-berritzea corpus-plangintza modu bat da. Ez aurrekoaren kontrakoa, aurrekoa burutu eta ebaluatu ondoan formulatu beharreko plangintza-molde berritua baizik. Aurrekoak bezainbat, eta are gehiago, ebaluazioa izan behar du oinarri. Oraingoan ordea, aurrekoak ez bezala, enfoko berria izan dezake eta izan behar du ebaluazio-lanak: ehun urte luzez ibilitako batasun-bidearen argi-itzalak neurtu eta balioztatu litezke orain, eta hala egin behar da, norma-arau berriak ematen hasteari edo lehengoak aldatzeari ekin aurretik. Litekeena da, arau-berritze horretan ahozkotatasuna orain arte baino sendoago, zehatzago eta sakonago aztertu eta landu behar izatea.

IV.4. Ahozko euskara-eredu bat landu eta hobestea ere corpus-plangintza da

Jatorriz, eta helburu nagusiz, idatzizko planoan hezurmamitu ohi dira hizkuntza-eredu bateratuak. Ez dago dudarik, ordea, lehenago edo beranduago ahoskera- eta doinuera-esparrura iristen direla arau horiek (zuzenago, arau horien ebakera, ahoskera eta doinuera). Alemanaren kasurako ikus *Bühnen(aus)sprache* delakoa. Hemen, gainera, oso ezaugarri berezia dugu: erdararen interferentzia fonikoak, azentu aldekoak eta prosodikoak gero eta nabarmenagoak dira, are euskaldun jantzien artean. Lehentasunezko lana da, beraz, euskal ebakera, azentu-moldaera eta abar aurrez aurre landu eta, gomendio gisa bederen, jakitera ematea²²⁶. Bistan

²²⁵ Ez gara gaztelania-frantsesen geo-bikoiztasunaz ari (Bidasoaz alde batean gaztelania, bestean frantsesa), batean zein bestean bi erdara izateaz baizik.

²²⁶ Ez gara, jakina, hutsetik abiatzen. Orixe batek bere garaian, eta Koldo Mitxelena gero (FHVn bereziki) emandako argibideez gainera, hor daude 1980 ingurutik honako saioak. Ikus

da ahozkotasuna ere landu egin litekeela, idatzizko hizkuntza-eredua bezala, eta hark bezala onura argiak izan ditzakeela: a) ziurtasuna eman diezaioke hiztunari, lau abileziak garatzen lagunduz²²⁷; b) solaskideen artean ulergarritasuna garatzen lagundu dezake, eta c) gaztelaniaren eta frantsesaren ereduetatik babesteko bidea da. Ortoepiaren kontua aztergai zabala (eta, inoiz, auzigai bizia) izan ohi da, hemen eta hemendik kanpora. Aztergai zabal izateaz gainera, lehentasunezko eginkizun ere bada gure artean.

IV.5. Egokitasun- eta zuzentasun-arauak inplementatu egin behar dira

Orain arte egindakoari segida emanez. Norma-arauak ematea ez da aski hizkuntza estandarizatzeko. Euskara batuak etorkizunik izango badu, paperean zehaztutako norma argia izatetik euskaldun gehienen ezpain-lumetan *de facto* estandarizatu egotera pasa behar du. Azken mende-laurdenean areagotu egin dira, oro har, paper gaineko normatiba hutsetik luze-zabaleko estandarizazio sozialera pasatzeko inplementazio-neurriak: eskola bidez bereziki, baina ez eskola-giroan bakarrik, euskararen (euskara batuaren) ezagutza formala (are L2 gisako ikaskuntza) nabarmen hedatu da. Inplementazio-lanaren oinarri diren erabilera-aukeren eta erabilera-esparruen alorrean ez da, ordea, parez pareko gogoeta-lan zabalik egin. Hurrengo txosten batean²²⁸ heltzen diogu, zehatzago eta zabalago, funtsezko gai honi.

IV.6. Terminologia tekniko eta azalpen-prosa landu, erraz, argia: etorkizuneko eginkizun garrantzitsu

Lan handia egin da, orobat, hizkuntza gizarte modernoaren beharretara egokitzeko garapen-esparruan. Lortutako emaitzak baloratu eta irtenbide egokiagoak bilatzen saiatzeko ordua da orain. Modernizazio-behar horrek eragindako esparruan, bi arazo modu daude, inoiz esan izan dugunez (ik. Pikabea, 2006: I0): terminologia tekniko, batetik, eta azalpen-prosa landu, erraz, argi baten prestaera eta zabalkundea, bestetik. Bigarren hezkuntzan eta unibertsitate-esparruan, zenbat eta espezializazio-maila altuagoetara joan, orduan eta terminologia tekniko ugariagoa eta zehatzagoa behar izaten da maiz. Eskola-munduan euskarak izan duen zabalkundearen eskutik terminologia-lanketa eta finkapen-saio zabala egin da azken hamarkadotan, aurreko saio batzuei segida emanez. Lan zabala egin bada ere asko dago, orobat, egiteko. Azalpen-prosa landu, erraz eta argiari dagokionez, gauzak esateko modu egokia bilatzea da hizkuntza-arazo nagusia. Gaztelaniaz eta beste hizkuntza askotan

Txillardegiren 1978ko «Fonetika baturuntz (zenbait proposamendu)», 1980ko *Euskal Fonologia*, 1981eko «Euskalkien fonetika eta euskara batua» eta 1984ko *Euskal azentuaz*. Orain arteko arau-mugarri nagusirako ikus Euskaltzaindiaren 1998ko gomendio-arauak, euskara batuaren ahoskera zainduaz. Zenbait azalpen zehatz, argi eta osagarritarako ikus, beste zenbaiten artean, Miren Lourdes Oñederra 1986, 1994, 1998a, 1998b, Pilartxo Etxeberria 1998, eta Andres Alberdi 2014.

²²⁷ Egoki idazten eta airoso irakurtzen erakutsiz, besteak beste.

²²⁸ Ikus argitarabidean dagoen artikulua hau: «Ondo al goaz? Ehun urteko araugintza ebaluatu beharraz». 2019ko irailaren 13an, Euskaltzaindiaren mendeurreneko ekitaldien barnean, Donostiako Tabakalera emandako hitzaldiari dagokio.

mendeetako ohitura dago eskola-gaiak (eta, oro har, esparru jaso-formaletako azalpenak) aski maila landuan agertzeko. Usadio hori ez da hiztegiari edota sintaxiari lotutako arazo hutsa. Hiztun ikasien jardungune, eginbehar eta harreman-sare jakin batzuetako mintzajardunari edo idazmoldeari dagokion ezaugarri soziologikoa da, aitzitik, uste baino neurri zabalagoan.

IV.7. Euskara batua eguneroko mintzamoldeen gainetik al dago? Bai eta ez

«Etxearen teilatu»tzat hartu ohi da zenbaitetan, simul gisa, hizkuntza estandarra. Demagun Heinz Kloss-en esaera ezaguna, *Abstand* eta *Ausbau* hizkuntzez ari zelarrik: «Today, its dialects surviving in northern Germany have come under the roof of Standard German» (Kloss, 1967). Hizkuntza-eredu bateratuek *akrolekto* moduan ere joka dezaketela esan izan da, ahozko jarduera landu-txukunari dagokionez. Ez dago dudarik eguneroko mintzamolde arrunt asko baino aldaera bateratuagoa, egonkorragoa eta, terminologia teknikoaz zein azalpen-prosaz, hizkuntza-eredu landuagoa dela euskara batua. Besteen gainetik dago alde horietatik, eta sinbolikoki ere aparteko garrantzia du: hiztun-herri osoaren ikur eta batasun-indargarri da. Horrek guztiak, euskalkien eta eguneroko mintzamolde arrunten gainetik jartzen du euskara batua.

Guztia ez da, ordea, hor amaitzen. Eguneroko mintzajardunari ere begiratu behar zaio, dagokion atentzioz. Gizon-emakume arrunten aurrez aurreko jarduera xumean, eguneroko mintzajardun arruntean, oinarritzen da nagusiki hiztun-elkarte ororen bizia eta belaunez belauneko jarraipena; hein ohargarrian hor jokutzen da, beraz, hizkuntzaren etorkizuna. *Locus* horretan jasotzen da normalean ama-hizkuntza, gero (eskolan, lanean, atzerrian...) aldaera gehiagoz osatzen edo aberasten dena. Atentzio osoa zor diegu aurrez aurreko jarduera xume horiei, eta duten lehentasuna aitortu, eskolaren garrantzia ezertan apaldu gabe. Menderik mende hain konstelazio etnokultural beregain argia osatu dugun euskaldunok gure ama-hizkuntzaren belaunez belauneko jarraipenaren beharrean gaude orain ere: guztia ezin da eskolaren bizkar utzi. Eskola bidezko *language acquisition* formala ez da aski, ezinbesteko lagungarri izanik ere sarri. Jarraipen-behar hori ez da gure kapritxoa: «intergenerational cultural continuity (...) largely depends upon mother tongue continuity» (Fishman, 1989: 224). Euskaldunok ez gara salbuespen: ama-hizkuntzaren sorburu eta indargarri diren jardunguneak, harreman-sareak eta rol-harremanak eskolaz kanpokoak dira hein handi batean. Euskara batua ez dago, alde horietatik, eguneroko mintzamoldeen gainetik.

Idatzizko hizkuntza-aldiera jaso-formalari ezer kendu gabe zentrala da, hortaz, hiztun gehienon eguneroko interakzio-ordu gehienak osatzen eta zurkaizten dituen aurrez aurreko jarduera sotil-bizi-espontaneo, beti ez bada ere maiz asko gatz-piperrez oratua, guztion gogo-irrika eta beldur-izuen, amets-fereka eta haserre-gorrotoen, maitasun-bulkada eta barre-algaren sostengu eta oihartzun. Hori gabe ez dago hiztun-elkarte bizi-iraunkorrik. Txisteak erdaraz bakarrik egiten dituen euskal hiztun-elkartera gaitz larriak jota dago, eta gaitz hori ez da konponduko urtean hamar doktore-tesi aurkeztuz euskara dotorean. Eguneroko mintzajardun arrunta gabe ez dago belaunez belauneko jarraipen-itxaropenik. Gauza bakoitzari bere lekua dagokio: nori berea da gizalegea.

BIBLIOGRAFIA

- Abaitua, Joseba eta Mikel Unzueta, 2011: «Ponderación bibliográfica en historiografía lingüística. El caso de la “vasconización tardía”», *Oihenart* 26, 5-26.
- Abrahamsson, C., 2013: «On the genealogy of Lebensraum», *Geographica Helvetica*, 68, 37-44, 2013 www.geogr-helv.net/68/37/2013/ Department of Human Geography, Lund University, Lund, Sweden.
- Agirre, Elias, 1935: «El Euzkera, idioma de cultura», *Euzkerea* IX, 570-576.
- Alberdi, Andres, 2014: *Aboskera*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Alberti, I450 inguruan: *Regole della lingua Fiorentina*, in Percival, W. K. 1975: «The grammatical tradition and the rise of the vernaculars», in Sebeot, T. A. (ed.), *Current trends in linguistics*. [Gure iturria Padley, 1983: 71].
- Altube, Seber, 1930: *Erderismos*. Bermeo: Euskaltzaindia.
- 1956: «Literatur-euskera (Sobre sintaxis vasca)», *Euskera* 1956-I, 3-13. (1955-VII-I6).
- Alvarez Enparantza, Jose Luis («Txillardegia», «Larresoro»), 1956: «Karta Idigia», *Euskera I: Euskaltzaleen Biltzarra Euskaltzaindiaren itzalpean*, 245-250.
- 1959: «Batasunaren bidea», *Euskera*, 4: 150-170.
- 1974: *Euskara batua zertan den*. Jakin.
- 1978: «Fonetika baturuntz (zenbait proposamendu)», *Euskera*, 24, 683-690.
- 1980: *Euskal Fonologia*. Donostia: Ediciones Vascas.
- 1981: «Euskalkien fonetika eta euskara batua», in *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak*. Deustuko Unibertsitatea, 129-137.
- 1984: *Euskal azentuaz*. Donostia: Elkar.
- 1986: «Proposamen bat azentuari buruz», in *Euskera* 3I-2, 1986, 341-348.
- 1987: «Azentuari buruzko proposamen bat», *Ele* II: 5-21.
- 1992: «Ahoskera baturantz», *Ele* X, 47-73.
- Alvarez Enparantza («Txillardegia», «Larresoro») eta beste, 1964: *Baionako jakinarazpen-agiria*. Baiona: Euskal Idazkaritza.
- Ammon, Ulrich. (ed.), 1979: «Dialect and standard in highly industrialized societies», *IJSL* 21.
- 1983: «Soziale Bewertung des Dialektsprechers: Vor- und Nachteile in Schule, Beruf und Gesellschaft», in W. Besch et al (ed.) *Handbuch der Dialektologie* II, 1499-1508. Berlin: de Gruyter.
- 2001: «Dialect as an Educational and Social Challenge», in *Mendebalde Kultur Alkartearen 2001eko jardunaldiak: Euskalkia eta bezkuntza*, 201-225.
- Amonarriz, Kike, 2002: «Hizkuntzaren adierazkortasuna eta sormen ahalmena: gazteak eta euskara mendearen hasieran», in *Ikastolen Elkartea: IX: Jardunaldi Pedagogikoak*: 417-465.
- 2003: «Hizkuntza kalitatea, burujabetza linguistikoa da», in *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 49, 157-163.
- 2004: «Ahozkortasuna eremu ez-kurrikularrean. Hizkuntz proiektuaren markoan», *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 51, 137-156.
- 2015: «Ahozkortasuna soziolinguistikaren behatokitik», *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 96, 103-127.

Sartaldea deritzagun horretako hizkera naturalen artean aniztasun handia dago tradizioz. Hizkeren arteko diferentzien pertzepzioa aspaldikoa da, Bonaparte baino askoz lehenagokoa. Trentoko Kontzilioaren ondoren katiximak, dotrinak, herri-hizkuntzetara itzultzen hasi zirenetik ageri da hizkera aniztasun hori. Calahorrako Sinodaletan Pedro Manso gotzainak 1600. urtean agindutakoak hau dio:

Y porque es conveniente que cada Provincia tenga la Doctrina Christiana impresa en lengua paterna; y porque ay en la tierra Vazcongada deste nuestro Obispado diferencia en el Vazquence del Señorío de Vizcaya, Provincia de Guipuzcua, y Alaba: Estatuímos, y ordenamos, que los señores Obispos, nuestros successores, hagan imprimir cada año cartillas de la Doctrina Christiana en

Romance, y en Vazquence, segun el uso de las dichas Provincias, para que los Curas tengan cartillas en la lengua propia de cada Provincia: porque Nos assi lo avemos comenzado à hazer en nuestro tiempo; y las que se imprimieren en Vazquence, tengan tambien la Doctrina en Romance. (Ikusi Constitución X).

Aniztasun horrezaz ohartzeko, ikusi baino ez dago gaztelaniaren eremuan hain arrakastatsua izan zen Asteteren dotrinak hor-hemengo hizkeretan izan zituen bertsioak. Sartaldeko hizkeretan, hasi Antzuolatik eta Bergaratik, Markinatik igaro, Busturiko bikarriotzatik jarraitu eta Laudioraino jotzen badugu, aniztasun horren ispilu gardena ikusiko dugu, idatzizko erregistroan ere. Horiatariko batzuk inprimatu ziren, baina beste asko eskuz izkribaturiko koadernoen bidez irakasten ziren: abade jaunak irakurri eta neska-mutikoez belarriz entzun.

Sartaldeko hizkeren berbazko aniztasun hori, «bizkaiera literarioa» sortzen den momentutik, eredu bitasun bihurtzen da Mogelen eta Añibarroren belaunalditik aurrera. Hitezko aniztasuna gorabehera, eredu idatzia askoz bateratuagoa izan da aurreko mendeetatik.

Juan Perez de Betolaza apaizak, Arabako Betolatza herriko semeak berak, 1596ko urte goiztiarrean argitaratu zuen dotrina elebidunak sartaldeko euskararen eredu bateratu antzeko bat eskaini nahi izan zuen, Calahorrako Gotzaindegi barruko euskaldun jende ahalik gehienentzat balioko zuen eredu bat.

XVIII. mendearen bigarren erdian, Kardaberaz jesulagunak eta Olaetxeak 1762an eta 1763an atera zituzten Asteteren bertsioak ere hurbileko ereduan idatzia daude, Bizkaiko Jaurerriko euskaldunentzat aldi hartan zabalena zirudien ereduan, Bilbo aldekoan, nolabait esateko. Bartolome Olaetxea Munitibarko Gerrikaizko semea zen, eta bere euskarazko dotrinarako sartalderagoko eredu hautatu zuen, hasieran behintzat. Izan ere Mungia ondoan, Laukarizen zegoen *benefiziadu*, dotrina hori argitaratu orduan. Baina hizkera dibertsitatearen kezka bazuen, eta ohar honetan agertu zuen:

ABISUA. (...) Izan arren barriz euskera au geien Bizkaian usetan dana, eta bizkaitar guztiak erraz irakurri eta entendiduko dabena, alanbere erri guztietako modura eta guztien gustora onelango liburu txikar baten ezin eskribidu lei.

Mogel markinar-eibartarra dugu ordura arteko idatzizko eredu haustera datorena, 1783an Kardaberazen izenpean Asteteren dotrinaren bertsio berria argitaratzen duenean. Ordura arteko *Kristinau Dotrinea*, data hartatik aurrera *Kristinaubaren Jakinbidia* bihurtuko da. Hau da, gaztelaniazko mailegu-hitzak baztertu eta euskal erro garbiko ordainak idatzi, batetik, eta ahozko hizkeratik, ahoskeratik hurbilagoko hitz-ebakerak proposatu, bestetik: *EgunIAN egunLANGO*, *gurasUAK*, *ZeruBA*, *areriJUAK*. Markinaldeko eredu deritzan hori joan zen nagusitzen ordutik aurrera, baina betiere aurretik zetorren eredu guztiz estaltzera ailegatu gabe.

1802an bertan, Busturiko bikarriotzako abade jaunaren enkarguz eta kostuz argitaratu zen Asteteren bertsioak hizkera diferentziak argudiatzen zituen, Mogelenaz bestelako bertsio baten beharra arrazoitzeko, harena Artibai aldeko hizkeren arabera idatzia zela eta. Irakur ditzagun, beronen ustezko idazlearen hitzak:

Bizcaico eusqueran, ta Marquina ta bere inguruetan verba eguiten dan leguez, aguertu da birritan. Baya celan Munditibarti aurrera beste verbeeta bat

dagoan, ta alan mutilchoac escoletan, celan nequezaleac, gura daben eguin daquiuen berba eurac icasi daben moduan, ta Obispadu onetaco Sinodalac eracusten daben gogo atera ditezala cartillachuac eusquera bana edo desbardinecoac, celan errialdeetan verba egiten dan, agaitic ateraten da au Bizcay barrucuentzat, ta guzti guztian aditua izango da, ta au billatu bear da.

Gauza negargarria da Escola Maisu ascoc ez euquitea dotrinaco liburuchuric iracasteco mutillai, ta erri ez guichitan dauqueez escuz escribidurico dotrina erre bear lirateanac: Ceimbat obago da erriric gueienetan, ta eusquera, guichi gora bera, bardina dauqueenetan modu baten iracastea.

Ezaguturic daucat Busturico Bicariaco Abade Jaunen vorondate ona, ta baldin Bizcai guzticoac baleuque gogo ain beroa, alcar artuta, urten leique eusquerasco liburu ederrac, alan Abade Jaunac besteai iracasteco, celan nequezale iracurten daquiuenac, eurac icasteco. Jangoicoari gura daquiola guztietan erastea arimen gose andi bat.

Bizkai barrukuak, Moglek berak finkaturiko izendapena dirudi, berea ez duen edo beretzat aitortzen ez duen beste eskualdeetako hizkerak dituztenak aipatzeko.

Gatozen oraintsuagora.

Resurreccion M^a Azkue eta Domingo Agirre, bata Lekeitioko semea eta bestea Ondarroako semea izan arren, ekialdeko bizkaieraren eremukoak bete-betean, idazle bi horiexek izan ziren, gainerako euskalkietatik hurbilagoko ereduaren alde egin zutenak, eta nolabait Añibarroren ereduko bidea hobetsi zutenak, Mogelena bazter utziz.

3. LEKUAN LEKUKO EREDU IDATZI BERRIAK EZ BULTZATZEA

Lekuan lekuko hizkeren nortasunari harrotasun edo bitxitasun puntu bat ematearren, aspalditxorik modaratu den kontua da hizkera horretakoa den eta ahal dela beste hizkeretan ezaguna ez den hitz bat, ikur-hitz bat, erabiltzea, batik bat eslogan modura.

Adibide batzuk eman ditzagun. *Lekai xoka* bultzatu zuten oñatiarrek iragan urteko (2017) Korrikaren deiar dar modura. *Zapran* bultzatu dute aurten Lekeitiotik (2018), eskola publikoaren eguna iragartzeko. *Aikor* izenburua du Bizkaiko Txorie-rriko aldizkariak.

Ihazko Nafarroa Oinez Lesakan egin zelarik (2017), eslogan modura bertako herri hizkera laburdura bat hautatu zuten: *Bikin bat in*, nolabait, herrian euskara bizirik eta indarrean zela jende aurrean erakusteko.

Lema bezala horrelako hitz asko erabili izan dira aspaldion: *Erdu, Dagigun, Aldarrika...* Horiiek bezalako hitzek edo hitz kateek ez dut uste kalterik egiten diotenik euskara arautuari. Zailtasun puntu bat gehitu agian, gehienez ere.

Baina horretatik, lekuan lekuko berbazko erabilera kode idatzira eramatera alde handia dago. Dialektologiako lanetan edo leku jakin bateko hizkeraren ikerketa monografikoak egiten direnean ohikoa da hori, eta horretan ibili garenok sarritan egin ditugu era horretako transkripzioak. *Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren* etnotestu laburrak ere hala transkribatuak daude.

Literatura mailan, aldiz, bakanak dira guztiz horrelako esperimentuak. Robustiano Ortuzar apaizak bermeotarrez idatzi zuen *Oroigarriak* datorkit gogora (1925). Baina esperientziak erakutsita dakit, lekuan lekuko erregistroa idatziz, hitz egiten den

modu-moduan erabiltzeak ez dakarkiola lekuko hizkuntzari plus berezirik. Eta horrelako frogak egin izan diren kasurik gehienetan, eredu koherentzia bat zaintzea bera ere zail gertatzen da. Tradiziorik ez dagoen lekutik asmatzen ibiltzeak haztamuka ibiltzea dakar gehienetan, eta horrek ez dakar gauza onik.

4. LITERATURA BIDEZ JAR EGIN DAITEKE HERRI HIZKERAREN ALDE ON BAT

Nahi den lekuko herri-hizkerako berezitasunei balioa emateko baliabiderik osasungarriena literatura dela pentsatzen dut. Lexikografia bilketak zimendu egokia eskaintzen dute horretarako, baina literatura sorkuntzan txertatzen direnean hartzen dute balioa. Bertsolariaren esanetan: «Sutan jartzian probatutzen da nolakua den eltzia».

Azkueren hiztegia ezinbesteko oinarri gertatu zen bere aldiko eta ondoko hainbeste idazlerentzat. Domingo Agirrerren *Kresala* eta *Garoa* eleberrietako hizkera aberastasuna ezin berdindu daiteke Azkuek hiztegia atera aurretik publikatu zuen *Auñemendiko Lorea* eleberrian isuri zuenarekin. Azkue bera ere, hor-hemen biltzen joan zen altxor lexikografikoa *Euskalzale* aldizkariaren orrietan lehenik, eta *Ardi galdua* edo *Latsibi* bezalako elaberrietan geroago, txertatzen saiatu zen.

Gudu aurreko gure literaturako adibide batzuk ematearren, herri hizkera literaturara biltzen saiatu ziren idazleen artean aipa daitezke Orixe, Lizardi edo Kirikiño.

Justo Maria Mokoroa tolosarrak, gudua lehertzeko zegoela atera zuen *Genio y lengua* gogoeta-saioa praktikatuzeko ahalegina egin zuen ondoren *Repertorio de locuciones del habla popular vasca. Ortik eta emendik* bildumarekin. Tamalez, ez du behar adinako oihartzunik ezagutu gure literatura idatzi modernoan. Arturo Campiónen ipuin baten euskal bertsioa aipa daiteke herri-hizkeraren edergarriak literatura idatzian txertatzeko Mokoroaren ahaleginen artean: «Erraondoko azken danbolintero».

Gaur egungo idazle, kazetari eta itzultzaileek hartu beharreko konpromisotzat ikusten dut herri-hizkera baliabideen berreskuratzea. Gutxi batzuetan nabari da ahalegin hori, baina susmoa dut fededunak gehiago direla praktikanteak baino.

Eta literatura horren irakurleria dago bestetik. Gaur egungo egoerara etorrita, erronka bezala, eta batez ere irakaskuntza sisteman seriotan hartu beharrekotzat, geure literatura tradizioa hobeto ezagutzea ikusten dut. Eta tradizio horretan, klasiko modernoena batez ere: XIX. mende hondarretik honunzkoena. Gaztetxo ginelarik, idazleen testu hautatuen lorategiak erabiltzen genituen, mesede handia egin zigutenak orduko eztasun giro hartan. Agian kontrakarrean ari naiz, baina irakaskuntza planetan euskal literaturaren hutsune handia dagoelako susmoa daukat. Paperez edo sare bidez gure literatura ia osoa dugu eskura, baina «ezezagun» handia ote dugun nago, berriaz belaunaldi lerdenetan.

5. HERRI HIZKERAK LOKALISMO AL DIRA?

«Lokalismo» hitza mespretxuz epaitua izan da sarritan, beste *-ismo* asko bezala. Eta horren harira datorkit anekdota bat, Joxe Migel Barandiarani gertatua. Bere etnografia bilketak, inkesta gida bati jarraiki, egiten ziharduenean, lekuko bidez,

langintza, ohitura, sineste, ipuin-esaunda eta bestelako ahozko testu jasoetan, sarritan azaltzen zitzaizkion hitz «bitxiak», euskaraz ez ezik, gaztelaniaz ere. Errioxan, kasurako, biltzen bazituen, zerrenda bat egin eta *RAE*ra bidaltzen zituen. Eta halaxe egiten zuen euskarazkoekin ere, Euskal Akademiara bidali.

Bileraren batean norbaitek esan omen zuen: «Lokalismoak!». Eta Joxe Migelen bat-bateko erantzuna: «Euskara bera ere lokalismoa da azken batean».

Lekuan lekuko hitz, esamolde, ahozko kontaera eta gainerakoak bildu eta sailkatzea da lehenengo urratsa. Hori, ikerketa bidez, euskararen eremu anitzetan egin da. Hori da zimendua. Hurrengo urratsa da, horretatik zer eraman idatzira eta, batez ere, literaturan nola txertatu.

Ondo ohartzen bagara, Azkueren hiztegian jasorik eta sarrera bidez erregistraturik dauden hitz askok ez dute literatura idatzian itzalik izan. *OEH* dugu horren lekukorik ageriena. Beste hizkuntzetan ere gertatzen den fenomeno da, baina gurean deigarriago gertatzen dena.

6. AHOZKOA EUSKARAREN ARNASGUNE

Euskara idatzia, eta berdin mintzatu landua, sendoagoa izango da, tresna hori darabilen hiztunak hizkera sendoa badu. Eta hiztun horrek hizkera sendoa edukiko du, transmisio ona izan badu. Eta transmisio ona izan dadin, euskarak biotopo seguruak behar ditu.

Ez dakit non ditugun eta zein diren euskararen biotopo osasuntsuak gaur, euskararen sartaldean. Bilbo aldea? Nerbioi-Ibaizabalez eskuin aldera dauden eta tradizioz euskaldun izan diren Txorierri eta aldeak? Beldur naiz ezetz. Uribe-Butroi, Mungia erdigune duela? Ahul ikusten dut. Urdaibai aldea? Bermeo ez da lehengoa, eta Gernika ere ez. Durangaldea? Euskarak susperraldi handia ezagutu du iragandako hamarkadetan, baina ez da ahaztu behar bere muina, Durangoko hirigunea, aspaldi erdaldundua dela.

Horrela jarrai nezake, sartaldeko euskara biotopo erkinduen penak kontatzen, baina ondorioa bat eta bera da: hiztun sendoak ez diren lekutik zail dela hizkuntzaren erabiltzaile onak sortzea. Hiztun onak dira hizkuntzaren harrobia. Euskararen biotopoak zaintzeko eta indartzeko estrategia guztiak indarrean ipini behar dira, euskara landu kalitatezko bat bermatu nahi badugu.

Euskararen sartaldea, alde horretatik, ahalke samar ikusten dut.

7. D EREDUKO IRAKASKUNTZAREN EMAITZAK, KEZKAGARRIAK

Ikastetxe eta ikastola itzaltsuenetan erdiesten ari garen emaitza linguistikoek kezkarriak dirudite. Tabu baten antzera, agerian ipintzera ausartzen ez garen datuak. Hainbeste diru eralki, hainbeste urtetan, hamarkadetan..., eta edonor lur jota uzteko moduko emaitzak. Euskararen ezagutzzaile onak sortzen ari gara; zela-hala «normalizazio» irudi bat kanporantz erakusteko modukoak. Baina erabiltzaile eskasak. Egoera arruntetan euskaraz egiteko gaitasun gutxikoak. Eta ahal den guztian, egoera natural horietan erdarara joko dutenak. Zer gertatzen da? Goazen norabidea zuzena al da?

8. TELEBISTA-IRRATIEN ETA BESTE LANABES BATZUEN EGINKIZUNA EUSKARAREN BIZIBERRITZEAN

Ikus-entzunezko hedabideetan itxaropen handiagoa daukat, bestelakoetan baino. Euskal hiztunen berezko jarioa, senak agintzen dien hura errazago bideratzen dute bestelakoek baino. Gure irrati eta telebistetan -banan-banan aipatzen ez naiz hasiko, asko ere ez dira baina- asko aurreratu da, eta hoberanzko urrats seinaleak nabari dira.

Malgutasun gehiago erakusten dute euskararen transmisioan eta bizigarritasunean, hobeto egokitzen dira hiztunen egoeretara, eta moduren batean eredu egokia eskaintzen dute euskararen normalizazioari buruz.

EUSKARA ESTANDARRA ETA ERREGISTRO INFORMALAK

Joxerra Garzia
Komunikazioan aritua

Kontu zinez garrantzitsua begitantzen zait euskara estandar eta erregistro informalena, eta nago euskarak gaur egun bizi duen egoeran gako nagusietakoa ez ote den (arrisku zein aukera, nondik begiratzen eta nola heltzen zaion). Garrantzitsua ez ezik, zabala eta korapilatsua ere bada, ordea, eta ez zait burutik pasatu ere egiten kontu horretaz berealdiko ekarpenik egin dezakedanik. Aitzitik, ziurtasun baino zalantza eta kezka gehiago dakartzat, eta pozik nengoke ezinbesteko deritzodan eztabaida baterako hari-mutur eta arrasto baliagarri pare bat plazaratzen asmatuko banu.

I. EGINAK EGINKIZUNIK EZ

Une honetan, erregistro informaletan dugu, euskaraz, gabeziarik handiena. Gauzak arras bestelakoak ziren duela berrogei edo berrogeita hamar urte: bizimodu pribatuaren eguneroko zirti-zartarako aitzakiarik gabeko tresna genuen orduan euskara, eta goi mailako alorretarako gaitzea zuten garai hartako euskaldunek amets.

Egia esan, amets hori puxkaz lehenagokoa da, eta euskarazko lehen liburu inprimatuan dator haren lehen aldaera (Bernard Etxepare, 1545):

Euskara, jalgi hadi plazara.

XX. mendean, Xabier Lizardiren formulazioak (Xabier Lizardi, 1931) zaizkit asegarrienak:

Eder aunagu, mintzo yoria, / eder, benetan, **garoz yantzia**:/ larre-loretik eztia, basotik euskal-mamia...

Baña nik, izkuntza **larrekoa**:/ nai aunat ere **norannahikoa**:/ yakite-egoek goa;/ soina zaar, berri gogoa;/ azal orizta, muin betirakoa.

Batera zein bestera formulatu, horixe izan da oraintsu arte gure kezkarik larriena: **larre lore** zena **oro-mintzo** bihurtzea. Hots, larreko hizkuntza (erregistro informaletan baliagarri zena) norannahiko bihurtzea (goi mailako alorretarako, erabilerajatorako ere gaitzea).

Aspaldiko amets hori, edo ametsaren erdia behintzat, bete egin dela esan genezake (edo betetzeko bidean dela). Zehatzago (eta zuzenago) esanda: euskara, larre-rako bakarrik zen hizkuntza, kontu jasoetarako egokitu dugu. Horretan lan ikusgarri bezain txalogarria egin da. Bidean, ordea, Lizardiren «ere» horrena ahaztu bide zaigu. Lizardik noranahikoa nahi zuen euskara: kontu jasoetarako bai, baina baita larrerako ere. Orain, berriz, hortxe gabilta euskaraz airos antzean hegan egiten dugula patafisikaren paraje goitarretan (batzuetan behintzat), baina euskaraz oinez ibiltzeko komediak ditugula (eta zer esanik ez, euskaraz dantza egiteko).

Koldo Izagirrek (1981ean!!!) primeran laburbildu zuen ordu arte egina:

Mintza eta idazketa korrekto bat ahalegindu gara egiten, estilorik gabeko bat, jardun neutro bat, mintza eta idazketa inuzentaren bila.

Eta beharrezkoa zen.

Bizitasuna sakrifikatu behar zen korrektotasunaren truke, euskara biziko bazen¹.

Koldo Izagirrek ezinago argiago eta garbiago zioena bestela (baldarrago) esanda: hizkuntz politikan kantitatea izan da orain arte helburu, euskararentzat hiztun eta alor berriak irabaztea. Lan eskerga egin da, eta emaitzak agerian daude:

Hezkuntzan, hedabideetan, administrazioan... euskarak beti arrotz izan dituen alorretan bere tokia hartu du, hartzen ari da.

Itxura, joera eta pentsamonde guztietako euskal hiztunak daude gaur egun. Lehen ez bezala, orain ez dago itxuraren arabera asmatzerik pertsona bat euskal hiztuna den edo ez. Zorionez.

Aurrera baino lehen, eta gaizki ulerturik egon ez dadin, esan dezadan argi eta garbi: larretik aretoetarako jauzi hori ezinbestean egin beharrezkoa zen, hiztun masa kritikorik gabe alfer-alferrik baita gainerako guztia.

Egina txalotu eta gero, ordea, zabaldu dugun (zabaltzen ari garen) euskara horren kalitateari erreparatzen hasi behar genuke lehenbailehen. Berriro Koldo Izagirreri emango diogu hitza:

Lizardik baino prosa «hobeagoa» idazten du gaur edozein gaztek, baina inork ez du haren grazia.../...².

2. KALITATEAN DAGO KOXKA

Inor ez dago, noski, euskararen kalitatea ez zaintzearen alde. Gertatzen da, ordea, gurean beste hainbat kontuekin bezala, «kalitate» hitza ulertzeko modu bat baino gehiago dagoela, eta hortixe sortzen da nahaspila³.

Nire ustez, kalitatea hiztunaren ikuspegitik ulertu behar da, ez hizkuntzarenetik. Kalitatezko euskara zer den erabakitzeko garaian, beraz:

¹ IZAGIRRE, Koldo (1981), *Euskal Lokuzioak*, Donostia, Hordago (Hitzaurrea).

² *Ibidem*.

³ Horretan interesatuak sarean doan eskuragarri dagoen txosten honetara jo dezake: EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA (2004), *Euskararen kalitatea. Zertaz ari garen, zergatik eta zertarako*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritz, www.euskara.euskadi.eus/.../7041/.../euskararen_kalitatea_eu.pdf

- Hiztunak du lehenasuna, hari begiratu behar zaio, haren komunikazio premiei.
- Zuzentasunaren (bikaintasun gramatikala, arauak zintzo-zintzo betetzea...) eta jatoriasunaren (senaren edo tradizioaren arabera izatea) gainetik, egokitasuna jarri behar da beti.
- Hiztunari baliagarri zaiona, horixe da kalitatezko hizkuntza (bego hori oraingoz horrela).

Horretan, hizkuntzaren kalitatea eta aizkora batena irizpide berberarekin neurtu behar dira. Ez da nik esana: Koldo Mitxelena bermea du kalitatearen ikuspegi horrek:

Hizkuntza bat, gurea nahiz inorena, ez da gizarteko mintzabide eta adierazpidea besterik. Ona da, beraz, elkarrekin mintzatzeko eta elkarri gogoetak adierazteko delarik, mintzatzeko eta adierazteko balio duelako; horrexegatik beragatik da ona haizkora zorrotza, ebakitzeko sortua delarik, eta haizkora amutsa, berriz, txarra⁴.

Ebakitzen badu, ona da aizkora; ebakitzen ez badu, aldiz, txarra, nahiz kirten landu ezinago polita izan. Hizkuntzarekin berdin. Dotore izan zein ez, ebaki dezala, hori da printzipala.

Hiztunari axola zaizkion kontuetan lagungarri izatea. Horixe da euskarari (eta edozein hizkuntzari) eskatu behar zaion ebakitze-modua.

Zertan behar luke izan hiztunarentzat lagungarri?

- Inor txunditu, lasaitu, poztu, kontsolatu, zirikatu, limurtu, gogaitu, gogatu, bairatu, liluratu, nazkatu, haserrearazi, animatu, maitemindu, erakarri, uxatu, mindu, iraindu, penatu, damuarazi, tristatu, barre eginarazi, gozatzeko...
- Norbera **nor** eta **bera** izateko, barrua lasaitzeko, haserrealdietan barne sua apaltzeko, pozaldietan poza kanporatzeko...
- Solaskidearekiko (eta gizatalde jakin batekiko) harremana islatu/eraikitzeko.

Kontu horietarako balio duen euskara da euskara egokia, kalitatezkoa. Eta: kontu horietarako balio ez duen euskara ez da kalitatezkoa, txundigarri edo gurgarri balitz ere.

Arretaz erreparatu gero, berehala ohartuko gara hiztunari benetan axola dioten kontu horiek gehien-gehienak (den-denak ez esatearren) informaltasunaren muturrean daudela. Hots, hizkera informala eskatzen dute, nekez lor litezke hizkera estandar formal zurruna erabiliz. Gainera, kontu horietan ondo moldatzeko, hiztunak erregistro bat baino gehiagoren jabe izan behar du, egoeraren arabera erregistroz aldatu eta erregistroa egoerara egokitu ahal izango badu.

Bestela esanda:

- (Oraingo) estandar formal-jasoa ez zaio hiztunari aski oinarrizko premia horiek asetzeko.
- Euskal hiztun askorentzat, horixe da erregistro bakarra.

⁴ Mitxelena, Koldo (1972), *Idazlan bautatuak*, (Patxi Altunak apailaturiko argitalpena), Bilbo, Mensajero, 213. or. (azpimarra nirea da).

— Gaitz larria da, ez katarro txoro bat: ezagutzaren eta erabileraren arteko koxkan eragin zuzena du.

- Beste arrazoiak gorabehera, hiztuna (Xabier Leteren «izadiaren igeltserua» bezala) ez baita batere «tontua»: maite-maitea badu ere, ez du ebakitzen ez duen aizkora erabiliko.
- Euskaraz ikasi (eta lan egin), erdaraz bizi. Horra zertara iritsi gaitzekoen, dagoeneko iritsi ez bagara behintzat.

— *Primum vivere*: Lehen da bizi. Hori gogoan izan behar genuke beti.

Euskara informalean ditugun gabeziak nola edo hala konpondu ezean, berdin jarraituko dugu: bizitzeko (gozatzeko) garaian sistematikoki erdarara joko duten euskal hiztun berriak sortzen (euskal hiztun elebakarrik ez baitago gaur egun).

Euskal hiztun elebakarrik ez dagoenez, bere premiak asetzeko garaian eginkizun horretarako balio dion hizkuntza erabiliko du hiztunak, hain bere eta hain maite duena bazter utzita.

3. BATU-ESTANDAR-IDATZIZKO VS TOKIAN TOKIKO-INFORMAL-AHOZKO?

Oker ez banago, arestiko epigrafean agertzen diren sei kontzeptuok hiru biko kontrajarri balira bezala hartu ohi dira sarri (jardunaldi hauetan bertan, esaterako):

- Batu vs tokian tokiko.
- Estandar vs informal.
- Idatzizko vs ahozko.

Nago zutabe bakoitzeko hiru osagaiak sinonimotzat hartzeko joera ez ote daukagun, epigrafeko bi bloke kontrajarriak osatuz:

- Batu-estandar-idatzizko.
- Tokian tokiko-informal-ahozko.

Ez dut uste estrategia egokia denik. Batetik, batuan bi-biak behar ditugulako (besteak beste: **batu idatzi informala** (komeria vs informatiboa), eta **batu ahozko formal** (gure hau bezalakoetan). Tokian tokikoan ere, erregistro bat baino gehiago behar izaten ditu hiztunak. Alde horretatik, ez da estrategia egokia tokian tokikoa (ahozkoa zein idatzia) erregistro informal(en)etara «kondenatzea». Tokiko jaso bat ere behar genukeela, alegia.

Gakoa, berez, egoki / ez egoki bikoa da. Eta, jakina, biko horretan euskara egokiaren alde egin behar genuke beti ere beti: hiztunaren aldiaren aldiko xedeak lortzeko moduan jardun, ahoz zein idatziz. Egon lasai: baliagarri bazaio, erabiliko du hiztunak hizkuntza.

Oro har, ordea, erregistro falta nabarmena dago:

- Euskara batu akademiko zurruna da nagusi. Hiztun askok ez du hori beste erregistrorik.
- Erabilera formaletan ere bada ikuspegi kontrajarririk. Zorionez, badirudi ikuspegi komunikatiboa gailentzen ari dela aspaldion.

- Batu estandarrek ez du mordoilo neutro aspergarria zertan izan. Pello Salaburuk aipatu ohi duen «batu soziologiko» hori murriztailea da, baina batua, berez, proposamen ireki eta moldagarria da (edo behar luke izan).
- Dabilen euskara, akademian, erakundetan eta hedabideetan, **batu soziologiko** triste aspergarri horren ezpalekoa da. Batu soziologiko estu eta aldrebestua.

Arazoa, une honetan, erregistro informaletan dago. Xabi Payaren bidez ezagutu nuen formaltasun eskala bat erabili ohi dut ikastaroetan. Gaztelaniazko zortzi esapidek osatzen dute eskala, formalenetik informalenerako hurrenkeran:

1. Está terminantemente prohibido en este establecimiento el consumo de todo tipo de alimento sólido
2. Se ruega no consumir comida en este establecimiento
3. Está prohibido el consumo de alimentos
4. No está permitido comer aquí
5. Por favor, no coman aquí
6. Aquí no se puede papear
7. Deja de papear
8. ¡Que dejes ya de papear, coño!

Unibertsitatean nenbilela, zortzi esapide horiek euskaratzeko eskatzen nien ikasleei. Lehen bost esapideak itzultzeko arazorik ez, gustura eta aise aritzen ziren ikasleak. Seigarreneko «papear» horretara iritsita, ordea, akabo haien pozak.

Nabarmena da euskarazko diskurtsoetan (idatzizko zein ahozkoetan) erregistroari dagozkion hanka-sartze asko (eta latzak) egiten direla. Gehien-gehienetan, erregistro informala behar lukeen kasuan erregistro formal (ustez) jasoa erabiltzetik datoz okerrak. Hona hemen, adibide bat baino ez aipatzearren, Bizkaiko emakume baserritarren egoeraz ohartarazteko Bizkaiko Foru Aldundiak egindako kanpaina batean erabilitako testu bat:

Gizon eta emakumeen arteko aukera-desberdintasuna bermatzea oinarritzko beharrezkoa da, landa-inguruko garapenaren bideragarritasuna eta iraupena zaintzeko.

Ekintza positiboak martxan ipintzea, emakumeak tradizionalki gizonezkoenak izan diren arloak ezagutzera bultzatzeko, normalean esleitu zaizkien esparruetan geratu beharrean.

Horrelakoxeak (eta are okerragoak) ohikoak dira euskarazko testuetan. Anjel Lertxundirena daukat formulaziorik egokientzat:

Administrazioan, testugintzan, kazetaritzan, iragarpen publikoen munduan eredu pisu beti berdina —gazi-gozo handirik gabea— nagusitu da. Eredu hori klase baten jerga bihurtu da. Kode ia sekretua da, kaleko jendeari batera familiarra egiten ez zaiona. Euskara natural egiten duen herritarren multzo handi bati hori iruditzen zaio, eta hori bakarrik, euskara ereduzkoa⁵.

⁵ Euskararen Aholku Batzordeak abian jarritako Euskara 2I ekimenaren «Oinarritzko Txosten»ari Anjel Lertxundik egindako ekarpena, 2008. urtean. Sarean azkenekoz 2018-09-13an: http://www.erabili.eus/zer_berri/muinetik/I224667449/inprimatzeko

Bizkaiko emakume baserritarrenaren kasuan, garbi dago hizkera horrek ez duela balio baserritar jendea arazoaz ohartarazteko. Zuzena eta jatorra balitz ere, euskara hori ez da egokia, ez baitu kanpainaren xedea lortzeko balio. Hizkera zurrun hanpatu horrek lor dezakeen xede bakarra jendea epatatzea da, baina ez zen hori kanpaina hari ezarri zitzaion helburua. Eta zenbat horrelako gurean!

4. ESKUZ HITZ EGIN, AHOZ IDATZI

Ahozko/idatzizko kontu hori gero eta nahasiago dago. Batzuek uste bide dutena gorabehera, beti izan da *continuum* bat, ez bi esparru zorrozki bereziak.

Lehendik ere hori horrela izanik, ahozkoaren eta idatzizkoaren arteko nahaste eta elkarreragina inoizko handiena da gaur egun, eta horretan bat datoz aditu guztiak, diren alorrekoak direla ere.

Bibliografia ugaria dago horretaz, baina hemen aipu bakarrarekin etsiko dugu. Ez da zientzia kontuetan autoritate handia duen iturria, baina primeran azaltzen du garaiotan gertatzen dena. *The Simpsons* marrazki bizidunezko telesailean ikus-entzundako elkarrizketatxo bat da. Homer Simpsonnek botatzen du galdera, eta gero haren bi lagunek erantzun:

- H. S. : Zer da e-mail bat?
- 1. lag. : Ba, konputagailu kontu bat, zera, **gutun elektriko** halako bat.
- 2. lag. : Edo telefono **dei isil** bat...

Elkarren osagarri dira bi erantzunak. Izan ere, nondik begiratzen zaion, e-maila gutun elektrikotzat jo liteke, baina baita telefono dei isiltzat ere...

Garbi dago e-maila idatzi egiten dugula, baina, Steve Morrisek erakutsi duen bezala, e-maila eraginkorra (egokia) izan dadin, idazten dugun testuari ahozko testuaren moldea eman behar zaio nahitaez⁶. Morrisen liburua 2000koa da, baina geroztik areagotu baino ez da egin idatziz ahozkoa antzeratzeko joera. Aski da whatsapp bidez edo sare sozial direlakoetan barrena hedatzen diren testuei erreparatzea.

Ondo kontu bitxia da, eta merezi luke ematen diogun baino arreta gehiago ematea. Labur esanda, esan liteke komunikazio teknologia berrienetan «eskuz hitz egin» egiten dugula. Bestalde, inoiz esan izan dut goi mailako bertsolarien kasuan ez ote daitekeen esan «ahoz idatzen» aritzen direla, hain baitira bikainak bat-batean sortzen dituzten testuak.

Hori, ordea, beste upel bateko ardoa da, eta bego beraz horrenbestean. Hemen harira datorrena beste kontu bat da, Ahozko Testu Idatzia (ATI), baina hori ere beste toki batean jorratua dut hemen dezakedan baino zabalago eta sakonago⁷. Esan gabe esaten hasita, hizkera xaloa (*plan language*) ere hemen aipatu beharrekoa litzateke, bestela ere kabitu ezinda ari ez bagina.

Ahozko batu estandarra behar ote dugun galdetzen dute antolatzaileek. Erantzuna garbi daukat nik: bai, noski. Aldi berean, batu idatzia «askatu» beharra

⁶ MORRIS, Steve (2000), *Perfect E-mail*, London, Random Hous Business Books. Liburu guztiz interesgarria. Simpsondarren elkarrizketatxo ere hortik hartua da.

⁷ GARZIA, Joxerra, 2008, *Jendaurrean Hizlari. (Ahozko) komunikazio gaitasuna lantzeko eskuliburua*, Irun, Alberdania. (ATI konturako, bereziki 315-341 orrialdeak).

daukagu, eta horretan ahozkoa lagungarri izan liteke. Jardunaldi oso baterako gaia, beste baterako beharko duena.

5. BATU FORMALA ETA BATU INFORMALAK

Batuaren baitan erregistro informalak lantzea nahitaezkoa da, batez ere erregistro bakarreko hiztunak gogoan. Bakarren batek esango dit ez dela hori berez estandarraren egitekoa, eta egia da hizkuntza guztiz normalduen kasuan horrela dela hori. Gurea, ordea, urruti dago oraindik guztiz normaldua egotetik, eta ikasi behar genuke konplexurik gabe gure egoeran komeni zaiguna egiten, beti alboko (eta, batez ere, Hegoaldeko) hizkuntza handi-mandiek egiten dutena egiten tematu partez, etxekalte.

Batuaren barruan erregistro informalak lantzea, bestalde, egin litekeen lana da. Are gehiago: egin egin izan da lan hori, primeran egin ere. Adibide gisa, hor daude hasierako *Goenkale*, *Dragoi Bola* eta beste gutxi batzuk, argi eta garbi erakusten dutenak irizpide argiz eta modu sistematikoan lana egiten denean emaitzak begien bistakoak izaten direla. Tamalez, horrelakoak eskas ditugu gaur hedabideetan (gure esku edo ditugunetan, alegia, besteek, ezinago demokratiko izanik ere, ez bide baitute erantzukizunik batere euskararen normalizazio prozesuan).

Batua informaldu beharra daukagu beraz. Hori egiteko bide egokiak badira, esan dugunez. Baina desegokiak ere bai, eta horietatik hasiko naiz, gero lehenbait lehen bide egokietan zentratzeko. Hiztun guztiek sentitzen dute egoera batzuetan besteetan baino informalago aritzeko premia. Kontua da informalago aritzeko baliabiderik ez zaiola jendeari eskaintzen horrelakorik eskain litekeen lekuetan (eskolan eta hedabideetan, nagusiki). Baliabiderik ezean ere, ordea, premiak berean dirau, eta hiztunak ahal duena egiten du. Tamalez, ahal duen hori guztia euskaraz gain dakien hizkuntzara pasatzea izaten da sarri, baina euskara informaltzeko ahalgina egiten duenik ere bada (eta, aukeratzen dituen bideak niri okerrak iruditu arren, ez naiz ni hautu hori egiten duena kritikatzeko hasiko; aitzitik, txalogarria iruditzen zait horrelakoan seta).

6. BATUA INFORMALTZEKO BIDE OKERRAK

Honako hauek dira, nire ustez, batua informaltzeko erabiltzen diren bide desegokiak:

— Tokian tokikora jotzea beti. Antzu bidea da hori, eta bien kalterako izan liteke, bai batuarendako eta bai tokian tokikoarendako. Whatsappean eta barra-barra ikus daitezke horrelakoan:

- *Zemuz? Oaintxe ailegatzen ai gea*
- *Joxerra, oaintxe amaituet. Seitun noa*
- *Ikusten ai zeate?*
- *Hoi eiten ai nintzela deitu diate*
- *Hor cotea lortuet*

Saiatu arren, ez dut ulertzen zer dela eta (eta norentzat) den «det» «dut» baino informalago. Tira, ulertu ulertzen dut, baina ez dit balio.

— Denetan desegokiena (eta, tamalez, erabiliena): erdarara jotzea (denok dugu albo-erdara bat, gurea bezain gure). Kike Amonarriz eta biok pare bat urtez aritu ginen lanean, alfer-alferrik aritu ere, orain Gaztea eta garai hartan Euskadi Gaztea zeritzon irratian, bertan erabiltzen zen euskara hobetu asmoz. Besteak beste, entzuleek bidalitako SMS mordoaz aztertu genuen, bostehun baino gehiago. Honako lagintxo hau nahikoa da, ordea, konturatzeko euskaraz maila onekoak diren hiztunek ere nola gaztelaniara jotzen duten jakinarazpen hutsetik goragoko xedeak lortzeko:

- *Arratsaldeon par d atrakanalgas.zumaiko hiru personajilo gea.jarri palante elgoibarko neska politei.ke son unas txipironas!Aupa el jintoni kon l*
- *Atsaldeon pitolisto ta pitxabrava atzo eldu zitzaidan Perezan kamista ta babero l bezala gertazen zat baña neskai le qeda d lujo boiek die kurbak! agur*
- *Atxaldeon jainko ta amaberjiñak! Jarri enamorada de ti abestia azpeitiko tifanis dendako morenari ke esta mas buena ke... jarri, eh!*
- *Hi, atzo Riojan putamadre euskal pilotuak! Putos amos! Txikito, Antxustegi, Akulu, Geretaturbos, Otxaurteko alkatea... Trabeska kotxiak! Eurra!!!*
- *No seais malos maixa naiz jarri ken zazpi mese asi me animo muxu muxu ta muxu se esta esta de piiii tomando el sol jajaja jarri mesedez*
- *Apa par d dos onenak zarie gustatuko litzakit ironen zoeze ipintie.domekan ibilaldire.a ver si se pilla cacho ze ultimamente.*

Umore saioak euskaraz egitean, telebistan eta bestetan, nabarmena da tokian tokikora eta ahozkorako joera hori. Ez da kontu erraza, eta horretan ni baino zorrotzago direnak dezente ezagutzen ditut. Nire iritziz, horrelakoak onargarriak dira gauden egoeran, baina aldi berean estrategia jakin eta zehatz bat antolatu behar lukete umoregileek (eta haiek kontratatzen dituztenek), urte batzuk barru orain baino errazago izan dadin euskara batuan umorea zertzea.

7. BATUA INFORMALTZEKO HAINBAT BIDE EGOKI

Beste asko ere egongo dira euskara batua informaltzeko (euskara batuaren baitan erregistro informalak sortzeko, alegia), baina hona niri aipagarrienak iruditzen zaizkidanak:

1. Makro-baliabidea: HITANOA
2. Tradizioa: gurtu ez, e-gurtu
 - a) Atsotitzak / Lokuzioak
 - b) Hitz elkarteak
3. Komunikazio estrategiak erabili
 - a) Erregistroak, erregistro imitazioak
 - b) Distantzia komunikatiboak eraiki
4. Beste euskalkiak baliatu?
5. Gune euskaldunetako aurkikundeak nazioratu. Nola?
 - a) Hedabideen erantzukizuna
 - b) Hezkuntza sistema

Denak ezin behar bezala jorratu, eta gehien-gehienak aipamen hutsean utziko ditugu, tamalez.

7.I. Makro-baliabide bat: hitanoa

Erregistro gabezia orokorraren baitan, gure kidekoekin edo hierarkian gure pareko edo beheragokoekin hitz egiteko erregistroarena dugu gabeziarik nabarmenena.

Hiztun guztiek (edozein dela ere haien hizkuntza) nahi izaten dute solaskidea-rekiko (edo hartzailearekiko) duten harremana hizketa bidez markatu. Guraso-irakasle-ugazabekin erabiltzen dugun hizkera ez zaigu egokia gure kideekin hitz egiteko (eta alderantziz).

Euskal hiztun guztiok gutxien jota beste hizkuntza bat ere badakigu. Solaskidearekiko harremana markatzen hasita, hiztun askok ez dute asmatzen hori euskaraz egiten, eta, sarri, erdarara jotzen dute. Gorago aipatu ditugun Gazteako SMSak berriro irakurri besterik ez dago hori horrela dela egiaztatzeko.

Bitxia bezain mingarria da kontua. Batetik, premia unibertsal bat daukagu, eta premia hori asetzeko ezintasun nabarmena. Bestetik, berriz, euskarak badu bere baitan arazo hori konpontzeko baliabide handi bat: hitanoa.

Arazoa eta konponbidea, biak ditugu kasu honetan parez pare eta esku-eskura. Makro-baliabide hori aktibatzeko egokiak diren lekuetan, ordea, eskolan eta hedabideetan, ez gara gauza (edo ez gara ausartzen) konponbidea eta arazoa elkartzeko. Izan ere, hitanoa, *de facto* (eta salbuespen nimiño batzuk salbu) ez da hedabideetan eta hezkuntza sisteman existitzen. Ez behintzat komunikazio baliabide gisa, epigrafe honetan aipatzen ari garen premia asetzeko tresna gisa. Kasurik onenean, eskolak paradigman beste ataltzat landuko du, ez bestela. Hedabideei dagokienez, ezin aipatu gabe utzi Gaztea irratiak horretan lukeen erantzukizuna. Irrati horrek kontu horretan erakusten duen utzikeria ere sekulakoa da, eta badirudi hango arduradunek gor eta itsu jokatzera erabaki dutela, kontu hauek planteatzen zaizkienean erantzun ere ez baitute egiten.

Hitanoak kontu hauetan dezakeenaren adibide bakarra aipatuko dut. Bob Dylanen kantu bat da, *It ain't me babe*. Hona kantu horren jatorrizko hitzak:

Go'way from my window
 Leave at your own chosen speed.
 I'm not the one you want, babe,
 I'm not the one you need.

Dylanen kantuera ezagutzen duenak badaki haren abesteko moduak are kolokialago bihurtzen dituela berez ere aski kolokialak diren hitzak. Kasu honetan, maitasuna agortu zaion gizonezko bat ari zaio, mespretxu baldarrez, dagoeneko maite ez duen emakumeari. Hori nola itzuli euskarara (neurri eta errima kontuak bazter utzita, ezinbestean)? Hona aukera bat:

Utzizu nire leiho hau,
 Segi zeure bidetik.
 Ez naiz nahi duzuna, maite,
 Behar duzun hori.

Itzulpen txukuna izan liteke, edukiari dagokionez. Giroz, aldiz, guztiz bestelako erregistro eta aldartera eramaten gaitu. Arazo guztiak ez, baina asko behintzat ziplo konpontzen dira besterik gabe hitanoa erabiliz:

Hoa nire leihotik,
Heuk nahi bezain arin.
Hik nahi ta behar dunana,
Aizan, ez naun, ez, ni.

Bide batez esanda: kantuen kasuan zertan ari gara? Ahozkoan? Idatzizkoan? Esateko idatzian? Idatzitako ahozkoan? Esan dugu lehenago ere behin baino gehiagotan: idatzia eta ahozkoa hor dabilta gaur egun, erabateko alberdanean.

Hitanoa baliagarri izango bada, aurrena zehaztu behar litzateke zertarako den (eta zertarako ez). Jardunaldi hauetan bertan ere aipatu da guraso batzuek begi onez ikusten dutela seme-alabek eurei hika hitz egitea, are batzuetan horretara xaxatzen dituztela ere. Ez naiz inoren esparru pribatuan sartzeko inor, baina Euskal Herri osoko ikuspegitik ikusita, estrategia ezinago okerra iruditzen zait: kideasuna markatzeko balio duen baliabidea (hain eskas duguna) kide ez ditugunekin erabiltzen badugu, akabo baliabide horrek dugun arazorik larrienetakoa konpontzeko duen indarra.

7.2. Tradizioa: gurtu ez, e-gurtu!

Hitanoarekin gertatzen den bezala, gure beste komunikazio premia askok ere tradizioan lukete konponbidea... tradizio hori behar bezala ustiatzen asmatuz gero.

Horretarako, ordea, tradizioa gurtu ez, baizik e-gurtu behar genuke: hartu, eta gure gaurko premietarako egokitu, beldurrik eta konplexurik gabe. Horretarako, bistan da, aurrena ezagutu egin behar da tradizio hori, ahalik eta sakonkien. Dagoen-dagoenean ez digu beti balioko, baina komunikazio arazoak konpontzeko arrasto ezin hobeak aurkituko ditugu bertan.

Ez daukagu hemen astirik hori guztia nola egin litekeen behar bezala erakusteko, eta euskal tradizioaren bi gauzatxo aipatuta kitatuko dugu kontua, penaz eta dolorez bada ere.

Atsotitzak aipatuko ditut aurrena. Zaila da imajinatzen hori baino altxor handiagorik, hori baino material hoberik gaurko gure diskurtso astun-tuntun horiei txinparta apur bat eragiteko. Tamalez, altxor hori ustiatu baino nahiago dugu dozena erdi bat atsotitz buruz ikaslaraztea ikasleei: «Zozoak beleari», «Dagoenean bon-bon», «Kanpoan uso»... Eta gutxi horiek ere, jakina, atsotitzak «gure-gureak direlako» ikasi behar dituztela esango diegu ikasleei, gure jarduna indartzeko tresna ez balira bezala. EHUn publikitatea irakasten da, besteak beste, eta badirudi lotsagarritzat jotzen dela hain esparru modernoan atsotitzak bezalako kontu tradizionala erabiltzea. Eta nik diot: nola arraio irakatsiko diegu gazteei euskarazko eslogan ganorazkoak sortzen, atsotitzen lantegia baliatu gabe?

Atsotitzekin batera, hitz elkarteak aipatu nahi nituzke. Hemen ere, badirudi garrantzitsuena dela elkartutako hitzen artean gidoia jarri behar den, edota hitzak bereiz idatzi behar diren, edota hitz bakarrean uztartuta.

Har ditzagun, esaterako, Gaztea irratiko entzuleen SMSetan ageri ziren «pitolisto» eta «pichabrava» hitzak. Garbi dago zergatik jo duen horiek erabili dituen euskal hiztunak horietara: euskaraz ez duelako horiek betetzen dioten funtzioa bete diezaiokeen esapiderik. Aitortu beharko dugu baliabide batzuek aiseago funtzionatzen dutela gaztelaniaz euskaraz baino. Hitz elkarketan, ordea, euskara puxkaz aiseago moldatzen da. Gazteko garaian «zakil-zoli eta pitilin-gorri» proposatu genizkien gaztelaniazkoak ordezkatzeko. Ez, ordea: gaztelaniazkoak indartsuagoak omen, euskarazkoek kutsu artifizial halako bat omen... Jakina, erabilerak ematen baitie esapideei indarra, ez bestek. Aurrerago esango dugu zerbait gehiago horretaz.

Nahitaez aktibatu behar genukeen baliabide ezinago eraginkorra da hitz elkarketa. Besteak beste, berriak izan arren azalpen beharrik ez duten esapide indartsuak sortzeko aukera ematen duelako.

7.3. Komunikazio estrategiak erabili

Komunikazio estrategien erabileran, euskaraz bezain motz eta kamuts atzema-ten ditut erdarazko diskurtsoak, idatzi zein ahozkoak. Sail honetan, erretorika klasi-koan «baliabide poetiko-erretorikoak» aipatu behar genituzke aurrenik. Beste gauza baliagarri asko eta askorekin bezala, hemen ere gutxien balio duena eginda etsitzen dugu: baliabideen izena ikasi, adibide klasiko bat edo beste... eta kito!

Metafora, metonimia, hiperbolea eta beste inor txunditzeko, kontsolatzeko, aztoratzeko tresna izan litezkeela, hori aipatu ere ez. Sail zabalegia da hau, ordea, hemen dudan bezalako tarte txikian ganorazko ezer esan ahal izateko.

Nolanahi ere, onura handia egingo liguke komunikazio baliabideetan trebatzea. Eta albo-erdarekiko abantaila nabarmena eskainiko lioke euskarak hiztunari, horretan trebatuz gero.

7.4. Beste euskalkiak baliatu. Tentuz, hala ere

Beste euskalkietatik maileguan hartutako esapideak erabiltzeak baditu bere arriskuak. Besteak beste, guri arrotz zaigunaren exotismoak liluratuta hala moduzko gauzak egitea. «Anitz» hitzak Hegoaldean egin duen bidea, esaterako, aipagarria da: «elkarte anitza» eta gisakoak sarri entzun eta irakurtzen ditugu, Ibon Sarasolak aspaldi gaztigatu arren ez zela hori parte onekoa. Orain, Iparraldean «elkarte askoa» esaten hastea besterik ez genuke behar.

Arriskuak arrisku, hiztunaren premiaren bat asetzeko bada, nik ontzat eman ez ezik txalo ere egingo nuke. Gure semeak, esaterako, nerabe zela inoiz zerbait esker-tzeko premia sentitzen bazuen, «Esker anitz, aita» erabili ohi zuen, egindako mesedea nerabe batentzat ere nabarmen handia zenean. Hartara, bi buru estaltzen zituen txapel bakarrarekin: eskerrak emanda geratzen zen, baina txantxa-jolas kutsuaren bitartez disimulatuta, gehiegi nabarmendu gabe. Gure zaharrek ere ez dakit horrelako zerbait ez ote zuten bilatzen, «mertzi» eta gisakoak erabiltzean.

Hemen ere, beraz, hizkuntzaren beraren ustezko arau eta legeen ginetik hiztunaren premiak jarriko nituzke beti.

7.5. Erabilera, kalitatearen bermea

Ikusi dugunez, Koldo Mitxelenak hizkuntzaren kalitatea aizkorarenarekin alderatzen zuen. Euskara zabaltzeko egin den ahalegin txalogarrian, ordea, hiztun askori eskura eman diegun aizkora, euskara, kamutsa da, motza.

Lehenago esan dugun bezala, kalitatea eraginkortasuna da: axola duten xedek lortzeko baliagarri izatea, hori baino ez. Horrela ulertuta, kalitatea erabilerak baizik ez dezake berme: erabiltzen ez denak indarririk ez du, eta indarririk ez duena ez du inork erabili nahi...

Galdera zera da: nori dagokio sorgin-gurpil horren jirabira zitala etetea? Euskal hiztun arruntari, edota euskaratik bizi diren profesionali? Galdera, bistan da, erretorikoa da. Horregatik nioen euskara normaltzeko balio dezaketen tresnak bete-betean jarri behar ditugula eginkizun horretan.

Hizkuntza normaltzeko tresna horiek, nagusiki, hedabideak eta hezkuntza sistema dira. Euskarazko hedabideei dagokienez, egokitasuna hartu behar lukete irizpide nagusitzat, eta ez zuzen-jatortasuna, orain arte bezala; bestalde, ditugun premien arabera antolatu eta aritzea eskatu behar genieke, eta ikusi dugu hortik urruti gaudela, tamalez. Hezkuntza sistemak ere zuzen-jatortasunetik egokitasunera egin behar luke jauzi, behingoz; horrez gain, ahozkoari bere lekua eskaintzeak ere on egingo lioke.

Joxean Artze handiaren esaldi ospetsuaren parodia batekin amaituko dut nire jario larritu hau:

Hizkuntza batek ez badio
hobeto bizitzeko balio,
hiztunak batera esango dizkio
«kaixo!» eta «adio!».

Ziur nago garaiz gaudela. Bai, behintzat, euskararentzat hiztun eta alor berriak irabazteko ahalegina bazter utzi gabe, horri adinako lehenetasuna ematen badiogu euskara etengabe zorrozteari.

ERREGISTROAK, ALDAERAK, HIZKERA GAZTEAK... ZER EGIN DEZAKE ESKOLAK?

Inma Muñoa Barredo
Ikastolen Elkarteko Hizkuntza Egitasmoen Koordinatzailea

Garai interesgarria bizi dugu soziolinguistika, hizkuntzalaritza eta hezkuntza eleaniztuna maite ditugunok eta, bereziki, euskararen indarberritze lanetan ari garenok.

Garai interesgarriak dira, euskaldun kopuruak nabarmen egin duelako gora azken urteotan, baina, era berean, euskararen kale-erabilera orokorrean apaldu egin delako¹ nahiz eta VI. Inkesta Soziolinguistikoak dioenez euskararen erabilera igo egin den eremu formalean. Ezin uka, beraz, euskararen ezagutza eta erabileraren arteko harremana konplexua denik, eta ezin uka korapilo hori ulertu eta askatu nahi eta behar izateak berekin dakarren erronka.

Ezagutza-erabileraren arteko harremana ulertzeko gakoetako bat gaur egungo euskaldunen soslai berria da. Izan ere, euskaldun kopuruaren hazkunde horren ondorioz, zeharo aldatu dira euskaldunen ezaugarriak:

- 24 urtez beherako euskal herritarren artean erdia baino gehiago euskaldunak dira. Euskalduna, beraz, gaztea da.
- Ingurune urbanoetan bizi da.
- Elebidunen kopurua biztanleen erdira heltzen ez den inguruneetan bizi da.
- Hitzun berria da, hau da, euskara eskolan edo euskaltegian ikasi du.
- Erdaraz erosoago moldatzen da euskaraz baino.

Euskal biztun berriak: esperientziak, jarrerak eta identitatea ikerketak dioenez², hauek dira 18-26 urte bitarteko hitzun berri gazteek euskara eremu akademikitik³ at erabiltzeko mesedegarrizat jotzen dituzten faktoreak:

1. Bizi diren herriko hizkera menperatzea.
2. Jarrera proaktiboa izatea, hau da, euskaraz egiteko aukera guztiak aprobetxatzea edo aukera horiek nahita bilatzea.

¹ Ikusi: Soziolinguistika klusterra. 2017. *Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa*. Euskal Herria, 2016. www.soziolinguistikaklusterre.eus

² Ortega, Ane; Amorrortu, Estibaliz; Goirigolzarri, Jone; Urla, Jacqueline. 2016. *Euskal biztun berriak: esperientziak, jarrerak eta identitateak*. Deustuko Unibertsitatea Argitalpenak.

³ Bestela esanda: eskolatik edo euskaltegitik at.

3. Euskaraz hitz egiteko erraztasuna edukitzea edo euskara maila ona edukitzea.
4. Euren eguneroko harremanetan euskara asko erabiltzen duten pertsonekin aritzea.
5. Bizi diren herriko biztanleek euskara asko hitz egitea.

Euskaldunen soslai berri horretan eskolak duen eta izan duen eragina begi bistakoa da, bai hiztun berrien hazkundeari dagokionez, bai eta aipatu berri diren faktore mesedegarriei dagokionez. Begi bistakoa da, baita ere, ondoko galdera: zer egin dezake eskolak faktore mesedegarri horietan eragiteko? Are gehiago, eta argitalpen honetan lantzen ari garen gaiari helduta: zer egin dezake eskolak euskararen erregistro eta aldaeren inguruan?, zer egin dezake, gazteek euskaraz aritzeko erraztasuna izan dezaten?

Galderak begi bistakoak diren arren, erantzunak ez dira hain agerikoak. Erantzun horiek aurkitu nahian, gero eta indar handiagoa hartuz doa «eskolak bakarrik ezin du» ikuspegiak. Eta hala da; beste hainbat gaitan gertatzen den bezala (berdintasuna, gatazken kudeaketa, ingurugiroaren zainketa...), euskarari dagokionez ere ezinbestekoa da eskola, familiak eta gizartea norabide berean joatea baldin eta eskolak egiten duen lanari etekina atera nahi bazaio. Eskolak dituen mugak onartzeak, aldiz, ez du esan nahi hobekuntzarako tarterik ez dagoenik, eta hezkuntzan gabiltzanon zeregina da hobekuntza-ildo horiek identifikatzea eta lantzea.

I. HEZKUNTZA KOMUNITATEAK HAUSNARTU ETA ADOSTU BEHARREKO HAINBAT IDEIA

Eskolak, familiak eta gizarteak norabide berean lan egitea garrantzitsua den bezala, hezkuntza komunitateko kideek ere hizkuntzei dagozkien hainbat ikuspegi eta jardunbide adostea eta horien arabera jokatzeko ezinbestekoa da ikasleen hizkuntza kompetentziaren garapen egokia sustatu nahi bada. Adostu eta partekatu beharreko alderdien artean daude, besteak beste, ikasleek garatu beharreko hizkuntza kompetentziaren ezaugarriak eta hezkuntza komunitateak, eta bereziki hezitzaileok, hizkuntzaz nahiz eleaniztasunaz dugun ikuspegia. Izan ere, hezitzaileok hizkuntzen inguruan ditugun aurrezagutzek zeharo baldintzatzen dituzte gure egiteko moduak, gela barruan nahiz kanpoan.

I.I. Euskaldun eleaniztunak helburu

Gure haur eta gazteek garatu beharreko hizkuntza kompetentziaz hitz egiterakoan, hezitzaileon artean eta hezkuntza komunitatean nahiz gizartean oro har, guttuz errotuta eta hedatuta dago «euskaldun eleaniztunak hezte» dela hezkuntza sistemaren helburuetako bat.

Baina zer da euskaldun eleaniztuna izatea? Kontzeptu hori modu berean ulertzen al dugu edozein eskolan hezitzaile lanetan gabiltzanok? Galdera hutsala dirudien honek garrantzi handia du euskararen erregistro eta aldaerei erantzun egokia eman nahi dien eskolarentzat. Bestela esanda, euskararen erregistro eta aldaerek eskolan izango duten tokia galdera horren erantzunaren baitakoa izango da, eta batez ere, «euskalduna» izateari ematen diogun zentzuaren baitakoa.

Gure haur eta gazteak euskaldunak izan daitezen diogunean, haur eta gazte horiek euren bizitzako egoera guztietan, edo gehienetan behintzat, euskaraz aritu ahal izateko gaitasuna eta joera izan dezaten esan nahi badugu, egoera horiek zein diren zehaztu eta egoera horietan ikasleek eraginkortasunez moldatzeko euskararen zein erregistro edo aldaera behar duten aztertu beharra dago, besteak beste.

Bide hori hautatzen duen hezkuntza komunitateak, eta hezitzaile taldeak, ezin du euskararen irakaskuntza eta erabilera eskola eremuko edo eremu akademikoko egoera eta hizkera formal estandarretara soilik mugatu, eta tokia egin beharko die beste aldaera eta erregistro batzuei (tokiko hizkerak, erregistro ez formalak...). Are gehiago, ezinbestekoa izango du inguruko gizarte-eragileekin lankidetzan, eskolan zaila baita euskararen hainbat erregistro (ez-formalenak, lagunartekoenak...) garatzeko egoera egokiak sortzea.

Erabaki horien atzean badira hezkuntza komunitateak adostu beharreko beste alderdi garrantzitsu batzuk ere: batetik, nondik abiatzen dira gure ikasleak?, zein hizkuntza-ezaugarri dituzte?, eta bestetik, zer eskaini behar diegu euskaldun eleaniztunak izan daitezen?, alegia, zein testuinguru eskaini behar diegu euskararen ahalik eta erregistro gehien garatzeko aukera izan dezaten?

Azken galdera horrek, eta bereziki «eskaini» eta «garatu» aditzen erabilerak, hurrengo puntura garamatza, hizkuntzaren eta eleaniztasunaren ikuspegira, hain zuzen ere.

1.2. Hizkuntzaren eta eleaniztasunaren ikuspegia

Eleaniztasuna irudikatzen erabili ohi diren irudien artean, espaziora bidali ohi diren «orotariko ibilgailuaren» irudia edo metafora indarra hartzen ari da azken urteotan⁴. Bidean topatzen duen zoruaren erliebera egokitu ahal izateko, eta, azken batean, edozein zorutan ibili ahal izateko, aipatutako ibilgailuek hainbat hanka eta gurpil dute, modu autonomoan luzatu edo bildu ez ezik, norabide ezberdinetan jar daitezkeenak. Zoruaren arabera, beraz, ibilgailuak hanka bat luzatuko du eta beste bat bildu, gurpilen norabidea finkatuko du, gurpilak noraino biratu erabakiko du... eta aurrera egingo du.

Hainbat egileren ustez, eleaniztasuna «orotariko ibilgailu» horien antzerakoa izango litzateke. Hiztunak, bizitzan topatzen duen egoera bakoitzari hizkuntzaren ikuspegitik modu egokian eta eraginkorrean aurre egiteko (hau da, ibilgailuak aurrera egin dezan), egoera aztertu eta eskura dituen hizkuntzen artean hautu jakin bat egin beharko du. Hau da, eskura dituen hizkuntzen eta erregistro nahiz aldaeren artean zein hanka luzatu-bildu eta gurpilak zein norabidetan jarriko dituen erabaki beharko du.

Hiztunaren hizkuntza-konpetentzia edo eleaniztasun eredua, beraz, hiztun horrek bizitzan aurkitzen dituen egoeren arabera izango litzateke, eta, zenbat eta «zoru aniztasun» handiagoa, orduan eta «ibilgailu» doituagoaren jabe izango litzateke. Eta alderantziz, bidean zenbat eta «zoru aniztasun» gutxiago aurkitu, orduan eta mugatuagoa izango da hiztunaren hizkuntza-konpetentzia.

⁴ Ikuspegi horren inguruan sakontzeko ikusi: García, O. *Bilingual Education in the 21st Century. A global perspective*. (2009) Wiley-Blackwell.

Hizkuntzaren eta eleaniztasunaren ikuspegi honek eragin zuzena du hezitzaileon eguneroko jardunean:

- Batetik, gure haur eta gazteei eskolan eskaintzen dizkiegun komunikazio-egoeren aniztasunari erreparatu beharra nabarmentzen du: nolako «zoru» aniztasuna eskaintzen diegu gure ikasleei, euren «ibilgailua» trebatu dezaten? Euskararen aldaera akademiko formalekin batera euskararen beste aldaera batzuk ere gara ditzaten nahi dugun honetan (direla tokian tokiko hizkerak, lagunarteko erregistroak...), zein komunikazio-egoera eskaintzen dizkiegu aldaera eta erregistro horien garapena errazteko?
- Bestetik, garbi dago eleaniztasunaren ibilgailu horrek «gidari estrategikoak» behar dituela, alegia, egoera bakoitzean erabili beharreko hizkuntza(k) eta hizkuntza-aldaerak edo erregistroak hautatu ahal izateko ezinbestekoa dela egoera horien ezaugarri eta arau soziolinguistikoak ondo ezagutzea eta kudeatzea. Are gehiago euskara bezalako hizkuntza gutxituen erabilerari dagokionez. Berehalakoa da gure buruari egin beharreko galdera: eleaniztasuna kudeatzen trebatzen al ditugu gure haur eta gazteak?

Esan beharrik ez dago aipatu berri ditugun alderdiek hizkuntzak irakasteko darabilgun metodologia ukitzen dutela bete-betean eta hizkuntzen erabileran oinarritzen diren metodologiak hobestera garamatzatela. Euskarari dagokionez, ikasleak euskararen aldaera eta erregistroen erabilera eskatzen duten benetako komunikazio-egoeren aurrean jarri beharko ditugu, horretarako behar dituzten baliabideak euren eskura jarritz eta horiek kudeatzen irakatsiz.

Ez nuke atal hau amaitu nahi lizentzia txiki bat hartu gabe eta hezitzaileok hizkuntz erregistro eta aldaeren inguruan ditugun hainbat aurreiritzi gainditu beharra dagoela esan gabe.

Alde batetik, maiz entzun ohi diren «guk ez dugu euskalkirik», «guk ez dugu euskara ez-formalik» eta antzerakoez ari naiz. Kontuan izan dezagun, hitzun guztiok darabilgula aldaera edo erregistro bat baino gehiago. Hartara, euskara darabilgun hitzun guztiok dugu euskalkia, nahiz eta hainbat tokitan euskalki berria izan eta zerikusirik ez izan garai batean eremu horretan erabiltzen zenarekin. Euskara darabilgun hitzun guztiok dugu lagunarteko euskara edo euskara ez-formala, toki eta egoeraren arabera euskara eta erdara batera erabiliz sortu den aldaera bada ere. Bere hizkuntz erregistroen edo aldaeren kontzientzia ez duen hezitzaileak, nekez lagundu ahal izango die ikasleei eurenak garatzen eta kudeatzen.

Bestetik, «hizkera gazteak» edo «lagunarteko hizkerak», hizkera ez-formalenak, alegia, gazteenak direla onartu beharra dugu. Onartu beharra dugu, beraz, gazteek eurek sortuko dituztela euren artean erabiliko dituzten hizkuntza-aldaerak. Eta litekeena da, sortzen dituzten hizkera horiek helduon gustukoak ez izatea. Hala da eta hala izan da beti. Hizkuntza aldaera horien sormenerako espazioak eta aukerak behar dituzte, sorkuntza lan horretarako hizkuntza-baliabideak behar dituzte, baina haiena da azken hitza.

Horrek ez du esan nahi eskolak eskuak lotuta dituenik, izan ere, atal honetan ikusi dugun bezala, badugu zer hausnartu, berrikusi, adostu eta hobetu. Ondorengo atalean, hezitzaileok eskura ditugun hainbat baliabide aipatuko dugu: Ikastetxearen

Hizkuntz Proiektuak eta azken urte hauetan gauzatzen hasi den kompetentzien bidezko hezkuntzak eskaintzen dizkiguten aukerak.

2. HEZITZAILEOK ESKURA DUGUN HAINBAT BALIABIDE

2.1. Ikastetxearen Hizkuntz Proiektua: zer toki dute erregistro eta aldaerek ikastetxean?

Ikastetxearen Hizkuntz Proiektua ezinbesteko tresna da gurea bezalako hezkuntza sistema batean, hizkuntza gutxitu batean ardaztutako hezkuntza-eredu eleaniztuna baita gurea, eta, horren ondorioz, gure haur eta gazteek gutxienez hiru hizkuntza erabiltzen baitituzte euren eskolaldian zehar, bai ikaskuntza-prozesuan eta bai eskolako bizitzan.

Hizkuntz Proiektu sendorik gabe, zaila da hezkuntza-eredu eleaniztunaren tesuinguruan euskararen aldeko oreka zaintzea, eta zaila da euskararen nahiz euskarazko irakaskuntzak eta euskararen indarberitzeak behar dituen praktika egokiak gauzatzea.

Hizkuntz Proiektuak ikastetxean lantzen diren hizkuntzen irakaskuntzari eta erabilerari dagozkien alderdiak bildu, eta hizkuntza horien guztien trataerari koherentzia emango dien markoa da⁵. I. irudiak Ikastolen Hizkuntz Proiektuaren esku-hartze eremuak jasotzen ditu, eta, bertan ikus daitekeen bezala, Hizkuntz Proiektuak ikastetxeko eremu guztiak besarkatuko lituzke, izan ere, eremu horiek guztiak hartzen baititu ikasleen hizkuntza kompetentzia garatzeko eremu gisa.

I. irudia: Ikastolen Hizkuntz Proiektuaren esku-hartze eremuak



⁵ Hizkuntz Proiektuari buruzko xehetasunak: Ikastolen Elkarteak. 2009. «Ikastolen Hizkuntz Proiektuak».

«Euskaldun eleaniztunak» heztea helburu izanik, bide horretan euskararen erregistro eta aldaerei tokia egin nahi dien eskolak Hizkuntz Proiektuan izango du, beraz, esparru horretan eragiteko tresna eraginkorra.

Batetik, Hizkuntz Proiektuak ikastetxearen hizkuntza politika jasotzen du, hots, ikastetxearen eremu instituzional nahiz pedagogikoan zein hizkuntza erabiliko den, noiz, norekin eta zertarako; ahoz nahiz idatziz. Ikastetxearen hizkuntza politika finkatzeak euskararen erregistro eta aldaerei erreparatu beharra dakar berarekin. Aukera paregabea da, beraz, batzar nagusitik hasi eta ikasleekin egin ohi diren irteera eta bidaietan amaituz, euskararen zein aldaera erabiliko den adosteko; betiere, komunikazio-egoera horien ezaugarriak aztertu (solaskideak, helburua, e.a.) eta bakoitzak eskatzen duen erregistroa kontuan hartuz.

Adoste lan horrek hezitzaileon erabileraren inguruko hausnarketa egiteko eta hura jasotzeko aukera ematen du. Esaterako, euskararen erregistro bera erabiltzen dugu gelako edo mailako guraso bilerak egiten ditugunean eta guraso horiekin bakarka biltzen garenean? Ikasleekin hitz egiten dugunean, erregistro bera erabiltzen dugu gela barruan ari garenean eta irteera edo egonaldietan? Zein ezaugarri dituzte erregistro horiek? Zein aldaeraren bidez gauzatzen ditugu?: batua, euskalkia, tokian tokiko hizkera... Hamaika galdera eta hamaika erantzun; hamaika modu euskararen aldaera eta erregistroei behar duten tokia emateko; ikastetxe kopurua bezainbeste.

Hizkuntz Proiektuak jasotzen dituen alderdien artean, bestalde, ikaskuntza-prozesuan erabiliko diren hizkuntzei dagozkienak daude. Hau da, ikasleek zein hizkuntza ikasiko dituzten, zein hizkuntza erabiliko dituzten ikaskuntza tresna gisa, noiz hasiko den hizkuntza bakoitzaren irakaskuntza eta antzerako erabakiak ere biltzen ditu Hizkuntz Proiektuak. Euskararen erregistro eta aldaerak ere bertan txertatzerik badago, eta esaterako, erregistro eta aldaeren progresioa planifikatzeko aukera ematen du. Adibidez, 2 edo 3 urterekin ikastetxera hurbiltzen den haurrarekin zein erregistro erabiliko dugu?, eta zein aldaera erabiliko dugu?, noiz hasiko gara erregistro formalak lantzen? Hemen ere hamaika galdera, eta hamaika erantzun. Hamaika modu ikastetxe bakoitzak bere bidea zehazteko⁶.

Laburbilduz, Hizkuntz Proiektuak aukera ematen du, ikastetxean sortzen diren komunikazio-egoerak erregistro eta aldaeren ikuspegitik aztertuz, zenbait erabaki adosteko, eta ondorioz, ikasleei euskararen hainbat erregistro eta aldaera garatzeko aukera emateko. Baina, nola landu daitezke euskararen erregistroak eta aldaerak eskolan? Jarraian, azken urteotan garatzen ari den konpetentzietan oinarritutako hezkuntza ereduak lanketa horretarako eskaintzen dituen aukerak aipatuko dira.

2.2. Konpetentzien bidezko hezkuntza: Euskal Curriculumak eta Heziberri 2020

Ikastolen Euskal Curriculumak, eta Heziberri 2020 berak ere, oinarrian duen hezkuntza ereduak aukera interesgarriak eskaintzen ditu euskararen erregistro eta aldaerak lantzeko begira.

⁶ Ikastolei eskainitako abiapuntuko proposamena ikusteko, ikusi «Ikastolen Hizkuntz Proiektua (2009)».

Aipatutako bi egitasmo horiek bultzatzen duten hezkuntza ereduaren helburua gure gazteen oinarrizko kompetentzia diziplinarrak nahiz metadiziplinarrak garatzea da⁷, pertsona kompetenteak izan daitezten. Bestela esanda, ezagutza mota ezberdinak (kontzeptuak, prozedurak, jarrerak) estrategikoki hautatuz eta erabiliz, egoera edo erronka errealei modu eraginkorrean erantzuteko gai diren pertsonak heztea da xedea.

Ikasleek euren bizitzako hainbat egoerari aurre egiteko behar dituzten kompetentziak garatzen lagundu behar diegula benetan sinesten badugu, egoera horiek zein diren eta zein izango diren identifikatu eta gure irakas-jardunaren ardatz bihurtu behar ditugu. Azken finean, egoera-erronkei aurre eginez ikasten baita egoera-erronkei aurre egiten.

Hala eginez gero, hots, egoera-erronkak irakas-jardunaren erdigunean jarriz gero, berehala ikusiko dugu, ikaslaroak ikaslaro, hizkuntzaren ahozko nahiz idatzizko erabilera egoki eta eraginkorra dela oinarrizko kompetentzien garapenerako tresna ezinbestekoa. Hizkuntzarik gabe nekez gara daitezke oinarrizko kompetentziak, eta hizkuntzarik gabe nekez erantzun dakieke bizitzan topatzen diren eta kompetentzia horien erabilera eskatzen duten egoera edo erronkei. Hezkuntza ikuspegi horrek, beraz, lehen planora dakar hizkuntzaren trataera, eta ahozko nahiz idatzizko hizkuntzaren erabilera egokia ikaslaro guztiek landu beharreko eduki garrantzitsu bilakatzen du.

Bestalde, eta hizkuntzen erabilerari dagokionez, kompetentzien garapenerako baliatuko ditugun egoera horietako asko elebidunak edo eleaniztunak direla kon-tuan hartu beharko dugu. Batetik, garbi dago egoera horiei aurre egiteko prozesuan ikasleek hizkuntza bat baino gehiago erabili beharko dutela, esaterako, informazioa lortzeko garaian. Bestetik, egoera horiei modu egokian erantzuteko ezinbestekoa izango da honako galderari erantzutea: Zein hizkuntza erabiliko dut egoera edo erronka horri aurre egiteko? Hizkuntza bat baino gehiago erabili beharko dut? Zeintzuk?

Are gehiago, euskararen erabilera eskatzen duten egoerei dagokienez, ikasleek euskararen zein aldaera edo erregistro erabiliko duten erabaki beharko dute, eta egoeren baitan euskararen erregistro formalagoak (euskara batua zein tokian tokiko aldaeren erregistro jaso) edo ez-formalagoak (euskara batuan oinarritutakoa, tokian tokiko aldaera...) erabili beharko dituzte.

Eguneroko edo etorkizuneko bizitzarekin lotutako egoera edo erronka jakin bati erantzun behar izateak, beraz, erabakiak hartzera daroma ikaslea, eta, erabaki horietako batzuk hizkuntza hautuen ingurukoak izaki, hezkuntza eredu berri honek berarekin dakar euskararen egoeraren inguruko eta soziolinguistikaren esparruko hainbat gai mahai gainean jarri, landu eta eztabaidatzeko aukera, bai eta euskararen

⁷ Ikastolen Euskal Curriculumak honela sailkatzen ditu oinarrizko kompetentziak: Oinarrizko kompetentzia metadiziplinarrak: pentsatzen eta ikasten daki; komunikatzen daki; norbera izaten daki; elkarrekin bizi izaten daki; egiten eta ekiten daki. Oinarrizko kompetentzia diziplinarrak eta diziplinarteak: (Hizkuntza eta Literatura) hitzeko eta literaturazko kompetentzia komunikatiboa; (Matematika) matematika-kompetentzia; (Teknologia) kompetentzia teknologikoa; (Musika eta Dantza; Plastika eta Ikus adierazpena) arte-komunikaziorako kompetentzia; (Gorputz Hezkuntza) gorputz-komunikaziorako kompetentzia; (Gizarte Zientziak) gizarte- eta gizabide-kompetentziak; (Naturaren zientziak); kompetentzia zientifikoak; tutoretza eta orientazioa.

erregistro formalaz gain beste hainbat erregistro eta aldaeren lanketa txertatzeko aukera ere.

Jarraian, eta EKI proiektuaren baitan DBHrako sortutako unitate didaktiko bat abiapuntutzat hartuz, aukera horiek nola gauzatu daitezkeen aztertuko dugu.

3. EKI PROIEKTUA ETA EUSKARAREN ERREGISTRO NAHIZ ALDAEREN LANKETARAKO AUKERAK


3.1. EKI-DBH: unitate didaktikoen egitura

EKI-DBH proiektua Euskal Curriculumaren eta bere baitan dagoen kompetenzien bidezko hezkuntzaren garapenerako ikasmaterialgintza proiektua da⁸, eta I2-I6 urteko ikasleek oinarrizko kompetentziak garatzeko tresna eraginkorra izatea du helburu.

Helburu hori lortze aldera, EKI-DBH proiektuak adin tarte horretako gazteek garatu beharreko oinarrizko kompetentziak zehaztu eta kompetentzia horien erabilera eskatzen duten arazo-egoerak lantzen ditu. Proiektuaren ezaugarri nagusien artean dago, beraz, ikasleak arazo-egoera ahalik eta errealean aurrean jartzea eta horiek ebazten laguntzea; horretarako behar diren ezagutzak (kontzeptuak, prozedurak eta jarrerak) ikasleei bereganatzen eta estrategikoki erabiltzen lagunduz. Are gehiago, ikasitakoa arazo-egoera berrietara transferitzeko proposamenak ere bideratzen dituzte aipatutako unitate didaktikoek.

Ikasarloak ikasarlo, beraz, unitate didaktiko bakoitza arazo-egoera multzo baten inguruan ardaztuta dago eta 2. irudian ikus daitezkeen atalak ditu.

2. irudia: EKI-DBH Proiektuaren baitako unitate didaktikoen egitura



⁸ EKI Proiektuaren ezaugarrien inguruan, ikusi www.ikaselkar.eus.

3.2. Euskararen erregistro eta aldaerak EKI-DBH unitate didaktikoetan lantzeko aukerak

Izan zaitetz munduan ikusi nabi duzun aldaketa EKI proiektuak DBH 3ko Gizarte Zientzietarako sortutako unitate didaktiko bat da; bertan, honako arazo-egoera ebazteko proposatzen zaie ikasleei:

[Egungo gizartean dauden] egoera bidegabeak aldatzeko ekitea bezalakorik ez dago, eta horixe izango da gure erroka: Alboan Gobernuz Kanpoko Erakundearen *Zeure mugikorrek ezkututzen duena* kanpainan parte hartuko dugu, Kongoko herritarrei laguntzea xede. Kanpaina horretan, eskolaren erroka izango da ikasleko gutxienez telefono bana biltzea, sentitu-pentsatu-ekin metodologia erabiliz. Horretarako, gatazkari eta kanpainaren helburuari buruzko informazioa bilatuko duzue eta, kanpaina arrakastatsua goa izan dadin, komunikazio-plan bat diseinatu eta gauzatu egingo duzue.

Arazo-egoera horri aurre egiteko, ikasleek aurreko atalean aipatutako urratsak jarraituko dituzte:

- Lehenik eta behin, planifikazioari ekingo diote eta egoeraren ezaugarriak aztertuko dituzte. Besteak beste, honako galderak erantzun beharko dituzte: zer egin behar dugu?, norentzat egingo dugu?, zertarako?, nola?... Bestela esanda, zein ezaugarri izan behar ditu komunikazio-plan eraginkor batek?, zein izango da gure planaren helburua?, eta hartzailea?, zer ikasi behar dugu gure komunikazio-plana arrakastatsua izan dadin?
- Bigarrenik, unitate didaktikoaren garapen fasean zehar arazo-egoera modu egokian ebazteko behar dituzten ezagutzak (kontzeptuak, prozedurak eta jarrerak) landuko dituzte⁹ eta ondoren helduko diote plana garatu eta gauzatzeari.
- Hausnarketa fasean, komunikazio-planaren inguruko hausnarketa egingo dute eta egindako planaren indarguneak eta ahuleziak identifikatuko dituzte.
- Amaitzeko, antzerako bigarren arazo-egoera bati aurre egingo diote, aurreko hiru urratsetan ikasitakoa beste testuinguru batean transferitzen ikasteko.

Jarraian ikusiko dugun bezala, arazo-egoera horri aurre egiteak, hau da, komunikazio-plan eraginkor bat diseinatu eta gauzatzek, eleaniztasunaren eta euskararen erregistro-aldaeren inguruko hainbat alderdi eztabaidatzeko eta lantzeko aukerak eskaintzen ditu.

Planifikazio fasea: eleaniztasunaren kudeaketarako oinarriak

Esan berri dugun bezala, unitate didaktikoaren planifikazio fasean arazo-egoeraren ezaugarriak eta eskakizunak aztertzeaz gain, egoera horri irtenbide egokia

⁹ «Pentsatu globalean, ekin lokalean» izeneko atalean, globalizazioa, interdependentzia, garapena, munduko desberdintasunak eta hartutako erabakien edo abiatutako ekimenen ondorioak landuko dituzte. Hala, globalizazioak maila lokalean gertatzen denari nola eragiten dion azpimarratuko da. Bigarren atalean, «Ongizatea denontzat» izenekoan, ongizate-estatuak, herritarren eskubide eta betebeharrak, eta desberdintasunei aurre egiteko ekintzak landuko dituzte (EKI 3 Gizarte Zientziak, *Izan zaitetz munduan ikusi nabi duzun aldaketa* unitatearen gida didaktikoa; www.ikaselar.eus).

aurkitzeko barneratu beharko dituzten eduki baliabideak aurreikusi beharko dituzte ikasleek. Hartara, adibide gisa erabiltzen ari garen unitate didaktikoaren planifikazio fasean, besteak beste, ikasleek komunikazio-planaren osagaiak edo ekimenak aurreikusi beharko dituzte (kartelak, bideoak, hitzaldiak...), bai eta ekimen bakoitzaren hartzailea zein izango den ere (ikaskideak, gurasoak, herriko helduak, herriko gazteak...).

Aurreikusitako ekimen horiek arrakastatsuak izan daitezen, jakina, hainbat alderdi hartu beharko dira kontuan, baina horien artean ezinbestekoa izango da ikasleek hizkuntzaren erabilera egokia egitea. Horretarako, ekintza bakoitzean erabiliko den hizkuntza zehaztea legoke hartu beharreko erabakien artean. Bestela esanda, ekintza horiek euskaraz, gaztelaniaz, edo ele bietan egingo diren erabaki beharko lukete ikasleek.

Euskararen aldaera edo erregistroei dagokienez, ikasleek ekimen bakoitzak eskatzen duen erregistroa eta aldaera egokia zein den aztertu beharko lukete. Esaterako, komunikazio planaren barruan hitzaldi sorta bat aurreikusten bada, erregistro bera erabiliko da hitzaldi guztietan?, alegia, erregistro bera erabiliko da herriko gazteen-tzat gaztetxean eman daitekeen balizko hitzaldian eta, adibidez, kultur etxean, herriko edo inguruko edozein biztanlerentzat antolatu daitekeen horretan?

Erabaki horiek hartu behar izateak eleaniztasunarekin eta hizkuntzen erabilera-rekin loturik dauden hainbat alderdi landu beharra jarri beharko luke mahai gainean. Hona hemen horietako batzuk:

- Ikastetxea kokatuta dagoen ingurunean euskarak duen egoera, eta horrek komunikazio-planean erabiliko den hizkuntzan izan dezakeen eragina.
- Komunikazio-plana ele bitan egin beharra aurreikusiz gero, hizkuntza ezberdinak uztartzeko moduak: gauzatuko diren komunikazio-ekimenetan nola kudeatuko ditugu hizkuntzak?, hitzaldi elebidunak?, hitzaldi berezituak euskaraz eta gaztelaniaz?...
- Ikastetxearen hizkuntz-politika: Ikastetxeak nola jokatzen du antzeko egoeretan?
- Komunikazio-ekintza bakoitzak eskatzen duen erregistro edo aldaeraren ezaugarriak.
- Erregistro edo aldaera horiek ikastetxea kokatuta dagoen inguruan dituzten ezaugarriak: euskalkia, herriko hizkera...

Unitate didaktikoaren planifikazio fasean hizkuntzari dagozkion alderdiak txertatzeak, beraz, eleaniztasunarekin, eta, bereziki, hizkuntz hautuekin eta erregistroekin loturiko hainbat gai bizitzako egoera zehatzetan kokatzeko aukerak zabal-tzen ditu. Hezitzaileok aukera horiek baliatuz gero, ikasleak eleaniztasunaren «orotariko ibilgailuaren» gidatze egokiak duen garrantziaz jabetzen has daitezke, bai eta «gidari» onak izateko bereganatu behar dituzten ezagutzak eta portaerak zein diren aurreikusten ere.

Garapen fasea: eleaniztasunaren kudeaketarako baliabideak

Unitate didaktikoak proposatzen duen arazo-egoera aztertu eta egoera horri nola egingo zaion aurre adostu ondoren, unitate didaktikoaren garapen fasean lan-duko dira adostutako erabaki horiek modu egokian gauzatzeko beharrezkoak diren

ezagutzak. Hartara, planifikazio-fasean hizkuntzari dagozkion erabakiak adostu badira, garapen faseak eskaintzen du aukera erabaki horiek gauzatzeko behar diren kontzeptuak, prozedurak eta jarrerak lantzeko.

Eman dezagun, esaterako, balizko ikasle talde batek herriko gazteak hautatu dituela komunikazio-planaren hartzaile gisa, eta are gehiago, komunikazio ekintzetan herriko gazteen hizkera erabiltzea erabaki duela. Erabaki hori hartu izanak unitate didaktikoan txertatu beharreko eduki bihurtzen du gazte-hizkera; are gehiago, gazte-hizkeraren lanketak helburu garbi eta zehatza izango du: komunikazio ekintzetan hizkera hori modu egokian erabiltzea, adibidez, ahalik eta gazte gehienengana iristeko eta ahalik eta telefono mugikor gehien jasotzeko.

Ildo horretatik, aukera ezin hobea irekitzen da herriko edo inguruko gazteen erabilera aztertzeko, bai eta gazte-hizkera lantzeko eta aberasteko ere. Ikastetxea kokatuta dagoen ingurunearen arabera, hezitzaileak tokian tokiko hizkera, hizkuntz nahasketa eta antzerako gaiak jorratu ez ezik, ikasleek erregistro horretan duten gaitasuna hobetzeko eta aberasteko baliabideak landu ditzake. Alegia, hezitzaileak aukera izango luke maiz askotan aparteko ikastaroen bidez landu ohi diren hainbat hausnarketa eta eduki eguneroko irakas-jardunean txertatzeko.

Bestalde, gerta liteke balizko beste ikasle talde batek herriko biztanle helduak hautatzea euren komunikazio-planaren hartzaile gisa, eta horren ondorioz, komunikazio ekintzetan euskara nahiz gaztelania erabiltzeko asmoa izatea. Are gehiago, pentsa dezagun ikasle taldeak herriko kultur etxean hitzaldi bat antolatzea erabaki duela, bai eta hitzaldiaren berri emateko herrian zehar hainbat informazio orri banatzea ere.

Kasu horretan, garapen fasean landu beharreko edukien artean komunikazio ekintza horiek eskatzen duten hizkuntz-erregistroa lantzeaz gain, hitzaldian nahiz informazio orrian euskara eta gaztelania uztartzeko estrategiak txertatu litezke. Hari horri tiraka, ikastetxearen nahiz inguruko elkarte eta erakundeen hizkuntz politika nahiz haren ondorioak aztertu daitezke eta soziolinguistikaren esparruko hainbat eduki eguneroko bizitzan nola islatzen diren ikus dezakete ikasleek.

Unitate didaktikoak proposatzen duen komunikazio-plana benetan gauzatzen den neurrian, hots, ikasleek aurreikusten dituzten hitzaldi, informazio orri eta gainerako komunikazio ekintzak egin egiten diren heinean, hizkuntzen inguruan hartu diren erabakien eraginkortasuna eta egokitasuna hausnartzeko bideak ere ireki daitezke. Eleaniztasunaren «orotariko ibilgailuaren» irudira itzuliz, arazo-egoeren lanketak hainbat ate irekitzen ditu ibilgailuaren gidatze egokirako behar diren ezagutzak lantzeko, ezagutza horiek bizitzako egoera errealetan erabiltzeko, eta erabilera horren inguruan hausnartzeko.

4. AMAITZEKO, HITZ BI

Erregistroak, aldaerak, hizkera gazteak... zer egin dezake eskolak? galdera izan da idatzi honen abiapuntua, eta erantzuna aurkitzeko lagungarriak izan daitezkeen lan ildo batzuk proposatzea izan da ondoren idatzitakoaren helburua.

Alde batetik, hezkuntza komunitateko kideek hizkuntzari eta eleaniztasunari dagozkien hainbat ikuspegi eta jardunbide adostekak eta horien arabera jokatzekak duen garrantzia azpimarratu da. Hor kokatzen da ikasleek garatu beharreko hizkuntz gaitasunaren nahiz eleaniztasunaren inguruan aipatutakoa.

Ildo horretatik, eta euskaldun eleaniztunak heztea helburu dugun honetan, ezinbestekoa da ikastetxeetan izendapen horren esanahia partekatzea, eta ikastetxeak lortu nahi dituen helburuen artean ikasleengan euskara erabiltzearen aldeko portae-rak sustatzea ote dagoen adostea. Ikastetxe barruan nahiz kanpoan nagusiki euskaraz biziko diren gazteak hezi nahi dituen eskolak, ahal duen neurrian baina ezinbestean, erregistro eta aldaeren gaiari heldu beharko dio. Izan ere, jakin badakigu edozein hizkuntzatan eroso aritzeko gakoan artean dagoela hizkuntza horren erregistro bat baino gehiago erabiltzeko gai izatea.

Erregistro eta aldaeren gaiari heltzeko garaian litekeena da hezitzaileok eleaniz-tasunaz eta hizkuntzaz dugun ikuspegia berrikusi eta eguneratu behar izatea. Hizkuntza gaitasuna, eleaniztuna edo elebakarra, hiztunak dituen bizipenen edo komunikazio-egoeren arabera garatzen dela barneratu behar dugu. Ikuspegi horretatik, beraz, berehala ikusiko dugu gure haur eta gazteek ikastetxean bizi dituzten komunikazio-egoerek zein hizkuntza eta zein erregistro-aldaera garatzeko baliatu daitezkeen, bai eta, ikasleen ezaugarrien eta garatu beharreko hizkuntza gaitasunaren arabera, bestelako komunikazio-egoerak sortu beharra ote dagoen ere.

Bestalde, erregistro eta aldaeren lanketa eguneroko jardunean txertatzeko hezi-tzaileok eskura ditugun hainbat baliabide aipatu dira: ikastetxearen Hizkuntz Proiektua eta kompetentzien bidezko hezkuntza eredu, hain zuzen ere.

Hizkuntz Proiektuak aukera ematen du ikastetxean sortzen diren komunika-zio-egoerak hizkuntzen ikuspegitik aztertu eta zenbait erabaki adosteko eta indarrean jartzeko, horien artean, ikastetxearen hizkuntz politikari eta ikaskuntza-prozesuetan erabiliko diren hizkuntzei eta erregistro-aldaerei dagozkienak.

Ikaskuntza-prozesuen esparruan, berriz, Euskal Curriculumak eta Heziberri 2020 egitasmoak oinarrian duten kompetentzien bidezko hezkuntzak eskain ditza-keen aukeretako batzuk azaldu dira. Hezkuntza eredu horren ezaugarrien artean dago irakas-jarduna arazo-egoeren inguruan antolatzearena. Hots, ikasleek bizitzan topatzen dituzten edo topa ditzaketen arazo-egoera edo erronkak aztertu eta horiei aurre egitea, hezitzailearen laguntzaz zeregin horretarako behar dituzten ezagutzak landuz.

EKI-DBH proiektuak ikuspegi hori gelartzeko proposatzen dituen unitate didaktikoetako bat adibide gisa hartuz, arazo-egoren lanketan zehar euskararen erre-gistro-aldaerak nahiz eleaniztasunaren kudeaketarekin loturiko alderdiak txerta-tzeko moduak ere aipatu dira.

Hezkuntzan gabiltzanok, beraz, badugu zer hausnartu eta zer ikertu. Ekin die-zaiogun, beraz, ibilbide berriari; ibiliz egiten baita bidea.

GAZTE HIZKERAK, ADIERAZKORTASUNA ETA KODE TXANDAKETAK

Orreaga Ibarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakaslea

I. GAZTE HIZKERAZ

Egun on guztioi. Eskerrak eman nahi dizkiot Euskaltzaindiari eta Ezkerraberri Fundazioari jardunaldi honetan parte hartzera gonbidatu izanagatik.

Lehenik eta behin, argi utzi behar dugu gazte hizkera hizkuntza aldakortasunaren barruan kokatu behar dugula. Baina zaila da hau definitzea, horregatik lehenik galdera bat egin behar dugu: «zer da gazte hizkera?» eta erantzun errazena hau litzateke: gazteek aisialdian lagunekin daudenean, bat-bateko egoeran erabiltzen duten hizkera da. Horretarako egokia behar du izan eta, horregatik, erregistroarekin lotzen dugu. Izan ere, erregistroa egoera desberdinekin loturiko aldaera da, eta, jakin behar dugu egoeraren parametro nagusiak hauexek direla: egoera, gaia, parte hartzaileak eta helburua.

Erran bezala, gazte hizkera lagunarteko erregistroaren barnean kokatu behar dugu eta hauek dira lagunarteko hizkeraren ezaugarriak: gaurkotasuna, bat-batekotasuna, adierazkortasuna. Horrez gain, aldaera hau etxekoa, berezkoa, informala eta egunerokoa da. Hala ere, zenbaiten ustez erregistro hau, «baldarra», «araudiaren aurkako», «beheko gizarte-mailaren berezkoa» eta «elkarrizketarako» da.

Guretako, ordea, lagunarteko aldaera hau oso interesgarria da: berezkotasuna, naturaltasuna eta plangintzarik eza direlako definizio horren ezaugarri nabarmenak. Aurrean esan dugunez, aldaera hau hizkuntzaren barneko aldaera bat da, eta honen ezaugarri nabarmena da aldaketak ziztu bizian gertatzen direla, hein batean espazio komunikatibo berezian gertatzen delako. Bide batez, aldaera honen bidez, euskararen etorkizunari buruzko hipotesiak egin ditzakegu.

Bertzaldetik, ez dugu ahaztu behar gazteek erregistro asko dauzkatela eta, azken batean, jargoiak egotea hizkuntza orokorra aberasteko arrazoiak dela. Ahozko erregistroan ez da berdin hitzaldi bat edo aisialdian lagunekin gaudenean egiten dugun solasa. Gisa berean, erregistro idatzian ere ez da gauza bera whatsapp bat igortzea, eta eskolarako txosten bat idaztea. Bide batez, erran behar da gero eta heldu gehiago saiatzen direla beren burua «gazteagotzen», gazte hizkeratik hartutako adierazpenak erabiliz. Eta, aldi berean, gazte hizkerak gero eta espazio gehiago hartzen du komunikabideetan.

Oro har, gazte hizkerak hizkuntza estandarretik bereizi nahi du. Horretarako, gazteek hiru alderen aurka egiten dute: eskola-araua, estilo jasoa eta helduen kultura. Berariazko aldaera sortzean gazteek daukaten helburua ez da hizkuntza estandarra aldatzen laguntzea, beren bururako nortasun-ikurra ezartzea baizik. Horregatik, transgresio nahia nabarmena izaten da, eta horren ondorioz, estandarren arauak ez dira anitzetan errespetatzen. Gaztelaniaz, erraterako, aurkaritza-tresna aurkitu dute ijito-hizkeran edo jargoian eta, horren ondorioz, gazte hizkeran «mailegu» ugari izaten dira. Gazte hizkera kontraste-hizkuntza gisa ulertzen da, helduen kulturaren eta «haur kulturaren» aurkako kulturaren barnean. Bai gurasoek, bai gizarte ofizialak, bazterketa-jarreratzat jotzen dute. Erregistro honetan adierazkortasuna indartu nahi da; eta horregatik, mezu biziagoak, arinagoak, zuzenagoak lortu nahi dira. Horregatik, erran dezakegu gaur egungo gazteen euskara belaunaldien arteko hainbat gatazkaren ondorioa dela; hobeki erranda, gazteek beren euskara sortu nahi dutela «agintarien» aurka.

Orokorrean ahozko erregistro honetan ahozko estilo unibertsalaren ezaugarriak agertzen dira, zalantzarik gabe. Izan ere, ez dago gazte-hizkuntza bakarra; fenomeno korapilatsua da gizarte- eta komunikazio-eremuan, hainbat aldaerak osatzen dutena. Eremu hori hainbat faktorek baldintzatzen dute: atxikimendu sozialak, gazteen egoera historikoak, egoera psikikoa eta gazteen generoak. Faktore horiek «gazte hizkeraren» konstelazio soziolinguistikoa erakusten dute. Beraz, gazte-aldaeren aniztasuna ahozko kulturaren berariazko adierazpena da.

Azken batean, gazteen hizkeraren helburua da identitatea modu eraginkorrean adieraztea; komunikatzeko tresna izateaz gain, erranahi soziala kodetzeko ere balio du. Izan ere, gazte hizkerak, taldeko hizkera izanda, badu testu-espertzia partekatuko maila handia eta baita taldeko kokapenaren kontzientzia ere. Horregatik, erregistro honek ospe guti du helduentzat, baina elkartasun maila handia gazteentzat.

Bertzaldetik, euskaraz ere munduko hizkuntza guztien gazte-hizkeren prozedurak erabiltzen dira; hauexek izaten dira: metaforizazioa, atzerriko hizkuntzen mailegua, delinkuentziatik, prostituziotik eta drogaren arlotik datorren hiztegiaren erabilera, eta disfemismoen eta zakarkerien baliabidea (hau da, erdi- eta goi-klaseek baztertutako kodeak).

Izan ere, estatusa boterearekin eta mundu profesionalarekin erlazionatua dago. Elkartasuna, aldiz, pertsonaren barneko aldaerekin. Kontzientzia hori islatzen da adierazpen eliptiko ugarietan, eta baita izenordainen erabilera sarrian ere, testuinguruan ulertzen direnak. Bernsteinek (1971) kode murriztuaren eta kode landuaren artean ezarri duen aldea gogora ekarrita, erranen dugu gazte hizkerak kode murriztu horrekin antzekotasun handiagoa daukala. Kode horren ezaugarriak esaldi laburrak dira, gramatikaren aldetik bakunak direnak eta sarritan erabat bukatu ez direnak.

2. GAZTEEN EUSKARAZKO DISKURTSOA

Lehenik eta behin gazteen hizketamodua aldaketa linguistikoan aitzindaria dela erran dezakegu. Aldaketa hauek ziztu bizian gertatzen dira, akademien eta eragile ofizialen arauzko esku-hartzeen mende egon gabe. Dударik gabe, kanpoko eragina

jasotzen du eta hori dela eta, hiztegian berrikuntza asko egon ohi dira (erdarakadak/hitz berriak). Guretako aldaera hau oso interesgarria da, hizkuntzaren aldaeren dia-sistemaren barneko aldaera baita. Gazteen diskurtsoaren azterketan ahozko diskurtso osoa aztertu behar da, ezaugarrietako batzuk perpausez gaindiko eremuan eta testuan baitaude.

Horregatik, euskaraz egun gertatzen ari diren hiru fenomeno nagusi azpimarratuko ditugu.

- a) Lehenik azpimarratu behar da euskara batua euskalkietan eragiten ari dela gero eta gehiago eta hizkeren berdintzea gertatzen ari dela eta baita euskalkien lausotzea ere; Auerrek (1998) azpimarratzen du Europako hizkuntzetan ere fenomeno bera gertatzen ari dela. Hein batean, bizimodua erabat aldatu delako, gizartearekin batera. Izan ere, heziketa sistemaren eragina, komunikabideen hedapena eta gizarte industrializatueta eta modernoetan berdintzearen eragina sumatzen da.

Laburbilduz, duela mende bateko euskalkiaren eta gaurkoaren arteko aldea handia da, egoera linguistikoa erabat aldatu da eta euskaldun guztiak elebidunak edo eleaniztunak gara. Horrez gain, euskal probintzietan euskaldunak gero eta gehiago dira eta, jakina denez, gero eta zailagoa da euskara pixka bat ez dakiten gazteak aurkitzea

Aurrekoetxeak (2006: 149) eginiko ikerketen arabera, bateratze joera gazteen artean bortitza da. Lexikoan gertatzen dira indize handienak, ondoren syntaxian eta morfologian, eta azkenean datoz ezaugarri morfologikoak. Esnaolak (1997) ere antzeko ondorioak bildu zituen. Eta, azkenik, Ormaetxeak (2008) Arratian eginiko azterketan, ordea, bateratze joera nagusia morfosyntaxian agertu da eta ez lexikoan. Euskara batuaren eraginari dagokionez, helduengan hutsa den bitartean, gazteengan ia %9ra iristen da.

Aldi berean, tokian tokiko aldaeren kontzientzia handia da, eta horregatik tokian tokiko ezaugarriak azpimarratzeko joera dago. Erraterako, Baztango gazteek *Barra* 'beharra' erabiltzeko joera dute, eta baita *-ki-z* bukaturiko partizipioak ere: *Josu joaki zen*, eta *zeba, zebada*? bezalako galdetzaileak erabiltzen dira Bidasoa inguruan.

- b) Bigarrenik, jakina da, euskararen egoera nabarmen hobetu dela. Hiztunen kopurua gehitu da, eta hizkuntzak eremu eta eginkizun berriak hartu ditu. Hobekuntza horiek ez ezik, egiturazko hainbat ahultasun handi ere nabarmen geratu dira. Horietako bat hizkuntzaren jakintzaren eta erabileraren arteko desfasea da.

Euskararen Aholku Batzordeak ondorioztatu du maila ez dela ona, eta euskaldun gehienek adierazgarritasun-arazoak dituztela.

- c) Hirugarrenik, alboko bi hizkuntza handiek gaztelaniak, frantsesak eta baita ingelesak ere itxuraldaketa asko sortzen dituzte euskararen komunitate linguistikoaren barneko garapenean.

Euskal hizkera berrietan nahasketa eta kode alternantzia ohikoak dira. Batua eta euskalkia nahasten dira. Euskalkirik ez dagoen kasuetan, ordea, norberak hurbilen sentitzen duen hizkera horretan mintzo da: gurasoen herriko hizkeran eta abar.

Bertzaldetik, norbere euskalkiak eta bertzeenak nahasten dira, nolabait honen joeraren hastapenak ikusten dira. Nafarroako hiztun gazteei aise da honelako hitzak entzutea: *ostean, legez, ondo...* Azkenik, euskara zuzen eta euskara akastuna nahasten dira.

2.1. Hizkuntzaren zein mailatan kokatu?

Gazte hizkeraren ezaugarriak edozein mailatan koka daitezke: hiztegian, morfologian, syntaxian, fonologian, hizkeraren prosodian eta erritmoan, arau pragmatikoetan, testu egituraketan, keinuetan eta adierazpen mimikoan, baita arau proemikoetan ere.

Baina bereziki maila lexikoan eskuratzen ditu jargoiaeren ezaugarriak. Argot horrek jasotako hizkuntzari aurre egiten dio; argotak eta jargoiak arauak sistematikoki ez betetzetik sortzen dira, talde soziala identifikatu eta lotzen dute, eta, aldi berean, kideak definitu eta nabarmentzen dituzte. Azken batean helburua da gazteek hurbileko bizipen-harremanak estutzea, harreman soziala eta beren arteko komunikazio fatikoa indartzea, alegia.

Nolanahi dela ere, gazteen hizkeraren zenbait fenomeno hizkuntza komunean agertzen dira. Gazte hizkera iraupen laburrekoa delako, jargoia oso azkar aldatzen delako. Baina gazteen hizkeraren ezaugarrietako batzuei helduaroan helduko zaie; bertze ezaugarri batzuk, dudarik gabe, galduko dira.

Gazte gisa identifikatzeko, beraiek bakarrik erabiltzen dituzten adierazpen propioak sortzen dituzte. Gaztelanatik datozen hauek erabiltzen dira egungo gazteen hizkeran, adibidez: *en plan, sin más, a lo, tipiko, mitiko, zeba?* Gainera, ortografia-mailan ere desbideratzeak antzeman daitezke.

Atal honetan hizkuntza idatzia/ahozkoaren arteko aldea aztertu behar da. Beti hizkuntza idatzia jasoaren ikuspuntutik aztertu delako eta hauxe leporatu zaiolako ahozkoari: *zehaztugetasuna, biztegi-urritasuna eta narraskeria formalak*. Hizkuntzalaritzak batzuetan aztertu du lengoia hizkuntzaren bidez, produktu egin, itxi eta sistematikoa balitz bezala. Alegia, fonemak eta morfemak konbinatzen zihoaizen maila morfosintaktikoan. Baina benetako komunikazioak ihes egiten zion. Azken batean, hizkuntzalaritzak ez zeukan zerikusirik mezuen komunikazio-mamiarekin. Baina guk uste dugu lagunarteko hizkera ahozko eta mintzatu gisa azter daitekeela.

Izan ere, berezko ahozko komunikazioan denbora laburra dago antolatzeko. Hitzunek beren diskurtsoa sortzen dute, eta, horren bidez, aldi berean, beren buruaren irudia ere bai. Idazleak, aldiz, mezuak diseinatu, zuzendu, koordinatu eta menderatzeko denbora dauka. Irakurleak irakurtzen duen materialaren gaineko kontrola dauka eta, beraz, bere erritmora prozesa dezake.

Slobinek dioenez (1997), komunikazio linguistikoak lau eskaerari erantzun behar die: argia behar du izan, gizakiek prozesatzeko modukoa, azkarra eta adierazgarria. Hain zuzen ere, gaurko gazteek idatzizko komunikazioa ederki menperatzen dute. Erraterako, egungo idatzizkoaren ezaugarri batzuk esaldi luzeak dira eta atzizkiz jositako hitzak, idatzizko lanetan bereziki maite dituzte mota honetako hitzak: *egunerokotasun, aldaraztea, abalbidetzea...*

3. GAZTE EUSKALDUNEN AHOZKOTASUNAREN EZAUGARRIAK

Arestian genioenez, lagunarteko hizkera definitzen duten ezaugarri batzuk hauek dira: solaskideen arteko *berdintasun erlazioa* eta familiarteko diskurtso markoa izaten da, eta, parte-hartzaileen erlazioak zehatzak dira eta espazio fisikoak zehaztuturikoak.

Espezializatuak ez diren gaiak jorratzen dira: egunerokotasuna eta adierazpenaren edukia edozein gizabanakoren esku dauden gaiak osatzen dute. Planifikazio falta dago eta, azken batean, arian arikoa da antolaketa. Komunikazioaren helburua interpersonala da eta xede sozializatzailea du. Tonua informala da, aipatutako ezaugarri guztien batuketara. Eta bat-batekotasuna dago komunikazioan.

Azken batean diskurtsoaren ekonomia bilatzen da, eta hauxe izaten da komunikazioaren helburua: erran nahi dena hitz gutxitan erratea. Adierazkortasun handia bilatzen da; horregatik, esaldi biribilak eta sendoak egoten dira (mintzatu pentsatzen duten bezala). Bertzaldetik, maiz hizkuntza estereotipatua erabiltzen da (biraoak, sexu erreferentziak), eta bukatzeko, atentzioa deitzeko hitzak nagusitzen dira: *ze muz?, zu!, aizu!, E!, tio! epa, apa...* eta, azkenik, bukaerako oharrak: *ez?, zer?, bale?* eransten dira.

Hurrengo lerrootan zerrendatuko ditugu egungo gazte euskaldunen ahozkotatasunaren ezaugarri nagusiak:

- *Es que* fokalizazioa eta ezkererako lokadura: *Es que jendea bemen...*
- Subjektu ergatiboaren eta aditz iragankorraren arteko komunztadurarik eza, plangintzarik ezagatik: *Udala egiten du...*
- Solaskideari seinaleak egitea, arreta eskatzeko, ustekabea adierazteko, adostasuna agertzeko: *ai, bai!, ya!, yasta!, bale!, bai?*
- Interjekzioak: *jo!, a!, tira!, aber!, bua!, tio!, txabal!, aupa!*
- Hitz neutralak diskurtso-balioarekin erabiltzen dira: *hombre!, benga!, mesedez!, faborez!*
- Atzean jarritako amaierako oharrak, onspena eskatzeko asmoz: *... pues daude olako gauzak, ez?*
- Gaztelaniaren eta euskararen arteko kode txandaketa ugaria da, eta hurrengo lerrootan atal berezi batean aztertuko dugu: Egongo dira hemen, *abí, heladas de frío.*
- Elipsiaren erabilera. *A-Eta hau norena da? B-Oier [Oierrena].Ze ordutan bukatuko duzu? -10[etan]*
- Mota honetako adierazpenak edo makulu-hitzak entzuten dira: *pues, bueno, jo, tio, nik zer dakit!, yo que sé!*
- Gazte hizkeraren berariazko elementu lexikoak, disfemismoak eta esamolde baldarrak nagusitzen dira: *down, puto down, Anfas, ez rayatu! jo(de), ze guay, ze fuerte, ze txungo, superongi, en plan, ze pringatua, kutre, ze pribada!*
- Metaforizazioa ugaria da: *Kokoa jan, kaña sartu.*
- Enuntziatuen kateaketa, honako esaldi hauen bidez: *eta, pues, o sea, ez dakit, ba, no sé qué.* Hona elkarrizketaren zati batzuk: *Zetaz, ez eztakit, esan ginun bai gan bar gara azkenian Les...o sea...Lesakara noseke ta berak etzuen esan nola...Osea berak nai zuen gan oi Baigorrire.*

- Aditzak ezkerrean kokatzen dira: *dauka diru pilo bat; zaos ematen superlejos; gaten dire superguti; iten zait super raro*.
- Partitiboarekiko komuntadurarik eza: *ni(sic) ez dut ordenagailua. Guri ez digu ematen denbora*.
- Singularren eta pluralaren, eta osagarriaren eta aditzaren arteko komuntadurarik eza: *ez, ez ditu seme-alabarik*.
- *Da* aditz laguntzailea edo *dago* esaldiaren hasieran jartzen dira.

Mugaz honanzko gazteen hizkeran gaztelaniatik hartutako lexikoa ugaria da. Gehienetan mailegatutako lexiko hau egokitua da, *-a* mugatzailea erantsiz izenetan: *jaleo-a, desfase-a, pille-a, rollo-a, pasada, friki-a*, eta *-tu* aditzetan: *monta-tu, flipa-tu*,

- *Jaleoa montatzea da helburue*
- *Oso frikia da*
- *Afaltzeko zer ein bebar dugu, sinpa?*
- *Es que flipa itte'zue*
- *Es que azkenen rollo bat da*
- *Nik ustet bakotxa bere rolloa joango da*
- *Saloun kriston desfasea zeola*
- *Pasada bat zan, kriston pillea, pasada bat*.

3.1. Esapideak, atzizkiak eta aurrizkiak

Gisa berean, esapide ugari agertzen dira; honatx gure datuetatik hartutako batzuk: *O todo o nada, ahí sin más, por libre, a ver, igual, entre comillas*. Adibide hauek ditugu:

- *-Manga anchakin zuzenduko zola*
- *-eta hori esan zuen? Qué fuerte!*
- *- hombre baietz*

Atzizkietan, gaztelaniazko atzizkiak erabiltzen dira: *bokata, -ata* maiz nerabe batzuek, garai batean *amata* erraten zuten (ama). Baita ere, gaztelaniazko *-i* atzizki hipokoristikoa erabiltzen da bereziki nesken hitzetan, maitagarritasuna emateko: *Lauri* (Laura), *peñi* (peña).

Aurrizkien artean gaztelaniazko *hiper, in-* eta *super-* maiz erabiltzen dira: *hipermegaguai, inpresentablea da, superongi pasa genuen, superazkar atera ginen*. Gisa berean, gaztelaniatik hartutako markadoreak detektatzen dira: *Sk 'es que', keba 'qué va', ensi 'en sí', en plan*.

Azken garai honetan *en plan* gisakoak txertatzen dira, markatzaile pragmatiko hau oso hedatua dago gazteen artean, izen eta adjektibo edo aditzen aurrean jartzen da eta izaera informala ematen dio elkarrizketari.

Izen bereziak laburtuak erabiltzen dira maiz: *Itzi* (*Itziar*), *Orre* (*Orreaga*), *Aran* (*Arantxa*), *San* (*Santos*), *Bero* (*Verónica*). *Leii* (*Leire*), *Arejo* (*Arejolaleiba*).

3.2. Whatsappak eta mezu idatziak

Whatsappetan eta mezu idatzietan honako ezaugarriak agertzen dira:

- Laburdurak: *AMZ* (asko maite zaitut), *zln zz?* (zelan zagoz), *kk* (kaka)

- Zenbakiak silabetan: *a2* (ados), *3ne* (Hirune)
- *-H-a* askotan desagertzen da: *or do, nauzu?*
- Ingelesetik hartutako grafiak tartekatzen dira: *wzen* (goazen), *ok*.
- Onomatopeiak: *jajaja, aji, zzz*.
- Puntuazio marka errepikatuak: *Ze??? bai???*
- Letra larriak indarra eta adierazkortasuna emateko: *BAAAI*.
- Hizki errepikatuak: *aioooo, bbaii zaaaa*.
- Hizki larririk eta puntuazio markarik ez: *Zemoduz bizitza eider?*
- Kultismo desitxuratuak: *ke mofas, jaulario* (aulario).
- Hipokoristikoen erabilpena: *-in-en* bukatuak, *pelutxin*.
- Hitz maitagarrien erabilpena: *kutxun* ‘cariño’, *potxola*.
- Bukatzeko, ingelesetik datozen hitzak erabiltzen dira: *you are welcome, life* eta beste batzuk fonetismoetan adieraziak: *okeii* ‘ok’, baita frantsesetik hartutakoak ere: *mertxi* ‘merçi’.

4. EUSKARA-ERDARA KODE TXANDAKETA

Jakina denez, euskarazko diskurtsoan gaztelania tartekatzea da ohiko jarduna. Euskara-erdara kode txandaketaren edo CSren (*code-switching*) inguruko ikerketak euskal elebidun helduekin egin dira, eta honako ikerlari hauek egin dituzte: Etxebarria M. (2004), Epelde I. & Oyharçabal B. (2008), Muñoa (1997), Lantto (2012), Rotaetxe (1999), Ibarra (2008a, 2011a, b). Haurren hizkerarekin ere baditugu lanak: Ezeizabarrena, M.J. & Aéby, S. (2010); Cenoz, J. (2008), Barreña A. (1997).

Bertze hizkuntza batzuetan, hainbat ikerlari ditugu: Auer (1995), Poplack (1980), Muysken (2000), Thomason (2001). Auerrek proposatzen du CS edo kode txandaketa dela testuinguruko seinale bat elkarrizketan; testuinguruak baldintzaturiko hainbat ezaugarri dituena. Azken garai honetako literaturan hori da onartuena: Auer (1998). Hari honi jarraikiz, honako definizioa aurkitzen dugu Orit Shayan lanean (2015: 73), non azpimarratzen den hizkuntzaren aukeratzea egiten dela komunikatzeko helburuaren arabera:

Code-switching has being taken to refer to the pragmatic and grammatical competence of the bilingual speaker to select the language according to communicative factors and specific grammatical constraints.

Aldiz, Weinreich (1974: I) aspaldian, interferentzien inguruan eman zuen definizioa desberdina zen. Honen ustez, interferentzia termino zabalagoa da bi hizkuntza edo gehiago eremu batean erabiltzearen ondorio linguistikoa, hain zuzen ere. Kasu honetan, batetik bertzera pasatzen dira elementuak, eta horrek eragina du hizkuntza jasotzailean, bere sistema aldatuz joaten baita:

The term interference implies the rearrangement of patterns that result from the introduction of foreign elements into the more highly structured domains of language, such as the bulk of the phonemic system, a large part of morphology and syntax, and some areas of the vocabulary (kinship, color, weather, etc.).

Hainbat ikertzailearen aburuz, baldintza funtzional eta pragmatikoek agintzen dute kode txandaketa «lejos de las creencias superficiales de profanos que ven el fenómeno como una clara manifestación de corrupción y deterioro lingüísticos, de conducta verbal indeterminada, el cambio de código resulta gobernado por requisitos funcionales y pragmáticos» (López Morales, 1989/1993:173).

Erran bezala, hizkuntza txandaketa ohikoa da erkidego elebidun anitzetan: New Yorkeko puertorricarren artean, Utrechen dauden marokoarren artean eta, orokorrean, erkidego elebidun guztietan gertatzen da hau. Ez da heziketa gutxikoen eta pobreen artean bertzerik sortzen, aldiz, hizkuntza txandaketa ez da isolaturiko fenomeno bat, baizik eta diskurtso elebidunean ohiko fenomenoa, hainbat hiztun elebidunen artean gertatzen dena.

Hizkuntza txandaketa sortzen da nahiz eta hiztunak ahalmena duen elkarrizketa segitzeko. Izan ere, lengoaia zerbait diskretu gisa ikustea sinpleegia da, mito bat da. Baina kontua da kode txandaketa identitatearen markatzaile bezala ikusten dugula.

Kode txandaketa gertatzen den momentuan, hainbat faktorek baldintzatzen dute: funtzional eta pragmatikoak (testuingurua, parte hartzaileak, elkarrizketa gaiak). Izan ere, gazteek, elkarrizketan bat-batekotasuna bilatzen dute, eta zenbaitean horrek ekartzen ditu interferentziak, kalkoak eta txandaketa linguistikoak.

Gazteen diskurtsoaren ezaugarriak hauek dira: adierazpen komunikatiboa, eraginkorra, konbentzionalismotik at dagoena. Honatx laburbildurik kode txandaketan parte hartzen duten faktoreak:

- a) Faktore sozial eta linguistikoak
- b) Elkarrizketaren eragin behar dioten hizkuntzen ukipenaren intentsitatea.
- c) Ikasketa osotuaren presentzia edo gabezia.
- d) Hiztun elebidunen jokaera.
- e) Hizkuntza sisteman noraino dauden integraturik hizkuntza ezaugarriak.
- f) Distantzia tipologikoa jatorrizko hizkuntzan eta hizkuntza hartzailean.

5. KODE TXANDAKETAREN TIPOLOGIA

Appel eta Muysken (1996) ikertzaileendako CS (*code switching*) edo kode txandaketa da elementu bakar baten txertaketa hizkuntza batean edo elementu bat baino gehiagorena; denek osatzen dute elebidunaren hizketamodua. Azken batean kode txandaketa da adierazpen linguistiko bat esfortzurik gabe egiten dena eta oso laster zabaltzen dena.

Autore hauek proposatzen duten txandaketa motaren sailkapena eta tipologia ezaguna da, eta hurrengo lerrootan aztertuko dugu. Hiru txandaketa mota proposatzen dira: A) Kode txandaketa enblematikoa edo etiketaren txandaketa, B) Perpausaren barneko txandaketa eta C) Perpausen arteko txandaketa.

5.1. Kode txandaketa enblematikoa: etiketaren txandaketak

Gisa honetako txandaketa «etiketaren aldaketa» bezala ezagutzen da. Txertatzen diren elementuak hauek izaten dira: interjekzioak, deikiak edo diskurtsoaren

elementuak, esaldiaren edozein tokitan ager daitezkeenak. Mota honetako hitzak dira tartekatzen direnak: *bueno, sin más, pues, es que, bastante, o sea que, qué va, claro, yastá, así que, aparte, según, igual, seguro, por ejemplo, ya, yo qué sé, sin más.*

Diskursoaren markatzaileak edo diskurtsoa osatzen duten osagarri hauek talde heterogeneoa osatzen dute, eta hainbat unitatez osatuak daude, hauetako asko dira adberbioak, markatzaileak eta konektoreak.

Gure kasuan gazteek erruz erabiltzen dituzte eta esaldiaren mugaren barruan egoten dira batzuetan, bertzeetan elementu hauek esaldiaren mugatik haratago egoten dira.

Gazteen artean, etiketa hauek etekin funtzional handia erakusten dute. Batzuetan hizketaren errutinak dira, osagarriak, *muletilla* gisa funtzionatzen dutenak:

- Saiatuko gara *eta punto*
- ...ta egin nituen lanak ta *ya está*
- Ta orain zuri tokatzen zaizu, *vale?*
- Ai amaa aberiaubijat busa, *tío*
- Ta *ni idea...*ez dakit non diren

5.2. Perpausaren barneko txandaketa

Esaldiaren barnean suertatzen den kode txandaketa mota hau gertatzeko beharrezkoa da bi hizkuntzen ezagutza sakona, horregatik baldintza bat behar izaten da, ekibalentziarena, ezin diren puntuetan ez aldatzeko. Poplack (1980) hizkuntzalariarendako hau da aldaketa konplexuena, hiztunak behar duelako bi sistemak kontrolatzea aldi berean. Hain zuzen ere, haren ustez jariotasun handienarekin mintzo diren gazteek nahiago dute CS hau, arinena delako.

- Joe!, pues hau...hauek, o sea iruditzen zaizkit *normales*
- Egongo dira hemen, ahí, *heladas de frío*
- Faltatzen zait, bai, *el tochito de los apuntes*
- Pixkat *al loro* ibili beharko gara

Bigarren hizkuntzan egindako diskurtsoan, lehen hizkuntzan egindako esaldi osoak txertatzen dira, eta alderantziz. Hizkuntza txandaketak behar du hizkuntza bakoitzaren egitura gramatikala gordetzea.

Batzuetan txertaketa garbia da, alegia, ez dago hiztegiaren egokitzapenik eta txandaketa txertatzen da garbiki, hitz bat txertatuz beste hizkuntzan.

- Egin nuen *esguince* bat
- Iruditzen zait *ridícula*

Beste batzuetan preposizio bat dator aurretik (*contra, con, en, al, de, por, para*), eta preposizio hauek sintagma bat sartzen dute (Ibarra, 2011a). Horrela, CS gertatzen denean, hizkuntz aldaketa sintagma osoari dagokio, eta honenbertzez, sintagma osoa bigarren hizkuntzan egoten da.

- Gu hemen *de descanso* gaude
- Oain dago *de baja*
- Badu alergia *a las proteínas...*
- Normalean mundu guztiak egiten du *en plan...*

5.3. Perpausen arteko txandaketa

Txandaketa mota hau egiteko, hizkuntza bakoitzaren gramatika errespetatu behar da eta horrez gain, esaldi bakoitzaren arau morfosintaktikoak gorde behar dira. Txandaketa hau ez dago lotuta testuinguruarekin ezta elkarrizketa gaiarekin ere.

- Nola juerga iten genuen ba, *ya dejamos de ir*
- Baino sartu txanpon txikia, *que si no te la traiga*
- Etorri behar dira, *picar el techo...*
- Nik nahiago dut ematea dirua *horrela... que no que te saque la navaja...*
- Juaten banaiz, *la voy a liar*

6. KODE TXANDAKETAREN FUNTZIOAK

Dударик gabe, kode txandaketak betetzen dituen funtzioak anitzak dira: errepikapena, rol aldaketa, enfasia, emozioa, eta taldearen identitatea indartzea dira funtzio horietako batzuk. Euskara-erdara kode txandaketaren funtzioen inguruan Muñoak egin ditu lan interesgarriak (2002). Kode txandaketa ere erabil daiteke errealitateari gehiago hurbiltzeko, adibidez, kode txandaketak beste pertsona baten hitzak hitzez hitz ekartzea suposatzen duenean. Nortasun pertsonal eta erakargarri bat eraikitzeak ere zerikusia du kode txandaketarekin. Azken batean uste dugu kode txandaketak irauten duela taldearen nortasuna markatzeko, zenbaitetan jargoiko hitzak erabiliz, tabuak, deikiak eta beste hitz batzuk tartekatuz. Hauek dira garrantzitsuenak

6.1. Erreferentzia funtzioa

Funtzio komunikatiboa izatea, eta alde horretatik, erreferentzia funtzioa betetzea da horietako bat. Horregatik aise da euskal lexikoaren erabilpena aurkitzea hainbat arlotan; bereziki ikasketekin loturiko bizitza akademikoan aise da aurkitzea gaztelaniaz mintzatzea eta euskal lexikoa tartekatzea gazteen artean gaztelaniaz ari direnean.

- *Se me ha olvidado el beroki*
- *Que... si barne araudia*
- *Yo ya he hecho las lanas*

Gisa berean, beste batzuetan ingelesa tartekatzen da zehaztasuna emateko; ikasle baten adibide honetan bezala:

- *Egin behar duzu filling de gaps*

6.2. Funtzio adierazkorra

Txandaketa mota hau agertzen da funtzio erretorikoa eta adierazkorra mantentzeko; gehienetan gazteek tartekatzen dituzte honakoak: deikiak, interjekzioak, esaldian betetzeko hutsuneak, elebidun gisa funtzionatzen dutenak. Esaldi markatuak dira hauetako asko eta bere helburua da zerbaiti indarra ematea adierazpide markatuak erabiliz:

- Ta hantxe egon ginen *boras muertas*
- Eta gainera, eske puff, guztia da *impresionante*

Muñoaren (1997) arabera, gisa honetako txertaketak egiten dira esaldiari indarra emateko helburuz, aurretik egindako esapideak erabiliz.

- ta hori esan zuten? *pues la llevan clara, tío*
- ta hara joan zineten? *Bua que buena!*

6.3. Funtzio metalinguistikoa

Emendailu hauen txertaketak, hiztunaren aldetik nolabaiteko kontzientzia maila inplikatzeko du. Hiztunak badaki gaztelaniaz erranak direla, eta horregatik, iruzkin metalinguistiko bat egiten du, nolabait bertze hizkuntzan txertatzen duelako zerbait.

- *La última cena*, esaten den bezala
- *Jurando en hebreo*, esaten den bezala
- *A la altura del betún*, esaten den bezala
- *Un poco de calidad* entre comillas

6.4. Fraseologia

Lengoaia fraseologikoaren helburua da mezua modu laburrean kodifikatzea, kolpe batez erratea. Ondoko enuntziatuen kode txandaketa, errefortzu modu bat da, eta aurrean esandakoari indarra emateko modu bat.

Elebidunek diotenez, indar handiagoa ematen diote diskurtsoari.

- *Es que zaudete ematen más vueltas que pa qué*
- Hemen daude tronpetak *hasta debajo de las piedras*
- Gehienez egon behar zara paron bi hiyaute, *no te hagas ilusiones*

6.5. Haserrea adieraztea

Kode txandaketa anitzetan gertatzen da haserrea dagoenean. Horren helburua da emozioak kodetzea, haserrea dagoen kasuetan. Bertzaldetik, aurreko lerrootan esaten genuenez, jargoiaren ezaugarri bat da hitz berrien behar etengabea, eta baita hizkuntza berritzeko ahalmen naturala ere.

- ...eta neri...*me da una rabia, tío.*
- Baina neska hori *está mal del coco.*
- ...eta esan nion... *así de claro!*
- Baina oin arrankau dau ta doie *a toda hostia.*

Azken kasu honetan, beste hizkuntzara egindako jauzia, gure iritziaren arabera, birao bat sartzeko egiten da. Lanttok (2012) Bilboko euskaldunen hizkera arduragabekoa aztertu zuen eta bertan ikusi zuen anitzetan biraoak gaztelaniaz izaten zirela. Ikertzaile honen ustez biraoen txertaketa gertatzen da emozioa adierazteko, alegia, kode txandaketa loturik dago emozioen adierazpenarekin.

6.6. Konnotazioa eta leunketa ezartzea

Honen helburua da konnotazio bat jartzea esaldiari, zenbaitetan atzizkien bidez. Atzizkitzea da prozedura morfologiko bat, berezko balore semantikoetatik urrutiago doana. Gaztelaniazko esapide horrek konnotazioa ezartzen dio erranda-koari, eta hurbiltasuna eta barregarritasuna eragiten dio. Bigarreanean ere, gazteen erdal hitza errepikatzea da helburua:

- Bai, ikusten zaitut *todo morenita* etorri zarela
- Baina nire gelakuak die *unos liantes*

Hirugarren honen helburua da adierazpide eginak tartekatzea iruzkin ironiazkoa edo isekaria egiteko asmoz; diskurtsoari ukitu ludiko eta dibertigarria emateko; xedea da elkarrizketazaila inpresionatzea, horrela adierazkortasuna eta indar diskurtsiboa ekarriz.

- Ta berez ikusi 40 minutuko bidixo bat baina bueno, *lo va a ver Rita*

6.7. Beste baten hitzak hitzez hitz berresatea

Bi elkarrizketa hauetan beste pertsona batek esandako hitzak errepikatzen dira. Horrela, hiztuna gaztelaniara pasatzen da, eta gisa honetan jatortasun gehiago ematen zaio elkarrizketari eta horrela, errealismo gehiago lortzen da. Gisa honetan, nola-baiteko komatxoak jartzen dizkiogu diskurtsoari:

- Esan zidan: — *Ay, eso no será vasco verdad?* — *Pues sí, sí es vasco* eta — *ah!, ¿y de donde eres, pues?* — *pues de Pamplona soy, de Pamplona — de Pamplona?* — eta derrepente esan zion batek: — *ay! pues no sabíamos que llegara tan lejos — pues sí, sí llega lejos.*
- Ta nik esaten nion *no le bagas ni puto caso...*

6.8. Bere testuinguruan sartutako egoera bat azpimarratzea

Gisa honetan, errealismoa eta bizitasun handiagoa ematen zaio elkarrizketari. Hiztuna bertzearen tokian jartzen denean edo egoera hipotetiko batean kokatzen denean, hizkuntz txandaketa egiten du. Izan ere, erran behar dugu, erkidego elebidun batean, hainbat adierazpide edo esperientzia erdaraz emanak datozela eta kulturalki markatuak daudela eta gisa honetan, hitzei autoritatea ematen zaiela:

- Ba orain alletu da *la declaracion de la renta*
- Titok dauka *cena del regional*, seguro joango dela
- Ez, bosten gauen *amigo inbisiblea* ta ola...

6.9. Aurretik esan diren hainbat alor azpimarratzea eta indartzea

Helburua da mezua argitzea, aurretik esandakoa zabaltzea eta mezuari indar gehiago ematea. Adibide hauetan, hitz bera bi aldiz errepikatzen da, bi hizkuntzetan:

- Ta egun batean *ta... pues el primer día* bai eman ziola dirua ¿no?
- Gizona da Oieregin jayua, Bertizen, *en el Señorío de Bértiz*

6.10. Hitzen falta dagoenean

Txandaketaren helburua da hitzen bat falta denean hutsunea betetzea. Alegia, jauzia egiten da hutsunea betetzeko, jatorrizko hitzarekin kontzeptu edo objekturen baten izenaren beharra dutenean. Adibidez, nekazari munduarekin loturiko lexikoa gaztelaniaz erraten da:

- ...eta ailegatu zen *a un barrizal* eta ezin atera
- ez zen yoan *al campo* eta ni *a la acequia*

7. ADIBIDE BATZUK. ARRASATEKO GAZTEEN WHATSAPPAK

Adibide gisa, honatx Arrasateko ikasle batzuen whatsapp batzuk. Gure ikasleek dira, unibertsitateko I. mailakoak. Haien artean mintzo dira, denak neskak dira eta lagunak haurtzaroko garaitik, ez dakite grabatuak izan behar dutela, datuak bil-tzen dituenak izan ezik:

- Garazi: *peñiii*
- Garazi: *quetal el puentr?*
- Eider : *Bientuu*
- Garazi: *un kk*
- Garazi: *muy corto*
- Maitane: *Como siempre, todo a ultima bora...*
- Ainhoa: *Ze kutzun*
- Nerea: *Ni be ointxe nabil*
- Amaia: *Nik irakurribiditxut 38 orri jeje*
- Amaia: *Noie I3*
- Ekiñe: *Gu de descanso kejeje*
- Maitane: *Animo guapa*
- Amaia: *Ta berez ikusi 40 minutuko bidixo bat baina bueno lo va a ver Rita*

Arrasateko whatsapp (2)

- Amaia: *Zemoduz bizitza eider?*
- Amaia: *Ekiñe ati te ignoro pork mas dau rabia*
- Ekiñe: *Eskerrrik guapa*
- Ekiñe: *Pemtsau 4:30ak harte enazela heltzen residentziara*
- Eider: *Loguriakin*
- Amaia: *you are welcome*
- Ekiñe: *Ta gero ikasibiotela atzalde dana*
- Ekiñe: *Asi se te apsa*
- Maitane: *Apa*
- (...)
- Ekiñe: *Pasa**
- Maitane : *Apsa*

- Eider : *Se me sta bacirndo la semana eterna*
- Amaia: Niik berez asteazkenetan ez daukot klasia
- Eider: *Y eso k ayer ni fui*
- Amaia: Baina nire gelakuak die *unos liantes*
- Amaia : Ni gaur ixa bez
- Eider: Zatzik
- Amaia: Zatzik ze?
- Eider: Daukot azterkera bihaaaaaar

8. ONDORIOAK

Lehenengo eta behin, argi utzi behar dugu gazteen hizkera ez dela bakarra; unean uneko egoerari egokitu behar zaio, gazteek gaitasuna dutela erakutsiz, horregatik, «hizkerez» mintzatzea egokiago da. Bertzaldetik, lagunarteko hizkera ez da behe-mailako klaseek menderatzen duten erregistro bakarra, eta, aldi berean, gazteen hizkerari egozten zaizkion ezaugarri batzuk ez dagozkio bakarrik gazteei, helduegoek ere erabiltzen ditugu.

Bigarrenik, gazteen erregistroaren elementuetako bat kode txandaketa da, nahiz eta ez den bakarrik aldaera diastratiko honetakoa. Egindako hainbat azterketatan oinarrituz, ikusten dugu batere ez markatutako ekintza dela, eta modu naturalean egiten dela. Kodez aldatzea arrunta da elebidunen arteko elkartruke komunikatiboetan. Nahiz eta hizkuntz txandaketak ospe txarra duen, eskoletan zuzentzen baita, gazteen artean asko erabiltzen da; berez, hizketamodua da. Kode txandaketa ez da arbitrarioa, ezta zentzu gabekoa ere, eta hiru tipologia moduak aurkitu ditugu: kode txandaketa enblematikoa, esaldiaren barruko txandaketa eta esaldiaren arteko kode txandaketa.

Gazteak ikusten du kode txandaketa araua balitz bezala, egoeraren arinkeria eta arduragabetasun falta dela eta, egokiago ikusten du erregistro hori erabiltzea. Kodea aldatzen dute zenbait faktoreren arabera, adibidez, landutako gaiaren edo kontu estilistiko edo pragmatikoen arabera. Bistan denez, kanpoko faktoreak (ingurunea, partaideak, hizketagaia), arau sozialak eta bakoitzak hartzen duen rola eragile izaten dira, nahiz eta solaskideak adin berekoak izan eta hizkuntza jakin.

Laburbilduz, euskararen eta gaztelaniaren arteko txandaketa ez da hizkuntzen arteko mailegu iragankorren kontu hutsa, fenomeno sistematikoa baizik, elkarte elebidun gehienetan gertatu ohi den bezala. Gure usteen arabera, kode txandaketak gazte elebidunen arteko «elkartasun» sentimenduak indartzera eramaten ditu haiek.

Azkenik, uste dugu kode txandaketa berezko tresna linguistikoa izan beharko litzatekeela, kolorea ezartzen diona komunikazioari eta baita idatzitako diskurtsoari ere; ikuspegi hau da zehatzagoa hizkuntzaren hondamendiarena baino. Gure datuen arabera, erabilera horren zergatia hitzunen euskarazko gaitasun urria baino sakonagoa izango litzateke. Erran bezala, gazteak kodea eraikitzen ari dira, modu sortzaile eta adierazgarrian eta beren hizkera nortasun horren adierazlea da.

9. BIBLIOGRAFIA

Auer, P. (1998): *Code-Switching in Conversation: Language, Interaction and Identity*. Routledge.

- (1995): «The pragmatics of code-switching. A sequential approach»- *One speaker, two languages: Cross-disciplinary perspectives on code-switching*, 115-135.
- (1998): «Dialect Levelling in the standard varieties in Europa», *Folia Linguistica* 32: 1-12.
- APPEL R. MUYSKEN, P. (1996): *Bilingüismo y contacto de lenguas*, Ariel Lingüística, 1996.
- Aurrekoetxea, G. (2006): «Hizkuntza estandarraren eta dialektoen arteko bateratze joerak», in *Studies in basque and historical linguistics in Memory of R. L. Trask*, Lakarra & Hualde (arg.), 133-161.
- Barreña, A. (1997): «Haur elebidunak eta gramatika-sistemen bereizketa». *Fontes linguae vasconum: Studia et documenta* 75, 173-217. [Eskuragarri hemen (2016/IV/15): file:///C:/Users/PC/Downloads/DialnetHaurAlebiduanakEtaGramatikasis-temenBereizketa-26240%20(I).pdf]
- Epelde, I. & Oyarçabal, B. (2009): «Code Switching en las variedades orientales del vasco». *IKER — UMR 5478 Basque Text and Language Study Center*, Baiona.
- Esnaola, I. (1997): «Gazte euskaldunen lagun arteko hizkera hemen eta orain zertan den ulertzeko zenbait argibide», *Soziolinguistika bat* 24, 63-75. [Erabilgarri hemen (2016/II/3): <http://www.soziolinguistika.eus/files/Imanol%20Esnaola.pdf>]
- Etxebarria, M. (2004) «Español y euskera en contacto: resultados lingüísticos», *RILL*, II, 2 (4) 131-145.
- Ezeizabarrena, M.J. & Aéby, S. (2010): «Les phénomènes de code-switching dans les conversations adulte-enfant(s) en Basque-Espagnol: une approche syntaxique». In Olivieri (ed.). *La Syntaxe de Corpus*. Corpus 9, 53-80. <http://corpus.revues.org/I960?id=I960&file=I>
- Ibarra, O. (2008a): «Apuntes sobre interferencia castellano-vasca en el lenguaje juvenil actual. Léxico, calcos y transferencia lingüística». *Oibenart* 54 23, 219-240. [Erabilgarri hemen (2016/III/28): <http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/literatura/23/232I9240.pdf>]
- (2008b): «Sobre estrategias discursivas del lenguaje de los jóvenes vascoparlantes: aspectos pragmáticos y discursivos (conectores, marcadores)». *ASJU* 51, 395-411. [Erabilgarri hemen: <http://www.ehu.es/ojs/index.php/ASJU/article/viewFile/9805/9233.pdf>]
- (2011a): *Nafar euskaldun gazteen abozko diskurtsoa*. Iruñea: Universidad Pública de Navarra / Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
- (2011b): «Sobre estrategias discursivas de los jóvenes Vascohablantes: causas que motivan al cambio de código». *Oibenart* 26, 277-298. [Erabilgarri hemen (2016/III/29): <http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/literatura/26/26277298.pdf>]
- LANTTO, Hanna (2012): «Code-switching, swearing and slang: The colloquial register of Basque in Greater Bilbao», *International Journal of bilingualism* <http://ijb.sagepub.com/>
- López Morales (1989): *Sociolingüística*, Gredos, Madrid.
- MUÑO A, I. (1997): «Pragmatic functions of code-switching among basque-spanish bilinguals», In: Actas Do I Simposio Internacional sobre o bilingüismo, University of Vigo, 1997, 528-541.
- (2002) «Zergatik eta zertarako erabiltzen ditugu euskara eta gaztelera solasaldi berean?». *Soziolinguistika* 42, 53-63. [Erabilgarri hemen (2016/III/29): <http://www.soziolinguistika.org/es/node/915>]

- Orit Shay (2015): «To switch or not to switch: Code-switching in a multilingual country», *Procedia — Social and Behavioral Sciences* 209, (2015), 462-469.
- Ormaetxea J.L. (2008): «Otxandioko hizkera: adinaren araberako bariazioa», *FLV* 108, 249-262.
- Poplack, S. (1980): «Sometimes I'll start a sentence in Spanish y termino en español: towards a typology of code-switching», *Linguistics* 18 (7-8), 581-618.
- Rotaetxe, K. (1999): «Alternancia de código: uso y restricciones tipológicas». *Fontes Linguae Vasconum* 80, 59-72. [Hemen erabilgarri (2016/III/29): <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=26293>]
- Slobin, D.I. (1997): *Mind, code, and text* in J.Bybee, I., Haiman & S.S. Thomson (Eds) *Essay on Language function and language type*. Dedicated to T. Girón, 437-467 Amsterdam / Philadelphia; John Benjamin.
- Thomason, S. (2001): *Language contact*, Edinburg University Press.
- Weinreich, U. (1974): *Lenguas en contacto: descubrimientos y problemas*, Universidad Central de Venezuela.

EUSKARA (TRA)BATUA

Xabier Euzkitze
Komunikatzailea

Gustura hartu nuen jardunaldi hauetan parte hartzeko gonbidapena, eta asko eskertu, baina egitaraua ikusi nuenean, neure buruari esan nion: «Xabier, nora hoa!» Ikusi bainuen hainbeste jende jakintsuren ondoren azken-azkenean hitz eginik hutsal eta errepikakor gerta nintekeela. Beraz, argi ikusi nuen neure esperientzia pertsonalek behar zutela berbalditxo honen ardatz, neuk bizi izandakoek emango diotela, izatekotan ere, interes punttu bat.

Euskara (tra)batua jarri diot izenburu. Hori baita nire susmoa, euskara batuarekin trabatuta, korapilatuta gabiltzala aspalditxoan. Nik euskara batuarekiko dudan atxikimendua, beste ezeren gainetik, geure amari zor diot. Ama Lurdes, ama... lur. Nik bospasei urte nituela, 70eko hamarkadaren hasieran, artean lehen urratsetan zen euskara batua. Ez zegoen jarraibide finkorik, ez egiturarik. Halere, gure amak, bere motzean, bazuen euskara batu baten beharraren kontzientzia. Horrek bultzaturik, jolas bat proposatu zidan: «Xabier, oñ jolas ein beher deu. Ama Lurdes izen beherrien, Tolosako izeko izengo naiz, eta bixok saixauko gea Tolosako euskeran hitzeitten. Bai?» Zergatik Tolosako euskeran? Gure amak, beste askok bezala, Tolosa aldekoa zuelako euskara garbiaren eredutzat. Egiari zor, Tolosako lagun edo ahaidetik ez geneukan. Zuzenagoa zatekeen «Loiola Herri Irratiko euskeran hitzeingo deu» esatea, baina gure amak Tolosako izeko aipatzen zuen.

- Egun on, Xabier! Zer moduz zaude, aspaldiko?
- Oso ondo, izeko. Eta zu?
- Ondo. Pixka bat zorabiatu egin naiz autobusean, baina zuk baso bat ur ematen badidazu, segituan pasatuko zait.
- Oraintxe emango dizut. Eseri lasai.

Horrelatsuko jolas eta solasak izaten genituen guk, gure sukaldean irrati bidez sartzan ziren esatarien erduei jarraiki: Joxemari Iriondo, Karmelo Otaegi...

Gure amak euskara ederra du. Halere, euskara dotorea inguru zabal guztian neukan nik. Amak ez zidan hizkuntza aldetik aberastasun aipagarrikerik erantsi, euskararen bilakaeran funtsezkoa izan den prozesu batekiko kontzientzia eta atxikimendua baizik. Bejondeizula, amatxo!

EUSKARA BATUA: NON, NOIZ, ZERTARAKO?

Behin ikasle batek esan zidan ni euskara batuarekin identifikatzen ninduela. Alde batetik, harrigarria da. Izan ere, eguneroko bizimoduan nik euskara batuan ez dut sekula hitz egiten. Gaur zuekin euskara batuan ari naiz, jakina. Telebistan hitz egiten dudanean ere batua erabiltzen dut, zazpi euskal herrietarako aritzen bainaiz. Asteroko zutabea idazten dudanean ere batuaren aldeko hautua egiten dut, noski.

Horretaz ez dut inoiz zalantza izpirik izan. Baina hortik aurrera, baldin eta horretara eraman nauen euskaldun berriren batekin-edo ez bada, inoiz ez dut baturik erabiltzen, euskalkietan bizi naiz. Une oro erabili beharreko euskara-moduaren hautua egokia izan dagin, hiru galdera hauei behar bezala erantzun beharra dago: Non? Noiz? Zertarako? Bertsolari batzuen adibideekin azalduko dizuet.

Xalbador. Sekulako txistuak jo zizkioten, jo genizkion. Guk guztiok jo genizkion. Ez omen genuen haren euskara ulertzen. Saiatzen zen ba! Chino Kaliforniara joan zenean Mattinekin, bazekien nagusiki baxenabartarrak aurkituko zituztela, eta bere euskarari aritu zen bertsotan, lasai ederrean. Ez zuen hizkuntzagatik ahalegin gehigarririk egin beharrik izan. Donostiako finalean, aldiz, bazekien ahalegin berezia egin behar zuela. Eta egin zuen, bai horixe! Bukaerako bertso historiko hartan ez zuen esan «zuek uros ez balin bazizte / hobena ez daukat ez nik». Ez, beste molde bat erabili zuen, orduan nagusi zen entzule gipuzkoarrarengana ahal beste hurbildu zen: «zuek ez bazerate kontentu / errua ez daukat ez nik». Eta, halere, egundoko txistuak jo genizkion.

Lopategi eta Azpillaga. Bizkaitarrak ziren, baina gipuzkera batuan egiten zuten bertsotan, orduan Gipuzkoan baitzegoen, orain baino are nabarmenago, bertsoaren erdigunea. Bi Jon haiek beren burua trebatu behar izan zuten horretarako.

Amuritza etorri zen ondoren. Xabierri aitortza egin nahi diot, aipamena eta goraiamena, orduan egin zuen ahalegin ausart eta egokiagatik. 1979/80koa izan zen etenaren osteko lehen txapelketa, eta han batuaren aldeko hautua egin zuen Amuritzak. Estrategikoki erabaki garrantzitsua izan zen.

Iturriagak eta Elortzak beren burua bizkaieraz trebatu behar izan dute, mende-baldeko euskarari, edo sartaldekoan. Lan egin behar izan dute, hasieran ez baitziren horrela abiatu. Maila bikaina lortu dute, eta niri oso egokia iruditzen zait sartaldeko euskararen eremuan dihardutenean horren aldeko hautua egitea.

Denen hautuak ez zaizkit hain egokiak iruditu. Azken txapelketa nagusian saio bat Maulen izan zen. Bertsolari Txapelketa Nagusien historia luzean bigarren saioa zen Zuberoan. Ba Bizkaiko bertsolari batek bizkaieraz kantatu zuen. Zer gertatuko ote zatekeen gai-jartzaileak zubereraz jarri izan balizkio gaiak?

Ni erabat tristatu eta atsekabetu ninduen kasu horrek. Uste dut horixe dela, hain zuzen, eskatzen zaigun komunikatibotasunaren aurkako jarrera. Nik ez dakit horren atzean hausnarketarik badagoen, ez dagoen, gogoeta baten ondorioz iritsi ote den horretara, baina oso jarrera desegokia iruditzen zait. Buffalo Wyoming-eko euskal jai batean gertatutakoa etorri zitzaidan gogora. Saio baten ondoren, Nafarroa Beherean sorturiko gizon bat, han bizi zena, joan zen bertsolariengana, eta esan zien: «izigarri pollita zen, biziki maite 'tut zuen pertsuak. Domaia ez konprenitzea!» Konpreniarazten ez baldin badugu, zertarako balio du?

Zuetarikoren batek ezagutuko zuen agian *Eldu* artzaina. Xaturnino zuen izena, elduarra sortzez, baina urte askoan Zelatunen egon zen artzain. Gizon bitxia, xelebrea. Egun batean, Errezilgo alproja batek esan dio: «hi, Eldu, aspaldiñ eztiu hire txabolan otorduik iñ. Aurtengo udaberriñ arkumen bat akaatu ta in beher diu. Nik eamango zetitt arduak eta pattarrak, hiri gustatze zaizkiken hoittakuak». Esan eta egin. Elduk arkumea akabatu du eta bai otordu bikaina egin ere. Ardoz eta pattarrez gehiegitxo gustita, logaletu da Eldu, eta etzan da ohean. Halako batean, otordua antolatu zuen alprojak erreparatu die Xaturninoren oinei: «ikuste al dittuzue azkazal hoik? Hoik ezittuk kristauantzako mouko azkazalak, moztu in beher zezkau». Bilatu dute horretarako moduko tresnaren bat eta ikusi dituzte aliketa zahar handi batzuk. Harekin alprojak behatz handiko azazkalari heldu dionean, Elduk, artean lo egon arren, sumatu du zerbait, eragin dio hankari atzera eta han gelditu da azazkala, oso-osorik, aliketa-muturrean. Hango odoloa eta desdixta! Gogoan izateko modukoak dira une hartan, minez madarikatzen zegoela, Xaturninok alprojari esan zizkion bi esaldiak: «hi, hi... aman kulpaik gabeko putakume hoi...» lehenbizi. Eta ondoren: «izan dittuan gurasok izan ezpahittu, eskeako zakuik'e ez huan izango!» Ez dut ezagutzen inori miserable deitzeko modu egokiagorik. Elduko euskaran esan zizkion, baina kasik bere horretan ekar daitezke batura: «hi, hi... amaren errurik gabeko putakume hori! Izan dittuan gurasoak izan ez bahitu, eskerako zakurik ere ez huen izango!». Euskara batuak norberak emandako nolakotasun guztiak hartzen ditu: grazia, egokitasuna, adierazkortasuna... Graziarik eta bizitasunik gabeko berbaldi edo testuek ez dute batua bekatu, hau behar bezala baliatzeko gai ez direnen kamustasuna baizik. Gainera, euskalkietatik nahi beste aberats daiteke batua, mugarik gabeko hornikuntza da.

Hornitze horren beste adibide bat jarri nahi dizuet. Patziku Perurena idazle goizuetarraren *Hilen xarma* liburutik hartutako pasarte bat:

Pena gisako batez, umetako artzain egunak gogoan, eta biziaren erdia Neku aldean artzain egina zuen aitona Joakin Benaikoaren lezioak gogoan, neure bidea hartu dut atzera, begi-niniak sasipeko lur soil harrizuan atsegin bila hara eta hona: oi, oinarpeko goroldio berdantza gozoa! Oi, lur azaleko harbeltzen moteltasuna, tartekako hartzurien pantasia, edo hargorri astun ilunen burni usain zaharra! Edo aldian behin ageri diren elorri erregindu soineko xuri puntilladunez jantzitakoen eleganzia fina!

Bi adibide hauek argi erakusten dutela uste dut euskara batua izan daitekeela ederra, aberatsa, graziaduna, bizia... ederki ebakiko duen aizkora.

EUSKALKIAN ASKE

Euskalkiek nahi beste aberastu dezakete batua, bai, baina haiek ere badaukate astindu eder baten premia. Guk, umetan, «eundokue eman tziok» esaten genuen, edo «sekulekuek aitu beher izen ditxiat». Orain ez dago egundokorik, sekulakorik, dena «kristona» da. Sortaldeko euskalkietan ere prozesu bera eman da. Gaitzekoak, alimalakoak... ezkututzen ari dira, dena «kristoina!». Kristok batzen gaitu mugaren bi aldeetako euskaldunak.

Lehengo batean, irratsaio batean entzun nuen euskara batuak, akademia batek sortutako euskarak, ezin dezakeela pretenditu kaleko euskara bezain bizia eta

komunikatiboa izatea. Onartzen dut hausnarketa hori. Ulertzen dut norbaitek bere burua batuan ez sentitzea bere euskalkian bezain grazioso, natural, aske. Baina irratsaio hartan bertan entzun nituen honako beste hauek ere:

- Horrek jodiu ite ziek.
- Horrek ez al hau ponitzen?
- Horrek sudau ite ziek.

Sail bereko beste bat bertsotan bizi izan nuen. Bertsolari gazte batek, orduan behintzat oso gazte zen batek, bukaera hau eman zion zortziko txikiko bertso bati:

Zu, mesedez ez zaitez
nerekin gelditu.

Joxe Agirre «Oranda» neukan ondoan, eta hark esan zidan: «azkenak alde in diyo». Neuk ere horrelako zerbait pentsatu nuen hasieran, baina bertsolari gazteak bukaera horretan jarri zuen indarrak eraman ninduen guk ulertu ez genuen zerbait esan nahi izan zuela pentsatzera. Eta halaxe izan: «tío, no te quedés conmigo» esan nahi zuen. «Ez adarrrik jo», alegia. Gaztelaniaren jabe ez denak ezin dezake ulertu, baina ezta euskaldun naturalak ere. Lehentxeago aipatu ditudan adibide trakets horiek ez ziren Barakaldon entzunak, euskararen arnagune nagusietako batean baizik. Hain baliabide kamutsak dituztenen aizkorak ez du moztuko, ez ebakiko, ezta beheko suaren gainean apaingarrizat jartzeko balioko ere. Ikusten denez, bertso baten azkenak baino zerbait gehiagok alde egin digu.

AHALERAREN EZINA

Oso aipagarria da ahaleraren ezina ere. Ia erabat ezabatu zaigu. «Hori egin ahal dut?» galdetzen digute, ez «egin al dezaket?». Ahaleraren formarik ximpleenak ere ezabatu zaizkigu. «Joan al ninteke?» inork gutxik esaten du, «egin al liteke?» ere bai. Nondik berraberastu daitezke galdutako hizkera-molde horiek? Hainbeste pobretutako euskalkiak nola hornitu behar dira?, nondik? Lehen esan dut, eta mila aldiz entzuten da, euskalkiek aberastu behar dutela batua, baina izan dugun galeraren ondoren, alderantzizko arrazoiketak ere indar bera du. Gaur egun, irakurzaletasunik ez duen gazte batek, edo ereduizko komunikatzaileak, ereduizko hedabideak hautatzen ez dituenak, ez dauka «kristorena» ezagutu eta hautatzea beste biderik. Ez du «sekulako»rik, «egundoko»rik, «gaitzeko»rik, alemaleko»rik erabiliko, ezagutu ere ez baititu egingo. Beraz, euskara batutik aberastu eta horni daitezke galera hori jasan duten hainbat eta hainbat gazte.

TO ETA NO

Bukatzeko, hitanoaren erabilerari buruzko lasaitasun eta zabaltasun gehixeago aldarrikatzeke baliatu nahi dut plaza hau. Lehengoan Pascal Ondarts errugbi jokalaria ohiarekin afaltzen izan nintzen: «zuberotarrak, aitamer to eta no erraiten! Ez diat soportatzen ahal!» esan zuen. Neure baitan pentsatu nuen: «eskerrak gaur ez diren gure seme-alabak etorri!». Niri bi semeek —alabak ez, auskalo zergatik— toka hitz egiten baitidate. Gai horren harira, beste hau entzun nion behin Emil Larreri, Herri

Literatura batzordean kide izan nuen lagun estimatuari: «Amikuztarrak ere toka eta noka mintzo dira burrasoer, baina ez dute errespeturik eskas». Hitanoak izan duen erabilera eta egokitasun galera beldurgarriaren aurrean, gaur egungo erabilera-arauak pixka bat malgutzen hasteko garaia dela uste dut. Ondo erabiltzen dakiten horiei utz diezaiegun eremu zabalxeagoa. Telebistako albistegietan ezin hasiko dira toka-noka, baina zabal ditzagun gainerako esparruak, izan gaitezen zoliagoak.

Nik lagunak zaituztet gaur entzuten zaudetenetariko asko, ezagunak gehienak. Ia denoi toka-noka mintzatzen natzaizue. Jakin ezazue, Leizarragak Jainkoa bezala —zeinak «gure aita, zeruetan haizena» idatzi baitzuen— zuek ere osoki errespetatzen zaituztedala.

INFORMALA = IN FORMOLA? KOLOKIALA = KOLONIALA?

Asisko Urmeneta
Irudigilea

Ez naiz teorizatzailea, baina irudigilea, eta oso manera intuitiboan hurbildu nintzen hizkeraren arlo honetara. Honako solas hau, beraz, nire lanaren ondorioa duzue: jardunak sortu kuestioak, eta horiexei bilaturiko erantzun praktikoak.

Demagun komikilariak asteburuko istorio arrunta kontatu nahi duela: gazte batzuen gaupasa, ondoko osagaiak dituela: bidaia, kontzertua, drogaldia, juntadizo bitxiak, larru kontuak, joka-partida, eta jazarpen poliziala hiriko karrketan barrena.

Gidoia zeratzean, delako komikigileak makina bat buruhauste izanen du testuaren aldetik, izan ere, nola konta hori guztia hizkera sinesgarri eta, halaber, konprenigarri batez? Sinesgarri: manera ez formalaz, gazte edo ukitu argotikoaz. Konprenigarri: edozein irakurlerentzat.

Izan ere, **hizkera formalak** araua nahi izaten du: horra hor txosten, *komendio*, kaguendio, arau, zenbat buru hainbat estilo liburu, nahi adina erregela, eta eredu.

Hizkera ez-formalaz ari garela, ordea, nora jotzen du hiztunak adierazkortasun eske? Euskalkira, onenean. Erdarara, nagusiki.

Zein berezko bekatu dauka, arren, **batuak**, erregistro informalik ez baitu? Kon-denaturik ote gaude bada beti xuxen eta egoki mintzatzeraz? Alta, nori interesatzen zaio *biraorikan* ez duen hizkuntza garbia?

I. DIALEKTOAK

Euskalkietan polikromia ikaragarria dago, Hizkera Nazionalaren aberasgarri. Baina eskualde batean gotorra, bortitza eta gordina dena, ondokoan mendrea, melenga eta ezdeusa suertatzen da.

Edo ez da ezaguna, eta, ondorioz, ez du funtzionatzen.

Edo eta arrunkeria dena jatorriko eskualdean, goi mailako lengoaiatzat har lezaket beste hiztunek, eta geroztik ez dabil.

Egiteko dago euskalki arteko sailkapena edo *bit paradea*: iraingarriagoa da *kafrangea*, *pelenda* baino? Eta *katanesa*, *gatua*, *deslaie*, *bostoila*, edo *urtentzie*, zenbatgarrenean koka ranking horretan? Ele hauek guztiak hitzaldi ondokoetan bildu ditut, modu asistematikoan eta han-hemenka; emakume sexuzalearen eremu semantikoari dagozkio.

Izan ere, euskalkiek berebiziko ekarpena egin liezaiokete hizkera ez-formalari. Kasurako, *gainkatu*, *zikotu*, *sakatu* zein *zankatu*, aisa bortitzagoak dira, *larrua jo* edo *txortan egin* baino. Egokiak beraz gure komikilariarentzat; ordea, ezezagunak izaki haien eskualdeetatik kanpo. Nola pasatu horiek –eta askoz gehiago– Nazionalera?

Eta erramoldeak sailkatu ondotik promozioa egin behar da: bonbardaketa hedabideetan, adibidez. Ez teleberrietan, jakina, ez eta *Argiaren* azalean, baina gazteen-tzako saioetan, irratian, telebistan, prentsa berezitan... Sozializatu, azken batean, erabiliaren erabiliz.

2. ERDARA

Erdaretara jo ohi dugu, bereziki gure mintzoaren zati espresiboetan:

Eta zain geundela, viene el hijoputa y se cuela por todo el morro! Eta jendea hantxe, a joderse!

Erran gabea, batzuek espainierara eta bertzeek frantsesera (amerikarrek ingelesera). Bordel honek ere ez du errazten, beraz, euskaldunen arteko komunikazioa, baina bai gero eta zailagoa egiten elkarrekilako gurutzamendua.

Gaur egun, ordea, euskara ez-formala/gaztea = erdara formula eguneroko adibide daukagu mass medietan, ustezko umore plusaz. *Ni ez naiz pijo*, edo eta *Ez pajillarik egin* ez-formal horiek ez dute aduana pasatzen, ez lexikoa eta ez eta fonetiko ere.

Interferentzia, alabaina, ez da gaurko fenomeno. Ikus dezagun kasu pare.

«Ez da potrorik hain domestika ez daikeenik, nola emazteki altiba». J. Lizarraga. Hibridazio abantzatu xamarra: lexikotik syntaxira iragan baita erdal erdua.

Joakin Lizarragak hizkuntzaren endekatzea ikertzeko sermonario nasaia utzi digu: 3.000 orri interferentzietz josirik: *etxaperro* = «etxeko txakurra», edo *Notizia formidablea portzierto* hark gogora ekartzen digu bertze apez haren predikua:

Begire zazie mihise pintatu batean daudela soldado asko alde batetik eta bestetik gerra emateko; ikusiko tuzie zaldia nahi dutela saltatu besteen kontra, soldadoek harturik beren lantzak badirudite nahi tuztela batak besteak atrabesatu; beste batzuek daude beren eskopeteki puntarie egiten ja deskargatzeko; eta bihurtzen bazara handik urte batera edo nahi duzunean, eta begiretu mihise hure ikusiko dituzu postura hartan bertan, eta ez dutela daus egin: Es que da pintura bat.

Martin Jose Markotegik 1777.ean.

Erronkariko koplak. Hemen ere zati adierazkorrenak erdara hutsez dira; hurrengo mendean ordezpena erabatekoa izanen da *Ibaxan*:

Joxepantoni esdeusa
heldu dun hire bortalat;
Mekaguen tu descendencia,
Grandisima descarada!

Soziolinguistek errana: kontaktuan diren hizkuntza diferenteen arteko harremana luzatuz gero:

1. Iraun egiten dute elkarren ondoan: muga sanitarioaren kontzeptua, **Flandria-Valonietan**. Indar korrelazio orekatua eman behar da horretarako.
2. Hizkuntzak nahasirik, bertze bat berria sortzen da: pidgina, kreolera. Egoera postkolonial zenbaitzuetan, hizkuntza nazionalaren estatusa ematen zaio *tertium quid* horri. Tok pisin lehenetsi dute Papuan, bertako hiri moturen eta kolonia aroko ingelesaren hibridazioa.
3. Gotorrak ordeztu egiten du ahula. Japonierak ainuera, konparazio batera.

Gureko mestizajea 2. puntuari baino, 3.ari dagokio, norabide bakarrekoa izan ohi baita: erdarak euskara.

Salbuespenak:

- a) Idiolekto abertzalea: «Los burus de herrialde harán la biyera en la guela chiqui». Esparru militantea jatorrian, gero eta hedatuago zaigu irakaskuntzaren ingurumarietan.
- b) Mailegu inkisitorial-polizialak: *ezkerra, akelarre, zulo, talde, kale borroka, herriko taberna...*

Bi kasutan interferentzia lexikoa baizik ez da, syntaxira iragan gabe.

Gure hizkera informal ahulak, horrenbertzez, ordezenaren ate zabala irekitzen die corpus argotiko gotordun diren ondoko erdara normalduei.

Har dezagun *txorrada* hitza, edo metafora. Hegotarron artean unibertatsala da. Mutilen sexu atala du erreferentzia, «garrantzirik ez duena» edo, definitzeko. Irudi beretik, hau da, zakiletik sorturiko *pitokeria* dugu guk hobetsi, franko ezaguna eta erabilia Iparraldean, ulermenaren aldetik mugarik planteatzen ez baitu.

Baina indar bera daukate *txorradak* eta *pitokeriak*? Erabilerak ditu eleak markatzen, eta izan ere, gaur egun eskualde luze-zabal batean *pitokeria* dute *number one*, bigarrena *connerie* delarik. Eta, inondikoak ere, nesken sexuari egiten dio omen kasu honetan erdarak. Erreferentziak erreferentzia, edozein hitzek har dezake plus jakin bat, egoki promozionatuz gero. Eta *pitokeriak* bete lezake euskaldunon artean eta maila ez-formalaz komunikatzeko dugun gabezia, *txorrada* edo *konneriaren* aitzinetik.

Itzultzaile, irakasle, musikari, antzerkigile, animatzaile, begirale, komikilari bertsolari edo idazle euskalduna galdurik dabil hizkera kolokialaren eskasean. Ez bada, betiere, maila dialektalaz, edo erdaraz.

Nola itzuli publizitateak baliatzen duen amu sasiargotikoa, gazte jendeak biltze aldera? Nola eman batuaz *móntatelo guapo con tu peña* edo ordezkorik? Nafarroako Gobernuak kanpaina abiatu du; leloa *el polvo es cosa de dos*. Arreta erakarri du etxeko lanak partekatzearen aldeko kanpaina ofizial honek. Euskaraz nola emanen, eta horra erregistro informalaren eredu faltaren paradigma: *hautsa biren arteko afera da*. Erdarazko hitz joko probokatzailea **zendu** egin da.

Kaleko erdaraz inork ez du *trabajo/travail* erraten, baina *curro/boulot* (*laburo, tajo, taf, mina...*). Eta gureaz?

Eskatologian, bertze alde, maila infantilean gara oirandik. **Pixa** eta **kaka**. Konpara auzo erdarekin...

Beharbada ez genuke gure burua konparatu behar. Akort; baina afera da euskaldunok erdalduen ere bagarela, eta hizkuntza aldizkatzeak erregistro aldaketa eragiten

badigu halaberrez, hor zerbait ez dabil fin. Eta zenbaitzuok informaltasuna maite...

3. BATUA

Euskaraz, ordea, batuak maila bakarra garatu du, eta horixe hizkera administratibo monokordea, Altuberren paranoiez adelaturik. Batuaz ari garela, maila beraz ari-tzen dira apezpikua eta ondoko gaztetxeko okupa.

Tximeletak hamaika izen omen ditu euskaraz. Baina ez dakigu *a saco, chutarse, fli-par, bua chaval, de puta madre, du coup, colocarse, cutre, forrarse, channé, pringao, a toda hostia, chelou, no me rayes...* erraten. Aski adierazgarria izan zait Gasteizko lehiaketa batean aurkeztu den ipuina; kontaketa euskara korrektoaz doa, parranda solas, harik eta sujeta komu-netan giltzatu den arte, eta barne bidaian airatu. Hortik aurrera, festagilearen baka-rrizketa erdaraz da. Errekurtso falta? Errealitatearen isla? Bietatik?

Batua pizkolatu, lardaskatu, mailakatu, adierazkortasunez markatu, plus gaztea edo argotikoa emateko; **metafora berriak asmatzea** ere, zilegi. Erran gabea. Guharen sen, umore eta inguruaren arabera.

Lizarragaren bidez badakigu, adibidez, bere garaian hasi zela **mozkortu** metafora baliatzen, modu informalez hasieran, baina denboraren indarrez bere baliokide semantikoak ordeztu arte: «Orai erraten da hordiatatik **mozkorturik**, ta guzia heldu da ongi, ezi nola burua kentzea arbola bati deitzen baita mozkortzea, hala hordia da mozkor bururik gabe».

Azkue handiak material ordainezina biltzen omen zuen zahar etxeetan, azken agure eta atsoei galdekaturik; hori bezain premiazkoa dugu gazte jendea gaur egun asmatzen ari den ondarea bildu, sailkatu, eta promozionatzea. **Promoa** bertze behin ere.

Zenbaitzuetan lokuzio jatorrak fosildu egin dira; bertze zenbaitzuetan metafora sortu zuen irudia ahantzi egin da, eta lokuzioa indargetu: *kanpaia jo* edo *erruberan egin*. Nola jotzen ziren kanpaiak lehen? Zer da *errubera*?

Informala zena, *in formol* bilaka liteke urteen itzulian. Zorionez, gazteek berriak asmatu dituzte: besteak beste, *mousea klikatu* neskendako, *Santa Ageda jo* edo *dadotan aritu* mutilendako.

Batzuetan, erramoldea berak eboluzionatzen du irudiarekin batera: *idiarena* jotzen zuten lehengoek, eta *irina* oraingoek.

Komikilari dohakabeari lana erraztu nahiz, Zazpiak Batman kolektiboa eratu genuen garai batean Kike Amonarriz eta Antton Olariagarekin batera. Lokuzio ez-formalen zerrenda osatu genuen, honako jomuga hauekin:

Hizkeraren mailakatzea: Guk *afrusa* proposatzen dugu *horteraren* orde. Interneten, itzultzaileek daukaten foroan norbaitek ekarri zuen gure proposamena. Hango kritikak eta espantuak, nork asmatua ote zen eta horrelako. Hizkuntzaren elitea osatzen duten itzultzaileen artean, inortxok ere ez bide zekien *afrusa* arras hitz normaldua dela Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan, aldaera guztiekin: *afruski, afruskeria, afrustu...* Belarrira perkutatzen du poliki, eta promozio egoki baten bidez hizkera nazionalera pasa liteke arazo handirik gabe.

Hori bai: hala suertaturik gero ere, ez nuke hiztegian zera ikusi nahi: *afrus* = *itsusi* = *zatar*. Ez, afrusaren lekua hizkera ez-formalean dukegu, inondik ere ez da *itsusiren* sinonimo laua.

Oharra: eta bai, *afrrusa* erdararen mailegua duzu, noizbait hartua eta egokitua auzoko *affreux*etik. *Modema*, *polita* edota *sauna* bezalaxe, ingelesetik, latinetik eta suomieratik hurrenez hurren.

Bizkaierazko *ugerdok* har lezake *cutre*-ren erranahia? Zubererazko (erdararik lehen) *pergutada* izan liteke *marrón* edo *pringada*-ren baliokide?

A toda hostia eklipsa dezakete *zalu-puta* Lapurdikoak, *fulespidien* Bizkaikoak, *furrindeka* Nafarroakoak?

Euskararekin harremana aldatzea: ostatua berritzen ari dira, eta kanpoaldean oharrak dio, ele biz: *Mutatzen ari gaitunk, barka...* Biharamunerako, eskutxo piados batek zuzendu du: «Ez da horrela esaten». Hizkuntzaren egoera ez normalak gu ere anormaltzen gaitu ala? Munduko zein kórnerretan zuzentzen da tabernako oharra? Noiz emanen diogu eutanasia barnean daramagun filologo tristeari?

Unibertsitatean, albistegian, ikastolan, Akademian... hizkuntza zuzena behar dugu, prefosta. Kalean ez, barran ez, ohean ez! Josteta itzuli nahi diogu solasari. *Liber-titu liber*-etik heldu omen da, *libertatea* bezala. Elizanburu apaiz integristak erran bezala: «Eskuara hain zalhua da non erran baititake iduri duela alimalexka pullit bizkarrean hezurrik ez duten batzueri, ZOINAK DOBLA, PLEGA BAITITAZKE NAHI BEZALA, ETA ITZULARAZ NORAT NAHI».

Bidenabar: *mutatu* Axularrek baliatzen zuen («... camaleona beçain batetan mutha...»), *in Gero*), eta *kornerrak* Leizarragak («... lurraren lau cornerretan...»), *in Testament Berria*).

Eta aitzineko bi puntuekin bat, metafora berriak sortu egin ditugu, euskararen plastikotasunaren adibide: nornahik asma baititzake bereak, bere barne unibertsoaren eta lagunarteko umorearen arabera. Eta asmatzekoak direnek iraungiko ahal dituzte gureak!

4. AZKENTA

Lehen baziren baina ezin idatz. «En nuestro Uskara hay maldiciones de muerte, y otros males que por ser tan horrorosos no me atrevo a poner», Mendigatxak. «Hay otra expresión más grosera que es tabú», Toribio Etxeberriak. Orain, oster, idatzi nahi eta lanak. Azkuek kantu herrikoi batzuk goitik behera kanbiatu, berba origina-lei «kiratsa zeriela».

Erabilerak du markatzen berba edo metafora, giro jakin batean. Eleak berak ez baitu deus ere transmititzen. Konbentzio kultural hutsa da. Humanoaren mugaren marka. Zernahi sar daiteke euskararen baitan, mintzakideok hala akordatzen badugu. Eta edozein marka eman diezaiokegu, erabileraren indarrez. *Telebista* arras hitz berria da, eta promozio egokiaren ondorioz, guztiz normaldua gaurgero.

Gaske hizkerak loratzen utzi behar ditugu, LIBERTituz eta JOLAS-tuz. Hori bai: arauak ezagutu egin behar dira, horixe baietz... gero arau horiek beroriek transgreditzeko.

Eta eskakizun bat Akademiari: hagina sar diezaiola ahozko batuari. Eskualde batean *r*-a desagertzen ari baita adinean beherera joanez, eta gibeletik doazkio *n*-a eta *d*-a, nabarmen.

Beste eskualdean *ll*-a da iraungitzen ari gazteen artean, *y*-ak ordezturik. Eta *j* zintzurkekoak prestigio sozialeko marka dauka. Botere kontua, prefosta: erdara bakoitzak ezartzen baitu bere ereduak berak menderatzen duen lurraldean.

Baina ez da beranduegi: Euskaltzaindiak pautu markatzen baldin badu, atzetik joanen gatzazkio koloniotako komikilari, irakasle, esatari, itzultzaile eta beste eskerdun guztiok, karrika-dantza informalean.

